



Iturria: *Aita Gaspar Asteteren ikasbide kristinaukorraren azalduera laburrak*,
Andres Iturzaeta eta Egia. Roberto Soloaga, 1899.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/I/IturzaetaAzalduerak.htm>

IKASBIDE KRISTINAUKORRAREN AZALDUERA LABURRAK

Andres Iturzaeta

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**AITA GASPAR ASTETEREN
IKASBIDE KRISTINAUKORRAREN
AZALDUERA LABURRAK**

ON ANDRES ITURZAETA ETA EGIA
OTXANDIANOKO ARIMAZAINAK,
EUSKARAZ IMINIAK

URTETEN DABE ARGITARA,
BEAR DEN LEGEZ.

DURANGON,
ROBERTO SOLOAGA-EREN MOLDIZTEGIAN, ARTEKALLIAN
24.
1899

JAUBETASUNA DAUKA



BERBA BI NIRE ANAIA EUSKALDUNAI

Da egia bat, guztiok ondo ezagututen doguna, gizaldi onetan ezin-geiagokoak eta bildurgarriak dirala, arimen betiko arerio infernukoak egiten dituzan aleginak, Jesusen artaldi maitean nasaikeria eta bidegabetasuna sartu eragiteko. Nok ez dakiz, bazter, leku eta inguru guztietan gaurko egunean entzuten diran berbeta deabruzkoak, eta ikusten diran egikera nasai eta dongak? Eta au guzti au, zetarako egiten dau demoninoak gure euskal-errietan bere? Jaungoikoaren ezaupera egiazkoa galdu daiten gure artian; Jesuseganako maitetasun sutsua otzitu daiten euskaldunen bihotzetan; gure antxinako siniste santua urrindu daiten gugandik. Dirudi, infernuak zabaldu dituzala bere ao baltz guztiak, eta bota dituzala bere amorru deabruzkoak euskaldunen gañera bere, beste enparau lekuetan egin izan daben legez. Ez dot uste, aurkituten dala iñor gure artian, egia negargarritzko au ez dakianik: etxadietan, auzotegietan, errietan, urietan, batzarretan, edonun, guztiz zabal eta ugari dabilz irakatsi txarrak.

Zer da bada, aldi negargarritzko onetan egin bear dana? Aa, baldin Jesus Jaunaren arerioak burrukarako ain indartsu eta ain gogor agertuten diranean, gu egoten bagara, ezer egin бага, lotan dagozan zaintzallak legez; baldin *koba-zuluetatik urteniko basaurdeak*, Jesukristoren artaldi maitea ito eta iruntsiteko, prest eta gertu aurkituten diranean, guk, txakur mutuak legez, ez badaukagu aorik ausi edo zaunka egiteko; zer jazoko da gure artian? Guztioen galdumendi betikoa. Alako zoritxar betikoan ikusi ez gaitzan, eta neure gogoan ondo arturik, Jesus gure Salbagillearen Eleiza egiazkoak ainbeste gogortasunegaz iminten deuskun *eginbear ain estua eta ain astuna*, azartuten naz argitara emotera Aita Astete-eren Ikasbide Kristinaukorraren azalduera laburrak, guk gure amaren bularragaz batera irunsi genduan euskerazko izketa gozo eta ederrean. Dinot: eginbear ain estua eta ain astuna: bada alakoa da, Jaungoikoaren berba santua adierazoteko eta gure eleiztar guztiai bearreko irakatsi onak emoteko daukaguna. Deritzat guztiz mesedegarria eta oneragarria izango dala Arimazaintzat eta Elizgizonentzat, eta ez gitxiago eleiztar euskaldun guztientzat, Apezpiko edo Obispo Jaunak diñoan legez, nire eskuetatik urteten daben lan labor eta euskerazko au. Gizona berez da argala eta erkiña; gizonak ezin egin leike, bere indarren gañetik dagoan gauzarik; eta orregaitik ondo ezagututen dot ez dala osoro ona eta utsune bagakoa, nik

borondaterik onenagaz argitaratuten dodan liburu au. Nik gura neunkeana da, liburu au irakurten daben guztiak, atera dagiela euren arimentzat onera edo mesede dontsu bat. Onegaz geratuko nintzateke pozik eta atseginez beterik, eta onegaz geratuko litzatekez geiegian eta larregian sariturik eta ordaiñdurik nire buruauste eta alegin guztiak.

Onenbestegaz agur gozo bat bialduten deusuet, nire anaia euskaldun maiteak, eta denpora berean eskatuten deusuet, Jesusen Biotz ezti-tsua bitarteko dala, gomutau zaitezela nire arimeagaz, ni zuenakaz beti gomutauko nazan legez.

A. Iturzaeta-koa



IKASBIDE KRISTINAUKORRAREN AZALDUERA

Lenengo irakatsia: Kristinauaren izenaren ganean

Itanduten dot: Kristinaua zara?

Erantzuten dot: Bai; Jaungoikoaren graziagaz.

AZALDUERA

Zergaitik esaten dozu bai, Jaungoikoaren graziagaz? Ez nazalako neure irabaziakgaitik, ez neure gurasoenakgaitik, ezpada grazia utsagaitik eta Jaungoikoaren errukitasunagaitik.

Andia da kristinauaren duintasuna? Lurreko duintasun guztietatik andiena.

Zergaitik? Zergaitik egiten gaituzan Jaungoikoaren seme, Jesukristoren anaia, Espiritu Santuaren eleiza bizi eta zorientasuneko erreñu betikoaren jaubegei.

Ze eskubide emoten deusku kristinau izateak? Bein garbituak eta barriro jaiok gu izan ezker bautismo santuan, daukagu eskubidea: 1. artuteko, euren denporan, Sakramentu guztiak; 2. Eleizako on arimako guztietan eta fededun guztien egite onetan alde eukiteko, eta 3. irauten badogu geure eginbear eta zereginen betetasunean, biziteko zeruan betikotasun guztian.

Zer ikasi bear dogu, esan danetik? Kristinauen duintasun andi eta eregia gauza guztien ganetik maitetu eta askotan eukiten.

JAZOERA

Eleiza bateko atean batuten zan limosnea, Eleiza barri bat egiteko asmuagaz. Erriko emakume premiñadun batek emoten dau amar errialeko bat, zein zan, berak aukan diru guztia. erri atako arimazain edo abade, bera ondo ezagututen ebanak, dirautso:— Emakume premiñaduna! artu egizu diru ori, bada zuk orren premiña eta bear geiago daukazu.— Orduan emakumeak, sinistez eta arrotasun santuz beterik, erantzun

eutsan: Ni premiñaduna! bada zer! ez al naz kristinaua, eta, beraugaitik, errege andi baten alabea eta erreñu andi baten jaubegeia?

Irakatsi 2.a: Kristinauaren eginbearrak

Zer esan gura dau kristinauak? Kristoren gizona. Zer adietan dozu Kristoren gizonagaz? Jesukristoren fede edo sinistea daukana, zein artu eban Bateoan, eta bera serbietako eskiririk dagoana.

AZALDUERA

Zer izan bear dau kristinauak? Kristori guztiz eta osoro eskiririk dagoan gizon bat, Jesukristoren espirituagaz azkorturik eta indarturik dagoana, bere banderapean izentaurik dagoana, Kristoren arerioai jarki eta burrukan egiteko, Bateo santuan berba emon eban legez.

Au onelan dala, zelako eginbearrak edo zereginak daukaz kristinauak? Kristoren gudari edo soldado on bat legez euki bear dau sinistea Jesukristogan, sinisturik, berak agertu eta irakatsi deuskun guztia, eta irau-nik bere agindupen, bete eta gordetan dituzala bere aginduak.

Sinistuten ez dabena, baña aginduak bete eta gordetan dituzana, da kristinaua? Ez: zergaitik ez daukan Jesukristoren sinisterik.

Eta sinistuten dabena, eta sinisturiko gauzak egiten ez dituzana? Ez da kristinau ona, bete eta gordetan ez dituzalako Jesukristoren aginduak.

Ze irakatsi atera bear dogu emendik? Izan bear gareala zuzenak geu geugan, geure sinisteagaz bat egiten doguzala geure egikera eta bizierak; edo bardin dan legez, ez dala asko eta naiko sinistea, egiteak бага, protestanteak gura dabeen legez; eta ez dirala asko eta naikoak egiteak, sinistea бага, donga eta txarrak esaten daben legez.

JAZOERA

San Pakomio zan jentila eta gudari edo soldaduen agintaria; gozez eta ibiltez degaiturik eta nekatutik joazan aldi baten, elzu ziran kristinauen erri batera, eta ozta sartuten dira erri atara, noz bertakoak bereala asiten diran, eurai, bear eben laguntasuna, emotera; ikusirik San Pakomiok kari-dade au, itandu eban: zelako jentea zan, ondo egiteko, ain makurturik eta etzunik egoan a,— eta erantzun eutsen:— zirala kristinauak. Eta zer da kristinaua?— barriro itandu eban, eta erantzun eutsen: kristinaua da



Jaungoiko bakar baten adoratzalea, Jesukristoren irakaslea, iñori gatzik ez egiteko, eta bai al daben on guztia egiteko, eskinirik dagoana.— Onegaz biurtu zan, gizonak onak egiten dituzan Jesusen erreljione santura, eta elzu zan santu izatera.

Irakatsi 3.a:

Kristinauaren ezaugarri edo señailea

Zein da kristinauaren señailea? Kurutze Santua. Zergaitik? Zergaitik dan Kristo kurutzean josiyaen irudia, zeñetan erosi ginduzan. Zenbat modutan egiten dau kristinauak señaile ori? Modu bitan. Zeintzuk dira? Zeñatutea eta Aitearen egitea. Zer da zeñatutea? Eskumako erpuuagaz iru kurutze egitea: lenengoa bekokian, bigarrena aoan, eta irugarrena bularrean, Jaungoikoagaz berba egiten dogula. Zergaitik zeñatuten zara bekokian? Jaungoikoak librau gagizan pensamentu gaiztoetatik. Zergaitik aoan? Jaungoikoak librau gagizan berba gaiztoetatik. Zergaitik bularrean? Jaungoikoak librau gagizan egite eta gurari gaiztoetatik. Zer da Aitearen egitea? Eskumako atz biyakaz kurutze bat egitea, bekokitik bularra eta ezkerreko sorbaldatik eskumakora, Iru-batasun edo Trinitate guztiz Santuari gagokazala.

AZALDUERA

Zeintzuk dira Kurutze Santuaren eregitasunak? Batezbere dira iru: 1. Da ezaugarri bat, kristinauerria beste enperau guztiakgandik desbardindu eta ondo ezagutu eragiten dabena: 2. Da Jesus kurutzean josiyaen irudi bat, bere amodio andia eta beraganako gure eginbearrak gogoratu eragiten deuskuzana. 3. Da gure sinistearen adierazoera labor bat; autortuten dogula bere bitartez Jaungoikoaren batasuna, edo Jaungoiko bakar bat dagoala, esaten dogunean *izenean* eta *ez izenetan*: Personen irutasuna, edo iru Persona dirala, iru Persona Jaungoikozkoak aitatuten doguzanean: eta Kurutzean egin zan gure erostea.

Zer atera bear dogu emendik? Zoriontasun anditzat euki bear dogula Kurutze Santua, eta ez gareala iñoz lotsatu bear beragaz, dongak egiten dabeen legez.

JAZOEREA

Lotsatu zan bat *Kurutze Santuaren...* egiten beste batzuen aurrean. Ikusirik beste an egoan batek lotsatu zala, gauza ain on bat egiten, siniste eta zelo andiz beterik, agiraka egin eutsan, zirautsala: Zelan! Jesukristo ez zan lotsatu Kurutze baten ilten, gu erostearren, eta i lotsatuten az eure ganean egiten geure erostearren ezaugarri eregi eta goratua?

Irakatsi 4.a:

Kurutze Santuaren indarrak

Noz egin bear dogu Kurutze ori? Egite onen bat asten dogun guztian, premiña, tentaziñoie edo bidaune dongetan aurkituten gareanean; batezbere oetik jagieran, etxetik urteieran, Eleizan sartzeran, jatorduan eta oera etzieran. Zergaitik ain sarri? Zergaitik beti eta leku guztietan darraikuzan geure arerioak, gu goitu eta galtzeko asmoz. Ze arerio dira orrek? Demoninoa, mundua eta aragia. Beraz arerio orreek goituteko, Kurutzeak indarra dauko? Bai, Jauna. Nundik jatorko Kurutzeari indar ori? Kristok bere eriotzeagaz antxe goitu zituzalako. Kurutzea adoretan dozunean, zelan esaten dozu? Adoretan eta bedeinkatuten zaituguz, Kristo, zerren Kurutze Santuagaz librau zenduan mundua.

AZALDUERA

Esan al daikedazuz Kurutze Santuaren indarren batzuk? Bai, Jauna: 1. Da demoninoaren kontrako arma altsu eta sendo bat. Alan San Antoniok, Kurutze Santuagaz sendaturik, burrukarako aurrerabidea emoten eutsan demoninoari, zirautsala: «Kurutzearen ezaugarria eta Jaungoikoaganako itxaropena dok, ire indar guztiai eutsiko jeutsen orma lodi sendo bat».

2. Da bizitzako estutasun eta larritasun guztietarako pozgarri andi bat. Zazpi urteko mutiltxu batek iragoten eban geisotasun andi bat, min guztiz ikaragarritzkoak emoten eutsazana: bere samintasun eta neken erdian ikusten eben, sarri artuten ebala Kurutze Santua bere eskuetan, eta onerazpen andiagaz mun gozo asko egiten eutsazala; eta berari itandurik zergaitik mun egiten eutsan ainbeste bidar, mutiltxu onak erantzun eban: «Berak lagundu eta poztuten nau».



3. Da liburu zabalduko bat, zeñetan irakurri eta ikasi leitekezan egirik andienak eta onoidaderik miragarrienak. Kristinau guztiz on batek geiago ezagutu eta maitetu gura eban Jaungoikoa, eta orretarako joan zan itundutera Jesus Kurutzean josiagaz, eta Onek erantzun eutsan: «Ni izango naz zure liburua».

Zelan onretan sau Elizeak Kurutze Santua? Ezingeagoan: Iminten dituz Kurutze Santu Egiatzkoaren erlikiak lekuri eregienean, emoten deutse kulturik andiena Sakramentu guztiz Santuaren urrengo; balieta da Kurutzearen ezaugarriagaz bere benedizinoe guztietan, Sakramentuak emoten dituzanean, eta beragaz asi eta amaituten dituz bere erreku guztiak.

Zer ikasi bear dogu, esan danetik? kurutze Santuari onerazpen, zaletasun eta amodio andi bat eukiten, eroaten dogula esegirik geure bularran, iminten dogula geure bizilekuan, geure oeburuan, zuzenduten gareala beragana premiña, esetsi, estutasun, galbide eta arrisku gustietan.

JAZOEREA

Arako Kurutze Santua, zeñetan il zan gure Salbagille Jaungoikozkoa, eskutaua izan zan jentilakgaitik, lurpetu izan ebela Jesusen obi edo sepulturearen ondoan, eta gero, bere gomutea aaztua izan zeiten, zamarrez eta lur-ondarrez bete eben leku a, eta bertan jaso eta eregi eutsen Eliza bat, Venus eritxon jaungoiko guzurrezkoari: andik irureun urtera aurkitu eban Santa Elenak, Konstantino agintariaren ama zanak, Jesusen Kurutzea lapurren Kurutze biyakaz batera, eta ondo ezagutu eta jakiteko, iru Kurutze aretatik zein zan Jesusena, San Makario, Jerusalem Obispoaren aginduz, imini jakozan gañean iru Kurutzeak emakume il bateri, zein bereala biztu zan, Jesusen Kurutzeak ukutu eutsanean. Seigarren gizaldian jausi zan Jesusen Kurutzea persiarren eskuetan, eta andik amabost urtera beragandu eban Heraklio agintariak.

Irakatsi 5.a: Ikasbide kristinauaren zatituera

Ikusi dogu, kristinau zareana Jaungoikoaren eta Kristo gure Jaunaren graziagaz; esan egidazu bada orain. Zenbat gauza jakin bear dituz kristinauak, adinera edo ezaguerara elduten danean? Lau gauza. Zeintzuk dira? Zer sinistu, zer eskatu, zer egin eta zer artu bear daben, jakitea. Zelan jakingo dau zer sinistu bear daben? Jakinagaz Kredoa edo

Artikulu fedekoak. Zelan jakingo dau zer eskatu bear daben? Jakinagaz Aita gurea eta Eleizaren beste errekuak. Zelan jakingo dau zer egin bear daben? Jakinagaz Jaungoikoaren legeko eta Elizako aginduak edo mandamentuak, eta errukizko eginak edo obra miseriakordiazkoak. Zelan jakingo dau zer artu bear daben? jakinagaz Eleiza Ama Santearen Sakramentuak.

AZALDUEREA

Au onelan dala, badago eginbearrik, Ikasbide Kristinau jakiteko? Bai, Jauna: jakin, aditu eta ezagutu bear dau bakotzak bere alizate eta ezauperearen neurrian.

Eta nortzuk irakatsi bear dabe? Gurasoak euren seme-alabai, arimazainak euren elizatarrai, maisuak euren ikaslai, ugazaba eta etxeoandrak euren mendeko eta otseinai; eta alan egiten ez badabe egiten dabe pekatu ilkor eta astuna.

Zelako arriskuan iminten dira, Ikasbide Kristinau ez dakienak? Euren arimak betiko galduteko arrisku andian, ez baldin badakiez gauza bearbearrekoak; pekatu asko egiteko eta euren eginbearrak ez betetako arrisku urrekoan, ez baldin badakiez, agindurik dagozan gauzak; eta bide txarrean biziteko eta sinistea galduteko arriskuan, ez badauke ezaupera argi eta bearreko bat erreljinoaren ganean.

Zer atera bear dogu emendik? Egin bear doguzala alegin guztiki ikasteko Ikasbide kristinau, egunetik egunera geiago eta obetoago eza-gututeko, beteko badoguz geure eginbearrak, eta bizi gura ez bagara bide txarrean.

JAZOEREA

Bein baten aurkitu ziran batera gazte bi, bata zan kristinau, eta bes-tea donga eta txarra; onek esan eutsan, euki gura bazituzan beragaz bai-yetzak eta ezetzak erreljinoaren ganean; kristinauak erantzun eutsan bai-yetz, baña zerzeridade bategaz. Zein da? itandu eutsan donga eta txarrak. Gauza baten ganean baiyetzak eta ezetzak eukiteko, noraezekoa eta bearrrekoa da, gauza ori ezagututea, eta alan lenago adierazo bear daustazu, zuk ezagututen dozula erreljinoa, beintzat dakizula katezismoa edo sinistamenen liburua.— Ez dot denporarik galduten, erantzun eutsan donga eta txarrak, liburu orreek irakurten.— Gitxienez jakingo dozuz Kredoa eta aginduak.— Nozbait banekizan, baña onezkero aazturik daukadaz.— Bada ezagututen ez baldin badituzuz erreljioneko gauzarik errazenak bere, zelan daukazu azarkeria, baiyetzak eta ezetzak eukiteko, ez dakizun gauza baten ganean?



IKASBIDE KRISTINAUAREN LENENGO ZATIYA

Irakatsi lenengoa: Siniste edo fedearen ganean guztieran

Zer da siniste edo fedea? Ikusi ez doguna sinistutea. Zergaitik sinistuten dozu? Zergaitik Jaungoikoak alan agertu deusan Eleiza Ama Santeari, eta onek alan derakuskun.

AZALDUEREA

Zenbat modutakoa da fedea? Jaungoikozkoa eta gizonkorra.

Zer da fede jaungoikozkoa? Da onoidade edo birtute izatearen gañetiko bat, Jaungoikoak agerturiko gauzak, eta Eleizeak guri irakasten deuskuzanak, sinistutera, gu aurreratu eta markatuten gaituzana.

Zergaitik esaten dozu dala onoidade izatearen gañetikoa? Zergaitik fedea da zeruko doe bat, Jaungoikoak emoten daben onoidade bat, eta ez errazoiaren ezaupera ziur bat, askori begitanduten jaken legez.

Zein da gure fedearen oiñ sendo eta azpiratua ezin izan leitekeana? Jaungoikoaren egitasuna; zein, azkenbaga jakituna legez, ezin engañau ginaikezan.

Errazoezkoa eta erakoa da fedea? Bai; zergaitik, errazoezkoa eta gauza zurra bada, engañau leitekean eta engañau ginaikezan gizonaren lekukotasunai eta esanai, sinistea emotea; errazoezkoagoa eta gauza zurragoa izango da, engañau ezin ginaikezan Jaungoikoaren lekukotasunari eta esanai, sinistea emotea.

Egon leiteke jarkierarik edo kontraerarik fedearen eta errazoiaren artian? Ez: dira argi-errañu bi, Jaungoikoa dan argitasun betikoagandik, datozenak. Errazoezkoak edo berezkoa da Jaungoikoak emoten deuskun argitasun bat, zuzenera berezkoaren barruan dagozan gauzak ezagututeko; fedea da argitasun bat, zuzenera berezkoaren kanpotik eta ganetik dagozan gauzak, agertuten deuskuzana.

Bada ez diñoe, kontraerak aurkiten dirala eurakgan? Dirudienak, bai: baña geroago eginiko ikasaldiak desegin dituez; beti doazala batera fedea eta jakituria egiazkoa.

Zer atera bear dogu emendik? Fedea askotan eukiten zeruko doe bat legez, geure zoriontasun betikoaren ganeko doe guztietatik lenengoa legez, bada «fede бага, dino Apostoloak, ezin izan leiteke Jaungoikoaren gogoko».

JAZOEREA

Fedea, dino Gaumek, da argi-zuzi bat, Salbagilleak, bide txarrean dabillen gizonaren eskuetan iminia, lagundu dagion, zeruko bidea aurkitu eta jarraituten; da lubagan bikotx bat, bizitzako bidean eginik eta eregirik dagoana, galerazoteko jausi ez daiten, ez ezkerrera ez eskumara, bere bidea ain beterik dagoan leza sakon eta ondamendietan. Fedea da errazoiarentzat, begiorde luzea begientzat dana legez, an, nun begiak ikusi ezin daben, begiorde luzeak agertu eragiten dau miragarritzko gauzen mundu bat. Alan bada, errazoiaren kontrakoa izan bearrean, fedea da bere argia eta laguntasuna.

Irakatsi 2.a: Fedearen zatiak eta zerzeridadeak

Zer dira fedeko artikulua? Dira fedeko sinisgeirik andienak.

AZALDUEREA

Zelako zatiak daukaz fedeak? Ez-agiria eta agiria.

Zer da fede ez-agiria? Guztia batera eta berezka bagarik sinistutea, berbarako, esanagaz: Sinistuten dot, Eleizeak sinistuten daben guztia.

Zer da fede agiria? Fedeko egiren bat berezka eta bere berbetan eurentan sinistutea; berbarako, esaten badot: Sinistuten dot, Jesukristogan dagoala persona jaungoikozko bat, eta dagozala izate bi, bata jaungoikozkoa eta bestea gizonkorra.

Zelako zati geiago daukaz fedeak? Fede bizia eta fede ila.

Zer da fede bizia? Karidadea eta egite onak lagun dituzana.

Zer da fede ila? Pekatu ilkor edo mortalean dagozanak, daukena.

Asko eta naikoa da salbetako fedea, egite bagarik? Umeakgan bai; adinera edo ezaguerara eldu diran nagusiakgan, ez; zergaitik, Santiagok dinoan legez; fedea, egite bagarik, da ila.

Eta fedea karidade bagarik edo pekatu ilkor edo mortalean? Askozaz gitxiago: bada dino San Pablo Apostoloak: «Baneunka bere fede ain



andia, mendiak alde batetik bestera eroateko bestekoa, ez baneunka kari-daderik, ez leuzket ezer balioko».

Eta zelako zerzeridadeak euki bear dituz fedeak? Iru: izan bear da senziloa edo tolesgabea? Iminten badogu umiltasunagaz geure adina nagusitasun jaungoikozkoaren mendean.

Noz izango da errimea? Sinistuten badogu koloka бага eta badaez-pada бага, Jaungoikoaren nagusitasunean bakean geratuten gareala.

Noz izango da guztirakoa? Sinistuten badoguz, Jaungoikoak agertu-riko gauza guztiak.

Sinistuten dituzanak fedeko egi batzuk eta besteak ukatuten dituzanak, badauko federik? Ez: zergaitik sinistuten ez daben Jaungoikoaren nagusitasunagaitik, bardin bardin artuko leukez guztiak.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? beti eukitea, Ebanjelioak aitatuten dituzan dontzella zurrak legez, isioturik fedeko argi-zuzia, eta egite onen oriyoagaz prestatu-riko geure kruselua, Jesukristok, datorrenean, aurkitu gagizan prest eta gertu.

JAZOEREA

Eleizgizon bat ustebaga aurkituten zan batzar baten, gazte batzuk asi ziran donga eta txarren berbetea madarikatua egiten, eta lotsabakeriarik andienagaz aitatuten zituzen, Rousseau arimagaldukoak asmauriko guzur deabruzkoak.— «Jaunak, dirautse Eleizgizonak, sinistu bear da; zuek orain ez dozue sinistuten, egunen baten sinistuko dozue, denporean ez bada, betikotasunean; orduan sinistuko dozue demoninoak legez; eurak sinistuten dabe eta aurkituten dira tormentuetan».

Irakatsi 3.a: Fedearen neurriak

Ze gauza dira kristinaua legez daukazuzanak, eta sinistuten dituzanak? Erromako Eleiza Ama Santeak daukazanak eta sinistuten dituzanak. Ze gauza dira, zuk eta berak daukazuezanak eta sinistuten dozuezanak? Fedeko artikulua, batez bere Kredoan dagozan legez.

AZALDUEREA

Nun aurkituten dira, Jaungoikoak agerturiko egiak? Eskritura jaungoikozkoetan eta Tradizinoan.

Zer dira Eskritura jaungoikozkoak? Espiritu Santuaren argitasunaren beian eskribiduriko liburuen eta Eleizeak Jaungoikoaren berbatzat ezaguturikoen batuera.

Zer da Tradizinoa? Egi eskribidubagak, Jesukristok irakatsi eutsezanak Apostoloai, eta oneek Eleizeari berbetea eta aoz irago eutsezanak, eta Guraso Santuen liburuetan, Batzar Santuen erabagietan eta Aita Santu Erromakoaren erabagietan, batez bere aurkituten diranak.

Sinistu bear doguzan egiak, jakiteko, asko da irakurtea Biblia, protestanteak dinoen legez? Ez: gauza bearrekoa da, Eleizearen nagusitasunak aintzakotzat imini dagiguzala eta irakatsi dagiguzala.

Zergaitik alan? Zergaitik Eleizea dan gure fedearen erregela urkoa, agertuerearen gordelekua Jesukristogandik artu ebana, eta jente guztiai irakatsi eta azalduteko lana, beragandik arturik daukana.

Ori orrelan dala, Eleizea dan liburu sagraduak baño nagusiago? Da nagusiago eta aurreragoa; aurreragoa, bada oraindik Ebanjeliorik ez ego-anean bere, berak badiarduan, Jesukristogandik arturiko lana eta agindua egin eta betetan, eta egoan jantzirik, irakasteko nagusitasun eta erratuezin alizateagaz; eta da nagusiagoa, bere bitartez etorten garealako liburu sagraduen egiazkotasunaren, argitasun jaungoikozkoaren eta esangura benetakoaren ezauperara.

Zelan adierazoten dau Eleizeak bere lana? Bere iminiera jaungoikozkoa adierazoten dabeen sinisgarrikotasunaren zergaitikotasunagaitik; eta bera ondo egiazturik eta sendaturik iminten daben ezaugarri, berak daukazanakgaitik.

Zeintzuk dira sinisgarritasunaren zergaitikotasunak? Bere iminiera miragarrikkoa, bere zabalduera miragarria, bere mirariak, bere igarrerak, millaka martiren, irakaslen, santuen eta bere beraren arerioen lekukotasuna; eta azkenez, bere irakatsiaren santutasuna, bere ugaritasun miragarria eta infernuko indar guztien kontrako bere sendotasun errutsu eta goituezingarria.

Zergaitik izango dira «Erromako Eleizeak sinistuten dituzanak»? Zergaitik dagoan beragan, Jesukristok bere Eleizearen oiñ sendotzat imini eban San Pedroren ordeko Aita Santuaren jartokia.

JAZOEREA

San Agustin, Hiponako Obispoak, munduan ezagutu dan gizonik jakituenak, esaten eban: «Ez neuzkio nik sinisterik emongo Ebanjelioari, Eleizearen nagusitasunak iminiko ez baleuzt sinisgarritzat»; bada Eleizea dan gure fedearen erregela urkoa, guk jarraitu bear deusaguna.



Irakatsi 4.a:

Fedeko eginbearrak

Nok esan eban Kredoa? Apostoloak. Zetarako? Guri Fede Santuko gauzak irakasteko. Eta zuk zetarako esaten dozu? Kristinauok daukagun Fede au autortuteko.

AZALDUEREA

Zergaitik deritxo Apostoloen Kredoa edo Sinisgeia? Zergaitik Fedearen lenengo adierazotzalla oneek, bata besteagandik alderatu baño lenago, batasun oso bat imini gura izanik berbetan bere, egin eben irakatsi labur au.

Jakin biar dogu Kredoa? Bai; eta alako ziatztasunagaz eze, ez da geitu ez kendu ez aldatu bear berba bakar bat bere, zergaitik bertako guztia da esangura andikoa.

Noz egin bear doguz Fedeko egiteak? Adiñera edo ezaguerara eldu ten gareanean, eriotzako orduan aurkituten gareanean, Fedearen kontrako esetsien bat edo arriskuren bat daukagunean, eta sarri askotan bizi-tzian; eta beteko dogu eginbear au, Kredoa ondo errezaugaz.

Badaukagu, Fedea agirian autortuteko, eginbearrik? Bai: auzi-epalla dagokanak itanduten deuskunean, eta Jaungoikoaren zorionak edo ari-mako onera andi, norberarenak edo lagun urkoarenak, alan eskatuten dabeen guztian.

Fedea ukatu al ginaike nozbait? Ukatu iñozbere ez, geure bizitzea galduko bagendu bere, ez ukatuteagaitik; baña nozbait, aurreko itaunean aitaturiko aldietan ez izanik, eta gauza astun edo andiren bat dagoanean, ezkutu edo estaldu leiteke.

Nortzuk uts egiten deutse eginbear oni? Fedegaitik lotsatuten diranak, munduko esames eta begiraunagaitik euren eginbearrak betetan ez dituezanak, arpegi ona iminten deutsenak donga eta txarrai, onekaz aser-ratu gura ezagaitik, Errelijinoaren kontrako berbaldiak gogoz entzuten dituezanak, eta periodiko edo liburu txar edo herejenak pozik irakurten dituezanak.

Zer atera bear dogu irakatsi onetik? Fedeak iminten deuskuzan egin-bearrak ondo eta ziatz betetea, eta herejeagandik eta dongakgandik eta

euren berbeta txarrakgandik urrindu eta iges egitea, eurak eurak Elizeagandik iges egiten dabeen bestean.

JAZOEREA

Apostoloak, Espiritu Santua artu eben unean, asi ziran adierazoten Jaungoikoaren berba santua, egiten zituezala mirari asko eta andiak, euren lan eta egikizuna ziurtu eta sendatuteko; eta zelan ziran asko eta asko, Jesusen Errelijinoe santura biurtuten ziranak, eroanak izan ziran auzite-gietara edo tribunaletara, aginduten jakela gogortasun guztiagaz, ez egie-la irakatsi alako ikasbiderik; baña eurak jarraitu eutsen euren lan santuari, batbere bildurtu baga. Barriro eroanak izanik auzitegietara, esan eutsen: Ez deusuegu agindu, ez dagizuela irakatsi ikasbide ori? Eurak erantzun eben: Jaungoikoari oben egin eta obedi bear jako, gizonai baño lenago. Lotuak izanik, sartu zituezan presondegietan, eta azotau zituezan; baña eurak zoriontasun anditzat eukun, Jesukristogaitik neke gogorrrak irago-tea, eta azkenean il ziran, sillatuten ebela euren odolagaz, eurak irakatsi eta adierazo eben fedea.

Irakatsi 5.a:

Jaungoikoa dagoanaren ganean

Zetarako dira Fedeko artikulua? Geure Jaun Jaungoikoaren eta Jesukristo geure barri eta ezaguera argiagoa emoteko.

AZALDUEREA

Zenbat Jaungoiko dagoz? Bat bakarrik.

Egia da dagoala Jaungoikoa? Bai; zeruak, lurak eta gauza guztiak, Bera adierazoten emoten dabe.

Emon al daikezu errazoeren bat orren ganean? Zelan erloiyo batek adierazoten daben, egon izan dala erloiyo gilla bat, bera egin izan dabena; zelan etxe batek adierazoten daben, egon izan dala egillen bat, bera egin izan dabena; alan mundu onek, zeñetan aurkituten dan gauzen zuzenbide ain miragarri ta iraunkorra, adierazoten dau dagoala Izate Nagusi eta Gorena, bera egin izan dabena.

Bizieren desbardintasunak ez dino zerbait, Jaungoikoa dagoalakoa-ren kontra? Ez; bada arteztasunbakotasuna dirudian orretan, ikusten da arteztasunik miragarritzkoena, Jaungoikoa dagoala adierazoten dabena.



Azaldu egidazu irakatsi ori.— Baldin guztiak balira aberatsak mundu onetan, ez leuke iñok bearrik egin gurako langintza neketsu eta gogorre-tan; baldin guztiak balira premiñadunak eta ezeukiak, ez litzateke aurkitu-ko nok artu dagian, jakiturieta aurrerapenak egiteko nekea, ez eta bere, munduko alkartasuna ondo zuzenduteko lana; baña egonik ezeukiak eta premiñadunak, noraezean eta naitanaiezean bearra egin bear dabeenak, eta aberatsak, jakituriako lanetan euren denporea emon leikeenak, Jaungoikoak begiraturen deutso ardura andiagaz munduko alkartasunaren bizitzeari.

Eta danga eta txarren ondo-biziteak, on eta artezen estutasunak eta premiñak legez ez dineo zerbait, Jaungoikoa dagoalakoaren kontra? Eztabere: Jaungoiko azkenbaga artezak eta onak, zuzenduten dau guztia bere autuen eta arima onen mesederako. Laketuten dituz estutasunak eta premiñak onakgan, garbituak izan daitezkan, euren leialtasuna ikusia izan daiten, eta alan euki dagiezan irabazi andiak betiko bizitzarako; danga eta txarren ondo-biziteak eta mundu onetako zorionak kastigurik andiena eurentzat izan leitekezan bitartean.

Eta nun dago Jaungoikoa? Leku guztietan; bere izateagaitik, bere edonungo aurrez-aur-egoteagaitik eta bere altasunagaitik.

Bada ez dau iñok ikusi izan Jaungoikoa.— Gorputzeko begiakaz ez dau iñok ikusi izan, eta ezin ikusi bere leike, dalako espiritu utsa; baña adiñeko begiakaz ikusten da leku guztietan; ikusten dogun legez arimea bere egikeretan, mirarrituten garean legez jakituriagaz bere agertueretan.

JAZOEREA

Ikusi ez ebalako, Jaungoikoa dagoala ukatuten eban, erbestera bera-ri jarraitu eutsan jeneral bategaz, berbetan Santa Elenan egoan Napoleon lenengoak, egin eutsan gogorazino au.— Zuk sinistuten dozu nire jakitu-riagan? Duda бага, bada zuk zeurorrek miraritu eta goratu dozu bein baño geiagotan; orregaitik bere ikusi dozu nire jakituria? ikusia izan lite-ke? bada zelan sinistuten dozu dagoala jakituria nigan, ikusi izan ez bado-zu? Onetara erantzun eban jeneralak:— Ez dot ikusi zure jakituria, baña ikusi izan ditudaz bere egikerak, eta oneek eroaten nabe zure jakituriaren ezauperara: gudaleku eta soldaduen esetsi eta burruka odoltsuen artian miraritu izan ditudaz zure asmu eta erabagi andi eta zabalak, garaitzara eroaten ginduezan zure agindu ondo emoniko adjutu eta egokiak.— Bada nire garaitzak, barriro esan eutsan Napoleonek, sinistu eragiten badeutsue badagoala jakituria nigan, Guztia-daitekeanaren mirariak, zeintzuen

ondoan ez diran ezer nire asmu eta erabagi guztiak, naroe ni jakituria azkenbagakoaren, Jaungoikoa dan Izate Gorengoaren ezauperara.

Irakatsi 6.a:

Jaungoikoaren ontasun oso eta beteak

Zein da Jaungoikoa? Da esan eta asmau al deitekean izaterik andi eta miragarriena; Jaun bat amaibagarik ona, guztia-daiyana, jakituna, zuzena, gauza guztien asiera eta azkena.

AZALDUEREA

Zein da Jaungoikoaren izatea? Bere berez izatea, izatez izatea, orre-gaitik da betikoa, aldatuezingarria, asierarik euki izan ez dabena, eta azke-nik eukiko ez dabena.

Zergaitik dinozu «dala gauza bat andiena eta miragarriena»? Dalako, esan eta asmau al daitekean guztiaren ganetik: daukazalako ontasun oso eta bete guztiak, eta guztiak, dan danak, mailla azkenbagakoan.

Zergaitik dinozu «dala Jaun bat»? Zergaitik Bera bakarrik dan guztiz eta osoro dagoan guztiaren Jaube Gorengo, Berak bere Guzti-altasuna-gaz ezerezetik egin izan daben, izatea daukan guztia, eta bere jakituria amaibageaz iraun eragiten deitsan guztiari.

Zer esan gura dau «dala amaibagarik ona esateak»? Dala izatez eta berez ontasuna berbera; gura dabela kriatura guztien ona, eta egiten deu-tsezala onera eta mesede neurribagak.

Zer esan gura dau «Guztialdaikaneanak»? Jaungoikoak bere Guzti-alta-sunagaz al dabela, bere borondateak gura daben guztia.

Zelan da «amaibagarik jakituna»? Zergaitik bere egite bakartxu baten bitartez guztia daukan bere aurrean, eta guztia zuzenduten daben jakitu-riaz, zeinbataan, astuntasunean eta neurrian.

Zergaitik dinozu «amaibagarik zuzena»? Bakotxari dagokana emoten deitsalako, eta itxi ezin leikezalako kastigau bagarik pekatua eta nasaike-ria guztiak, ez eta bere saritu bagarik onoidadeak eta gauza on guztiak.

Zergaitik dinozu «gauza guztien asiera eta azkena»? Zergaitik kriatu-ra guztiak diran bere eskuetako egikerak, eta utsetik eginizan daben guz-tia bere zorionerako, zein dan ezerezetik eginiko guztiaren azkena.

Zer atara bear dogu irakatsi onetik? Jaungoikoaren aurrean beti ibil-tea; maitetuten dogula bere ontasun eta onaidade amaibagagaitik, eta bil-dur izaten deitsagula bere zuzentasun azkenbageagaitik.



JAZOEREA

Zauriz eta legen atsitzu beteriko eskeko premiñadun bat aurkituten zan Eleiza bateko atetan eskean. Bere erruki andi bat artu eban Arimazain edo Abade batek, agur eginagaz, esan eutsan:— Jaunak emon dagizuzala egun dontsuagoak eta zorionekoagoak.— Onetara eskeko premiñadunak erantzun eutsan ez ebalia iñoz euki egun txarrik, dontsua eta zorionekoa nazala eretxiten jat, zergaitik guztia jazoten jat, neuk gura dodan legez.— Arimazainak ezin ezagutu eta aditu al izanik, zelan izan zeitekean dontsu eta zorionekoa, alako premiña estutasunean egoan bat, eskatu eutsan, berba egiola eta emon egiazala azalduera eta errazoiak. Espiritu Santuak argituriko gizon eskeko arek emon eutsan irakatsi goratu au:— Nik ondo ezagututen dot, guztia mundu onetan datorrela Jaungoikoagandik; Berak maite nau azkenbaga, eta guztia zuzenduten dau nire onerako. Gogorazinoe onek batu nau errime Jaungoikoagaz, eta batuera edo alkar-tasun onek egiten dau nire zoriontasuna. Baldin ozak edo beroak nekatu-ten banau, goratu eta alabetan dot, bialduten deutzan Jaungoikoa; gatxak eta geisotasunak minduten banabe, edo gizonak nire kontra badabilz, poz pozik nago; zergaitik Jaungoikoak *ondo egiten dau guztia*, nire onerako zuzenduten da guztia.

Irakatsi 7.a:

Iru-batasun edo Trinidad guztiz Santua

Zein da Iru-batasun guztiz Santua? Da Jaungoikoa bera, Aita, Semea eta Espiritu Santua, iru persona distinto edo banak eta Jaungoiko egiazko bakar bat. Aita Jaungoikoa da? Bai, Jauna. Espiritu Santua Jaungoikoa da? Bai, Jauna. Iru Jaungoiko dira? Ez, Jauna, ezpada Jaungoiko egiazko bakar bat, Guztiadaikean bakar bat, Betiko bakar bat eta Jaun bakar bat, dan bere legez. Aita Semea da? Ez, Jauna. Espiritu Santua Aita edo Semea da? Ez Jauna. Zergaitik? Zergaitik iru Personak banak direan, izan arren Jaungoiko egiazko bakar bat. Au onelan dala, zeinbat izate, adin eta borondate dagoz Jaungoikoagan? Izate bakar bat, adin bakar bat eta borondate bakar bat. Eta zeinbat Persona? Iru banak, zeintzuk direan: Aitea, Semea eta Espiritu Santua.

AZALDUEREA

Bat eta iru batera izateak ez dau zarratuten kontrakizuna? Bat eta iru esangura bat baten izateak, egiaz zarratuten dau kontrakizuna, esango balitz legez, bat eta iru Persona, edo bat eta iru izate; baña bat eta iru izateak esangura desbardinetan, ez dauko kontrakizunik, ez dagoan legez esatean, gure arimea dala bat eta daukazala iru almen, gomutea, adina eta borondatea: alan Jaungoikoagan izate bakar bat eta iru Persona banak.

Bada baldin Aita ez bada Semea eta Espiritu Santua ez bada Aita edo Semea, zelan, izanik banak, egiten dabe Jaungoiko bakar bat? Zergaitik iru Personak dauken izate bakar bat bera; zelan arbola batek daukazan iru errama banak, eta zelan irurak dauken gorputz bakar bat bera, egiten daben arbola bakar bat.

Eta iru Personetatik zein da lenengoa edo zarrena? Aitak sortu arren Semea, eta Espiritu Santua etorri arren Aitagandik eta Semeagandik, iru Persona danak dira bardinak eta betikoak.

Imini egidazu irudi bat gauza orren ganean.— Eguzkiagandik urte-ten dabe argitasunak eta berotasunak, eta orregaitik bere, irurak dira den-pora bakar batekoak, bata bestea baño lenagokoa edo geroagokoa izan-baga.

Baña au da, errazoiak ezagutu eta ulertu ezin leikeana.— Eta berez-ko gauzea da, alan izatea; ezin izan leiteke, gure errazoe neurtuak, alde guztietatik bera ingurututen dabeen ezkutapen eta gauza miragarriak bere ezagututen ez dituzanak, ezagutu eta ulertu dagiala Jaungoikoaren azken-bakotasuna.

Baña Jaungoikoak agindu leike, sinistu daitezala errazoiaren kontra-ko gauzak? Ezkutapenak ez dira errazoiaren kontrakoak; dira *errazoiaren gañetikoak*, zein dan gauza guztiz desbardina.

Eta ze onera ateraten dogu, ezagutu eta ulertuten ez doguna, sinis-tuagaz? Ezkutapen guztian dago alde ilun bat, guri, bera jakiteko, ardura-rik emon bear ez deuskuna; eta dago alde argitsu bat, guri ikusi eta eza-gutu eragiten deuskuzana egiak, eurak бага guk azaldu eta adierazo ezon-go geunkezanak. Alan, Iru-batasun edo Trinidad guztiz Santuaren ezku-tapena бага, ezin azaldu eta adierazo al izango geunkez aragituera eta erostea.

Ze irakatsi atera bear dogu esan danetik? Geure altasun eta ezaupe-ra laburraren gañetik dagozan ezkutapenak ezagutu eta sakonduteko, ez gareala izan bear jakinaiak eta arduratsuak, ezpada eurak agertu deusku-zan, bera iñok engañau ezin leikean, eta berak iñor engañau ezin leikean



Jaungoikoaren nagusitasun eta agintaritasunean geure uste guztia iminirik, atsedean egin eta bakean geratu bear gareala.

JAZOEREA

Civita-Vequiako itxasoaren ur-bazterrean ebillan San Agustin batetik bestera, eta orduko bere gurari eta asmu guztia zan, Iru-batasun edo Trinitade guztiz Santuaren ezkutapena ondo ezagutu, ulertu eta azaldu-tea; eta orra nun uste baga eta batbatean agertuten dan bere begien aurre-ra ume eder eta zoragarri bat, itxas-bazterreko aree artian zulo bat eginik, itxasotik maskorra edo txirla baten arturiko uragaz, zulo batetan ebillana. Ikusi ebaneko San Agustinek, irribarre eginagaz, itandu eutsan samurtasunez;— uste beban botatea zulo atara itxasoko ur guztia.— Eta zergaitik ez? erantzun eutsan umetxoak, au errazago izango litzateke, Iru-batasun edo Trinitade guztiz Santuaren itxaso edo sakontasun ezagutuezingarria zure errazoiagan sartutea baño.— Au esanik, desagertu zan umea, zein ez zan besterik, zeruko angeru bat ezipada.

Irakatsi 8.a: Jaungoiko Egillea

Zelan da Egillea? Zergaitik atera zituzan ezerberezetik gauza guztiak. Zetarako egin eban Jaungoikoak gizona? Bizitza onetan bera serbidu, eta gero bizitza betikoan bera gozetako.

Bardin da ezerezetik egitea zein da formau edo eraztutea? Ez; ezerezetik egitea da zerbait utsetik ateratea, eta onetarako bear da eskubide edo alizate azkenbagako bat, eta au dagoko bakar bakarrik Jaungoikoari; formau edo eraztutea da gauza bat beste bategaz egitea, arotz batek zura-gaz mai bat egiten daben legez, eta au da kriaturai dagokoena.

Zelan emoten deutse zoriona Jaungoikoari gauza utsetik eginak? Agertuagaz bere jakituria azkenbagakoa, bere eskubide amaibagakoa, bere probidenzia neurribagakoa, eta beste era askotara, eta au guztia au, jakin baga eta noraezean, eta beraugaitik ezer irabazi baga.

Zetan desbardinduten da gizona beste enparau izate ezerezetik eginikoagandik? eukitean arima bat Jaungoikoaren antz eta irudikoa; espiritukorra, liberea eta ezilkorra.

Zelan emoten deutso zoriona gizonak Jaungoikoari? Ezaupereagaz eta libertadeagaz, eta beraugaitik irabaziagaz, zein Jaungoikoak sarituko

deutsan, utsetik egin izan zanean, izentauriko azkena dan zoriontasun betikoan.

Nok iraun eragiten deutse, Jaungoikoak ezerezetik egin zituzan gauza guztiai? Jaungoikoak berak, bere alizate miragarriagaz, jakituria azkenbagakoaz, bere ontasun eta probidenzia amaibagakoagaz.

Eta munduan jazoten dan guztia da, Jaungoikoak erabagirik daukana? Munduko jazoera andi eta txiki guztiak dagoz erabagirik edo laketurik bere probidenziagaitik, eta guztia doa zuzen bere zorion geiagora.

Bada baldin Jaungoikoak egiten badituz edo laketuten badituz gauza guztiak, zelan dagoz ainbeste gatx, ainbeste neke eta ainbeste zoritxar munduan? Ezagutu dagigun, mundu hau dala negarrezko erbeste eta leku bat, eta zerua dala gure erria eta gure zoriontasun betikoaren leku dontsua.

Zer atera bear dogu emendik? Jaungoikoagandik guztia artu dogun ezkerro, Beragana guztia zuzendutea, billatuten dogula gauza guztietan bere zoriona eta bere borondatea egin eta betetea.

JAZOEREA

Jazoeratza aitaturiko dogu ezerezetik eginiko gauzen barriya.— Asieran egin zituzan Jaungoikoak zerua eta lurra, eta egin zituzan sei egunean. Lenengoan egin eban argia: bigarrenan izar geldien lekua; irugarrenean batu zituzan itxasoetan, lurraren ganean egozan urak, eta agindu eutsan lurrari,ernetu egizala landarak, zugatzak eta arbolak: laugarrenean eguzkia, ilargia eta izarrak: bostgarrenean arraiak eta egaztiak: seigarrenean lurreko abere eta patariak, eta egun atan bertan gizona; egin eban gizonaren gorputza lupetzeagaz edo buztinagaz, arimea atera eban ezerezetik, eta deitu eutsan Adan; eta bere saiatsagaz egin eban lenengo emakumea, Eba deitu eutsana. Egin zituzan errubakotasuneko eta zuzentasuneko egoera izatez-gañetikoan, eta imini zituzan atseginezko ortu baten, aginduten eutsela ez egiela jan onaren eta txarraren arbolatik. Ona eta txarra ezagutuko ebela, eta Jaungoikoak legez izango zirala esan eta eskini eutsen demoninoak engañaurik, jan eben fruta galerazorikoa, onelan austen ebela Jaunaren agindua, eta beraugaitik boteak izan ziran atseginezko ortutik, kenduak izan jakezan grazia eta doe izatez-gañetikoak, eta geratu ziran euren pekatuaren nekearen azpian.



Irakatsi 9.a: Jesukristo

Iru Persona Jaungoikozkoetatik zein egin zan gizon? Bigarrena zein dan Semea. Nor da Jesukristo? Da Jaungoiko biziaren Semea, gizon egin zana, gu erostearren eta guri bizitzako onbidea emotearren. Eta zeinbat izate, borondate eta adin dagoz Jesukristogan? Izate bi, bat jaungoikozkoa eta bestea gizonezkoa; borondate bi, bat jaungoikozkoa eta bestea gizonezkoa; eta adin bi, bat jaungoikozkoa eta bestea gizonezkoa; Eta zeinbat Persona eta gomuta? Persona jaungoikozko bat bakarrik, zein dan Iru-batasun edo Trinidadetako Santuko bigarrena, eta gomuta bakar bat, zergaitik, Jaungoikoa danez, ez daukan gomutarik. Zer esan gura dau Jesusek? Salbagillea. Zetatik salbau ginduzan? geure pekatuetatik eta demoninoaren mendetik. Zer esan gura dau Kristok? Unjidua. Zegaz izan zan unjidua? Espiritu Santuaren grazia eta doez.

AZALDUERA

Zergaitik esaten da, bere Seme bakarra eta Jaungoikoaren Semea dala? Zergaitik Jesukristo da Jaungoikoaren Seme bakar eta egiazkoa, Aitak bere beraren izateetik betikotasunetik sortua, eta beraugaitik Jaungoikoa Jaungoikoagandik, guztian Beragaz bardina.

Eta bere da gizon egiazkoa? Bai: Maria Dontzella guztiz Santearen erraieran artu eban izate gizonezkoagaitik.

Eta izate bi onek Persona bat baten batuagaz, ez ziran nastau? Ez inoiz bere; ezpada geratu ziran banak, baktaren egokitasunakaz. Alan, Jaungoiko danez, da guztiadaikena, neurribagea...; eta gizona danez, da padezikorra, ilkorra, izate gizonezkoaren premiña eta gatx guztiakaz, ez izanik pekatua.

Zein da Jaungoiko gizon eginaren edo Berbo Aragituaren izen egoia? Jesus, zeinek esan gura daben Salbagillea.

Zergaitik? Zergaitik onek, beste edozeiniek baño obeto, agertuten daben bere izatea, zein dan gizatasun guztiaren Salbagille oso eta bete izatea.

Eta Kristoren izenak? Agertuten deusku bere duintasuna, eta lege-emontzallearen, igarlearen eta abadearen lana.

Zergaitik? Zergaitik antxinako denporan izaten ziran oriyoagaz orni-duak eta unjiduak abadeak, igarlak eta erregeak: alan Jesus izan zan Espiritu Santuaren grazia eta doen betetasunagaz ornidua eta unjidua,

izan zeiten abade gorengoa, igarla nagusia eta erregen erregea, zeini emon izan jakan eskubide guztia zeruan eta lurrean.

Zelan emon euskun bizitzako onbidea? Lendanik aututako arima on eta artezen ispillutat gure artian agertuagaz, irakasten euskula bere ikasbide zerukoa, eta emoten euskula onidade eta birtute guztien jarraigarria.

Ze irakatsi atera bear dogu emendik? Jesukristo landanik aututako arima on eta artezen ispillua dan ezker, berari jarraituteko aleginak egitea, ondo begiraturaren deusagula bere irakatsi zerukoari, eta geure gogotan sarri eta sarri erabilten doguzala bere onidade ederrak.

JAZOERA

Zelan burdina gorituak, dino San Franzisko Salesek, daukan burdinaren eta suaren izatea, eta deitu leitekeon burdinea eta sua batera, alan Jesukristo da Jaungoiko egiazkoa bere gizatasunaren burdineagaitik. Eta zelan burdineak ez deusan itxiten burdina gogor eta astuna izateari, suagaz alkatuturik eta baturik egon arren bere; eta suak ez deusan itxiten su argitsua eta beroa... izateari, burdina aurkitu arren bere; alan Jesukristoren gizatasunak ez deus itxiten txikia, padezikorra... izateari, jaungoikotasunagaz alkatuturik eta baturik egon arren bere, eta jaungoikotasunak ez deus itxiten guztiadaikena, amaibagarik zorionekoa... izateari, gizatasunagaz alkatuturik eta baturik egon arren bere.

Irakatsi 10.a: Aragituerearen ezkutapena

Kristo gure Jauna, zelan izan zan sortua, eta jaio zan Ama Dontzelleagandik? Jaungoikoaren egite izatez-gañetikoz eta miragarritz. Zergaitik dinozu, izatez-gañetikoz eta miragarritz? Zergaitik Jesukristo ez zan izan sortua, eta ez zan bere jaio, beste enparau gizonak legez. Zelan egin zan bere sortuerako ezkutapena? Maria Dontzellearen erraieran egin eban Espiritu Santuak gorputz guztiz oso eta bete bat Andra onen odol guztiz garbiagaz, ezerezetik atera eban arima bat, eta arima au batu eban gorputz aregaz; eta une atan bertan Jaungoikoaren Semea batu zan gorputz eta arima arekaz, eta onelan, Jaungoiko bakarrik zana, Jaungoiko izateari itxi baga, geratu zan gizon eginik. Eta zelan jaio zan miragarritz? Urtenik Maria guztiz Santearen sabeletik bere dontzellatasunaren kalte baga, eguzkiaren errañuak kristaletik urtetan daben legez, bera zatitu eta



ezaindu edo loitu bagarik. Bere Ama bizi izan gero beti Dontzella? Bai, Jauna, beti beti.

AZALDUEREA

Zer esan gura dau aragituteak? Gizonaren aragia artutea, edo gizon egitea.

Eta zelan izan leiteke, izate azkenbagako bat, Jaungoikoa dan legez, batu leitekeala, gauza ain txikia dan gizonagaz? *Zelan*, ez egidazu itandu niri; da ezkutapen bat, nik sinistuten dodana, ezagutu eta ulertuten ez badot bere; sinistuten dodan legez neure izatea bera, ezagutu eta ulertu ez arren, zelan nire arimea, izate espiritukorra dana, dagoan baturik gorputz lurkorragaz eta aginduten deitsan beroni.

Ezin artu eiketan gizon oso eta betearen izatea? Egiaz eta benetan al eiketan; baña samurrago eta maitetsuago zan ume egitea, gure antzekoa guztian, iragorik gure izate argal eta errukigarriaren umiltasunak eta premiñak.

Maria Dontzella guztiz Santea deitua izan leiteke eta da benetan Jaungoikoaren Ama? Bai; zergaitik bere beraren odolagaz sortua izan zan bere erraiyetan, eta argitara emon ebalako Seme bat, Jaungoikoa dana.

Zergaitik dagoko eta ezarten jako Espiritu Santuari aragituerearen egitea? Izan zalako Jaungoikoaren amodio amaibagearen egitea, zeñaren egikerak dagokozan eta ezarten jakozan Espiritu Santuari.

Zergaitik aragitu san Semea, eta ez Aita edo Espiritu Santua? Zergaitik aragituerearen azkena zan, gu Jaungoikoaren seme-ordeak egitea, eta egoki zirudian, au egin egiala Jaungoikoaren Sme bakar benetakoak.

Ze onera atera bear dogu ezkutapen onen gogorazinoetik? Umiltasuneko onoidadeari ziatz jarraitutea, ikasten dogula otzanak eta umilak izaten, gu zorioneko egitearren, umiltasun ain andiak ata beera-tuak artu zituzan Jaungoikoaren amodioagaitik.

JAZOEREA

Ebanjelioak aragitutearen ganean berba egiten dau onelan: «Eta Gabriel Angerua bialdua izan zan Nazaretera, Jose eritxon gizon bategaz ezkonduko Dontzella bategana, eta Dontzella onen izena zan Maria». Eta sarturik Angerua, Maria egon lekura, agur egin eutsan, zirautsala: «Jaungoikoak gorde zagizala, graziagaz bete; Jauna da zugaz, bedeinkatua zu andra guztien artian». Eta bera ikaratu zan, ze agur-egite izan zeitekean au, gogoratuagaz. Angeruak esan eutsan: «Ez zaitetz bildurtu,

Maria, zergaitik aurkitu dozu grazia Jaungoikoaren aurrean; ona emen zuk sortuko dozu eta argitara emongo dozu Seme bat eta deituko deitsazu bere izena Jesus. Au izango da andia eta deitua Guztiz-goikoaren Semea». Eta Mariak esan eutsan Angeruari: «Zelan izango da au, ezaguten ez badot gizonik»? Eta angeruak erantzun eutsan: «Espiritu Santua etorriko da zure gañera, eta lagunduko deitsa Guztiz-goikoaren alizateak, eta beraugaitik, zugandik jaioko dan Santua, deitua izango da Jaungoikoaren Semea». Eta Mariak esan eban: «Ona emen Jaunaren mendekoa, egin beite nigan zure berbearen erara». Andik bederatzi ilabetera jaioko zan Belengo abeletxean, eta aska baten etzanda egoala, ikusia izan zan arzainakgaitik eta erregeakgaitik; andik zortzigarren egunean izan zan aragiepaitua edo zirkunzidadua, eta gero ogetamar urteraño egon zan Jose eta Mariaren mendean, eroaten ebalako bizitza isil eta ezkutu bat.

Irakatsi 11.a: Erostearen ezkutapena

Zergaitik il gura izan eban Kurutzeko eriotzeagaz? Gu pekatutik eta eriotza betiketok libretarren. Bada zelan geratu ginean gu, eriotza betikoaren mendeko eginik? Pekatu eginik Adan gure lenengo gurasoak, zeñegan pekatu egin genduan guztiok.

AZALDUEREA

Baldin gure lenengo gurasoak pekatu egin izan beben, zergaitik irago bear doguz guk pekatu aren ondorengo eta gatzak? Zergaitik eurak ea bakarrik pekatu egin eben euren legez, baitabere gizatasun guztiaren buruak legez. Eurak euren pekatuagaitik galdu zituezan doe doakoak, Jaungoikoak emon eutsezanak, eta grazia santuegillea; beraz gauza egokia eta berezkoa da, euren seme-alabak etorri daitezela mundura, eurak galdu zituezan doe orreek bagarik, bizitza izatez-gañetikora ilik: bada ause da pekatu jatorrizkoa.

Argitu eta azaldu egizu au irudi bategaz.— Errege batek emoten deutsoz bere mendeko gizon bateri duintasun eregiak eta aberastasun ugariak, baña izaten baldin bajako esanekoa eta leiyala; gizon onek urte-tan dau esan-txarrekoak, mukerrak eta desleiyalak bere erregeagaz, eta beraugaitik erregeak kenduten deutsoz, berak emoniko duintasun eregiak eta aberastasun ugariak, eta bialdutendau erbestera; berezko eta artezta-



sunezko gauzea da bada, bere seme-alabak jaio daitezela erbestean, erregearen amodio eta abegi onagandik urrindurik eta duintasun ata aberastasun areek bagarik.

Eta pekatuaren gatxa osatuteko, ez zan izango asko eta naikoa gizon artez bat edo Angeru bat? Ez: zergaitik, izanik pekatua gatz azkenbagako bat, noraezekoa eta bearrekoa zan, zuzentasunak eskatuten eban legez, kitugarri edo osagarri azkenbagako bat, Jaungoikoak bakarrik emon eikeana.

Eta ze premiña eukan Jaungoikoak gizon egiteko, kitugarri edo osagarri ori emoteko? Noraezekoa eta bearbearrekoa zan, zergaitik, Jaungoiko zanez, ezin beeratu eta umillau zeitekean, eta ezin irago eikezan nekeak: eta gañera zan guztiz egoki, gizon batek egin egiala gizatasun guztiaren orde zeta izenean.

Zelan bateratu zituzan Jesukristok azken orreek? Gizona danez, beeratu eta umilletan da bere Aitaren aurrean, eta bere pasinoe eta eriotzeaz emoten deutsoz kitugarriak, eta Jaungoiko danez, kitugarri orrei emoten deutse balio azkenbagea.

Baldin Jesukristok emon izan badituz gonburuan kitugarriak, ez daukagu guk zer egin bearrik? Bai: artu bear doguz guk kitugarri orreek, eta guri izan bear jakuz ezarriak, Jesukristok berak imini dituzan eginbidetatik, zeintzuk diran bearreko prestaerakaz arturiko Sakramentuak.

Izanik balio azkenbagakoak Jesukristoren kitugarriak, ez zan asko eta naikoa izango bere odolaren tantaka bat? Bai; baña ainbeste neke irago, eta bere odol guztia bota eta isuri gura izan zituzan, guri bere amodioaren azkenbagakotasuna eta pekatuaren astuntasun amaibagea agertu eta erakustearren.

Zelako erabagia atera bear dogu ezkutapen onetik? Guztia galduteko, edo ilteko, bearrekoa bada, erabagi errime bat artutea, egin baño lena-pekatua, zeñegaitik il zan Jesus.

JAZOEREA

Izango da Jesukristoren bizitza agiria eta bere pasinoa. Jesukristo gure Jauna, ogetamar urteko zala, San Juan Bautisteagaitik Jordango errekan bateatua izan ezker, joan zan basamortura, eta bertan irago zituzan berrogei egun penitentsia, nekealdi eta erregetan, demoninoagandik esetsiak eta tentazinoak euki izan zituzala. Asierea emoteko bere bizitza agiari, autu zituzan amabi Apostolu, izan zeitezan bere Eleizearen arri sendoak; adierazo eban iru urtean bere berba zerukoa, ziurtau eta egiaztuten ebalada bere irakatsia bere bizitzearen santutasunagaz eta mirarien ugaritaz.

sunagaz. Eskriba eta Fariseoak, euren donga-estalkeria eta euren biotzetako nasaikeria agertu eta txartzat emoten eutsezalako Jesusek, oni eutsen ikusiez in edo gorroto andi bat, eta art eben, bera ilteko asmu deabruzkoa, billatu eta itxaroten ebelada atarako era egokiya. Judas bere Apostoloetatik bata joan zan, Jesus egoan ortura, Jesus bere arerio gogorren eskuetan imintera, bada ordurako salduta eukan ogetamar dirugaitik: loturik ekarri eta katea gogorraz, gizonik dongena eta txarrena balitz legez, eroan eben Anasen eta Kaifasen etxetara, nun artu zituzan matrallako eta belarondoko andiak, burla, barre eta destaña ikaragarriak, eta eriotzako epaia. Urrengo egunean eroan eben Pilatosegana, zeñek, ezaguturik Jesusen errubakotasuna, bialdu eban Herodesegana, zeñek biurtu eban zoro jantzirik. Gero azotadua izanik, eta bere buruan arantzazko koroe gogor bat ebalada, eroana izan zan erriaren aurrera, eta errikoak eskatuten eben izan zeitela kurutzean josia, Barrabas gizon donga eta lapurraren libertadea eskatuten eben denbora berean. Arturik eriotzako erabagia, eta eroanik kurutze astuna bere sorbaldetan Kalbarioko Mendiraño, an izan zan Kurutzean josia, ilten zala lapurren ersian, iru orduko agonia larri, estu eta ikaragarritzakoaren ostean.

Irakatsi 12.a: Jesukristoren eriotzeari jarraitu eutsen ezkutapenak

Zer adietan dozu, Kristo gure Jauna, il ezker, jatsi zan infernuaren izenagaz? Ez kondenauen lekua, ezipada arima onak egozan tokiya. Zelan jatsi zan? Arima Jaungoikotasunagaz batuagaz. Eta bere gorputza zelan geratu zan? Jaungoikotasunagaz beragaz baturik. Zelan biztu zan irugarren egunean? Barriro batuten ziralada bere gorputz eta arima zorioneko, osterada iñoz ez ilteko. Zelan igon eban zeruetara? berez eta bere alizatez. Aita Jaungoikoaren eskumatik jarrita egoteak, zer esan gura dau? Kristok, Jaungoikoa danez, Aitak besteko zoriontasuna daukala, eta, Gizona danez, beste edozeiñek baño geiago.

AZALDUEREA

Jesukristo il zan, Jaungoikoa zanez, edo Gizona zanez? Gizona zanez, alderatuten zala arimea gorputzagandik, zergaitik, Jaungoikoa zanez, ezin il litekean.



Zetarako jatsi zan Jesukristo arima onen eta artezen ilunbera edo linbora? Eurak poztutera, Erostearen ezkutapenak bete ziralra eurai adierazo, eta, eurak zeruan sartuteko ordu dontsua, urrean egoala eurai agertu eta esanagaz.

Baldin Jaungoikotasuna jatsi bazan arimeagaz, zelan geratu zeitekean gorputzagaz? Zergaitik Jaungoikotasuna dagoan leku guztietan, eta alan arimea eta gorputza bata besteagandik alderatu ziranean eriotzeagaitik, biyak geratu ziran baturik Jaungoikotasunagaz. Zelan soldadu batek ateraten dabenean ezpata lekatik, ezpatea eta lekea alkarregandik alderatuta egon arren, biyak geratuten diran baturik soldaduagaz.

Zer egin zan bere gorputz ilagaz? Izan zan lurperatua arrizko obi edo sepultura barri baten, eta sepultura au izan zan arriloza bategaz zarratua eta zillatua, engañuren bat egin ez zeiten, iminten ziralra gañera, bera zainduteko gordetzallak.

Zer jazo zan gero? Jesukristo biztu zan irugarren egunean zorionez beterik, arritu eta ikaratuten ziralra soldadu zaintzallak, zeintzuk, iges egirik urira, emoten eben Jesukristoren Biztuerearen ezaupera, barri eta lekukotasuna.

Zer adierazo eta egiaztuten dau Jesukristoren Biztuereak? Da bere Jaungoikotasunaren ezaugarriak argiena eta egiazkoena. Berak aurrez eta lenaz esan eban, ilgo zala, eta gero irugarren egunean biztuko zala; eta esan eban legez, egin eta bete zan; beraz da egiaz eta benetan Jaungoikoa.

Zetarako igon eban zerura? Guri zeruko atea idigi eta zabalduko, eta bertako jaubetasuna artuteko; gudan irazartu eta biztuteko, berari jarriatuteko gurari andi eta sutsu bat eta zergaitik bere gorputz zoriontsuak eta ezilkorak euki bear eban negarrezko leku au baño beste bizileku obago eta ederrago bat.

Zergaitik esaten da dagoala jarriak? Zergaitik dagoan zeruan bere atsedenezko eta atseginezko lekuan legez, bertan daroala bizitza betiko bat.

Ze onera atera bear dogu ezkutapen onetatik? Onoidadeak eta egikera onak eurenz dakardezan nekeak eta gatxtasunak azpiratuteko eta goituteko, eta bizitza onetako zoritxar, preminak eta estutasunak onean iragoteko, asmu eta erabagi sendoak artutea; zeragitik, zelan Jesukristok urten eban garaitza dontsuagaz, guk bere urtengo dogu.

JAZOEREA

Aitatuko doguz jazoeratzat, Jesukristok lurrean irago zituzan bere bizitza azkenengo egunak.— Jesukristo, bere Biztuerearen ostean,

geratu zan lurrean berrogei egunean, bere ikasla sarri askotan agertu izan jakela, berari ukututen eta euren atzak bere zaurietan sartuten, itxiten eutsela, euren lan eta eginkizunean sendatuten zituzala... ezkutapen asko erakutsi eta agertuten eutsezala, Sakramentuak iminten zituzala. Iragorik berrogei egunak, eroan zituzan bere ikasla Oriyo-arboletako mendira, eta an eurak bedeinkatu ezker, argitasunez inguruturik eta anditasunez beterik, igon eban zeruetara, bere ikasla guztiak, euren Maisu jaungoikozkoaren igoera eta garaitza zorionekoagaz mirariturik, begira egokoza-la, arik eta odei batek euren begietatik ezkutau eta estaldu eban artian. Oraindik zerura begira egozala, angeru bik esan eutsen eurai: «Gizon gali-leatarrak, zergaitik zagoze zerura begira? Igoten ikusi dozuen legez, anditasun beragaz etorriko da mundua juzgetara edo erabagitera».

Irakatsi 13.a:

Biztuerea eta erabagi edo juizio guztiena

Noz etorriko da, biziak eta ilak juzgetara? Munduaren azkenean. Eta orduan biztuko dira il guztiak? Bai, Aita, euki zituezan gorputz eta arima eurakaz.

AZALDUEREA

Zeinbat erabagi edo juizio dagoz? Bi: bakotxaren eriotzako orduan egiten dana, eta bakotxarena deritxona, eta bestea, munduaren azkenean egingo dana, eta guztiena deritxona.

Eta erabagi edo juizio guztienean aldatua edo ezereztzat emona izango da, erabagi edo juizio bakotxarenean emon izan zan epaiya? Ez, zergaitik orduan emoniko epaiya da aldatuezingarria, beti iraunekoa, bada bera emon izan eban auzi-epallea da amaibagarik jakituna, eta engañau ezin leitekeana.

Orduan zetarako da erabagi edo juizio guztiena? Jaungoikoaren Probidentzia argitan imini eta guztiai erakusteko, eta Jesukristo gure Jaunari bere zoriona emoteko; arima on eta artezen onra eta eregitasunerako eta donga eta txarren lotsagarriak.

Eta egia da, mundua amaituko dala, eta orduan guztiok biztuko gareala? Bai; alan agertu dau, engañau ezin leitekean eta engañau ezin ginaikezan Jaungoiko berak.



Zelan izan leiteke biztutea gorputzak, batzuk auts bihurturik egongo diranak, besteak arraňakgaitik eta abereakgaitik janda egongo diranak? Jaungoikoarentzat ez dago ezer, egina izan ezin leitekeanik; utsetik egin izan bagaituz gu, eta ezerezetik atera izan badituz gauza guztiak, obetoago eta errazago barriro egingo gaituz gu, gei len dagozanakaz, oneek danik zabalduen aurkitu arren bere.

Eta gizakume eta emakume guztiak biztuko dira? Bai; guztiak, dandanak, batbere itxi bagarik, alan onak eta zelan donga eta txarrak, batzuk zoriontasunerako, eta besteak lotsari eta ondamendi betikorako.

Zetarako da aragiaren biztuera? Arimea batu daiten gorputzagaz, barriro ez alderatuteko eran, zergaitik gauza arteza da, gorputza onean eta txarrean arimearen lagun izan dan legez, izan daitela bere zoriontasunean edo kastiguan.

Eta au noz izango da? Ez daki iñok, ez eta zeruko Angeruak bere, Jesukristok esan eban legez, gu bizi gaitezan beti prestaurik, arduraz, bildur santuagaz, zein dan egia onetatik atera bear dogun onerea.

JAZOEREA

Ebanjelioak berba egiten dau azkenengo erabagiaren ganean onelan: «Aurretik ikusiko dira ezaugarri andiak zeruan eta lurrian; eguzkia eta ilargia illunduko dira, eta eretxiko da, zeruko izarrak jausiko balira legez, itxasoak bere orroe bildurgarriakaz iragoko dituz bere muga eta ertzak, ikaratuko da lurra, eta suzko erreka batek desegingo dituz gauza guztiak. Entzungo da Angeruaren deiya: "Jagi zaitzeze, ilak, eta etorri zaitzeze jui-ziora", eta dei onetara biztuko dira il guztiak, eta batuko dira Josafateko ibarrean. Orduan agertuko da Jesukristo anditasun eta eregitasun andiagaz: Angeruak alderatuko dituez onak txarrakgandik, iminten dituezala batzuk eskumako aldean eta besteak ezkerrekoan. Idigiko dira konzien-ziako liburuak, eta guztiai emona izango jaken argitasun guztiz andiagaz, ikusiko da zelako zuzentasunagaz egin dituzan Jaungoikoak gauza guztiak; agertuko dira oneen eta artezen egikera guztiak, oneek ezkutuenak izan arren bere; baitabere pekatarien egite txar guztiak, oneek isilenak izan badira bere. Azkenez, zuzendurik Jesukristo onakgana, esango deutse: "Erdue, neure Aitaren bedekatuak, zuentzat prestaurik dagoan erreñua artutera"; eta gero txarrai: "Alde egizue nigandik, madarikatuak, demoni-noarentzat eta bere jarraitzallentzat prestauriko su betikora"».

Irakatsi 14.a: Bizitza betikoa

Eta munduaren azkena baño lenago izango dira gizonak juzgauak? Bai, Aita, guztiak euren bizitzearen azkenean juzgau eta erabagiko dituz Jaunak; onak, betiko zoriontasunean gozauteko Jaungoikoa, eta txarrak, infernuan betiko neke eta tormentuak iragoteko.

AZALDUEREA

Ori danez, bizitza onen ostean, dago beste bat eta bertan eginsariak eta kastiguak? Alan irakasten dau siniste santuak, aituten emoten dau errazoe berezkoak, eta egiaztu eta ziurtetan dau erri guztien eta gizaldi guztietako eretxi guztienak.

Bada ez dinoe, guztia amaituten dala eriotzeagaz? Alan esaten dabe, eta alan izatea gure leukee donga eta txarrak, baña ez da izango alan; ezpada arimea gorputzagandik alderatu orduan eriotzan, eta gorputza erabagi guztienaren ostean sartuko dira bizitza betikoan, eginsaria edo kastigua artutera, euren egikerai jatorken legez.

Zelan aituten emoten dau errazoe berezkoak? Jaungoiko amaibagarik onak eta zuzenak noraezean eta naitanaiez saritu bear dau on guztia, eta kastigau bear dau txar guztia; mundu onetan ez dau egiten, bada ikusten doguz txar asko lurreko zorionetan, eta onak eta artezak zoritxarrean eta neke gogorren artian; beraz bearbearrekoa da egotea beste bizitza bat, nun onak artuko dabeen eginsari betikoa, eta txarrak kastigu betikoa.

Bada ez da iñor etorri beste mundutik, an iragoten dana, guri esatera.— Ez dago orren bear ez premiñarik: baña etorri da Jesukristo, bizien eta ilen Auzi-epallea, an iragoten dana, guri esatera, eta guri argiro irakastera, «txarrak joango dirala kastigu betikora eta artezak bizitza betikora».

Ze onera atera bear dogu emendik? Santutasunean bizitea, egia orreen ganean ezdabaidarik ez eukiteko; bada bakarrik txarto bizi diranai, etorten jakez badaezbadak orren ganean.

JAZOEREA

Jesukristok berberak iminten deusku irudi au: «Egoan gizon aberats bat, soñeko ederrak eta eun guztiz leunezkoak jantziten zituzana, eta egun guztietan konbit andi eta ugariak eukiten zituzana. Eta eskeko edo premiñadun bat, Lazaro eritxona, aurkituten zan zauriz beterik bere atartean, aberatsaren maitik jausten ziran ogi-ondarrak jan gura zituzana, eta iñok



emoten ez eutsazala. Il zan eskekoa, eta Angeruak eroan eben Abrahamen zerura, eta il zan aberatsa, eta izan zan ondatua infernuan. Eta eregirik gora bere begiak, tormentuen artian egoala, ikusi eban Lazaro Abrahamen zeruan, eta deadar eginagaz, esan eban:— Aita Abrahan, errukitu zaitez nigan, eta bialdu egizu Lazaro, bere atza uretan bustirik, otzitu dagian nire mina, bada naz nekatua eta atormentaua gar oneetan;— eta Abrahamek erantzun eutsan:— Gomutau zaitez, zuk artu zenduzala ondasunak bizitzan, eta Lazarok gatzak, bada orain bera da poztua eta zu atormentaua; eta onezaz ostean aurkituten da zuen eta gure artian sakontasun eta bitarte guztiz andi bat, irago ezin leitekeana.— Edolabere erregututen deusut, bialdu dagizula nire gurasoen etxera, bada daukadaz bost anaiya, adierazo dagioen eurari, emen jazoten dana, eta etorri ez daitezkan tormentuetako leku onetara.— Badaukez Moises eta igarlak, entzun begioee eurari.— Ez, aita: baña ilen bat joango balitxakeoe, egingo leukee penitentzia.— Abrahamek esan eutsan: Sinistuten ez badeutse Moiseseri eta igarlai, ez dabe bere sinestuko, ilen bat biztu arren bere».

Irakatsi 15.a: **Beste bizitzako egoera desbardinak**

Bada badago infernu bat baño geiago? Bai, Aita; dagoz lau, eta deritxoe: kondenauen infernua, garbategia, umen ilunbea, artezen ilunbea edo Abrahamen senoa. Eta ze gauza dira? Kondenauen infernua da, pekatu eralla edo mortalean ilten diranak, doazan lekua, bertan beti alatuak, nekatuak eta atormentauak izateko. Garbategia da leku bat, nora doazan, grazian ilten diranen arimak, euren pekatuen zorrak guztiz eta osoro pagau bagarik mundu onetan, bertan neke eta tormentu ikaragarriak guztiz garbituak izateko. Umen ilunbea da leku bat, nora doazan, adinera edo ezauberara eldu baño lenago, ilten diranen arimak, beteotak izan bagarik. Eta artezen ilunbea edo Abrahamen senoa da leku bat, nora joaten ziran, gure erostea egina izan baño lenago, Jaungoikoaren grazian ilten ziranen arimak, guztiz garbituak izan eta gero, eta da arako lekua, zeñetara jatsi zan egiaz eta benetan Jesukristo bera.

AZALDUERA

Zelako penak iragoten dituez kondenauak infernuan? Bi: pena kaltekoa, eta au da Jaungoikoa ez ikustea; eta pena zentzunekoa, eta au da

almen eta zentzun guztietan su amatauezingarriak edo itxungiezingarriak emoten dituzan berotasun, neke, ala eta tormentuak iragoten egotea.

Pena bi onetatik zein da andiena? Kaltekoa, zein, on azkenbagakoa dan Jaungoikoa bagarik itxiten gaituzalako, dan azkenbagakoa legez.

Eta zelako penak iragoten dira garbategian? Infernuan iragoten diranak eurak, eta onek bakarrik dira desbardinak, betikoak diralako, eta garbategikoak denporazkoak diran artian, arik eta guztiz garbiturik, gero zerura joan arteraño, irauten dabenak.

Eta umen ilunbean zelako penak iragoten dira? Bakarrik kaltekoa, eta onek bere ez deutse emoten miñik ez nekerik, ezpada bestera, Guraso Santu askoren eretxian, eukiko dabe zoriontasun berezko bat.

Bada zelan izan leiteke, izanik pena kaltekoa andiena kondenaduentzat, umentzat alan ez izatea? Zergaitik, ume ez diranak, dauke Jaungoikoa ikusi eta eurakaz eukiteko eskubidea, eta ikusi dagienean, euren erruz galdu izan dabeela on azkenbagako bat, artuko dabe eta eukiko dabe pena azkenbagako bat legez. Ez alan umeak, Jaungoikoa galduteko eskubiderik, ez errurik, euki ez ebenak.

Eta nortzuk doaz artezen ilunbera? Inor bere ez: zergaitik, bein gure erostea egina izan ezker, Jaungoikoaren grazian eta garbitasun oso eta betean ilten diranen arimak, doaz zuzen zerura.

Zer da zerua? Atseginezko eta zorioneko egoera bat, nun, eukirik Jaungoikoa, aurkituten diran on guztiak, gatz batenbere naste bagarik.

Zeintzuk dira arima zorionekoaren doteak? Iru: ikuspina, eukipena eta gozapena; edo bardin dana, Jaungoikoa ikustea, zein dan sinistearen sariya; Jaungoikoa eukitea, zein dan itxaropenaren sariya; eta Jaungoikoa gozatea, zein dan karidadearen sariya.

Zeintzuk dira gorputz zorionekoaren doteak? Lau: minezgarritasuna, meetasuna, bizkortasuna, eta argitasuna.

Eta zeruan guztiak dauke zoriontasun bardina? Ez; ezpada izango da andigoa edo txikiagoa, bakotxaren irabazi eta merezimentuen neurrian.

Zer da argingurua? Sari bat edo zoriontasun berarizko bat, emongo jakena irakaslai, martiriai eta dontzellai.

Ze onera atera bear dogu egia onetatik? Infernuaren ganeko gomuteak irazartu bear dau gudan bildur santu bat, eta zeruaren gomuteak aurreratu eta bizkortu bear gaituz onoidadeari jarraitu eta zeruko bidean ondo ibiltera.



JAZOEREA

Mutil gazte eta nasai batzuk aurkitu ziran bein baten ordena guztiz estuko fraile bategaz; ikusirik ebilela oiñez, ortosik eta ain errukigarri, asi ziran, berari barre eta burla egiten, berak eroian bizitza neketsuagaitik, eta azkenean esan eutsen:— Aita, zelako engaño ain andia eroango daben Berorrek, ez baldin badago zerurik.— Engaño andiagoa eroango dozue zuek, egia bada dagoala infernua, siniste santuak irakasten deuskun legez.

Irakatsi 16.a: Santuen Alkartasuna

Zer sinistuten dozu, dinozunean: sinistuten dot Santuen Alkartasuna? Fededunak aldea daukela besten arimako onetan, Eleizea dan gorputz bat baten zatiyak legez.

AZALDUEREA

Zer esan gura dau emen Alkartasunaren izenak? Batuerrea, aldeartzea edo eskubidea eukitea, Kristoren fededunen artian dagozan arimako ondasunetan, bai dirala Eleiza goitularikoak, bai garbitegikoak edo bai munu onetan bizi diranak egiten dabeen Eleizakoak.

Zer da Eleiza goitularia? Emen goitulari urten izan eben eta orain zeruan dagozan guztien batuerrea.

Zer da Eleiza garbitegikoa? Garbitegian guztiz garbituten dagozan arimen batuerrea.

Zer da Eleiza gudalaria? Lurrean burrukan dabilzan Kristoren fededunen batuerrea.

Zeinbat Eleizea dagoz? Bat bakarrik, gudako, garbitasuneko eta garaitzako bere iru egoeretan, zeñaren burua dan Jesukristo gure Jauna.

Zergaitik deritxo «Santuen Alkartasuna»? Zergaitik berak lagunduten deuskun santu egiten, eta zergaitik, bere onera eta frutu guztietan alde eukiteko, egon bear dan Jaungoikoaren grazian.

Zelan egiten da zeruko Santuen eta lurreko fededunen arteko Alkartasuna? Zeruko Santuak lagunduten deuskue euren errekuakaz eta bitartekotasunagaz, euren irudi eta gorputz ileko ondarrak lotsa eta itzal andian eukiagaz, euren onoidade eta egikera santuak mirarituagaz, eta euren zorientasun betikoagatik guk poza eta atsegina artuagaz.

Zelako Alkartasuna egiten da garbitegiko arimakaz? Zelan eurak ezin ezer irabazi edo merezi leikeen, il ezkeru, guk daukagu euren errukia, eta eurakgatik eskiniten doguz Meza Santuko oparia eta beste gauza onak, onelan arindu eta gitxituten doguzala euren min, ala eta neke ikaragarrikoak; eurak barriz eskerontasunagaz eta amodio andiagaz erantzuten deuskue, gure ona eta zoriona ikusita poztuagaz.

Zelan egiten da Eleizea gudalariaren zatiyen arteko Alkartasuna? Gorputz bat baten zatiyak legez, alde arturik, beste enparauak egiten dituezan egite on guztietan; arima on eta artezak euren frutu eta onera guztietan, pekatu eralla eta mortalean dagozanak, bakarrik onera edo frutu jaritxigarritzkoan errukieragingarritzkoan.

Nundik artuten dau bere indarrik andiena Alkartasun onek? Gure burua dan Jesukristogandik; zeñaren irabazi eta merezimentuakgaitik dan indartsuagoa, eta eragillagoa Santuen bitartekotasuna gure onera eta mesederako eta ugariagoak gure kitugarriak, bada badaukaguz Jesukristoren kitugarri azkenbagakoak.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Gure anaiyak diran Santuak onrete, irabazi dagigun euren bitartekotasuna, eta lurrean burrukan dabilzan beste enparau anaiyakgaitik, edo garbitegian euren erruak garbituten dagozanakgaitik, errekuak eta eskariyak egun guztietan egitea.

JAZOEREA

San Paulok dino: «Zelan gorputzak daukazan zati asko eta guztiak egiten dabeen gorputz bat bakarra, alan guk Kristogan. Jesukristok, burua legez, zuzenduten dituz eta emoten deutse bizitzea zati guztiai, eta guk, zatiyak legez, oben egiten dogu eta alde artuten dogu Kristoren bizitzatik. Onezaz ganera, zelan gorputzeko zatiyak alkarri lagunduten deuten, eta batzuen onak izaten diran beste enparauen mesederako, alan kristinai guztiak bata besteari lagunduten deutse, eta alan batzuen egite onak dira besten mesederako».

Irakatsi 17.a: Eleizea gudalaria

Zer da Eleizea? Kristinai fededunen batuerrea, zeñaren burua dan Aita Santua.



AZALDUEREA

Nok egin eban Eleizea? Jesukristok, lurrean bere ordekoa izan zeiten munduaren azkeneraño, eta bere bitartez zabalduak izan zeitekeoezan jente guztiai Erostearen onera eta mesedeak.

Zelan imini eban? Gizon bat legez, arimea eta gorputza emoten eutsezala.

Zek egiten dau arimea? Grazia Santuegilleak edo karidadeak, zeñaren bitartez onak eta artezak bizi diran Jaungoikoagaz baturik eta alkar-turik, eta egiten dituezan bizitzabetikoko onera eta frutuak.

Nortzuk dira Eleizearen arimeari dagokoezanak? Jaungoikoaren gra-zian dagozan artez guztiak eta eurak bakarrik.

Zek egiten dau gorputza? Siniste santu bat dauken, eta euren arzain legokien nagusitasunaren mendean bizi diran bateoturiko guztien batuereak.

Nortzuk dagoz bada Eleizearen gorputzetik kanpora? Bateotuak izan ez diranak, siniste santua galdu izan dabeen herejeak, agindupetik kanpora dagozan zismatikoak, eta exkomulgaduak, egoera orretan aurki-tuten diran bitartean.

Pekatariak dira, Eleizeari dagokeozanak? Dira bere gorputzekoak, diralako bere zatiyak; baña ez dira bere arimakoak, ez dagozalako Jaungoikoaren grazian.

Zer da eskumikua edo exkomuninoa? Eleizako Alkartasunetik kan-pora botatea, eta au da kastigu bat, Eleizeak mukerri, burukoiai eta gogortuak emoten deutesena, eta guk bildur asko izan bear deutesaguna.

Zer ikasi bear dogu irakatsi onetan? Jesukristoagaz eskeronekoak izan eta amodio andi bat gure Ama Eleizeari eukiten, euki izan dogulako, bere altzoan jaioteko zoriona.

JAZOEREA

Napoleon, bere arrokeriaren eta andiustearen indarrez itsuturik eta zorabiyaturik, eldu zan, Eleizearen nagusitasuna gitxitan eukiteraño, eta beraugaitik izan zan Aita Santuagaitik eskumikatua edo exkomulgadua. Napoleonek, eskumikuaren barre eta burla egiten ebal, arrokeriaz bete-rik, esan eban:— Bada zer? Uste dau Aita Santuak, bere eskumikuak jausi eragingo deutsezala nire soldaduak euren eskuetako armak?— Egun ata-tik asi zan ilunduten bere izar eder eta argia, bere geroko bizitza guztia izan zan atsekabez, estutasunez eta zorigatxez bete, eta Rusiako guda edo gerran ots andiaren indarra eldu zan, bere soldaduak euren esku kikil-duetatik euren armak jausi eragiteraño.

Irakatsi 18.a:

Eleiza egiazkoaren ezaugarriak

Zeintzuk dira Eleiza egiazkoaren ezaugarriak? Lau: Batasuna, santu-tasuna, guztierakotasuna eta apostolukortasuna.

AZALDUEREA

Zeinbat Eleiza gudalari egiazko dagoz? Bat bakarrik, eta da Erromakoa; zergaitik berak bakarrik daukazan Jesukristoren Eleiza egiaz-koaren ezaugarriak.

Badauko batasuna? Bai; zergaitik bere zati guztiak dauken siniste satu bat bakarra, artuten dituezan Sakramentu batbatzuk, eta dagozan baturik eta alkarturik, batasunaren tokia dan Erromako Aita Santuagaz.

Badauko santutasuna? Bai; zergaitik Jesukristo bere imintzalea dan santua, santuak bere zatietatik asko, santua bere irakatsia, santua bere oiturakortasuna, eta santuak, berari jarraituten deuten guztiak.

Badauko guztierakotasuna? Bai; zergaitik irakasten dituzan, Jesukristok agerturiko egia guztiak, batbere itxi bagarik, eta zabalduten dan gizaldi guztietara eta erreñu guztietatik.

Badauko Apostolukortasuna? Bai; zergaitik Aita Santua eta Obispoak datoza ordena egiazko eta geratubagako baten bitartez, Jesukristok bere Eleizearen eskin-arritzat imini zituzan San pedrogandik eta Apostoluakgandik.

Zeintzuk dira arako doteak, zeintzukaz edertu eta jantzi eban Jesukristok bere Eleizea? Iru: agintaritasuna, utsik-egin-ezintasuna eta engañau-ezintasuna, Aita Santu bere buruagan aurkituten diranak.

Badauko batasuna protestantismoak? Ez; zergaitik euren artian bakotzak sinistuten dau, gura dabena, eurak egiazat dauken irakatsi one-gaitik «azterren librea».

Badauko santutasunik? Askozaz gitxiago; bada bere imintzallak izan ziran txarrak, eta dira txarrak euren irakatsiak. Euren arteko bat da sinis-tu egizu eta pekatu egizu edo «sinisteak bakarrik santu egiten dabela».

Badauko guztierakotasunik? Ez; zergaitik ez dituz artu gura egia asko, eta ez da zabalduten denpora eta leku guztietara.



Eta badauko apostolukortasunik? Ez; bada eurak ez datoz Apostoloakgandik. Guztiok dakigu noz jaio zan, eta amaseigarren gizaldiaren aurretik ez zituzan inok ezagututen eurak.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Herejiari bildur eta gorroto andi bat eukitea, eta Eleizearen irakatsi eta aginduai oben egin eta jarraitutea otzantasunagaz, zintzotasunagaz eta leiyaltasunagaz.

JAZOEREA

Isabel lenesa edo prinzesak, Karlos seigarren erregeagaz ezkondu baño lenago, bere arimako bakeagaitik, jakin gura izan eban, zein izan zeitekean erreliginoerik egiazkoena eta seguruena. Itandu eutsen protestanteai, zeintzuen artekoa zan bera, eta erantzun eutsen:— «Erromako Eleiza barruan al zala salbetea».— Orduan berak bere artian esan eban:— «Erromako Eleiza guztierakoak irakasten dau, ezin salbau leitekeala bere kanpotik dagoana; protestanteak dinoe, Erromako Eleiza guztierakoan ni salbau neindekeala; beraz gauzarik onena, ziurrena eta seguruena da ni Erromako Eleizean sartu eta berari jarraitutea».— Eta alantxe egin eban.

Irakatsi 19.a: Aita Santu Erromakoa

Zein da Aita Santua? Erromako Eleiz-agintari gorengoa, maisu engañaezingarria, lurrean Kristoren ordekoa, zeini guztiok obedi bear deutsagun.

AZALDUEREA

Nok imini eban Aita Santuaren gorengotasuna? Jesukristok, esan eutsanean San Pedrori:— «Zu zara Pedro, eta arri onen ganean eregiko dot neure Eleizea, eta infernuko ateaak ez dabe al izango bere kontra».

Zeintzuk dira arako doteak, zeintzukaz jantzi eta edertu eban Jesukristok Aita Santuaren gorengotasuna? Bera buru daukan Eleizearenak eurak: agintaritasuna, utsik-egin-ezintasuna eta engañau-ezintasuna.

Zetan dago agintaritasuna? Arimak zoriontasun betikora giyau eta zuzenduteko eskubide gorengoan.

Zetan dago utsik-egin-ezintasuna? San Pedroren eskubide onek bere ondoreakgan gizaldien azkeneario beti irautean.

Zetan dago engañau-ezintasuna? *Arzain gorengoa legez* irakasten deutsanean Eleiza guztiari, ezin erratu al izatean.

Bearbearrekoak dira dote orreek Aita Santuagan eta Eleizeagan? Dira guztiz eta osoro bearbearrekoak eta premiñazkoak: eurak bagarik ezin bete al izango leuke, Jesukristok gizakume eta emakume guztiak santutasunera eroateko eta guztiai zeruko bidea ziur irakasteko, emon izan eutsen lana edo egikizuna.

Eta eskubide denporazkoa edo agintaritasun munduko gauzetakoa bearbearrekoa da Aita Santuagan? Da bearbearrekoa gizon jakitunen eta irakasla andien eretxian eta munduko gauzen joapideai eta oiturai begirata, agindu dagian aukeratasun guztiagaz, eta batbere eragozpen bagarik irakatsi dagian ona eta egiak; baño ez da beretzat izatekoa eta berezkoa.

Siniste santuaren eta oitura onen ganean ez danean bere irakatsia edo agindua, oben egin eta obedi bear deutsagu Aita Santuari? Bai; geure arimearen kalte бага, ezin itxi ginaike egin eta bete бага, bere nagusitasunak irakatsi eta aginduten deuskuna, Eleizearen ontasunerako eta zuzentasunerako dan guztia.

Zeintzuk dira Apezpikoak edo Obispoak? Apostoloen ondorengiak, Aita Santu Erromakoaren mendean, eurai izentau izan jakezan artaldiak jaon, gorde eta zainduteko, iminirik dagozanak.

Dira engañaezingarriak Apezpikoak? Aita Santuagaz Batzarrean alkarturik eta baturik dagozanean, bai; bakotxa bakarrik, ez: baño euren erabagiak beti izan bear dira lotsa eta itzal andian eukiak eta eginak.

Zergaitik izan bear dira lotsa eta itzal andian eukiak eta eginak euren erabagi guztiak? Zergaitik, euren jakituria eta zurtasunagaz gañetik, dauken *egorako grazia*, zeñegaz lagunduten deuten Jaungoikoak, arimak zaindu eta zuzenduteko.

Ze onera atera bear dogu emendik? Obediutea, ez bakarrik Aita Santuari, baitabere Obispoai eta Arimazainai, siniste santuari, oiturai eta arimen zuzenbideari dagoken guztian.

JAZOEREA

Gizon donga eta txar batek itanduten eutsan mutil gazte on bategi:— Zergaitik sinistuten dozuz zuk egia orrek?— Zergaitik alan irakasten dituzan Arimazainak —erantzun eutsan mutil gazteak.— Baña Arimazain Jauna da gizona, eta erratu leike. Egia da, baño erratuko baleu, Obispo Jaunak kenduko leuke bere lekutik eta txartzat emongo leuke bere irakatsia; eta alan, Obispo Jaunaren alkartasunean dagoan bitartean, sinistuten dot Arimazainagan Obispo Jaunaren irakatsia.— Baña eta Obispo



Jaunak bere ezin erratu leike?— Egia da, baña orduan izango litzake Aita Santuagaitik dongatzat emona.— Eta, ezkenez, ezin erratu leike Aita Santuak? Ez, dalako engañaezingarria, bada Jesukristok eskini eta agindu izan deutso bere laguntasuna gizaldien azkeneari; alan sinisturik Aita Santuari, sinistuten deusatz, engañau ezin leitekian eta engañau ezin leikean Jaungoikoari berari.

Irakatsi 20.a: **Eleizearen azkenengo erabagiak**

Kredoa eta artikulubez gañetik, besterik sinistuten dozu? Bai, Aita, Eskritura Santuetan dagoana, eta Jaungoikoak Eleiza Santuari agertu deusatz guztia. Ze gauza dira orreek? Ez niri itandu, nazala jakituria bagakoa; badaukaz Eleiza Ama Santuak irakasak, erantzuten jakingo dabena.

AZALDUERA

Ondo dagokoe fededunai, Eleizearen azkenengo erabagiak ezagututea? Bai; batez bere Mariaren Sortuera Orbanbagakoaren eta Aita Santuaren engañaezinkorraren sinismenak.

Ori orrelan dala, Eleizeak asmetan dituz fedeko edo sinisteko egia barriak? Ez, edozelan bere: egiten dabena da, argitu edo azaldu, Jaungoikoak agerturiko egien artian aurkituten diran egia sinisturikoak, onei emonagaz sinismenen lekua, zerzeridadeak eta denporeak alan eskatuten dabeenean.

Zer egiten deutso fedeko egia, sinismena dala erabagi eta adierazoten danean? Atera, bere ganean ezdabidak eukiteko lekutik, siniste agiriagaz eta garbi bera sinistuteko, fededun guztiai eginbear andi eta astuna iminten jakela, Eleizeak, alan egiten ez dabena, beragandik alderatuteko eta botateko, izentetan deusatz kastigu gogorraren beian.

Zeintzuk beste erabagi edo irakatsi ondo dagokoe fededunai, oraingo denporetan ezagututea? Vatikanoko Batzar Santuaren guztiak, razionalismoko, panteismoko, ateismoko, deismoko... errakuntzen kontra emonak, eta Aita Santu Pio bederatzigarrenaren Sylabuskoak, liberalismoaren eta errakuntza barriaren eta oraingoaren kontra emonak.

Eta zelan pekatu egiten dabe, errakuntza orreek ontzat artu edo euren alde berba egiten dabeena? Egiten dabe pekatu eralla edo morta-

la, eta itxiten deutse fededun egiazkoak izateari; bada ez deutse sinistuten Eleizeari, zeñek irakasten dabena, alako irakatsiak dirala Jesukristoren irakatsi santuen eta zerukoaren kontrakoak.

Egia da, Eleizea dala libertadearen areriyoa? Eleizeak gizaldi eta denpora gutietan zaindu eta gorde izan dau libertade egiazkoa herejia guztien eta legebagako agintaritasun guztien kontra; baña txartzat emon izan dau eta emoten dau txarrerako eskubidea edo libertadea, libertadea ez dana, ezpada nasaieria edo libertade guzurrezkoa.

Eleizea da munduko gauzen aurrerapen barriaren areriyoa? Eleizea beti izan da langintza guztien eta jakituria guztien laguntzalea eta zainzalea; ontzat emoten dituz, geituten dituz eta bedeinkatuten dituz aurrerapen guztiak, jakituriako eta beargintzako gauza guztietan eginiko geitupen zuzenak eta arteak; txartzat emoten dabena eta emongo dabena da errakuntzea eta oitura txarra, onek urteten badabe bere, jakituriaren, aurrerapenaren edo zibilizazioaren izen argitsuak ez estaldurik.

Zergaitik sartu bear dau Eleizea politikan edo erreñuetako gauzen zuzentasunean? Eleizea sartu leiteke eta sartu bear dau erreñuetako gauzen zuzentasunean, siniste santuak, oitura onak, erteztasunak eta arimen salbazinoe betikoak alan eskatuten dabeen guztian; baña itxiten dituz, joan-etorri eta gauza denporazkoak eta mundukoak bakar-bakarrik diranak, gizonen eskuetan, onek erabagi dagiezan, baktxari ondo eretxiten jakon legez.

Zein da, Eleizeak munduko alkartasunen aurrean daukan egikizuna edo zeregina? Eleizea da alkartasun os bat, gorengoa eta ifloren agindupean ez dagoana, Jaungoikoak berak imini izan dabena munduko alkartasun guztien gañean, ez eurak mederatuteko, ezpada eurak irakasteko egia, Jaungoikoak agerturikoak, eta eurak zuzenduteko arteztasuneko eta oitura oneko lege betikoen erara, zeintzuen mende beti egon bear dabeen munduko alkartasunak eta euren lege guztiak.

Berba gitxitan esateko, zeintzuk dira Eleizeaganako gure zereginak eta eginbearrak? Gauza guztien ganetik, zorion anditzat euki bear dogu Eleizearen seme leialak gu izatea, maitetuten dogula geure ama legez, bete eta gordetan doguzala bere aginduak, ontzat emoten dogula, berak ontzat emoten dabena guztia, txartzat emoten dogula, berak txartzat emoten dabena guztia; gura dogula, eta, geugan dagozan alegin guztiak, egiten doguzala, bera izan daiten ezagutua, onraua eta lotsa eta itzal andiagaz begiratua guztiakgaitik, zein dan, irakatsi onetik atera bear dogun onerea.



JAZOEREA

San Vicente de Paul ikustera sarri askotan joaten ziran entzute andiko hereje argitsuak, bera euren alde eta irakatsi guzurrezkoetara eroan gura ebanak, euren errakuntzai egiaren antza emoteko, errazoe asmu dongakoakaz baliyetan zirala; baña San Vicentek desegin eta banatuten zituzan euren asmu deabruzkoak, erantzunagaz:— Berak jaramon egiten utsela bakarbarrik Aita Santuaren eta Obispoen irakatsiai, eta beraugaitik Eleiza egiazkoarenai; zergaitik bakarrik onei eta Eleizeari agindu eta eskini eutsen Jaungoikoak Espiritu Santuaren laguntasuna, eta berak bakarrik artu eban Jesukristogandik, irakasteko egikizuna edo lana; eta bere irakatsiai jarraituten deutsanak, daukala ziur ziur siniste santu egiazkoa.

Irakatsi 21.a: Eraiskuna liberalismoaren ganean

Zer da liberalismoa? Errazokortasuna edo razionalismoa alkartasunaren erondean edo gobernuan; edo bardin dana, irakasbide bat, irakasten dabena, erreñuak izan bear dirala giyauak eta zuzenduak Jaungoikoaren eta Eleizearen agintaritasun eta mendetasun bage.

Zeinbat muetakoa edo erakoa da liberalismoa? Irukoa: liberalismo radikala edo sustraizkorra, liberalismo moderaua eta liberalismo katolikoa.

Zer da liberalismo radikala edo sustraizkoa? Ukaturik izatearen gañetiko gauzak, agertuera jaungoikozkoa, eta beraugaitik Eleizeak Jaungoikoagandik arturik daukan egikizuna edo lana, irakasten dabena, erreñua dala agintaritasun eta eskubide guztiaren iturri bakarra eta goren-goa; ez ezaguturik Eleizeagan besterik ezpada alkartasun bat, erreñuaren mendean bizi bear dabena. Bere esaera da: *Eleizea Erreñuan*.

Zer da liberalismo moderaua? Ez ukaturik eta arturik izatearen gañetiko gauzak, eta Jaungoikoak eginiko agertuerearen alizatea, irakasten dabena, erreñuak izan bear dabela giyauak eta zuzenduak Eleizearen agintaritasun eta mendetasun bage. Bere esaera da: *Eleiza liberea Erreñu liberean*.

Zer da liberalismo katolikoa? Ez ukaturik eta sinisturik, Jaungoikoak imini izan dabela Eleizea, eta beronen agintaritasun gorengoa eta ñoren mendetasunik ez daukana; orregaitik bere irakasten dabena, Eleizeak irago bear dabela, jaramonik egin bage, liberalismoaren irakatsi guzurrezkoetik.

Badago liberalismoren bat, txartzat emona izan ez danik? Ez: liberalismoa izan da txartzat emona bere mueta eta era guztietan; dagoana da,

persona batzuk eta irakasbide batzuk daukela liberalen izena, eta bearbada ez dirala egiaz eta benetan liberalak.

Liberalismoa bat egin eta nastau bear da uritarmeneagaz edo demokrasiagaz eta gobernuaren erakaz? Ez ezelanbere; uritarmenea eta gobernuaren era guztiak ontzat emoten dituz Eleizeak; guztiak egon leitekez liberalismo bage, eta beruagaitik izan leitekez katolikoak, zelan guztiak egon bere leitekezan liberalismoagaz ezaindurik eta loiturik; eta bein baño sarriyago ikusten dan gauzea da, gobernuaren era bat bera leku baten katolikoa izatea eta beste leku baten liberala izatea.

Zeintzuk dira liberalismoaren irakatsiak? Kultuetako, konzienziako, inprentako, gogorazinoeko edo pensamentuko... libertadeak, baitabere eskola eleizbagak errelijinoebagak, ezkontza urikorra edo matrimonio zibila...

Zer dirautzazu irakatsi orrekaitik? Dirala guzurrezkoak, eta guztiz kaltegarriak; baña erreñuaren izanereak edo zerzeridadeak nozbait eskatu leikee euren itxipena gatx edo kalte txikiagotzat legez; beste gatx edo kalte andiago batzuk etorri ez daitezkan.

Eta nok erabagi bear dau, erreñuaren zerzeridadeak eskatuten dabean edo ez libertade orreen itxipena? Eleiza irakasleak, edo Aita Santuak eta Obispoak; ñozko eraz ez gobernuak eurak eurenez, eta ainbat gitxiago gizonak eurenez.

Zer egin bear dabe katolikoak, Eleizearen arerioa dan gobernuaren mendean eta agindupean aurkituten diranean? Badauko bakean bere agintaritasuna, lotsaz eta itzalez begiratu bear jako, San Pablok dinoan legez, eta guztiak erregutu bear dabe, denpora berean, legeak laketuten dituzan aletin guztiak, egiten dituezala, egiyak, arteztasunak eta Eleizeak urten dagine aurrera eta ez daitezkan egon azpiraturik eta goiturik.

Zelango pekatua egiten dabe, Eleizearen arerio diranai lagunduten deutsenak, agintaritasunen bat artu gura dabeenean? Egiten dabe pekatu eralla edo mortala; eta euren laguntasunagaz agintari urten ebanak, bere baiemonagaz eginiko lege txarren edo errelijinoaren kontrakoen errudun egiten dira.

Zer da masoneria? Ez da partidu politiko bat, ainbat gitxiago alkartasun ongille bat, eurak diñoen legez, zurtasun eta jakituria gitxikoak eta leloak engañetearren, ezpada da alkartasun txar bat, donga bat eta deabruzko bat, errelijinoa eta Eleizea amaitu eta desegiteko asmua daukana, al baleu.



Zelako penea dauko euren artekoa danak? Alkartasun deabruzko orrei izena emonagaz bakarrik, jausten da eskumikoan eta ezin izan leiteke parkatua, eurakgandikalde egiten ez dan bitartean.

Zer dirautazu sozialismoaren, komunismoaren, anarkismoaren... ganean? Dirala irakatsi guzurrezkoak, siniste santuaren, arteztasunaren, eta bakotxaren gauzen ganeko eskubidearen kontrakoak; eta Eleizeak txartzat emonik daukaz, alakoak diralako.

Ez dago ezaugarririk igarteko, zeintzuk diran gobernu eta persona egiaz eta benetan katolikoak? Bai: «Eleizearen irakatsiakganako mendetasun errime eta lotsa andikoa, esaten eban Aita Santu Pio bederatzigarrenak, da ezaugarri ziur bat, ezagututeko Eleizearen seme egiazkoak». Eta Eleizeaganako mendetasun errime eta lotsa andikoa izan bear da, guk irakatsi onetik atera bear dogun onerea.

JAZOEREA

Gutziz eregi Jaun On Antonio Maria Cascajaren, Calahorrako Apezpikoa izanak, eta gaur Valladolidko Len-Apezpikoa danak, Valvanerako Maria Dontzella gure Amagana erromeriya egiteko asmua artu zanean, emon eban argitara karta arzainkor bat, zeñetan esaten eban:— «Gure Valvanerako joakeriak izan bear dau urteiyerako leku bat legez, Jaungoikoaren eta Krsitoren, gure Ama Eleizearen eta beronen Agintari nagusi Erromako Aita Santuaren, guztioen arerioaren kontrako Kruzada Santuari asiýerea emoteko... Itanduten baldin badeuztazue nor dan arerio ori, eta eskatuten baldin badeuztazue, izentau eta irakutsi dagizuedala nun daukan iminirik bere jarlekua, erantzungo deusuet: Gure Aita guztiz Santuak ondo argiro esaten deusku bere enziklika eregi eta eder *Libertas* deritxonean, zeñetan, izentaurik gure denporetako arerio gutioena eta bildurgarriena, dirauzkun:— "Or daukazue".— Berori da, badaezpada бага, Españako gure erreñuari Batasun Katolikoa kendu eutsana, Aita Santuaren agintaritasun denporazkoaren lapurreta sakrilejiotsua Erroman egin ebana, satanasen amorru deabruzkoagaz azkenengo irainak, txarkeriak eta dongakeriak Jaungoikoari eta bere Kristori egin izan deutsezana, Jordan Bruno sinistegaldukoa Erromako urian bertan ainbestean eregiagaz eta goratuagaz, eta bere irudi lotsagarritzkoa bertako lekuri agirienean iminiagaz, alde guztietara sartuten dana, guztiari eseten deusana, eta era guztietara, batzuetan isilian eta bestetan agirian, erioztako guda eta burruka gogorra, santua, ona eta arteza dan guztiari, egiten deusana; Liberalismoa, guztia, berba baten esateko... Denpora egokian ezagutu eragin geuntzuen Aita Santuaren enziklika *Libertas* deritxo-

na, zeñetan Leon amairugarrenak alako jakituria miragarriagaz berba egiten daben, bere aurreko Pio bederatzigarrenak, gomuta guztiz gozo eta ezilkorrekoa beti izango danak, bere eskubide altsuagaz ain agiriyan Syllabus deritxon erabakitegian txartzat emoten daben *Liberalismoaren ganean*. Bada zelan, izan arren guztiz argia eta ondo azaldua Aita Santu guztiz jakitunaren ango berbetea, bearbada zuetatik askori eskatu izango eutsuen norbaitzuk, azaldu eta adierazo dagizuela argitasun geiagogaz, bertan aitaturten diran gauza guztiak eta bakotxa, irakurri egizue, Cartagenako Apezpiko Jaunak *Liberalismoaren* gañean argitara emon eban bere karta arzainkor benetan jakintsua eta goratua... Irakurri egizue ardu-raz, bada daukagu uste sendo bat, borondate artezagaz eta zuzuma bagarik irakurten daben guztiai, jautsiko jakela euren begietatik, euren kalterako begiak estalduten deutsezan estalgiya, gauzak, aurak direan legez, ikusten galerazoten deusena; eta beraugaitik nastetan dituezala, *Liberalismoaren* ganean berba egiten danean, alkarregaz eta bata besteagaz zerikusirik ez dauken gauzak, eta eukiten dituezala eretxi eta ezaupera guzurrezkoak gobernuaren eta politikoen, erregetasun onen edo bestearen ganean... Irakurri egizue gogo onagaz Pastoral edo Arzainkor guztiz argitsu ori, Leon amairugarrenaren enziklika *Libertas* deritxonean bere oiña ondo iminirik daukana, eta zeuek zeurorrek geratuko zare egieren jaube eginik, eta argitasun guztiagaz ikusiko dozue, *Liberalismoa* dala beste gauza guztiz desbardin bat, eta orregaitik izan dala txartzat emona Eleiza egiazkoaren eta Aita Santuaren erratuezingarriagaitik».



BIGARREN ZATIYA: SARREREA

Irakatsi 1.a: Itxaropena

Zer da itxaropena? Da onoidade izatezgañetiko bat, Jaungoikoak emoten deuskuna, zeñaren bitartez itxaroten doguzan, berak eskini eta agindu deuskuzan on guztiak, Jesukristoren irabazi edo merezimentuak-gaitik eta geure egite onakgaitik.

Zeintzuk dira, berak eskini edo agindu deuskuzan onak, edo zeren ganekoa da itxaropena? Zoriontasun betikoa, eta au jaritxiteko edo alkan-tzetako bear diran gauzak, direan legez grazia zerukoa eta pekatuen par-kazinoa.

On denporazkoak edo mundukoak dira itxaropengarriak? Ez; baña izan leitekez, zoriontasun betikorako egokiak, oneragarriak eta mesede-garriak diranean.

Zein da itxaropenaren oin sendoa? Jaungoikoaren ontasun azkenba-gea, on guztiak emon gura deuskuzana eta eskini deuskuzana, eta berak agindu dabena betetako, daukan leiyaltasuna.

Zergaitik dinozu «Jesukristoren irabaziakgaitik edo merezimentuak-gaitik»? Eurak diralako, Jaungoikoak emoten deuskuzan grazia guztien irabazitallak.

Bearrekoa eta noraezekoa da itxaropena? Adinera edo ezauberara eldu diranentzat da osoro bearrekoa salbetako.

Noz egin bear doguz itxaropeneko egiteak? Adinera edo ezauberara elduten gareanean, eriotzako orduan, esetsiyen bat edo tentazinoen bat daukagunean, graziaren baten bear edo premiñan gagozanean, eta sarri geure bizitzan.

Ze pekatu doaz itxaropenaren kontra? Antustea eta ez-itxaropena.

Zer da antustea? Da salbazinoa itxarotea Jaungoikoaren laguntasu-nak бага, berak iminiriko eginbideak бага, edo egite onen bear eta pre-miña bag.

Zer da ez-itxaropena? Da salbazinoe betikoa jaritxi eta alkantzetako itxaropenik ez eukitea, edo Jaungoikoak geure pekatuak euren astuntasu-nagaitik ez deuskuzala parkatuko ustez bizitea eta egotea.

Zelan batezbere indartuten dogu itxaropena? Erreguaren bitartez, zeinegan eskatuten deusaguzan Jaungoikoari, berak eskini deuskuzan graziak, eta geure salbazinoe betikorako bear doguzanak.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Jaungoikoaren ontasunean eta leiyaltasunean errime itxarotea; baña denpora berean bearra egin bear dogu bildur santuagaz, ikusirik geure argaltasuna eta erkintasuna.

JAZOEREA

San Bernardok indartu eta bizkortuten eban bere itxaropena, esana-gaz:— «Ni ez naz Jaungoikoaren graziaren duin; baña Jesukristok irabazi euztan bere pasinoe eta eriotzeagaz, eta berak esan euskun:— eskatu egi-zue eta artuko dozue, eta nire izenean eskatu dagizuen guztia, emongo jat-zue;— nik, bada, begiratu neinkeo zerutako erreñuari, neuri jatorkatan gauza bateri legez, Jesukristok beraganako emon euztan eskubideagaitik—

Irakatsi 2.a: Erreguaren izatea

Nok esan eban Aita gurea? Jesukristok. Zetarako? Guri eskatuten irakasteko. Zer da eskatutea edo erregututea? Da Jaungoikoagana biotza jaso eta mesedeak eskatutea.

AZALDUEREA

Zergaitik dinozu «Jaungoikoagana biotza jaso»? Zergaitik erregua da arimearen Jaungoikoaganako zirkin bat, zeñegan billatuten dituzan, bear dituzan onak, eta bera ingurututen dabeen gatx guztien osagarria.

Ze mesede eskatu bear deusaguz Jaungoikoari erreguan? Bar dogu-zan grazia guztiak, eta gatx eta premiña arimakoen eta gorputzekoen, norberarenen eta beste enparauen osagarria.

Zelan eskatu bear dira grazia orreek? Arimakoak eta salbazinoe beti-korako diranak, guztiz eta osoro; gorputzekoak eta denporazkoak, zerze-ridadeagaz, au da, geure arimearen onerako badira.

Jaungoikoak ezin emon leikeguz bere graziak, berari eskatu бага? Emon al dituz eta egiaz emoten dituz graziaren batzuk; baña berak eski-ni izan dau ez deuskuzala emongo beste batzuk, eskatuten deusazanari ezipada.



Zer dator emendik? Bearrekoa eta preminazkoa dala guretzat erre-gua; bada berau бага, ezin jaritxi eta alkantzau ginaikez, onoidade eta bir-tuteai jarraituteko bear diran laguntasun zeukoak, ezin azpiratu eta goitu ginaikez gatxtasun eta arriskuak, eta ezin irau ginaike eriotzaraño Jaungoikoaren adiskidetasunean.

Noz erregutu bear dogu? Sarri; batezbere premiña edo estutasun amdi bakotxarenean edo bestenean ikusten garean guztian.

Zeinbat dira erreguaren eregitasunak eta anditasunak? Asko; batez-berekoak eta lenenak dira: 1. da errelijinoeko egite bat, zeñegaz onretan dogun geure Jaungoikoa, ezaguntzat emoten dogula bere agintaritasun goreneta eta ontasun azkenbagea, autortu eta adierazoten doguzala geure mendetasuna eta premiña andia; 2. da gizonaren egiterik goratuena eta andiena, zeñegaz sartuten garean berba egiten Jaungoikoagaz, egiten garean aingeruen irudiko eta antzeko; 3. da osagarri guztirakoa, on guztiak jaritxi eta alkantzetako, eta gatx guztietatik gu libretako edo gordetako.

Ze onera atera bear dogu esan danetik? Erregua gauza anditzat euki-tea, eskatu eta erregututea geure premiña guztietan, eta iñoz ez itxitea, kristinau on baten goizeko eta gabeko lan onak eta eskabideak egiteari.

JAZOEREA

Jesukristo gure Salbagilleak ez bakarrik izan gura izan eban gure erreguaren irakasla, baitabere ispilua. Bere bizitza isileko eta ezkutuko ogetamar urteak izan ziran erreguaren eginera geratubagako bat; bere bizitza agiriari asierea emon baño lenago, aldendu eta joan zan eremura edo basamortura, bertan berrogei eguneko erregua egitera; bere bizitza agirian iragoten zituzan gaubak erreguetan, eta bere eriotzearen aurreko gabean erregutu eban, bere arimea prestau, indartu eta sendatuteko. Berak ez eukan erreguaren premiñarik, baño irakatsi gura izan euskun bere ejenpluagaz, guk egin bear doguna arrisku eta esetsietan.

Irakatsi 3.a: Erregu-mueta desbardinak

Zeinbat erakoa da erregua? Bitakoa, adinezkoa eta aozkoa. Zer da erregu adinezkoa? Egiten dana arimearen almenakaz, gauza onen bat gomutauagaz, bere ganean adinagaz gogoratu eta ezagutuagaz bera, borondategaz eginik egiteren batzuk, diran legez pekatuen damua, edo

beste erabagien batzuk, ondo konfesetako edo bizitza txarrari itxi eta bizi-tza on bat artutekoak. Zer da erregu aozkoa? Da berbakaz egiten dana: esaterako, egiten doguna, Aita gurea errezetan dogunean.

AZALDUEREA

Bearrekoa eta noraezekoa da gogoartea salbazinoe batikorako? Begiratuten bajako esangura edo neurri guztiakaz egin izaten dan legez, ez, zergaitik guztiak ezin egin al leikeen, baño esangura zabalean. au da, begiratuten bajako gauza jaungoikozkoen gogorazinoari legez, bai; bada Espiritu Santuak izentetan dau gogoartea, pekatuak ez egiteko osagarria legez.

Zeinbat aldiz daukaz gogoarteak? Iru: prestaerea, gorputza eta azkena.

Zeinbat egite daukaz prestaereak? Iru: 1. sinisteko egitea Jaungoikoaren aurrean; 2. umiltasuneko eta damutasuneko beste egite bat; eta 3. eskabidea, eskatuak grazia ondo egiteko.

Zeinbat egite daukaz gorputzak? Arimako iru almenak: 1. gomutea-rena, gomutetan dogula edo irakurten dogula gauza onen bat; 2. adinare-na, gauza on ori gogoari ondo emoten deusagula, aztertuten dogula, zelan bete dogun, irakatsi on orrek aginduten deuskuna, zer egin bear dogun aurrerantzean, zelako onera eta mesedeak ekarriko deuskuzan bera ondo bete eta gordeteak...; eta 3. borondatearena, biztuten doguzala geu-gan ontasunerako gurari sutsuak, eta egiten doguzala asmu eta erabagi on eta santuak.

Zelan amaitu bear da gogoartea? 1. eskerrak emonik Jaungoikoari; 2. berari eskinirik asmu eta erabagi eginikoak; eta 3. eskatuak grazia bearre-koak, eurak betetako.

Zeinbat erakoa izan leiteke erregu aozkoa? irutakoa: agiriya, bata-besteagazkoa eta bakarrekkoa.

Zer da erregu agiriya? Errelijinoe santuko otseinak, arimazainak eta elizgizonak Jesukristoren izenean eta Eleizearen ordezt egiten dabena; eta auxa da eregiya eta goratuena.

Zer da erregu batibesteagazkoa? Bik edo geiagok baturik eta alkar-turik egiten dabena; eta da indar andikoa.

Zer da erregu bakarrekkoa? Bakotxak bere bakarrean egiten dabena; eta auxa da errazena, bada egin ginaike ordu guztietan eta leku guztietan.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Egun guztietan edolabere ordu laureneko gogoartea eukitea, eta Errelijinoe santuko eleizkizun eta egite on guztietara zintzo eta leiyal joatea.



JAZOEREA

Aita Suarez adin argikoak eta guztiz jakitunak esaten eban, berak emongo leukezala bere liburu guztiak ordu lauren bateko gogoarteagaitik;— «Santa Teresa Jesusenak esaten eban, gogoarteari itxiten eutsan ari-meak, ez ebalá bear demoninorik kondenetako»: eta beste leku baten dino:— «Eskini egidazue, ordu lauren bateko gogoartea egunoro egingo dozuela, eta nik Jesukristoren izenean eskiniten deusuet zerua». — Gersonen ziñoan— «Gogoartea egin бага, ezin iñor bizi leiteke kristinaua legez, mirariz ezpada».— Eta orregaitik Santu guztiak, praile eta monja guztiak, euren arimen ardura andia dauken guztiak, egin izan dabe eta egiten dabe gogoarte ain oneragarri eta mesedegarri au.

Irakatsi 4.a: Erreguaren zerzeridadeak

Zelan erregutu bear da? Gogoz, umiltasunagaz, itxaropenagaz eta iraupenagaz. Aita gurea esaten dozunean, nogaz berba egiten dozu? Gure Jaun Jaungoikoagaz. Nun dago gure Jaun Jaungoikoa? Leku guztietan, batez bere zeruan eta altarako Sakramentu guztiz Santuan.

AZALDUEREA

Zelan erregutuko da gogoz? Siniste biziagaz gogoraturik goazala berba egitera, aurrean daukagun Jaungoikoagaz, eta eginik alegina, gure biotza eta adina joan daitezan gure minagaz eta berbakaz batera.

Zelan erregutuko da umiltasunagaz? Ezaguturik ez gareala gu, geure pekatuakgaitik, grazia bat bere jaritxi eta alkantzetako duin, eta iminirik geure uste guztia Jesukristoren irabazi eta merezimenduetan, zeñaren ize-nean eskatu bear dogun.

Zelan erregutuko da itxaropenagaz? Eukirik siniste andia Jaungoikoaren ontasun azkenbagan, bere altasunean eta bere leiyaltasunean.

Zelan erregutuko da iraupenagaz? Jarraiturik erreguak egiteari bein eta beste bein, egun baten eta bestean, iñoz nekatu eta gogait egin бага, iminirik geure aldetik dagoan guztia.

Utsik-egin-ezingarria da erreguaren indarra? Egiten bada zerzeridade esanikoagaz, eskaturik norberarentzat eta arimearen salbazinoerako bear diran gauzak, da fedeko egia, dala utsik-ezingarria.

Zetan dauko bere utsik-egin-ezintasuna? Jesukristoren egititasunean, zeñek leku askotan eta berba sarri esanikoakaz eskini deuskun. «Bere ize-nean sinisteagaz eskatuten dogun guztia, emona izango jakula».

Eta beste batzuentzat eskatuten dogunean, da bardin utsik-egin-ezingarria erreguaren indarra? Onera eta indar andikoz izan arren bere, ez da utsik-egin-ezingarria: 1. Jesukristok alan eskini ez ebalako; 2. zergaitik arako arek, zeñegaitik eskatuten dogun, galerazo leikean erreguaren one-rea bere borondategaz.

Ze onera atera bear dogu emendik? Onerazpen andiagaz eta esaniko zerzeridadeakaz geure erreguak egiteko asmu eta erabagi errime eta sendua, izan daitezan Jaungoikoaren gogokoak, eta guretzat oneragarriak eta mesedegarriak.

JAZOEREA

San Mateok, bere Ebanjelioko amabostgarren kapituluan dirauzku: «Emakume kananeatar bat joiala Jesusen ondorik, deadar andiakaz zirautsala:— Jesus, Dabiden semea, errukitu zaitez nigaz; nire alabea da dongaro nekatua eta mindua demoninoakgaitik.— Eta Jesusek ez eutsan erantzuten, berak barriz jarraituten eutsan deadar egiteari, eta eldurik bere ikaslak beragana, erregutu eutsen, zirautsela:— «Entzun egizu bere erregua, bada deadarka dator gure ondorik», eta Jesusek erantzun eban:— «Ez naz izan bialdua, Israelgo etxeko ardiakgana ezpada». Baña emakume kananeatarra ez zan deslaidu, ezpada, aurreraturik Jesusegana eta bera adaurik, esan eutsan:— «Jauna, baliyau zakidaz»; eta erantzun eutsan Jesusek:— «Ez da ondo semealaben ogiya artutea, eta txakurrai botatea». Eta emakumeak esan eutsan:— «Alan da, Jauna; baña txakurrai jaten dituez, euren ugazaben maitik jausten diran ogi-ondarrak». Sinistez eta umiltasunez beteriko berba oneek, aurreratu eta zirkindu eben Jesus gure Jauna, berak eskatuten ebana emotera, eta eregi eta alabetan ebalá bere sinistea, esan eutsan:— «O emakumea, andia da zure sinistea; egin beite, zuk gura dozun legez!».— Eta ordu atatik osatu zan bere alabea.



Irakatsi 5.a: Aita-gurearen iru eskabide lenengoak

Zein da erreguetatik onena? Aita-gurea. Zergaitik? Jesukristok, Apostoluen eskabidez, bere aoz esan ebalako. Zergaitik geiyago? Karidade eta maitetasun guztian sarturiko zazpi eskabide daukazalako.

AZALDUEREA

Zergaitik diñozu, daukazala zazpi eskabide maitetasun edo karidade guztian sarturikoak? Zergaitik erregu onek zarratuten dituzan, ez bakarrik eskatu eta gura izan bear diran gauzak, baitabere arako era arteza, zeñe-gaz eskatu bear diran maitetasun edo karidadean.

Zein da, maitetasunak edo karidadeak aginduten daben era arteza? Guk billatu dagigula lenengo gauzak-ezerezetik-egitearen azkena; bigarren lekuan gizonaren azkena bizitza onetan eta bestean; eta azkenez azken orreek jaritxi eta alkantzetako eginbideak.

Zein da, guztiaz-ganetik eta lenengo lekuan billatu bear dan gauzak-ezerezetik-egitearen azken guztirakoa eta izatezkoa; eta auxa da, lenengo eskabidean eskatuten doguna.

«Zein da lenenga? Santifikadua izan bedi zure izena. Zer eskatuten dozu eskabide orretan? Jaungoikoaren izena izan daitela ezagutua eta onrauba mundu guztian».

Zein da, bigarren lekuan eskatu bear dogun gizonaren azkena? Salbazinoe betikoa edo Jaungoikoaren erreñuan alde eukitea; eta alde-eukite asiriko bat lege, erreñu orretarako eskubidea emoten deuskun grazia: zein dan, bigarren eskabidean eskatuten doguna.

«Zein da bigarrena? Betor gugana zure erreñua. Zer eskatuten dozu eskabide orretan? Jaungoikoak agintau dagala gure ariman emen lurtean graziagaz, eta gero emon daigula zoriona».

Zein da eginbide bearrekoa eta izatezkoa jaritxi eta alkantzetako, bizitza onetan gura izan bear dogun azkena? Jaungoikoaren borondatea egitea, beterik zintzo eta leiyal bere agindu guztiak; eta auxa da, irugarren eskabidean eskatuten doguna.

«Zein da irugarrena? Egin bedi zure borondatea zelan zeruan alan lurtean. Zer eskatuten dozu eskabide orretan? Egin dagigula Jaungoikoaren borondatea, lurtean gogozanok, zorioneak zeruan egiten dabeen lege».

Zer irakasten deusku Aita-gurearen lenengo zati onek? Maitetu bear doguzala eta guztiaz-gañetik billatu bear doguzala, Jesukristok diñoan

legez:— «Billatu egizuez lenengo Jaungoikoaren erreñua eta bere zuzen-tasuna, eta beste enparau guztia emongo jatzue eraiskunatzat».

JAZOEREA

Itandu eutsan San Inaziok Aita Lainezeri:— «Zer autuko leukean berak, zeruan bereala sartutea, ala lurtean geratutea, Jaungoikoaren zorionakgaitik bearra egiteko», eta Aitak erantzun eutsan:— «Berak autuko leukeala zerura bereala joatea».— «Bada nik, esan eutsan San Inaziok, gura-go dot emen geratutea, Jaungoikoaren borondatea betetako eta bere zorionagaitik bearra egiteko; eta nire salbazinoe betikoaren gañean barr-tiz daukat uste oso bat, Jaungoikoak eukiko leukeala nire ardurea, eta ez leukeala itxiko galduten, bere amorearen borondatez zeruan sartutea atze-ratu eta luzatu ebana».

Irakatsi 6.a: Aita-gurearen beste enparau eskabideak

Zein da laugarrena? Egunean eguneango geure ogiya gaur emon egi-guzu. Zer eskatuten dozu eskabide orretan? Jaungoikoak emon daigula gorputzerako janari egokiya, eta arimearentzat grazia eta Sakramentuak.

AZALDUEREA

Esan dozu, azkenak eskatu ezker, eskatu bear dirala, areek jaritxi eta alkantzetako egibideak. Zeintzuk dira oneek? Batzuk dagoz, zuzen lagunduten deuskuenak, eta beste batzuk bakarrik zearka lagunduten deuskuenak, kendurik, azkenetik alde eragiten deuskuen eragozpenak eta gatxtasunak.

Zeintzuk dira eginbide laguntari zuzenak? Gorputzaren janari egokiya, zeñetan dagoan sarturik, bizitzarako bear dan guztia; eta arimearentzat grazia eta Sakramentuak: eta au eskatuten dogu laugarren eskabidean.

Ze eragozpenek alde eragiten deuskue azkenetik? Iruk: 1. pekatuak; 2. pekatu zirikaturik gaituezan esetsiyak; eta 3. pekatuaren kastigua diran gatxak: eta gatx onetatik librau gaitezala, eskatuten dogu beste enpa-rau eskabidetan.

«Zein da Bostgarrena? Parkatu egiguzuz geure zorrak, guk geure zordunai parkatuten deuseguzan lege. Zer eskatuten dozu eskabide orretan? Jaungoikoak par-



katu dagiguzala geure pekatuak, geuk, gu iraindu gaituezanai edo gatx egin deus-kuenai, parkatuten deutsegun legez».

Zergaitik imini dau Jaungoikoak zerzeridatedatzat edo bañatzat, guk parkatu dagigula, Berak guri parkatuteko? Batezbere errazoe bigaitik: 1. gure artean iraun eragiteko alkarganako maitetasunari; 2. gure argaltasuna eta erkintasuna indartu eta sendatuteko, ikusirik zein erraz jaritxi eta artuten dogun geure pekatuen parkazinoa.

«Zein da seigarrena? Ez egiguzu itxi esetsiyen edo tentazinoan jausten. Zer eskatuten dozu eskabide orretan? Jaungoikoak itxi ez dagigula, deabruak, pekatuan guri jausi eragiteko, dakarguzan gogorazinoe txarretan eta esetsiyetan jausten, eta ez lekurik eurai emoten».

Eskatu bearrean, itxi ez dagigula jausten ez litzateke obeto izango eskatutea, librau gagizala esetsietatik? Ez; zergaitik esetsiyak edo tentazinoak eurenez dira guztiz oneragarriak eta mesedegarriak; bada irakasten deuskue, iraun eragiten deuskue umiltasunean, sendatuten gaituez ontasunean, eta aberastuten gaituez bizitza betikoko irabaziyakaz eta merezi-metuakaz.

«Zein da zazpigarrena? Baña librau gagizuz gatxetik. Zer eskatuten dozu eskabide orretan? Librau gagizala Jaungoikoak gatx guztietatik, eta arimako eta gorputzeko arriskuetaatik».

Bada gatxak, diran legez geisotasunak, ondasunak galdutea eta beste onelango zorigatx asko, ezin izan leitekeguz irabazi eta onera andikoak, onian eta eroapenagaz eurak irago ezkeror? Bai: orregaitik eskabide onek zuzendu bear dau, geure salbazinoe betikoa arriskuan iminten dabeen gatxetara, diran legez eriotza ustebagakoa eta batbatekoa, irago ezin dogun zorigatxen bat...

Zelako asmuak atera bear doguz irakatsi onetik? Jesukristok berak eginiko erregu au askotan euki eta itzal andi bat berari izatea, esaten dogula sarri eta onerazpen andiagaz.

JAZOEREA

San Bernardok, erreguak egiten ziarduala, ikusi eban, fraileak koruan erreguetan egozan bitartean, angeruak inskribiduten egozala, eta batzuk egiten ebela urrezko letrakaz, beste batzuk uragaz, eta besteak tinta beltzagaz. Gure Jaunak agertu eta adierazo eutsan ikuskizun onen esangurea, zirautsala:— Angeruak urrezko letrakaz inskribiduten zituezanak, zirala, berotasunagaz erregututen eben fraileak; uragaz inskribiduten zituezanak, zirala, ardurabakotasunen bategaz erregututen ebenak; eta tinta balzagaz inskribiduten zituezanak, zirala, borondatezko ardurabakotasunagaz erre-

gututen ebenak; alan lenegoak irabazten eben eginsari andi bat, bigarreank ezerbere edo ozta ezerberz, eta irugarrenak ziran kastiguaren duin.

Irakatsi 7.a:

Zelan erregutu bear deusagun Jaungoikoari eta zelan Santuai

Bada zergaitik asieran «Aita gurea zeruetan zagozana»? Jasoteko biotza Jaungoikoagana, eta eskatuteko mesedeak umiltasunagaz eta uste bateagaz. Angeruak eta santuai bere erregutu bear deutsegu? Bai, aita; geure bitartekoai legez.

AZALDUEREA

Deitu gineikeo Jaungoikoari, Aita? Bai; egiaz eta benetan dalako; 1. utsetik-egintasunagatik, bada Berak emon euskun izatea eta bizitzea; 2. gure erosteagaitik, bada Berak erosi eta atera ginduzan demoninoaren mendetik; eta 3. umetzat gu artuteagaitik, bada Berak artu ginduezan bere semetzat Bateoan.

Eta zergaitik esaten dogu Aita gurea, eta ez Aita neurea? Gomuta gaitzean, guztiok gareala anaiak eta Aita baten semeak, eta daukagula guztiakgaitik eskatuteko eginbearra, iminirik onelan anaetasun guztioen egiazko bat.

Egonik Jaungoikoa leku guztietan, zergaitik esaten dogu «zeruetan zagozana»? Zergaitik an geiago argi egiten daben bere zorionak, angeruen eta santuen ganean agintauagaz; eta beti euki dagigun gogoan, geure azkena dan zerua, nun agintetan daben gure Aitak.

Zelako gurariak biztu bear dituz gudan sarrera guztiz samur orrek? Poztasun eta itxaropen andikoak, ikusirik, eskatutera goazan gure Aita, dala zeruetako Erregea, eta bear doguzan on guztien jaubea.

Eskatu bear deusagun Jaungoikoari, santuai legez? Ezetara bere ez; Jaungoikoagana zuzenduten gara artez eta osoro, grazia guztien asiera eta emollea dan legez; alan esaten dogu emon egiguzu, entzun egiguzu, parkatu egiguzu...

Zelan bada eskatuten deutsegu santuai? Bakarrik geure bitartekoai legez, eroan dagiezan gure erreguak Jaungoikoaren aurrera, eta imini



dagien euren bitartekotasuna gugaitik; alan esaten dogu: «erregutu egizue, gure bitarteko izan zaitez».

Zer adierazoten emon gura dogu, «alan izan dedilla» esan gura daben «amen» berba agaz? Jaungoikoak guri entzun dagigun, guk daukagun gurari beroa eta sutsua, eta guk eskatuten doguna, Jesukristoren irabazi azkenbagakgaitik jaritxiko dogula daukagun uste edo itxaropena.

Ze onera atera bear dogu emendik? Jaungoikoa semearen uste beteagaz maitetutea Aita legez, eta santuak geure bitartekoak legez.

JAZOEREA

Eskatuten deusagunean Errege bateri edo beste andiki bateri, guk merezi ez dogun meseden bat, iminten deusagu bitartekotzat, beragaz lagun edo adiskide danen bat, onek agertu dagion gure gurari edo naizatea, eta egin dagian alegina; eta alan jaritxi eta alkantzetan dogu, guk gura dogun eta merezi ez dogun gauzea; Alan agertuten doguzanean geure erreguak Jaungoikoaren aurrera guk errukigarri eta pekatariok, eta beraugaitik ezer merezi ez dogunok, iminten doguz bitartekotzat Maria guztiz Santea eta santuak, euren erreguakaz eta merezimentuakaz indarra emon dagioen gure eskabideari, eta alan euren bitartekotasunagaitik jaritxi eta alkantzetan dogu geure duinbakotasunagaitik ezin itxaron ginaikeana. Gañera, itxaropeneko eta onerazpeneko egite onegaz, onretan doguz Jaungoikoaren adiskideak diran santuak.

Irakatsi 8.a: Dontzellearen erregua

Zelango erreguak egiten deusaguz batezbera Andra Mariari? Abe-Maria edo Agur-Maria eta Salbea edo Agur-Erregina. Nok esan eban Agur-Maria? San Gabriel gar-angeruak, Andra Mariari agur egitera etorri zanean. Nok esan eban Salbea edo Agur-Erregina? Eleiza Ama Santeak dauko beretuta. Zetarako? Andra Mariari mesedeak eskatuteko.

AZALDUEREA

Zergaitik geiyenean errezetan dogu Agur-Maria Aitagurearen urrengo? Maria gure Amaren bitartekotasunagaz obeto jaritxi eta alkantzetako, Jaungoiko gure Aitari eskatuten deusaguna.

Zeinbat alde daukaz Agur-Mariak? Iru: 1. angeruak esan zituzan berba oneek: «Jaungoikoak gorde zagizala, graziaz betea, Jauna da zugaz bedeinkatua andra guztien artian»; 2. Santa Isabelek esaniko berba oneek: «Bedeinkatua zure sabeleko frutua»; eta 3. beste enparau berbak «Santa Maria...», sinistea da izan zirala geituak Efesoko Batzar Santuagaitik bostgarren gizaldian.

Zeintzuk beste erregu egiten deusaguz Dontzella guztiz Santeari? Dagoz asko, bere onerazpeneko santuak imini dituezanak, Eleizeak ontzat emon dituzanak eta parkamenakaz aberastu dituzanak; baña lene-nak dira Salbea, Letaniak eta Errosario Santua.

Zer da Errosario Santua? Da, Jaungoikoaren errukitasunari eskatuteko era bat, esanik amabost bidar Aita-gurea, onen urrengo beste ainbeste bidar Abe-Mariaren amarrekoak, gogoratuten dala amarreko bako-txean gure siniste santuko ezkutapenetatik lenenen bat.

Nok egin eban Errosario Santua? Dontzella guztiz Santeak berak, eta emon eutsan Santo Domingo Guzmangoari, premiña guztien osagarria legez; eta Aita Santu Erromakoak guztiz asko aberastu izan dabe Errosario Santua euren parkamen zenbatu ezingarriakaz, denpora berean adierazo izan dabeela, zein oneragarria eta mesedegarria dan beraganako zaletasun edo onerazpena.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Dontzella guztiz garbi gure Amari sarri erregututea, batezbera erloioak joten dabenean, goizeko, egu-berdiko eta iluntzeko Abe-Mariyetoetan, gogoratuten dogula geure Erostearen ezkutapena, eta berari emotea beraganako gure maitetasu-nen ezaugarria, errezaurrek egunean edolabere Errosario Santuaren iru zatietatik bat.

JAZOEREA

San Francisco Javier, Jesusen Alkartasuneko goraldia eta edertasuna, izan zan Errosario Santuaren zabaltzalle berotasun andikoa. Ez bere arazu eta zeregin andiakgaitik, bere neke gogorragaitik, eta ezigaitik bere, itxi eban egunoro errezaurre baga bere bizitzako egun guztietan. Beti eroaten eban eskegirik bere samatik, mundu guztiak ikusi egian eta jakin egian, Errosario Santua zala lokarriya, bere biotza Mariaren Biotzagaz batu eta lotuten ebana. Geiso askogana joateko, izanik denpora bat batean deitua, eta ezin ikusi eta lagundu al izanik geiso guztiak egun baten ez eta sarritan aste guztian bere, leku urrinetarako zirako egiten jakazan deiyak, bialduten eutsen geisoai Errosarioa, zirautsela, al eben errezaurre egiela, eta ezin beben, imini egiela samatik, eta berba emoten eutsela,



batzuk obaria artuko ebela euren geisotasunean, besteak osatuko zirlala, eta beintzat ez zirlala ilgo Sakramentuak бага. Milla eta milla bidar izan zan egiaztua eta ziurtaua mirari askogaz San Francisco Javieren eskintsari au.

Irakatsi 9.a:

Maria Dontzella guztiz Santearen eregitasunak

Nor da gure Andra Maria Dontzellea? Da Andra bat jatorrizko pekatua бага sortua, onoidadez betea, Jaungoikoaren Ama dana eta zeruan dagoana.

AZALDUEREA

Zeintzuk dira, Maria Dontzella guztiz Santeagan miraritu bear doguzan eregitasunak edo doerik lenenenak? Bost: 1. bere Sortuera Orbanbagea; 2. bere Santutasun goratua; 3. bere Amatasun jaungoikozkoa; 4. gorputz eta arima zeruan artua-izate zorionekoa; eta 5. bere Bitartekotasun guztirakoa.

Zetan dago bere Sortuera Orbanbagearen eregitasuna? Bera bakarririk, bere Seme Jesukristoren irabazi edo merezimetu lenaz ikusiagaitik, pekatu jatorrizkoa bagakoa izatean, eta bere Sortuerako lenengo unetik Espiritu Santuaren grazia eta doiakaz aberastua eta edertua izatean, beti izanik ederra, garbia eta zoragarria Jaungoikoaren begien aurrean.

Zelakoa da bere Santutasunaren eregitasuna? Goratuena eta andiena, egiten dabela berak bakarrik eregitasun berarizko bat, angeru guztiai eta santu guztiai batera aurea eroanagaz.

Zelakoa da bere Amatasun jaungoikozkoaren anditasuna? Andiena guztien artian, bada jaso eta goratuten dau duintasun azkenbagako batera legez, egiten dabela Jaungoikoaren Ama, bere garbitasun dontzellakorraren kalte бага.

Zer miraritu bear dogu zeruetara Igoera dontsuaren ganean? Bere sarrera zorionekoa gorputz eta arima zeruan, nun aurkituten dan angeruen eta gizonen Erregina eginik, eta zeruen eta lurraren Agintari Nagusia dala.

Zetan dago bere Bitartekotasun guztiena? Gizon guztien Ama, pekatari guztien bitarteko eta grazia guztien zabalztalle eta emontztalle eginik egotean.

Eta zer dirauztazu bere Biotz guztiz maitegarriaren ganean? Jaungoikoak egin ebala berariz ezkutapen andi orretarako, emoten eutsazala zoragarritzko edertasun miragarri bat, gizonen biotzak beragana erotaten dituzana, samurtasun eta errukitasun ain andiak eze, guztiakaz errukitu eragiten deutesena, eta eskubide eta agintaritasun azkenbagak legez, izan daiten premiña guztietarako osagarri eta laguntasun sendoa.

Ze uste edo eretxi euki bear dogu Andra Mariaren eskapularioen ganean? Mariaren onerazpen eta adiskidetasunean bizi diranen ezaugarriak eta igargarriak dirala; dala onerazpen bat Dontzella guztiz Garbiaren guztioz gogokoa, eta Eleizeak ontzat emona.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Dontzella guztiz santua egun guztietan onretea, batezbere zapatuetan eta bere jaiegunetan, beti eroaten dogula bularrean bere eskapulario santua.

JAZOEREA

San Alfonso Maria Ligoriok, «Mariaren Zoriontasunak» deritxon bere liburuan, dino:— «Zelan gizonak dauken gauza onragarritzat, besteak eroan dagiela euren soñeko ezaugarria, alan Maria guztiz Santeak pozik eta esker onagaz ikusten dau, bere onerazpenekoa eta adiskideak eroan dagiela bere eskapularioa, alan erakusteko, dirala bere mendea biziteko eskirinik dagozanak, eta dagozala sarturik Jaungoikoaren Amaren otseinen eta serbitzarien artian. Gaurko eguneko hereje barriak, ekanduz legez, burla eta barre egiten deutse onerazpen oneri; baña Eleizeak ontzat emon izan dau bere nagusitasunagaz eta parkamen ugarriagaz. Karmengo eskapularioari, Maria samintasunenkoari, Mercedkoarenari, eta batezbere Sortuerarenari, emonik dagozan parkamenak bai partearrak eta bai osoak, bizitzan eta eriotzan irabazi leitekezanak, dira zenbatu ezin leitekezan beste. Niri dagokanez, egin dot, eskapulario guztiak artuteko alegina».

Irakatsi 10.a:

Irudiaren kultua edo gurtea

Eta altaran dagoana nor da? Da zeruan dagoanaren antz edo irudia. Eta zetarako dago ana? Bere bitartez gomutau daigun, zeruan dagoana, eta bere irudiya dalako, begirunea izan dagiogun.



AZALDUEREA

Ze gurte edo kultu emon bear deutsagu Dontzella guztiz Santeari? Onorezko eta itzalezko gurte edo kultu berarizko bat, Jaungoikoaren Ama dan legez.

Eta santuai? Onorezko eta itzalezko gurte edo kultu txikiago bat, Jaungoikoaren serbitzallak diran legez.

Bat egin eta nastau leiteke, Jaungoikoari emoten deutsagun gurte edo kultua, Maria guztiz Santeari eta santuai emoten deutsegunagaz? Inoiz bere ez; Jaungoikoari emoten deutsagu begirauneko eta mendetasuneko kultu osoa, bere beraren eregitasunagaitik, dalako Jaungoikoa; santuai emoten dautsegu onorezko kultu bat Jaungoikoaganako begirauneagaitik, izan ziralako Jaungoikoaren serbitzallak.

Izan bear deutseguz begiraune eta itzala Andra Mariaren eta santuen ondar edo errelikiya eta irudiyai? Emon bear deutsegu onorezko kultua bera, ez eurak eurakgan dauken gauza geikorrageitak, ezpada eurak adierazo eta esan gura dabeenagaitik.

Irudiyai emoten jaken gurteak edo kultuak, badauko zerbait ondo ez dana eta guzurrezkoa dana? Ez: zergaitik eurai emoten deutsegun kultua, ez da guk sinistuten dogulako, eurakgan aurkituten dala birtuten bat edo eregitasunen bat, ezpada zuzenduten da, zeruan dagozan Andra Mariagana eta santuakgana, zeintzuk ezin onrau al izanik guk, emen lurrean ez dagozalako, onretan doguzan euren antz eta irudiyen bitartez.

Agertu eta azaldu daikedazu au bardinkuntza bategaz?— Ama batek daukaz maitegarritzat eta guztiz bere gogokotzat, bere seme ilarin edo urrin bizi danaren irudiya eta beste gauzak; maitetasun eta gogo on au ez deutse, gauza areek eurakgan dauken geikorrageitak, ezpada zuzenduten dira, irudi eta gauza areek gogoratu eragiten deuten bere semeagana.

Zer dirauztazu, Andra Mariari emoten jakazan izen gañerakoakgaitik? Eurak geure gomutara ekarten deuskuezala ezkutapen bat, jazoeren bat, mirarien bat, edo Mariaren irudiyen jatorrien bat; baña guztiak zuzenduten dira Jaungoikoaren Amagana.

Ze onera atera bear dogu esan danetik? Andra Mariari eta santuai euren irudi, antz, errelikiya eta izen gañerakoetan onreteya eta itzal andia eukitea.

JAZOEREA

Guztiz entzute andikoa eta ospetsua da, Andra Mariak Lourdesen egin eban agertueria; agertueria au izan da ainbeste ezdabaiden eta errazoen ostean egiazkotzat ezagutua eta ziurtaua, mirari ugari eta askogaz

sendatua, bertan eginiko pekatarien biurrera santuakgaitik egiaztua, eta Eleizeak ontzat emona. Bertara joaten dira urte guztietan, ezin zenbatu al beste erromes penitenziagillak, agertueria onen azkena zan pekatarien euren Jaungoikoaganako biurrera santuagaitik, eskatu eta erregututeko. Ez dogu bere aztu bear españatarrok, Andra Mariak, aragi ilkorrean bizi zala oraindik, Zaragozako urian Santiagori eta bere ikaslai egin eutsen agertueria, emoten eutsela irudi bat pilar ganean, bere bitartekotasunaren eta España siniste santuak utsik egingo ez daben ezaugarri ziurtzat.

Irakatsi 11.a: Angeruak

Ze gauza dira Angeruak? Zeruan Jaungoikoagazko atseginetan dagozan espiritu uts zorionekoak dira. Zetarako ezerezetik egin zituzan gure Jaun Jaungoikoak? Beti beti bera alabau eta bedekatu dagien. Eta zetarako geiago? Bere serbitzariak legez Eleizea zuzendu eta gizonak zainduteko. Beraz zuk bere badozu Angeru-jaolea? Bai, badaukat; eta gizon bakotxak dauko berea.

AZALDUEREA

Zein da Angeruen izatea? Dira espiritu osoro utsak, batbere gorputzik ez daukenak.

Zelako egoeran ezerezetik egin zituzan Jaungoikoak? Graziazko egoeran: eta alan iraun ebenak, dira Angeru onak; baña Jaungoikoaren kontra jarki eta urten ebenak, izan ziran infernuan ondatuak, eta oneek dira demoninoak.

Zeinbat dira Angeru onak eta zelan berezitzen dira edo desbardinuten dira euren artian? Dira zenbatu ezin leitekezan beste, eta ezagututun dira iru batin-txekia edo jerarkia eta bederatzi korutan: lenengo batin-txekian: Serafinak Angeru Jaungoikoaren amodioz sutuak, Kerubinak edo Angeru jakin-beteak eta Tronoak edo Angeru jargoak; bigarren batintxekian: Dominazinoak edo Angeru menpetzalleak, Birtuteak edo Angeru indartsuak eta Potestadeak edo Angeru zeruko mendeak, eta irugarren batintxekian: Prinzipaduak edo Angeru lenendaitzak, Arkanjeluak edo Goiangeruak eta Angeruak; azkenengo oneek dauke gizonak zainduteko ardurea.



Ze onera eta mesede ekarten deuskuz Angeru-jaoleak? Guztiz asko; lenenak dira: beti lagun egiten deusku, irakasten deusku bere argitasunakaz, libretan gaituz arrisku askotatik, jaritxi eta alkantzetan deuskuz grazia eta laguntasun zerukoak, esetsiak eta tentazinoak azpiratu eta goituteko eta gure erregu eta eskabideak eroan eta agerturik Jaungoikoari.

Zelako kultura emon bear deutsegu Angeruai? Santuai emoten deutseguna bera, bada, euren eregitasuna izan arren andia, dira kriptura utsak.

Zelakoak dira, eurakganako dauzkagun eginbearrak? Lotsa eta itzala izan bear deutsegu euren gure aurrean egoteari, jarraitu bear deutsegu erraz eta umiltasunagaz euren argitasunai; erregutu bear deutsegu uste osoagaz geure arrisku eta premiñetan, eta onrau bear doguz egun guztietan.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Egun guztietan geure Angeru-jaoleagana zuzendutea, egiten deusagula erregu au:— «Angeru santua, Jaungoikoak bere ontasun amaibageagaitik nire zaintzalle zu imini zaituzana, argitu nagizu, zaindu nagizu, zuzendu nagizu eta erondu nagizu».

JAZOEREA

Eremu eta basamortuko Aita bateri itandu eutsen baten, zer egiten eban beti pozik eta bake dontsu bardin baten egoteko, berak erantzun eban:— «Gogoratuten naz, beti dagoala neure ondoan neure Angeru-jaolea, neure premiña guztietan lagunduten deustana, une eta aldi guztietan zer egin bear dodan eta zer esan bear dodan irakasten deustana, eta gero nire egikerak inskribiduten dituzana, nik egiten ditudazan legez. Gogorazinoe onek lotsa eta itzal onez betetan nau, eta galerezoten deust egitea, bere gogoko ez dan guztia».

IRUGARREN ZATIYA: SARREREA

Irakatsi 1.a:

Maitetasuna edo Karidadea

Zer da maitetasuna? Da izatearen gañeko onoidade bat, zeinen bitartez maitetuten dogun Jaungoikoa bere eregitasun amaibageagaitik, eta maite dogun lagun urkoa, geure burua legez, Jaungoikoari deusagun amodioagaitik.

Ori orrelan dala zeinbat agindu daukaz maitetasunak? Bi: 1. Da Jaungoikoa maite izatea gauza guztien gañetik; 2. Da lagun urkoa maite izatea geure burua legez: eta agin du bi onetan dago zarraturik lege guztia.

Zelan betetan dogu, Jaungoikoa maite izateko lenengo agindua? Lenengo: poztuten gareala bere zoriontasun eta eregitasun amaibagakoakaz; bete eta gordetan doguzala, bere onerako zuzendu eta diran lenengo iru aginduak; eta 3. Pekaturik batbere egiten ez dogula, edo beste enparau aginduak austen ez doguzala.

Zeinbat erataria maite izan ginaike Jaungoikoa? Geuretzat ona dan legez, edo amodio maitagarriagaz, eta Bera Beragan ona dan legez, edo amodio ondogurakoakaz; eta auxa da onena eta betena.

Eta zergaitik maite izan bear dogu gauza guztien gañetik? 1. Daukazalako onoidade eta eregitasun guztiak, eta guztiak era amaibagakoan; 2. Dalako geure Aita, zeñegandik artu izan dogun guztia; eta 3. Dalako geure azkena, zeinegandik itxaron bear dogun guztia.

Andia da onoidade onen eregitasuna? Da lenengoa eta onoidade guztien arimea. Onoidade bat, maitetasun бага, da ila, eta bizitza betikorako ezertarako ez dana.

Zelan beteko dogu, lagun urkoa maite izateko bigarren agindua? Berari ondo gura izanagaz, bere gatxakgaitik min eta atsekabea artuagaz, beragana zuzenduten diran aginduak bete eta gordeagaz, eta errukizko eginak beteagaz.

Nor da lagun urkoa? Zoriontasun betikoa jaritxi edo alkanzau al leikean gizakume edo emakume guztia, bai dala geure senidea edo senide ez dana, bai dala adiskidea edo arerioa.



Gizakume eta emakume donga eta txarrak maite izan bear doguz bere? Gorrotau ginaitez euren ekandu txarrak eta dongakeriak, baña beti maite izan bear dogu gizona.

Maite izan bear doguz geure arerioak? Bai; bada da Jesukristoren agindu bat eurak maitetutea; eta alan parkatu bear doguz eurak guri eginiko iraina eta txarkeriak, lagundu bear deutsegu euren premiñaldietan, eta emon bear deutseguz geure amodioaren ezaugarri geiyenetakoak eta oiturikoak.

Parkatu bear deutseguz, eurak guri egin deuskuezan kalteak eta gatzak? Beti parkatu bear doguz eurak guri eginiko irainak eta txarkeriak; baña ez, geure ondasunetan, geure entzute onean, geure bizitzan, eurak eginiko kalteak eta gatzak, oneek osotu eta biurtuten ez diran artian.

Zer egin bear dogu, maitetasun oni geure biotzean beti iraun egiteko? oitu bear gara beti ikusten gizonagan Jaungoikoaren antz edo irudiya, eta Jesukristoren odolagaz erosiriko arima bat, eta maite izan bear dogu gizonagan Jaungoikoaren egikera bet eta Jaungoikoaren amodioagaitik, zein dan irakatsi onetik atera bear dogun onerea.

JAZOERIA

San Vicente Paulek, maitetasunaren apostoluak, esaten eban:— «Nik ezin emon neike neure eretxia eta erabagitu gizon basaerritar baten ganean, ez eta emakume premiñadun baten ganean bere, eurak kanpotik eta azaletik dirudiyenari bakarrik begiratuta; eurentik batzuk dira ain ganora bagakoak eta aziera txarrekoak eze, nekez eta gatz ezagututen dira eurakgan kriptura errazoedunaren antz, irudi eta izatea; baña begiraturen badeutsegu siniste santuaren begiakaz, aurkituten dituguz ain inkaurik eta josirik Jaungoikoaren Semearen biotzean eze, bere odola eurakgaitik isuriteko, eta bere bizitzea eurakgaitik emoteko, badaezbadarik eta atzerape-nik euki izan ez daben. O ze oneragarria eta mesedegarria dan ikustea lagun urkoagan Jaungoikoa bera, berari eukiteko, Jesukristok eutsan amodioa».

Irakatsi 2.a: Jaungoikoaren aginduak

Esan egizuz Jaungoikoaren legeko aginduak.— Jaungoikoaren legeko aginduak dira amar, lenengo irurak dagokaz Jaungoikoaren onriari, eta beste zazpirak lagun urkoaren onereari.

AZALDUERIA

Zergaitik deritxoe Jaungoikoaren legeko aginduak? Diralako, Jaungoikoak iminiyak, gizonaren biotzeanasieratik Berak inkau eta ezarriyak, Sinaiko mendiyen geroago Berak adierazo eta agertuak, inskribidurik arrizko ol bitan emoten autsazala Moiseseri.

Jakin bear doguz agindu orreek? Adinera edo ezauberara eldu dan kristinau guztiak jakin eta ezagutu bear dituz, beintzat euren esangura bearbearrekoaren aldetik.

Zergaitik? Diralako neurriya, noraezekoa eta bearrekoa dana, gu ondo biziteko eta zerura gu eroateko; eta au ezin izan leiteke, eurak jakin eta ezagututen ez badoguz.

Eta zeruan sartuteko bete eta gorde bear dira agindu guztiak? Bai; zergaitik guztiak datoz Jaungoikoagandik, eta agindu bat gitxitan auki eta austen dabenak, gitxitan dauko Jaungoikoaren agintaritzaz nagusia, egiten dala pekatuaren eta zorigatx betikoaren errudun eta duin.

Bete eta gorde leitekez agindu guztiak? Jaungoikoak bere graziagaz lagunduten dabela, bai, zergaitik Jaungoikoak aginduten ez daben, ezin egin leitekean gauzarik; eta bestera uste izatea da sinisbagnetasuna eta ernegua edo Jaungoikoaren kontrako irain andiya.

Zelan gorde bear dira? Al dan osotasun guztiagaz, iges eginik ez bakarrik pekatu ilgarri edo mortalakgandik, baitabere pekatu arin, txiki eta parkarrak, eta pekatuak arrisku, galbide eta bide guztietatik.

Zeinbat eratara ausi leitekez? Bitara: ezezinagaitik, eurak aginduten dabena egin ezagaz, eta eginagaitik, eurak galerazoten dabena, eginagaz.

Zelako eginsariak eskiniten deutsez Jaungoikoak, bere aginduak ondo gordetan dituezanai? Bizitza onetan bere grazia eta bedeinkazinoe ugariak, eukiten dituzala bere adiskide onak legez; eta beste bizitzan Jaungoikoa bera izango da euren eginsari betikoa.

Ze irakatsi atera bear dogu emendik? Jaungoikoaren legea ondo eza-gututeko gurari bero eta bizi bat, eta berak aginduten deuskun legez,



geure bizitzako gauza guztiak egiteko asmu eta erabagi errime eta sendo bat.

JAZOEREA

Ebanjelio Santuak dino, mutil gazte bat urreratu zala Jesukristogana, eta itandu eutsala:— «Maisua, zer egin bear dot nik salbetako?» eta Jesukristok erantzun eutsan:— «Bizitza betikoan sartu gura badozu, gorde egizuz aginduak». Gazteak barriro itandu eutsan:— «Zeintzuk dira agindu orreek?—. Jesukristok irakatsi eutsazan Jaungoikoaren legeko amar agindu santuak.

Irakatsi 3.a:

Lenengo aginduan aginduten diran gauzak

Zein da Jaungoikoaren legeko lenengo agindua? Jaungoikoa maite izatea gauza guztien gañean. Nok maite Jaungoikoa? Bere agindu santuak gordetan dituzanak. Zer da Jaungoikoa maite izatea gauza guztien ganean? Gauza guztiak galdu gurago izatea, bera iraindu baño. Zetara geiyago beartuten gaituz agindu onek? Gorputzeko eta arimako makurtasunagaz bera bakarrik adoretara, siniste biziagaz Beragan sinistu eta itxaroten dogula.

AZALDUEREA

Zer da gurtutea edo adoretea? Jaungoikoari, dagoan guztiaren Egillea eta Jaube Gorengoa dan legez, kultu gorengoa emotea.

Zergaitik adorau bear dogu «gorputzeko eta arimako makurtasunagaz»? Zergaitik, artu izanik Jaungoikoagandik gorputza eta arimea, gauza arteza da, batak eta besteak agertu dagiela euren makurtasuna.

Zergaitik geituten dozu «siniste biziagaz Beragan sinistu eta itxaroten dogula?». Zergaitik adorau bear dogun Bera, jarraiturik ziatz eta leiylal, Jaungoikoagana zuzenduten diran onoidadeai, zeintzuk diran sinistea, itxaropena, maitetasuna, eta errelijinoa.

Zelan adoretan dogu sinisteagaz? Ezaguturik eta sinisturik Bera dagoala leku guztietan eta dala izatez egitiya, eta eskinirik Berari geure adinaren makurtasuna.

Zelan adoretan dogu itxaropenagaz? Eskinirik Berari geure biotza-ren makurtasuna, iminten dogula geure uste guztia bere ontasunean, bere guzti-altasunean eta bere leiyaltasunean.

Zelan adoretan dogu maitetasunagaz? Eskinirik Berari geure borondatea, maitetuten dogula gauza guztiak baño geiyago bere ontasan azkenbageagaitik.

Zelan adoretan dogu errelijinoagaz? Bere anditasun eta eregitasun amaibakoai zor jaken mendetasuneko eta makurtasuneko kultu barrukoa eta kanpokoa Berari emonagaz; eta au egiten da batez bere Mezako Eskintsari Santuan.

Jesukristori eta Sakramentu guztiz Santuari bere, zor deutsegu gurtuerrea edo adorazinoa? Bai, Jaungoikoari berari emon bear deutasuna bera; Jesukristo dalako Jaungoikoa, eta dagoalako egiaz eta benetan Sakramentu guztiz Santuan.

Eta Jesukristoren gizatasun donetiyari? Jaungoikoaren Semeari zor jakan adorazinoa bera, bada dago Beragaz izapero alkaturik eta baturik, eta zeñegan amaituten dan, berari emoten deutasun kultua edo gurtea.

Eta Jesusen Biotz Donetiya bere adorau edo gurtu bear dogu? Bai, dalako Jaungoikoaren Semearen Biotza, bere Gizatasun guztiz Santuaren alderik lenena; eta dalako Jaungoikoren amodiyo azkenbagearen ezaugarria.

Zelako kultua emon bear deutsegu Kurutze Santuari eta Pasinoeko beste enparau gauzai? Adorazinoeko kultua, maituten dana Jaungoikoaren Seme Gizon eginagan, zeini ukatu izan eutsen gauza orreek.

Zor bere deutsegu kultua Andra Mariari eta santuai eta euren irudi eta errelikia edo ondarrai? Bai; baña onoreko eta begirauneko kultu txikiago bat, Jaungoikoagan amaituten dana; erregea onretan dan legez, bere otseinak eta bere bialduak onretan diranean.

Zer geiyago aginduten deusku agindu onek? Jaungoikoari eskinirik dagozan personak, lekuak eta gauzak onrete; baitabere Eleizearen benedezinoai, zeremoniyai eta eleizkizunai lotsa eta itzal andi bategaz begirata.

JAZOEREA

Jesukristo gure Jauna irakasten egoala tenpluan, legeko irakasla batek itandu eutsan:— «Maisua zein da legeko agindu andiya?», eta jesusek erantzun eutsan:— «Maitetuteko dozu zeure Jaun Jaungoikoa zeure biotz guztiagaz, zeure arima guztiagaz eta zeure adin guztiagaz. Auxe da agin-duetatik lenengoa eta andiena».



Irakatsi 4.a: **Lenengo aginduaren kontrako pekatuak**

Agindu onen kontra nok pekatu egiten dau? Jaungoiko guzurrezkoak adorau eta sinistuten dituzanak; sinistearen kontrako gauzaren bat sinistuten dabenak, nai bere ezkutapen edo misteriyuak ezbaiyan daukazanak, nai bearrekoak ez dakizanak; sinistearen, itxaropenaren eta maitetasunaren egiteak, egin bear diranean, egiten ez dituzanak; Jaungoikoaren errukitasuna aintzat artuten ez dabenak, eta Sakramentu Santuren bat dongaro eta txarto artuten dabenak. Nok geiago? Sorginkeria eta aztuen barri emote, etorkizun amesezkuai, eta onelako bidebagako gauzai sinistea emoten deutenak.

AZALDUERA

Au onelan, ze pekatu dira, lenengo agindu onen kontra doazanak? Sinisteko, itxaropeneko, maitetasuneko eta errelijinoeko onoidaden kontrakoak diran guztiak.

Nortzuk pekatu egiten dabe sinistearen kontra? Jaungoikoa dagoala ukatuten dabenak; Jaungoikoaren Probidentzia ukatuten dabeenak; agertuera jaungoikozkoa ukatuten dabeen errazoe utsaren zaleak; siniste santuaren galtzalleak eta herejeak, siniste santuko egia guztiak edo euretatik bat edo beste ukatuten dabenak, edo ezbaiyan iminten dituezanak.

Nortzuk geiyago? Siniste santuaren ezaugarriak, erakutsi bear izan da, erakusten ez dituezanak; errelijinoe guzurrezkoetako irakatsi txarretara eta batzar deabruzkoetara joaten diranak; donga eta txarrai lagunduten deutenak; liburu txartzat emonak saldu, irakurri edo eurakgan daukezanak; siniste santuaren kontra berba egiten dabeenak, edo berba egiten dabeenai pozik entzun deutenak; baitabere siniste santuko egia bearrekoak ez dakiezanak.

Nortzuk pekatu egiten dabe itxaropenaren kontra? Jaungoikoaren errukitasuna aintzat ez daukenak; graziaren laguntasuna бага, edo egite onak бага, euren arimak salbetea uste dabeenak; Jaungoikoaganako euren biurrerea eriotzaraño luzatuten dabeenak; izentauriko eginbideak gitxitan eukirik, azken zorionekoa mirarien bategaz, edo laguntasun guztiz andi eta oiturakor-ezagaz, jaritxi eta alkantzau gura dabeenak.

Nortzuk pekatu egiten dabe maitetasunaren kontra? Pekatua ilgarria edo mortala egiten dabeenak, batezbera bada Jaungoikoaren onore eta

zorionaren kontra; Jaungoikoaren borondategaz euren borondatea bat egiten ez dabeenak, edo euren estutasunetan Jaungoikoaren kontra jagiten diranak.

Nortzuk dira, errelijinoaren kontra pekatu egiten dabeenak? Jaungoikoari, zor jakon gurte edo kultua, ukatuten deutenak, donga eta txarrek lege; demoninoari deituten deutenak, edo bear ez diran gauzak baliyetan diranak, gauza isilekoak edo etorteko dagozanak jakiteko, edo gaxen batetik libretako, sorginkeriazko gauzen zaleak lege.

Nortzuk geiago? Persona onai, Eleizako zeremoniyai eta gauza santuai barre eta burla egiten deutenak; Jaungoikoari eskinita dagozan gauzak, lekeuak edo personak dongaro eta txarto erabiltzen dituezan sakrilejiogillak, edo Sakramenturen bat txarto artuten dabeenak; eta arimako gauzak gorputzekoakgaitik salduten dituezan simoniakotarrak.

Eta zer diraustazu magnetismoaren, espiritismoaren, eta hipnotismoaren ganean? Eleizeak txartzat emonda daukaz euren egitate izateraen kanpotikoetan; zergaitik ezin azaldu eta aitu leitekezan demoninoaren bitartekotasun бага, eta beraugaitik dira sinistearen, errelijinoaren eta oitura onen kontrako pekatu guztiz andi eta astunak.

Nortzuk geiago pekatu egiten dabe onoidade onen kontra? Sinisteko, itxaropeneko, maitetasuneko eta errelijinoeko egiteak egiten ez dituezanak, egin bear dituezan aldi eta denporan.

JAZOERA

Nabukodonosor erregeak agindu eban, egin egiela urrezko irudi bat, eta bere mendeko guztiak adorau egiela; eta alan egiten ez eben guztiak, izan zeitezala suzko laba batera botaiyak. Iru mutil gaztetxuk, Ananias, Misael eta Azariasek, ez eben bete gura izan alako agindua, eta beraugaitik salatuak eta eroanak izan ziran erregearen aurrera; onek esan eutsen:— Egia da, zuek ez dozuezala adoretan nire jaungoikoak, eta ez zarela belaubikotuten, nik egiteko agindu dodan irudiaren aurrean? Egin eta betetan ea badozue nire agindua, bota eragingo zaituedaz labarra; eta zein izango da, nire aserre gogorretik zuek zaindu eta gordeko zaituezan Jaungoikoa?— Erregea, erantzun eutsen mutil gaztetxuak, guk adoretan doguna, asko eta naiko altsua eta indartsua da, gu suaren gar isiotu eta galdatuetatik zaindu eta gordetako; baña, alan agingo ez baleu bere gugaz, jakin egizu, guk ez dogula adorauko zure irudiya, gure Jaungoikoa dalako Jaungoikoa bakarrik, eta bera bakarrik adoretan dogulako. Erregeak, aserre eta gorroto sutsuan sarturik alako erantzuerrea entzunagz, agindu eban egin egiela su bat zazpi bidar andiagoa eta indar-



tsuagoa, eta bota egiezala labara iru mutil gaztetxuak euren oñak loturik; baña Jaunaren angerua jatsi zan labara, egin eban urten egiala bertan aize guztiz otz batek, eta alan suak ez eutsen batbere gatzik egin, eta suaren erdian kantetan zituezan angeruagaz batera Jaungoikoaren alabantzak. Nabukodonosor erregeak berak, mirari andi au ikusirik, agindu eban atera egiezala labatik iru mutil gaztetxuak, eta galerazo eban eriotzearen beian, aurrerantzean euren Jaungoikoaren kontra dongaro berba egitea.

Irakatsi 5.a: Bigarren agindua

Zein da bigarrrena? Jaungoikoaren izen santuagan juramenturik ez egitea alperrik. Gauza onen bat egiteko eskinia edo agintea juramentuz egiten dabenak, nai ta nai ez agindu ori bete bear dau? Bai, Aita; eta ez betetea eta erraz igarteko eran atzeratutea, pekatu ilgarria edo mortala izaten da, gauza astunean izan ezker.

AZALDUEREA

Zer aginduten jaku bigarren aginduan? Jaungoikoaren izen santua berbakaz onrete.

Zelan onretan dogu? 1. onerazpenagaz eta makurtasunagaz berari deituagaz; 2. bera alabau eta bedeinkatuagaz; 3. zerzeridade bearrekoakaz juramentu eginagaz; 4. eskintsari edo botoakaz.

Zer da juramentua? Jaungoikoaren izena aotan artutea egia baten lekukotasuntzat.

Zeinbat erakoa izan leiteke juramentua? Bitakoa: baiezkua, juramentu egiten bada iragoriko egia edo jazoerea; agindezkoa, juramentu egiten bada edo eskiten bada, etorteko dagoan gauzea.

Gauza bearrekoa da juramentu egiteko, Jaungoikoaren izena aotan artutea? Ez: juramentu bere egiten da, aotan artuagaz arako gauzak, zeintzuetan era berariz argi egiten dabeen Jaungoikoaren dagokerak; alan juramentu egiten da Kurutzeagaitik, Ebanjelioagaitik, eta beste era askotara.

Ona da juramentua? Egiak, arteztasunak eta premiñeak lagunduten badeutse, onretan dau Jaungoikoa; zergaitik dan, bere egiari, arteztasunari eta anditasun azkenbagakoi emoniko makurtasuna.

Zer da eskintsaria edo botoa? Jaungoikoari eginiko gauza on, egin-garri eta bere arerioa baño obeagoa dan baten eskintsari borondatezkoa eta erabagi osokoa.

Zelan bete bear dira eskintsariak edo botoak? Egin izan diran lege; norberak beartu gura izan eban denporan, eran eta zerzeridadeakaz, bitartean agertuten ez bada zerbait, edo ez badago gauzaren bat, alan ez egiteko eskubidea emoten dabenik.

Gauza ona da eskintsariak edo botoak egitea? Ona eta santua; baña zelan eurakaz dakarren eginbear andi eta astun bat, ondo izango da, arrapataka eta lasterregi ez egitea, beti eukirik ardurea, lenaz jakiteko konfessorearen eretxiya.

Izan leitekez ezereztuak eta indarbagetuak eskintsariak edo botoak? Gurasoak eta agintariak ezereztu eta indarbagetu leikeez euren semealaben eta mendekoen eskintsari edo botoen batzuk; Aita Santuak eta Apezpikoak edo Obispoak kendu leike eskintsarien eginbearra, atarako gauza egokia egon ezker; konfesoreak aldatu leikez eskintsarien batzuk, Kruzada Santuko Bulearen bitartez.

Zelako onera eta mesedeak eskinten dituez eskintsariak edo botoak? Batez bere iru: 1. beartuten dabe egiten dituzana, Jaungoikoari lotsa eta itzala eukitera, beraganako maitetasun eta amodiyoa biztu eta geituagaz; 2. indartu eta sendatuten dabe bakotxaren borondatea, gauzak egiteko aurkituten diran gatztasun, ezdabaida eta argaltasunetan; eta 3. emoten deutse sendotasuna munduko alkartasunaren zimentua diran gizonen arteko baituerai, siniste onari eta leiyaltasunari.

JAZOEREA

Bein baten euki eban Isaias igarleak ikuskizun bat, noz ikusi eban Jaungoikoa angeruz inguruturik, eta angeruak kantetan zituezala geratu bage Jaungoikoaren eregitasunak eta alabantzak, eta bedeinkatuten ebela bere izen santua, esanagaz:— «Santua, Santua, Santua da martizdiyen Jaun Jaungoikoa», eta Jaungoikoaren izen santua aitatuten eben bitartean, estalduten zituezala euren arpegiak lotsa eta itzal andiaren ezaugarritzat.



Irakatsi 6.a: Bigarren aginduaren kontrako pekatuak

Nok, esaten da, alperrik juramentu egiten dabela? Egiya бага, arteztasuna бага eta premiña бага, juramentu egiten dabenak. Zer da egiya бага juramentu egitea? Norberaren usteen kontra, edo guzurragaz, juramentu egitea. Eta zelako pekatua egiten dau, egiya бага, edo juramentu egitera doian gauzea badaezbadan daukala, juramentu egiten dabenak? Pekatu ilgarria edo mortala, gauza arin eta txikiaren ganean juramentua izan arren bere. Zer da arteztasun бага juramentu egitea? Gauza bidebagako eta txarraren ganean, berbarako lagunai kalteren bat egitekoaren ganean, juramentu egiten dabenak? Pekatu ilgarria edo mortala, gauza bidebagakoa eta txarra bada arina eta txikia, egingo dau pekatu arina eta txikia. Zer da, premiña бага, juramentu egitea? Bear-ordu andi бага, edo gauza baliyo gitxikoagaitik, juramentu egitea. Ze pekatu da au? Arina edo txikia, egiyari eta arteztasunari utsik egin ez ezker, juramentu egiten danean. Eta pekatu da kriyaturakgan juramentu egitea? Bai, Jauna; eurakgan euren Egilleagaitik juramentu egiten dalako. Zelan juramentu egiten da kriyaturakgan? Esanik, berbarako, neure arimeagaitik, zeruagaitik, lurragaitik, au alan da. Alperrik juramentu ez egiteko biderik ete dago? Bai edo ez, Krsitok darakuskun legez, esaten oitutea. Eta beste gauzaren bat geiago eragozten da agindu onetan? Bai, Jauna; eragozten da ernegua, edo Jaungoikoaren eta bere santuen kontrako berba iraingarriak esatea; eta au da pekatu ilgarria edo mortala.

AZALDUEREA

Zelan pekatu egiten da agindu onen kontra? Jaungoikoaren izena desonrauagaz: 1. aotan arturik lotsa eta itzal бага, destañaz eta burlaz; 2. erneguagaz eta biraubagaz; 3. juramentu guzurrezkoagaz: eta 4. eskiniriko gauzak ez eginagaz, edo eskintsaririk edo botoak ez beteagaz.

Zeinbat eratara egin leiteke erneguzko pekatua? Lautara: 1. Jaungoikoari, Andra Mariari edo santuai, eurai dagoken zerbait, kenduagaz, berbarako, esanik: «Jaungoikoa ez dala arteza», «Andra Maria ez zala izan garbiya»: 2. eurai ezarriyagaz, eurai ez jatorkena, berbarako, «Jaungoikoa dala gorrotoduna»; 3. kriyaturai ezarriagaz, Jaungoikoari dagokona, berbarako, esanik, «urliyak daukala Jaungoikoak baño jakituria geiago», «berendiya dala Jaungoikoa baño artezago»: 4. Jaungoikoaren eta

santuen izenak madarikatuagaz, edo aotan destañaz artuagaz, zein dan pekatu onen erarik ezainena eta lotsagarriena.

Zer da birauba? Jaungoikoaren izena aotan artutea, gatxen bat norberarentzat edo bestentzat eskatuagaz.

Pekaturik egin бага geratu leiteke, erneguak edo biraubak ekanduz edo oituraz botaten dituzana? Baldin, garbaturik eta damuturik ondo, badauko asmu eta erabagi sendo eta errimea, ekandu edo oitura txar ori kenduteko, oiturearen indarrez erneguren bat edo birauren bat urteten badeutso bere, ez da izango pekatu, ez daukalako bear-besteko ezaupera-rik; baño ekandu edo oitura txar ori eukirik, bera sustraitik atera eta kenduteko, aletinak egiten ez badituz, egiten da errudunago eta txarrago.

Zer dinozu, juramentuen izena geiyenean emoten jaken berba lotsagarritzko orreen ganean? Badoaz Jaungoikoaren edo santuen izenagaz alkaturik eta baturik, dira ernegu egiazkoak, eta beti dira txarrak eta arriskugarriak, bada eguneroko ikusiyak irakasten dau, euretara oituten dana, elduten dala ernegugilla izatera.

Zer egin bear dogu, erneguren bat entzuten dogunean? Bedeinkatu bear dogu, beintzat gure barruan, Jaungoikoaren izena eta erregutu bear dogu ernegugilleagaitik.

Zer da juramentu guzurrezkoa? Jaungoikoa guzurraren ikusletzat ekartea, edo egiya бага, arteztasun бага eta premiña бага juramentu egitea.

Ze pekatu da juramentu guzurrezkoa? Egiyari uts egiten badeutso, beti izango da pekatu ilgarria; arteztasunari uts egiten badeutso gauza andiyan, izango da pekatu andiya edo ilgarria, txikian bada, pekatu txikia edo arina; eta bakarrik uts egiten badeutso premiñeari, izango da pekatu txikia edo arina.

Gauza txarren bat egiteko juramentu egin dabenak, bete bear dau eginiko juramentua? Ez zelanbere ez; pekatu egin eban, juramentu eginagaz, eta pekatu egingo dau, eginiko juramentua beteagaz.

Ze pekatu da, eginiko eskintsariak edo botoak ez betetea edo austea? Ilgarriya edo andiya, gauza andiyan izan badira, eta txikiyan izan badira, pekatu txikiya edo arina.

JAZOEREA

Amar urtetik amabi urteko mutil bat, eskolatik urten ezker, biurtu zan bere etxera, bearbada zerbait beranduago beste egunetan baño; eta beruagaitik bere aita guztiz aserratu zanak, agiraka gogorak egin eutsazan, eta denpora berean egiten zituzan Jaungoikoaren izen santuaren kontrako erneguak eta biraubak. Estuturik bere semetxua alako berbeta zan-



tar eta deabruzkoakaz, etzuten da bere aitaren oñetan, eta, belaunbiko dagoala bere aurrean, dirautso:— «Neure aita, kastigau nagizu neu, baña arren ez egizuz atera zeure aotik Jaungoikoaren izen santuaren kontrako orrelako ernegu eta biruabak».— Arriturik aita, bere erneguak eta biruabak ainbestean bildurtu eta ikaratuten ebela bere semea, ikusiyagaz, bere semearen irakatsi ona izan zan asko eta naikoa, aurrerantzean ernegurik eta biraurik geiago ez egiteko.

Irakatsi 7.a: Irugarren agindua

Zein da irugarrena? Domekak eta jaiyak gordetea. Nok gordetan dituz jaiyak? Meza oso bat entzun, eta premiña бага biarrik egiten ez dabenak.

AZALDUERA

Nok imini izan dituz jaiyak? Jaungoikoak munduaren asieran imini izan eban zazpigarren eguneko atsedena; eta gero, mesederen bat egiten ebanean, aginduten eban egin zeitela urte guztietan mesede aren gomutea, eta beraganako esker-ontasuna erakusteko, gorde zeitela jai bat.

Ez da bada Eleizea, jaiyak imini eta kenduten dituzana? Egiaz, Eleizeak, Jaungoikoaren agintaritasuna daukanak, Espiritu Santuagandik argitasunak eta zuzenbideak artuten dituzanak, imini izan dituz jaiyak, Jesukristoren, Andra Mariaren eta santuen ezkutapenak onretako; eta agintaritasun berberagaz kendu leikez, zerzeridadeak alan eskatuten dabenean.

Zelako onera eta mesedeak dakardez jaiyak? Eleizearen gogoagaz gorde ezkerro, 1. onretan dabe Jaungoikoa; 2. gomuta eragiten deuzkue geure azkena; 3. aurreratu eta zirkinduten gaituez, gauza onak egitera; eta 4. emoten deutse denporea biarginai eta langillai, euren gorputzeko indarrak barriztatzeko eta geituteko.

Bada zelan gordetan dira jaiyak? Egite onakaz eta santuakaz, diran legez: limosnak, errekuak, Sakramentuak, eta onelango gauzak; eta batez-bere Meza Santua entzunagaz, zein dan, pekatu ilgarriaren beian aginduten jakun egitea.

Zer da Meza Santua? Jesukristo gure Jaunaren gorputzaren eta odolaren oparia, Jaungoikoari eskiniten jakona bere nagusitasun gorengoaren ezaugarritzat, beragandik arturiko mesedeagaitik eskerrak emoteko,

geure pekatuen kitugarri eta orderako, eta bizitza on eta santua iragoteko, bear diran grazia eta laguntasuna jaritxi eta alkantzetako.

Zelan entzun bear da? Itzalagaz, gogo onagaz, onerazpenagaz eta osotasunagaz.

Zelan entzungo dogu itzalagaz? Egonik taiyu eta ganora onean eleizean, soñeko eta jazteko antz-onekoakaz bertara joanik, berbetan, barrekak, albueta begira, zeresana eta pekatuak bidea emon leikean guztia, egin ezagaz.

Zelan entzungo dogu gogo onagaz? Mezatan egonagaz, eta gogo ona galdu leikean guztia, egin ezagaz; baña ez da gauza bearrekoa eta noraezekoa agindu au betetako, abade meza-emotzallea ikusi eta bere berbak entzutea; asko eta naikoa da alkarturik eta baturik egotea beste enparau meza-entzulleakaz alako eran eze, beste enparauak agertuten dituezan ezaugarrietatik, ezagutu al daitekeala zetan doian Meza santua.

Zelan entzungo dogu onerazpenagaz? Jesukristoren pasinoe santua ondo gogoratuagaz, edo beste eskabide eta erreku batzuk eginagaz; eta onetarako lagunduten dau onerazpenerako liburuak.

Zelan entzungo dogu osotasunagaz? Asieratik azkeneraño Meza osoa entzunagaz; orregaitikbere, bat elduko balitz, ebanjelioa edo kredoa amaitu baño lenago, beteko leuke agindu au.

Nortzuk dira, Mezea entzuteko eginbearrik ez daukenak? Ezintasunean aurkituten diranak, diran legez geisoak, osatu-bitartedunak, eta alan beste asko.

Eta gogo bagarik euren guraz dagozanak, berbetan, lo dagozanak... Meza santuaren zati andiyan, edo ez entzuteko arriskuan iminten diranak, zelako pekatua egiten dabe? Pekatu ilgarriya; baña zati ariñean eta konsagrazinoetik kanpora bada, egingo dabe pekatu ariña.

JAZOERA

Jaungoikoak berak agertu eta adierazo eban agindu au berba onekaz:— «Gomutau zaitez, zapatuko eguna santututeagaz: sei egunean biarra egingo dozu eta egingo dozuz zeure lan guztiak, baña zazpigarrena da zeure Jaungoiko Jaunaren eguna. Egun onetan ez dozu egingo lan serbigarrik batbere, ez zeuk, ez zeure semeak, ez zeure alabeak, ez zeure otseinak, ez zeure abereak, eta ez zeure etxean aurkituriko arrotzak; bada Jaunak egin zituzan sei egunean zerua, lurra eta itxasoa, eta eurentan dagoan guztia, eta atsedean egin eban zazpigarren egunean. Orregaitik Jaunak bedeinkatu eta santutu eban zapatuko eguna».



Irakatsi 8.a:

Irugarren Aginduaren kontrako pekatuak

Eta zelako pekatua egiten dabe, premiña bagarik jai egunetan biarra edo lana egiten dabenak? Ilgarria, ordu bi baño luzeago lanean jardun ezkerro, eta ordu bitik beera jardun ezkerro, geiyenean pekatu arina egiten dabe.

AZALDUEREA

Zelako lanak dagoz laketurik jai egunetan? Gorputzeko neke andirik ez dakarden, jaunai dagokezanak, diran legez irakurtea, iskribidutea, ibiltea, eta onelako beste asko.

Zeintzuk dira, galerazota dagozanak? Gorputzeko nekea dakardena eta langillai dagokezanak, diran legez, lurra landutea, josten egitea, etxegintzan ibiltea, eta onelako beste biar eta lan gogorrek egitea.

Noz egin leitekez lan oneek jai-egunetan, pekatuan jausi bagarik? Oitura oneko aldiyetan, diran legez, jatekoa gertu eta prest imintea, etxea garbitutea; premiña egizkoko denporan, diran legez, menazteak urtuteko aldiyetan; guztioen onak edo lagunurkoaren premiña andiyak alan eskatutenean, berbarako, etxeren bat erretan dagoanean, premiñadunari lagundu bear jakonean; eta Eleizako nagusiak eskubidea emoten dabenean.

Bada ze gatz edo kalte egiten da, jai-egunean biarra edo lana egina-gaz? Jaungoikoaren kontra pekatu eginagaz ganera, ausirik bere agindu santua, kalte egiten deutse arimeari, gorputzari, munduko alkartasunari eta lurreko ondasunai eurai.

Ze kalte egiten deutso arimeari? Jai-egunean biarra edo lana egiteko ekandu txarrak, pekatu ilgarriagaz ganera, dakarz arimara fede eta erreljinoe santuen gitxituerea eta galduerea, eguneroko ikusiyak eta jazoereak irakasten dabeen legez.

Ze kalte egiten deutso gorputzari? Osasunaren ganeko jakituriak irakasten dau, geratubagako lanak laburtuten dabela bizitzea, gitxituten dituzala gorputzeko indarrak eta gatz eta kalte andiak ekarten deusazala osasunari.

Ze kalte ekarten deutsoz munduko alkartasunari? Jai-egunetan biarra eta lana eginak, emoten daben pekatuak bideak, egiten dau: 1. galdu daitela Jaungoikoaren bildurra; 2. gitxitan euki daitezala agindu guztiak, zergaitik, baldin bat gitxitan euki al baleiteke, baitabere beste enparauak;

eta 3. aintzat euki ez daitela nagusitasun guztia, zergaitik ez dago nagusitasunik, lotsa eta itzalagaz begiratuten jakonik, Jaungoikoaren nagusitasunari lotsa eta itzalagaz begiratuten ez jakon lekuan.

Ze kalte egiten deutse lurreko ondasunai? Gorputzari eginiko gatzetik datozen kalteakaz gañera, gauza ziurra da, Jaungoikoak ukatu edo laburtu leikeoela bere bendezinoa kanpoai, bialdu leikezala legortasuna, sikutea, arriya, gorriña, langillearen neke eta izerdiyak utsera bota eta ezerezuko dituezanak; edo geisotasunen bat edo zorigatxen bat, ondatu eragingo deusana, daukan eta irabazi izan daben guztia, Jaungoikoaren jai-egunak ondo gordetan ez dituzanari.

Beti da pekatu ilgarria, ordu bi baño luzeago biarra egitea? Baldin biarra edo lana bada serbigarri arina ed pekatuak biderik emon бага, jazo leiteke pekatu ilgarria ez izatea, ordu bi baño luzeago egin arren bere; baña bada serbigarri andia edo emoten bada pekatuak bidea, izango da pekatu ilgarria, ordu bira eldu ez arren bere.

Beste zeintzuk lan dagoz galerazota jai-egunean? Pekatua, dantza nastuak, joko larregiak, ordikeriak, eta batzuk jai-egun santuetan egin daroezan nasaikeria eta nabarmenkeriak.

JAZOEREA

Israeltarrek eremuan bizi zirala, artu eben jai-egun baten, egur-sendor bat batuten ebillan gizon bat. Eroana izanik gizon au Moisesen, Aaronen eta gizon zar guztien aurrera, oneek agindu eben sartu egiela presondegian, ez ekielako zer egin beragaz, arik eta Jaunagaz itandu artia. Eta Jaungoikoak esan eutsan Moiseseri:— «Egizu ila izan daitela bereala etxaguntzatik kanpora, eta erri guztiak arrika egin dagioela». Eta alantxe egin zan, erri guztiak arrika ilten ebela.

Irakatsi 9.a:

Laugarren Agindua.

Semealaben edo mendekoen eginberrak

Zein da laugarrena? Gurasoi lotsea gordetea. Nok gordetan deutse lotsea gurasoi? Euren esana egin, eurai lagundu eta eurai lotsa ona deusena. Nortzuk egiten dabe onen kontrako pekatu ilgarria? Etxeko joanetorriak eta oitura onai dagokeezan gauzetan, euren gurasoi menderatutenean ez jakezan semealabak; euren bear-orduetan eta premiñaldietan



lagunduten ez deutenak; eurak madarikatu edo eurai irri eta barre egin edo eurai eskua ezarten deutenak; eta euren benedezinoe eta oneretxia бага, ezkontuteko asmuari dabilzanak. Beste zeintzuk dira, gurasoen lekuan ezagututen diranak? Adinean edo urtetan, duintasunean edo agin-pidean eta ardurapenean nagusiak diranak.

AZALDUERA

Zelako eginbearrak zarratuten dira laugarren aginduan? Semealaben eta mendekoen euren gurasoakganakoak eta nagusiakganakoak: gurasoen eta nagusien euren semealabakganakoak eta mendekoakganakoak; eta bakotxaren bizierari dagokozanak.

Zeintzuk dira semealaben euren gurasoakganakoak? Zor deutez maitetasuna, esanekotasuna, lotsea eta laguntasuna.

Zelan maitetu bear dira gurasoak? Maitetasun egiazkoagaz eta betikoagaz, eurakgandik artu izan diran onegin eta mesede andiakgaitik; eta onen kontrako pekatua egiten dabe, eurai gorroto deutenak, eurai eskua ezarten deutenak, eurak madarikatuten dituezanak, euren gatxagaz poz-tuten diranak, eta beste onelako lotsabagakeriak eurakaz egiten dituezanak.

Zelako esanekotasuna euki bear da gurasoakaz? Arin, laster eta pozik egin bear dira euren esanak, Jaungoikoaren aginduak legez, zeñaren ordekoak diran lurrean; pekatu egiten dabe, euren esanak egiten ez dituezanak, berandu eta gogo txarragaz egiten dituezanak, onelan eurai aserratu eragiten deutezela.

Zelako lotsa eta itzala euki bear jake? Lotsa, itzal, begiraune eta moduonekotasun guztiz andia; pekatu egiten dabe, eurak gitxitan daukezanak, eurai barre eta burla egiten deutenak, eurai euren utsegiteak et aargaltasunak arpegian emoten deutezanak, eurak aintzakotzat ez artu eta eurakaz lotsatuten diranak, eta beste onelako gauza txarrak egiten dituezanak euren gurasoakaz.

Noz izan bear dira lagunduak? Arimako eta gorputzeko premiñetan; pekatu egiten dabe, eurai euren premiñaldietan eta ezeukietan bear dabe-na emoten ez deutenak, euren zartzaroan lagunduten ez deutenak, euren geisotasunetan jaramonik egiten ez deutenak, Sakramentu Santuak denporaz artu dagiezan, ardurarik artuten ez dabeenak, edo eural il eta gero, Jaungoikoari eurakgaitik erregututen ez deutenak.

Zelako aldiyetan ez dogu egin bear gurasoen eta nagusien esana? Ez dogu egin bear euren esana, aginduten dabeenean edo galerazoten dabe-nean zerbait, Jaungoikoaren borondatearen kontrakoa dana: «zergaitik lenago egin bear da Jaungoikoaren borondatea gizonena baño».

Zelako eginsariak eskiniten deutez Jaungoikoak, euren gurasoakaz onak eta errukiorrak diran semealabai? Mundu onetan bizitza dontsu eta zorionekoa, eta bestean eginsari betikoa.

Zer izango da, euren gurasoakaz donga eta txarrak diran semealaba-kaz? Izango dira Jaungoikoaren eta gizonen madarikatuak, eukiko dituez zorigatx eta kastigu asko eta andiak bizitza onetan eta bestean.

Nortzuk besterik adietan dira gurasoen izenagaz? Nagusiak alan ari-makoak zeinda gorputzekoak.

Zeintzuk dira arimako nagusiak? Aita Santu Erromakoa, Apezpikoak edo Obispoak, Arimazainak, Abadeak eta aita-pontekoak.

Zeintzuk dira gorputzeko nagusiak? Erregeak, ardurapentzallak, agintariak, ugazaba eta etxeakoandak, maisuak eta zarrak.

Zer zor deutezgu nagusiai? Maitetasuna, esanekotasuna eta lotsa ona.

JAZOERA

Euren gurasoakaz txarrak eta dongak izaten diran semealabak, geiyenean eukiten dabeen kastigua, da eurak bere euren semealabakgandik gogortasunak eta lotsabakeriak artutea. Ondo jakina eta ezagutua da, Aristotelesek dinoana seme baten ganean. Seme galdu au, sarturik aserre guztiz andian, azartuten da bere aita zarrari eskuak ezartera, eta oraturik bere buruko uletatik, eroaten dau tatarraz goiko eskallera-burutik bere etxeko atarteraño. Etxeko ate-buruan aurkituten zala, deadar egin eban aita zar errukigarriak, esaten zituzala berba oneek: «Geratu adi, semea, bada kastigu asko eta naikoa artu juat onezkero; zergaitik neuk bere beste denpora baten leku onetaraño ekarri nijuan tatarraz neure aita zarra, ik ni legez».

Irakatsi 10.a: Nagusien eginbearrak

Agindu onetan, semealaben euren gurasoakganako eginbearren ostein, zarratuta badagoz besten batzuk? Bai, aita; ugazabak eta nagusiak euren mendekoakaz, eta gurasoak euren semealabakaz daukezanak. Zeintzuk dira orreek? Eurak janaritutea, eurai irakatsiak emotea, eurai agiraka egitea, eurai egikera edo erakusmen onak emotea eta erazko bizibi-



dea bear dan denporan emotea. Zelako pekatua egiten dabe, eginbear oneek benetan ez dituezanak? Geiyenean ilgarria edo mortala.

AZALDUEREA

Zelan beteko dabe, eurak janarituteko dauken lenengo eginbearra? Euren bizitzearen eta premiña gorputzekoen ardurea eukirik, zuzenduten deutsezala bizigarriak eta jaztekoak, euren biziareari dagokozanak; euren geisotasunetan eurai lagundurik eta galbide eta arriskuetatik eurai alde eraginik.

Zelan beteko dabe, eurai irakatsiak emoteko, dauken eginbearra? Argibideak eurai emonik, zuzenduten deutsezala maisuak edo irakaslarak, irakatsi dagioenak, eurak ez dakiena, eta bear dana, arimak salbetako, eta etxadierentzat eta munduko alkartasunarentzat oneragarriak eta mesedegarriak izateko.

Zelan beteko dabe, eurai agiraka egiteko dauken eginbearra? Ondo zaindurik euren biziare, euren oiturak eta adiskidetasunak; beti zuzenduten dituezala bide onetik eta kastigetan dituezala errime eta zurtasunagaz bearreko denporan.

Ze gauzatan emon bear deutse egikera edo erakusmen ona? Gauza guztietan; Jaungoikoaren maitetasun eta bildur santuan, erreljinoeko eginbearren betetasunean, moduontasunean, lanean; beti egiten dabeela eurakaz, ondoena dala eretxiten jakena.

Zelan beteko dabe, eurai biziare emoteko dauken eginbearra? Lenengo, irakatsirik langintzen bat edo biargintzen bat, zeñegaz irabazi al dagien, biziteko bear dabena; eta bigarren, emonik eurai eretxiona, bat-bere bildur бага, bizibidea autu eta artu bear dabeenean, bakarbakarrik begiratudun deusela Jaungoikoaren zorionari eta euren semen arimako onari.

Zein da sementzat langintzarik edo biargintzarik onena? Geiyenean, euren gurasoak daukena, zeñetan aurkituten dabeen semeak erraztasun geiyago, gastu eta arrisku gitxiyago.

Nori dagoko bizibidearen autuerea? Semeai, zergaitik eurak irago eta eroan bear dituezan, autuera onetik edo txarretik datozen kalteak edo onerak; baña gauza ona eta egokiya da, semealabak euren gurasoen onerretxia eta borondatea aurrez entzun eta jakitea.

Zeintzuk guraso dira guztiz donga eta txarrak? Jaungoikoaren egikere eragotzi eta desegiten dabeenak, edo ilten dituezanak euren semealabak, jaiyo baño lenago, edo deslai itxiten dituezanak, jaiyo eta gero; euren semealaben aziera erreljinoe santukoaren ardurarik artuten ez dabeenak,

aziten dituezala, arimarik ez baleuke legez, edo iminten dituezala maisu, irakarla eta ugazaba txarren eta dongen ardurara; eta euren semealabai pekatutako bidea emoten deusena, gaiztakeriaren eta pekatuaren lupatzen sartu eta ondatuten dituezala.

Zeintzuk dira ugazaben eta nagusien eginbearrak? Gurasoak euren semealabakaz daukezanakaz ozta bardiñak.

Beste zeintzuk eginbear zarratudun agindu onetan? Bakotxaren biziareari dagokozanak, diran legez osagillearenak, maisuarenak edo irakaslearenak, senarrarenak, emaztearenak, eta beste onelango asko.

Badago zerzeridade berarizkoren bat eginbear oneetan? Nai ta naiez jakin eta ezagutu bear dituez, eta pekatu egiten dabe, eurai uts egiten deusena guztiyan nagitasunez, ardurabakotasunez edo ez jakinez.

JAZOEREA

San Francisco Salesek dino, San Bernardoren amak eukala, bere semeak, jaiyo orduko, bere besoetan bat banan artu eta Jaungoikoari eskinituko oitura on eta santua; eta ordu atatik begiratudun eutsela itzal andiyagaz, Jaungoikoari eskinituko gauza bateri legez, eta Jaungoikoak bere eskuetan iminiriko ondasun andi bateri legez, ondo azi eta gordetako. Eta ain donsua eta zorionekoa izan zan oitura au eze, bere zazpi seme guztiak izan ziran santuak.

Irakatsi 11.a: Bostgarren Agindua

Zein da bostgarrena? Inor ez iltea. Zer aginduten da agindu onetan? Inori, ez egikeraz, ez berbaz, ez gogoz, kalterik ez egitea. Eta agindu onen kontrako pekatu ilgarria nok egiten dau? Norberaren buruari edo besteren bati eriotzea nai beste kalte andiren bat opa deusanak, baita gorroto deusanak; inor il, edo zauritu, edo jo daianak; ordiyak; osasuna galdu eragiteko janariak artuten dabezanak; norberaren burua il edo ilteko arriskuan iminten dabenak; eta norbera nai besteren bat gatxtzetsi edo mada-rikatudun dabenak. Zer da madarikatutea edo birao egitea? Batek norberarentzat edo beste batentzat gatxen bat eskatutea, berbarako, esanaz: or jausiko alaz ilik. Eta zelako pekatua da birao egitea? Gatx andiaren gurarizkoa bada, ilgarria. Eta ainbagakoa danean? Arina, beti ezarren.



Nortzuk bada egiten dabe pekatu ilgarria, onelango gurari baga birao egiten dabenean? Geiyenean mendekoen aurrean birao egiten dabenean gurasoak eta nagusiak; baita onetarako ekandua euki eta kenduteko aleginik egiten ez dabena bere. Eta zergaitik alan? Euren berbakaz eta erakusmen txarrakaz zirikatuten dituezan besteak, Jaungoikoa gauza astunean irainduta, eta oni deritxo pekatutako-bidea-emotea edo eskandalua.

AZALDUEREA

Zer galerezoten da agindu onetan? Norberari edo besten bateri gatz egitea bizitza arimakoan edo bizitza gorputzekoan.

Zelan gatz egin al leiteke bizitza gorputzekoan? Egitez, berbaz edo gurariz.

Nortzuk gatz egiten dabe egitez? Besten bat il, zauritu edo joten dabena; norberak bere burua ilten dabena, bere bizitzea arriskuan iminenten dabena, edo zelanbait bere osasunari kalte egiten deutsanak.

Nozbait izan leiteke leketua eta bidezkoa, besten bateri gatz egitea edo bizitzea kendutea? Bai: 1. norbera zaindu eta gordetako, gauza bearrakoa eta premiñazkoa danean; 2. guda edo gerra artezean; eta 3. Auzipalleak atarako erabagia emoten dabenean guztiyen onagaitik.

Norberak bere burua il al leike, edo imini al leiteke, bere bizitzea galduteko arriskuan? Atarako asmua artez daukala, iñozbere ez: baña orrelango asmurik ez daukala, imini leiteke, bere bizitzea galduteko arriskuan, alan eskatuten dabenean Jaungoikoaren zorionak, guztiyen on ari-makoak, norberarenak edo bestenak; barbarako, penitentsia egiteagaitik, geiso txar geisotasun eraskorrekaz edo kolereagaz dagozanai lagunduteagaitik, Eleizakoak ilaginean dagozanai emoteagaitik, eta beste onelango gauzak egiteagaitik.

Nortzuk egiten dabe pekatu, euren osasunari kalte egiteagaitik? Tema edo apostu gogorrek egiten dituezana, janari kaltegarriak artuten dituezanak, ordituten diranak; eta ordikeria da pekatu ilgarria, adiñeko argitasuna edo ezauperea galdu eragiten dabenean, aserrekuntzai, burru-kai eta pekatutako bideari oña emoten deutsenean.

Zer da bikuda edo desafioa? Biyen arteko burrukea; ataitik bereala izaten bada, deituten jako aserrerea; denporea, lekua, ikuslak eta beste onelango gauzak izentautu danean, deituten jako dueloa edo burruka zerzeridadeakaz egin, pekatu guztiz andia dana.

Zelan pekatu egiten da berbaz agindu onen kontra? Burla eta barreakaz, iraingarriakaz, birao eta madarikazinoakaz, besteai aserratu eragiteko, edo atsekaberen bat emoteko, diran berba guztiakaz.

Zelan pekatu egiten da gurariz? Gorrotoagaz, ondamuagaz, ikusieziz nagaz: besteai gatzak eta kalteak opa izanik, jazoten bajakez, poza arturik, auren onakaz atsekabea eta min arturik, eurak gorroturik, eta maitetasunaren ezaugarriak eurai ukaturik.

Nortzuk geiyago dira, onetan uts egiten dabenean? Euren barriketakaz, berbeta dongakaz eta auzuetako barriemoteakaz, areriyotasunak, aserrekuntzak eta bengantzak iminten dituezanak.

Zelan gatz egiten da bizitza arimakoan? Pekaturako-bidea-emoteagaz edo eskandaluagaz, zein dan berba edo egikera guztia, osoro ona tea arteza ez dana, besteai pekatu eragiteko oña emoten deutsena.

Zeinbat eratarakoa izan leiteke pekatutako-bidea emotea edo eskandalua? Bitakoa: atarako asmua artez daroana, eta onelango asmobagea.

Zer da pekatutako-bide-emote edo eskandalurako asmua artez daroana? Pekatuan jausi eragin gura dabena, barbarako, dongaro egitea eskaturik, agindurik, ederturik, eta beste onelango zirigarriak txarrerako emonik, eta au da demoninoen pekatua, zergaitik alan egiten dabena, biurtutena da demoninoaren lagun eta biargilla izatera, Jesukristoren odolagaz erosiriko arimak betiko galduteko.

Zer da orrelango asmorik ez daroana? Besteak pekatua eroateko asmo bage, egiten danean edo esaten danean zerbaite arimen galdugarria dana.

Nortzuk dira pekatutako-bide-emotearen errudun andiyak? Liburu eta paper txarrak eskribidu edo zabalduten dituezanak; euren berbeta eta esakune dongakaz arimak nasaitu eta txartuten dituezanak, nasaikeria eta nabarmenkeria orreek laketu eta ontzat iragoten dituezan ugazaba eta guraso Jaungoikoaren bildurbagakoak; gizon arimabagakoai eta erreljinoebagakoai laguntasuna emoten deutsanak.

Eta besteai, esan diran eraren baten, gatz edo kalte egiten deutsanak, badauke eginbearren bat? Geratuten dira, eginiko gatzak eta kalteak osotuteko eginbear estu eta gogorrean.

JAZOEREA

Bein baten Jesukristok artu eban mutiltxu gazte bat, eta, iminirik guztien aurrean, esan eban:— «Nigan sinistuten dabenean umetxu oneetatik bateri, pekatutako-bidea emoten deutsanari, obeto izango litzakeo, errota-arri bat bere samatik lotu eta botako balebe itxasoko ondarrera. Ay munduarena pekatutako-bidea emoteagaitik! Zergaitik gauza bearrakoa da pekatutako-bidea-emotea etortea; baña, ay, arako gizonarena, zeñegandik datorren pekatutako-bidea».



Irakatsi 12.a: Seigarren Agindua

Zein da seigarrena? Aragizko pekatuak ez egitea. Zer aginduten da agindu onetan? Izan gaitezala garbiyak gogo, berba, egite eta gurarietan. Nortzuk dira, agindu onen kontrako pekatu ilgarria egiten dabeenak? Gogorazinoe loiyak, erakutsi ez arren, edo erakutsi gura ez arren egikere-tan, bururatuagaz, jakinoro poztuten diranak; gauza zikinak esan eta kan-tetan dituezanak, edo gogoz entzuten dituezanak; baita norberagaz edo bestegaz eskuketa, ukutute, egite ezainak eta zantarkeriak egiten ditueza-nak edo egin gura dituezanak.

AZALDUERA

Ze pekatu galerazoten dira agindu onetan? Garbitasunaren kontra-ko berbak, gurariyak, gogorazinoak, edo norberagazko nai besteagazko egikera loiyak eta ezainak.

Badago agindu onetan zerbait, berarizkoa eta apartekoa danik? Bai: eta da, ez dagoala gauza arinik edo txikirik, da esatea, guztia dala pekatu ilgarria, agindu onen kontra doiana; eta bakarrik izango da pekatu arina, adinaren aldetik bearreko ezauperea edo borondatearen bearreko eraba-gia ez dagoanean.

Zer geiyago galerazoten da agindu onetan? Pekatua onen jatorriya edo sustraiya izan leitekean guztia; diran legez, irakurte nasai eta ezainak, begirakune zantarrak, berbetea eta adiskidetasun arrisku andikoak, dantza eta ikusgarri pekatuak-bide-emongarriak, eta artuemon eta joanetorri maitetsu luzarokoak.

Nortzuk dira guztizko errudunak agindu onetan? Dantza eta ikus-garri nasaiegiyak euren etxetan asmau eta eukiten dituezanak; adiskideta-sun luzegiyak eta bakarregiyak laketu eta ontzat emoten dituezan guraso-ak; pekatuak bidea emon edo pekatu egiten irakasten dabenak; euren berbaldiakaz, billostasunakaz, eta edergarri eta apaingarriakaz, pekatu-ko aurrerabidea emoten dabeenak; gauza ezainak eta zikinak eskribiduten dituezanak, edo euren antz eta irudiyak egin edo erakusten dituezanak.

Ze kalte egiten dau pekatu onek? Pekatua ilgarri guztiak beragaz dakarzan kalteakaz gañera, kalte andiya egiten deutse gorputzari, entzute onari, ondasunai, eta arimeari.

Ze kalte egiten deutso gorputzari? Gitxituten deutsoz indarrak eta sendotasuna, eta sarri askotan elduten da osasuna galdu eta bizitzea labur-tu eragitera.

Zergaitik kalte egiten deutso entzute onari? Dalako pekatu ezaina eta itsusiya, bera egiten dabena, lotsariz eta iguingarri betetan dabena.

Zelan kalte egiten deutse ondasunai? Loikeriazko ekandu zital onek beragaz dakar nagitasuna, alperreria, biarraganako gorrotoa, gauzak dongaro gastetea, eta onek guzti onek eroaten dabe biziera errukigarri, estu eta larria.

Zelako kalteak egiten deutsoz arimeari? Illunduten deutso adineko argitasuna, errazoia bera galdutera bein baño geiyagotan elduten dala; beragaz dakar sinisbagatasuna, Sakramentu Santuak dongaro artutea, umetxuen ilgintzak, gogait egin eta itxaropena galdutea; eta ez deutso itxi-ten, infernuko ondarrera bota artian.

Gauzaren bat, garbitasunaren kontrako pekatu dan ala ez, ezbaiyan dagoanak, zer egin bear dau? Itundu bear da bere konfesoeragaz, eta bitartean itxi bear dau egin baga, badaezbadan daukan gauzea.

Zeintzuk gauza dira, garbitasuna zaindu eta gordetan lagunduten dabeenak? Nagitasunetik eta arriskuetatik iges egin eta urrindutea, Sakramentu Santuak sarri artutea, errege eta eskabideak egitea, Andra Mariaganako onerazpen eta maitetasuna, Jaungoikoaren aurrean beti ibiltea.

JAZOERA

Enrique zortzigarrena, Ingalaterrako erregea, bere lenengo urtetan izan zan Eleizearen seme otzana, mena eta esanekoa, eta beraugaitik ira-bazi eban «Eleizearen zaintzallearen» izen eregi eta argitsua: baño loike-riazko griña zitalaren mendeko eta azpiko eginik geratu zanean, aztu zitu-zan bere eginbearrak, galdu eban siniste santua, alderatu zan Eleiza egiaz-koagandik, egin zan Anglikanismoaren, au da, hereje arimagaldukuen buru eta agintari, Jesusen errelijinoari gorrotoz begiratu eta milla txarke-ria egiten eutsazan, erbestuten zituzan Apezpikoak edo Obispoak eta Fraileak, oneen aberastasunak eta ondasunak beragandu zituzan, eta asko eta askoi emon eutsen martirioa. Bere griña zantar, ezeri bere jaramonik egiten ez eutsanak, ainbestean itsutu eban eze, egin zituzan, gogoratu eta iruditut al leitekean nasaieria eta txarkeria guztiak, eta azkenean il zan, penitenziarik egin baga, Jaungoikoak bere agindupian iminiriko erreñua, Erromako Eleiza Santutik atera ezkeru.



Irakatsi 13.a: Zazpigarren Agindua

Zein da zazpigarrena? Ez ostutea. Zer aginduten da agindu onetan? Ez dagigula iñoren gauzarik kendu, ez euki, ez gura izan, jaubeak gura ez dabela.

AZALDUEREA

Zeinbat eratara pekatu egin leiteke agindu onen kontra? Askotara, lenenak dira: lapurretea, iñorena bide txarrez eukitea, kalte egitea, engañua, irabazgoiya, gurariya.

Nortzuk pekatu egiten dabe lapurretaz? Iñorena artuten dabeenak, jaubeak gura ez dabela; eta au egiten bada isilean eta ezkutuan, deituten jako ostutea, eta jaubearen aurrean eta indarrez egin ezker, deritxo arrapakaria.

Nortzuk pekatu egiten dabe engañuz? Euren gauzak txarrakaz nas-taurik, edo pisu eta neurri laburrakaz, salduten dituezanak; saldu-erosie-tan engañuren bat sartuten dabeenak besten kaltean.

Nortzuk pekatu egiten dabe, iñorena bide txarrez eukirik? Besten ondasun eta gauzak, euren jaubeak gura ez dabela, daukezanak; euren zorrak pagetan ez dituezanak, eta biarginai eta alogerekoai bearreko egin-sari eta alogerak denporaz emoten ez deusezanak.

Nortzuk dira kalte egitearen errudunak? Besteai gatxen bat edo kal-ten bat zelanbait egiten deuseenak, su emonik etxeai, soloai, basoai, eta beste onelako txarkeriak eginik; edo galdu eraginik dongakeriaz ondasu-nen bat, zeñeganako eskubidea euen besteak.

Nortzuk egiten dabe irabazgoiya? Emoniko diruagaitik edo beste gauza desegingarriak epean emoteagaitik, irabazi larregiak edo euneko geiyegiak eroaten dituezanak, atarako eskubide zuzenik euki бага.

Nortzuk pekatu egiten dabe gurari txarrez? Iñoren ondasun eta gau-zak zikozkeriaz gura dituezanak, ikusirik ondamuagaz besten zoriontasu-na, eta euren ondasunen jaube izateko gogoia eukirik.

Nortzuk geiyago pekatu egiten dabe agindu onen kontra? Lapurretea, edo kalten bat, egiteko, laguntasuna emoten dabeenak, agin-durik, atarako aurrebidea emonik, lagundurik eta beste onelako gauzak eginik; osturiko gauzetan alde artuten dabeenak, edo erosten dituezanak, jakinik osturikoak dirala.

Eta ezkonduen artian eta gurasoen eta semealaben artian aurkitu lei-teke lapurretarik? Bai: zergaitik bakotxak daukaz bere ondasun eta gau-zak, eta ez da gauza bidezkoa eta arteza, euretan kalte egitea.

JAZOEREA

Fraille-etxe bat egiteko lurra artu izanik San Eloyk errege bategandik, etxea amaitua izan zanean, ikaratu zan ikusirik, emon izan jakon lurra baño oin bat geiyago artu ebala. Estutasunez eta atsekabez beterik joan zan erregeagana, eta bere aurrean belaunbikoturik, eta bere begi biyetatik negar-malku ugariyak eriozala, parka eskatu eutsan, gaiztakeria andi bat egin izan baleu legez. Erregeak, alako egite on eta samurraren saritzat emon eutsan beste ainbeste lur, eta San Eloy bere aurretik joan zanean, esan eutsen beragaz egozanai:— «Begira zelakoak diran Jesukristoren jarraillak eta ikaslak: nire mendeko agintariak eta zuzentzallak kenduten deuste, al dabeen guztia, eta Eloy ainbestean estutu eta larrituten da ontza bat lurreagaitik».

Irakatsi 14.a: Zazpigarren Aginduaren jarraipena

Nortzuk egiten dabe onen kontrako pekatu ilgarria? Esaniko edozein gauza orrek egiten dituzanak, edo besteari zelanbait kalte egiten deutenak bere ondasunetan, gauza andian izan ezker. Eta besteari, edozein eratara dala, kalte egiten deutenak, geratuten dira eginbearren bategaz? Geratuten dira, osturiko gauza guztiak eta eginiko kalte guztiak ainbat las-terren biurtu eta osotu edo ordainduteko, eginbear gogor eta astunean.

AZALDUEREA

Ze pekatu da lapurretea? Berez da pekatu ilgarria, bada San Pablok dino: «Ez dabeela eukiko Jaungoikoaren erreñua lapurak ez zikoizkeria-zaleak».

Beti da pekatu ilgarria? Ez: izan leiteke pekatu arina, bearreko ezau-perea edo erabagia euki ezagaitik, eta gauza txikian danean.

Zeinbateko gauzea da asko eta naikoa, pekatu ilgarria izateko? Onen ganean ezin emon leiteke neurri edo erabagirik, zergaitik begiratu bear-jake, jakiteko eta erabagia emoteko, pekatu ilgarria dan ala ez, lapurretea edo kaltea egiten jakenen biziareari eta bere zerzeridadeai, eta baitabere



etorten jakezan kalteai, eta beste onelako gauzai; neurri edo erabagi guztirakotzat irakasten dabe jakitun eta erakusla batzuk, «besteari egun bateko bizigarri edo janari bearrekoa, eta berari jatorkana, ostutea dala pekatu ilgarria».

Lapurreta txikiak egin leikee pekatu ilgarria? Bai: 1. gauza andi eta astuna egitera elduten diranean lapurreta txikiak; dendariak eta saltzalleak pisu eta neurri labor eta txikiyagaz salduerosiyak egiten dituezanean, jazo-ten dan legez; Eta 2. batek ostuten dabenean gauza txikia, lapurreta andira elduteko gogoagaz; berbarako, neskatiilla serbitzalla batek, gauzak eros-tera doianean, baktxean zentimo batzuk ostuten badituz, soñeko bat egi-teko bear dabeneraño ostuteko gogoagaz.

Pekatu au da gorrotogarria? Bai; ezin-geiyagoan: 1. beragaz daroalako ezaintasan lotsagarritzkoa; 2. lege guztiak gogortasun andiagaz kastigetun dabeelako; 3. beragaz daroalako, osturikoa biurtu eta kalte eginikoa ordaindu edo osotuteko eginbear estua, arimea betiko galdu gura ez bada.

Premiñazkoa eta naita naiezekoa da osturikoa biurtutea edo kalte eginikoa ordaindu edo osotutea? Al izan ezker, da osoro premiñazkoa eta naita naiezekoa, eta ez da geratuten beste igeslekurik ezpada biurtu osturikoa edo betiko galdu arimea; bada dino San Agustinek «ez dala par-katuten pekatua, ez bada egiten biurtuea, al danean».

Eta biurtuea egiteko ezinean aurkituten danak, zer egin bera dau? Euki bear dau egiteko asmu errime eta erabagi sendoa, al dabenean; eta bitartean egin bear dau, al daben guztia, betetako bere eginbear astuna.

Eta nor dago biurtuea egiteko eginbearrean? Ostu izan dabena edo kalte egin izan dabena, lapurretan egiten zelanbait lagundu izan dabeenak, lapurrak berak egiten ez badau biurtuea, eta arteztasunaren bitartez lapurretak galerazo al leikezanak eta galerazo bear dituezanak, zaintzallak legez, eta alan egiten ez dabenak.

Eta nori biurtu bear jako? Jaubeari edo bere jaubegeiai; eta ezin zabaldu leiteke eskekoen eta premiñadunen artian biurtu bear dana, bere jaubea ezagutua danean.

Eta jaubea agertuten ez bada, geratu leiteke beragaz? Ezzelane ez, zergaitik ezin aberastu leiteke inor osturikoagaz; aldi onetan emon bear jake eskekoai eta premiñadunai, biurtu bear dana.

Zeinbat biurtu bear da? Jaubeari kalte egin izan jakon beste.

Eta gauzaren bat topau edo aurkitu izan dabenak, zer egin bear dau? Alegin guztiak egin bear dituz jakiteko edo aurkituteko bere jaubea, eta agertuten bada jaubea, berari biurtu bear deutso; eta alan egiten ez badau, izango da lapurra.

Eta baldin, aleginak egin ezker, agertuten ez bada jaubea, zer egin bearko dau? Geratu beragaz edo emon eskekoai.

JAZOEREA

Bide txarretik ondasun eta aberastasun andi eta ugariyak egin zitu-zan gizon bat, geisotu zan aragiaren ustelera deritxon geisotasunagaz, eta ezaguturik urrean eukala eriotzea, orregatik bere ezin artu eban, biurtu bea ebana, biurtuteko asmua, bere iru semeak premiñan eta ezeukiyan itxite ez-arren. Au jakinik Arimazain on batek, egiten dituz, geisoa ikus-teko, alegin guztiak, eta esanik bere etxekoai, berak ekiala, alako geisota-suna osatuteko osagarria, sartuten da geisoaren gelan, eta bere aurrean dagoala, dirautso:— Nik dakidan osagarria, da utsik emongo ez dabena, guztiz erraza, eta batbere minik egiten ez dabena; baña da, diru guztiz asko kostetan dana.— Kostau beite, gura dana, erantzun eutsan geisoak, berreun, bimilla ogerleko: zein da osagarri ori?— Arimazainak esan eutsan: ez da egin bear beste gauzarik ezpada isuri eta bota zure aragi ustelaren gañera gizon bizi eta osasun onekoaren koipe-tantaka batzuk; gatxtasun guztia dago aurkitutean gizon bat, bimilla ogerlekogaitik ordu laure baten bere eskua erretan itxi gura dagiyana.— Nire errukigarria, deadar egin eban geisoak, nun aurkitu orrelango gizonik?— Gozatu eta baketu zaitez, esan eutsan Arimazainak; zuk daukazuz iru seme, eta ez daki inok zer egin leikean seme batek bere aitaren osasunagaitik; zuk irago dituzuz esturak, larritasunak eta neke gogorak, zeure semeak aberats itxi-te arren, deitu egiozu seme nagusienari, gogoratu eragiozu deutzazun maitetasuna, esan egiozu itxiko dozula zeure ondasunen eta aberastasu-nen jaube, bere aitaren bizitzeagaitik erretan itxiten badau bere eskua; ez daukat badaezbadarik, gurago dabela eta erantzungo dabela; ezpada deitu egiozu bigarrenari, irugarrenari, eta egin egioezuz eskintsari eta agintsari bardiñak. Alan deitu eutsen iru semeai; baña guztiak ao batez ukatu eben egitea, aitag gura ebana, ziñoela: Zoraturik dago gure aita!— Ez dot aitu-ten, esan eban orduan Arimazainak, geisoari begiratuten eutsala; baña bai diñot, zu izango ziñatekezala ero eta zoro andi bat, zeure gorputz eta ari-mea galduteko eta betiko infernuan erretako arriskuan iminiatz zeure burua, lurreko suban ordu lauren bateko mina irago gura ez dabeen semeak aberats itxiteagaitik. Ondo diñozu, esan eban geisoak, jazoera onek edegi eta zabalduten deustaz begiyak, joan daitezala bereala eskribau baten eske, eta bitartean zuk konfesa nagizu. Gero zuzendu zituzan bere arimako gauzak eta biurtu zituzan osturiko eta kalte eginiko gauza guz-



tiak, bere semeen zoriontasun lurreko eta gerokoari batbere jaramonik egin бага.

Irakatsi 15.a: **Zortzigarren agindua**

Zein da zortzigarrena? Iñori, egin ez dabenik, ez ezartea eta guzurrik ez esatea. Zer aginduten da agindu onetan? Lagunagaitik arin, irazean edo geiagoko bagarik, txarrik use ez izatea, eta bere utseginik ez esan ez entzutea. Nok austen dau agindu au? Bide okerrezt eretxia erakusten dabena, au da, bear dan argitasun бага, iñoren izen ona galdu, bere gauza isillekoa agertu eta guzurrez iraina egiten deusanak. Eta iñori guzurrezko pekatua leporatuaz, nai egiazko erruak baña isillekoak edo ezjakinak agertuaz, izen ona galduten deusana, ezer eginbearrean geldituten da? Kenduriko onera eta izen ona biurtu bearrean geldituten da.

AZALDUERA

Zeintzuk pekatu dira, agindu onetan galerezoten diranak? Lagunaren izen onaren edo egiyaren kontra zelanbait doazanak; diran legezt uste edo eretxi largoaia, lekukotasun guzurrezkoa, murmurerea, guzurra, donga-estalkeria, eta beste oneen antzekoak.

Zer da uste edo eretxi largoaia? Lagunagaitik txarto uste izatea, atarako zergaitiko asko edo naikorik euki бага. Baldin, uste izatea dan denpora berean, geratuten bada kontrako ezdabaidarik, deituten jako suzpitzia.

Zer da murmurera? Da lagunaren kontrako berbeta bidebagakoa; egiten bada, pekatu egiazkoa agertuagaz, da bakarrik murmurerea; baña bada, pekatu guzurrezkoa agertuagaz, deituten jako salgaitza edo lekukotasun guzurrezkoa.

Zeinbat eratara egin leiteke pekatu au? Lagunari pekatu edo txarke-ria guzurrezkoa ezarriagaz, egiazkoa geituagaz, isileko edo ezjakina agertuagaz, egite onari antz txarra emonagaz, lagunaren ontasuna ukatuagaz, gitxituagaz edo ots-otsean alabau eta goratuagaz.

Esan al leitekez pekatu edo gaiztakeria agiriya edo jakinekoak? Badira, agiriyan egin izan diranak, edo badira agiriya, auzi-epallak euren gañean erabagia emon izan dabelako, bai; bakarrik badira agiriya, jenten artian isillean zabaldu izan diralako, uts egiten jako gitxienez maitetasunari.

Zer egin bear dau, murmurerea entzuten dabena? Bera bada nagu-sia, isilldu eragin bear dau; bada bardiña edo mendekoa, alde egin bear dau leku atatik, berbaldiya aldatu edo beste gauza batzuetara eroan bear dau, edo bere bekoki astunagaz eta arpegi ilunagaz adierazo bear dau ez dala bere gogoko alako murmurerea; eta onetan jakin bear da, pekatu andiagoa egiten dabela batzuetan, murmurerea entzuten dabena, murmuratzalleak baño. Gorde bear doguz isilleko gauzak? Bai, pekatuaren azpian eta beiaan; naiz dala alan agindu izan dogulako, eta naiz dala jakin dogulako uste ustebaga edo guk jakiteko aleginak eginagaz.

Gauza bidezkoa eta ona da nozbait, gauza isillekoa agertu eta esatea? Bai; erreligioaren edo munduko alkartasunaren on guztirakoak alan eskatuten dabenean, edo norberaren nai lagunaren onera andirako danean bere bai.

Egiten dau pekatu, iñoren kartak irakurri edo zabaldu dituzanak? Bai, austen dituzalako, isilleko gauzea ez agertuteko daukan eginbearra eta jenten arteko eskubide berezkoa.

Zer da guzurra? Norberaren eretxikoa ez dana, esatea, besteak engañetako gogoagaz; eta deituten jako barregarria, barre eragiteko esaten danean; langarrizkoa, onera edo mesederen bategaitik esaten danean; eta kaltegarria, beragaz kalte egiten danean.

Ona izan leiteke nozbait guzurra? Iñozbere ez, munduko alkartasunak bere iraupenerako bear dituzan tolesbakotasunaren, leiyaltasunaren eta siniste onaren kontra doialako; baña nozbait, zergaitikotasun artezagaz, ezkutau leiteke egiya, guzurrik esan бага.

Zer da donga-estalkeria? Norbera bere barruam donga eta txarra izanik, kanpotik eta azaletik ontzat agertutea, engañetako gogoagaz.

Zelan biurtu eta osotuko da, salgaitzaz edo lekukotasun guzurrezkoagaz kendu izan dan izen edo entzute ona? Desesanik eta ukaturik, lenago guzurraz esan dana, eta juramentuagaz eta norberaren kaltean izan arren bere.

Eta izen edo entzute ona kendu izan danean, pekatu edo gaiztakeria egiazkoa, baña isillekoa, agertu eta zabalduagaz? Guztiz gatx da biurtu edo osotutea; aldi onetan ondo da konfesoareagaz itundu eta aitutea, edo parka eskatutea, iraina eta kaltea egin izan jakonari.

JAZOERA

San Agustinek, janorduetan ain ugariya eta geiyenetakoa izaten dan murmurerea galerazo eta kenduteko, imini eragin zituzan bere etxeko jan-tokian latinezko berso bi, esaten ebenak au:



«Murmurau gura dabena,
izan daitela emetik joana».

Eta adiskide batzuk lagunagaitik txarto esaka eta berbetan asi ziran egun baten, agiraka egin eutsen, zirautsela:— «Isillduten ez baziran, egin bearko zana zala, edo kendu berso areek leku atatik, edo jagi maitik».— Onelako gogortasuna edo sendotasuna euki eta erakutsi bear litzatekez, ainbeste gatz eta kalte ekarten dituzan murmuratea galerazo eta eragotziteko.

Irakatsi 16.a: **Eleizearen Aginduak**

Esan egizuz Eleiza Ama Santearen aginduak.— Eleiza Ama Santearen aginduak dira bost: 1. Meza osoa entzutea jai eta domeketan; 2. Edolabere urtean bein konfesetea, edo lenago eriotzako arriskuan bada-go, edo komulgau bear badau; 3. Pasko garizumakoetan komulgetea bere parrokiyan; 4. Barau egitea, Eleiza Ama Santeak aginduten daben guztian; eta 5. Amarrenak eta primiziyak edo lenengo ekarriak, edo orren ordeaz aginduten dana emotea. Zetarako dira agindu oneek? Jaungoikoarenak obeto gordetako.

AZALDUEREA

Arima salbetako edo zerura joateko, asko eta naikoa da Jaungoikoaren legero aginduak bete eta gordetea? Ez: bete eta gorde bear dira bere Eleizarenak, Jaungoikoak aginduten dabelako, obediu dagiogula Eleizeari, berari legez; eta ezin euki leike Jaungoikoa aitatzat, Eleizea amatzat ez daukanak.

Badauko Eleizeak, legeak iminteko eskubiderik? Bai; artu izan dabelako Jesukristogandik, eta baitabere dauko, eurak ausi eta gordetan ez dituezanak, kastigetako eskubidea; eta au lurreko edo munduko agintariak beragaz zer-ikusirik ez daukela.

Zetara zuzendu eta zabalduen da eskubide au? Siniste santuari, oitura onai, Eleizearen ardura eta zuzenereari eta arimen zorientasun betikoai dagokoezan gauzetara.

Baldin Aita Santua eta Apezpikoak edo Obispoak badira gizonak, zergaitik obediu bear jake eurai? Jaungoikoagandik artu izan dabelako, gure arimak zaindu eta jagoteko ardurea, eta beraugaitik guk daukagu, eurai obediuteko eginbear andi eta astuna; daukagun legez, geure guraso-ai, agintariai eta nagusiai obediuteko, eurak gizonak izan arren.

Eleizearen agindu oneek izan leitekez aldatuak edo barritzauak? Bai, badaezbada baga; denporeak, lekuak eta beste onelako zerzeridadeak alan eskatuten dabeen guztian; jazo izan dan legez, Eleizearen bostgarren aginduagaz, bada len amarrenak eta primiziyak edo lenengo etorriyak emoten baziran, orain diruta egiten da euren pagua, Eleizeak erabagi dabelako.

Agindu oneetik gañera badagoz besten batzuk? Dagoz asko, bete eta gorde bear doguzanak, diran legez Aita Santuaren eta Apezpiko edo Obispoen agindu guztiak, eta eurak betetea edo gordetea da irakatsi onen onerea.

JAZOEREA

Okelarik edo aragirik ezin jan zeitekean egun baten, imini eutsen okelea bere maian Franziaiko errege Luis amalaugarrenari, eta jan gura ez izanik, bere mendeko soldadu-agintari zar batek egin zituzan alegin guztiak, jan leitekeala sinistu eragiteko, zirautsala: Jesukristok esaten ebalala Ebanjelio Santuan, «aoan sartuten danak, ez ebal ezainduten ez loituten arimea». Ez, Jauna, erantzun eutsan erregeak bere nagusitasun guztiagaz, okelea jateak ez dau loituten arimea, ezpada esanik ez egiteak, agintaritasun egiazkoari jarkiteak, eta agindua ez gordeteak. Guztia dago jakitean, Jaungoikoak emon ete deitsan Eleizeari, bere semeai aginduteko eskubidea, eta bere semeak artu ete dabeen, Eleizearen esanak eta aginduak betetako eginbear andi eta astuna: alan darakusku ikasbide kristinauenak; baña zuk irakurten dozun ezkerro Ebanjelio Santua, bertan ikusiko zenuan, Jesukristok argiro diñoala: «Eleizeari obediuten ez deitsan edozein, izan daitela jentiltzat eukiya».— Erantzueria eder au zan errege guztiz kristinau onaren duiñekoa.

Irakatsi 17.a: **Barauba eta janari debekauak ez jatea**



Eta laugarrena, zein dan barau egitea, nortzui jagoke? Ogetabat urte daukezanai. Eta zelan barau egin bear da? Janari debekauak itxi eta eguberdian bakarrik janagaz. Eta onetan utsik egin бага, goizean ezer artu al izango ete da? Zergaititasunagaz, au andia izan ez arren bere, ontza bat inguru artu leiteke. Eta gaubean? Apari arintzat, oitura onekoen artean oi dana, artu leiteke, abade edo konfessore zur bati onen galeko ezbaia era-kusten deusaguzala. Eta zergaititasun egiazkoa бага, barau egiten ez dabeenak, zelango pekatua egiten dabe? Ilgarria. Eta baru-egunetan eta okelarik-ez-jateko egunetan okelarik ez jateko agindua; egun oneetan jator-du baten okelea eta arraña ez nastetako agindua, eta garizuman arrauzak eta esne-janariak, Bula бага, ez jateko agindua, nortzui dagokoez? Adinera edo ezauberara eldu diran guztiai. Zelango pekatua egiten dabe, betetan ez dituezanak? Ilgarria, egunean uts egiten deutseen bakotxean.

AZALDUERA

Zeinbat agindu dagoz sarturik barauban? Bi: 1. eguberdian bein bakarrik jatekoa; 2. janari batzuk ez jatekoa.

Zeintzuk dira barau-egunak? Garizumako egun guztiak, ez izanik domekak; lau denporetako egubastenak, barikuak eta zapatuak; adbendu-ko bariku eta zapatuak; Jesusen jaiotzearen, Espiritu Santuaren etorrerearen, Andra Mariaren igoerearen, San Pedro Apostoloaren, Santiagoren eta Santu Guztien jaiurreko egun bakotzak.

Nortzuk ez dagoz, barau egiteko eginbearrean? Ogetabat urte ez daukenak eta irurogei urte irago dituezanak, lan eta biargintza gogor eta neketsuetan egunoroko ogiya irabazten dabeenak, geisoak eta guztiz osatu-bitartean dagozanak, seindun diran edo seina aziten aurkituten diran emakumeak, eta premiñadun aterik ate eskean dabilzanak.

Barau egiteko agindua ausi бага, itxi al izango da gerorako, bein asi izan dan eguberdiko bazkariya? Zergaititasunen bategaitik itxi leiteke ordulauren edo orduerdi batean; eta zergaititasun egiazkoagaitik egin leiteke bazkariya gaubean, eginik aparti arina eguberdian.

Zelako janariyak artu leitekez aparti arinean? Lurretik datozenak, ez badago beste oituren bat edo eskubide agintariak emonikoren bat, beste janari batzuk bere artuteko.

Edariyak ausi eta galdu eragiten dabe barauban? Euren izatez edariyak bakarrik diranak, ardaoa, kafea eta beste onelangoak legez, ez; eurenz janaritzat ezagutuak diranak, txokolatea, saldea, esnea eta beste onelangoak legez, bai.

Zeintzuk dira janari debekauak eta eragotziak? Okelea edo okelatik datozenak; arrautzak, esnea, gaztaia legez, eta onei deituten jake esne-jakiak.

Zeintzuk dira, janari debekauak ez jateko egunak? Barauegunetako egun guztiak eta urteko bariku guztiak, zeintzuetan guztietan ezin jan leiteke okelarik; eta garizumako egunetan eta domeketan bere, ezin jan leitekez arrautzak eta esne-jakiak bere, euki ezin zergaititasunik edo Bula Santuak emondako eskubiderik.

Nortzuk dagoz janari debekauak jateko alizatean? Adinera edo ezauberara eldu ez diranak edo adineko argitasunik ez dauken senbakoak; geisoak eta guztiz osatubitarrean dagozanak, eta osagillaren eretxian okelajakiak bear dituezanak; eskean bizi diranak, jan leikee emoten jakena; euren etxetatik urten eta, euren zereginak eta arazuak egiteko, bidetan dabilzanak, arrain-jakirik, edo beste janari egun aretan debekauta eta eragotzita ez dagoanik, eraz ez badauke edo ezin aurkitu al badabe.

JAZOERA

Barauban egiteko aginduari, lotsa eta itzal gitxigaz begiratu eta gorroto deutesenak, egiten dituezan urteiyeretatik geiyenekoena da au: esan oi dabe: «Zer deutse Jaungoikoari gure baraubak?». Urteiyera oni erantzuteko, esango deusuet, Aita Frankok bere «Erantzueren errikorretan», ain ezagutuak eta entzunak diranetan, dakarrena. Ondo adierazo ezkerri guztien eretxiagaz, liburu santuen irakatsiakaz, igarlen onbideagaz eta beste onelango bagusitasunakaz, barauban dala ona eta egokia Jaungoikoaren aserrea bigunduteko, eta errukitasun jaungoikozkoa eta zeruko laguntasuna jaritxi eta alkantzetako, iminten dau lekukotasun barriya, diñoala: «Jesukristok ondo argiro irakasten deusku *dagozala demoinoe batzuk, bita ezin leitekezanak, erreguaren eta baraubaren bitartez ezpada*; bera joan zeitenean, bere Apostoloak barauban egingo ebela; irakatsi eutsen zelan egingo eben barauban, eta au asko eta naikoa ez balitz legez, Berberak emon gura izan euskun, barauban egiteko onbidea, joanik eremura edo basamortura, nun egin eban berrogei egun eta gabeko barau gogorra. Baldin, onen ostean, norbaitek itanduten badeutsue, *zer deuten Jesukristori baraubak?* erantzun zinaikeoe: *Ainbeste deutse*, zeinbat deusnan irakasla bateri, bere ikaslak egin dagiela, berak irakatsi izan deusena. Ebanjelioko jakituria eta irakatsi guztia dago, guk azpiratu eta ezi dagigula geure aragia, eta euki dagigula arimearen mendean; eta zelan barauban eginbiderik onena eta egokiena, aragia ezi eta goituteko, guztiz asko deutso Jesuseri, guk barau egin dagigula. *Ainbat deutso*, zeinbat deusnan



osagilla on bateri, bere geisoak artu dagiezala ardura guztiagaz, berak agindu izan deutsezan osagarriak edo osasungeiak. Gure geisotasunik andienak dira aragiaren gozamina, lurreko gauzakganako zaletasun larregia, eta pekatuak etsigitasun eta entzuntasuna; eta baraubak da gatz eta geisotasun orreen kontrako osagarriak indartsuena eta eragillena. *Ainbat deutsu*, zeinbat deutsan soldadu-agintariari, bere gudariak edo soldaduak gogor egin dagiela burruka eta esetsiyetan. Baraubak da arma bat, esaten eban San Antoniok: demonino guztiai iges eragiten deutsena; zergaitik, zelan janedanetako asebateak sortu eta ekarten dituzan milla griña eta gurari aberekorrak eta lotsagarritzakoak, baraubak, bestera, geituten dituz gogorazinoe garbiak, eregi eta goratuten dau arimea Jaungoikoagana, eta sendatuten dau, gaiztakeria guztiak laster eta bereala desegin eta goituteko. *Ainbat deutsu*, zeinbat deutsan lege-imintzalla bateri, bere aginduak izan daitezala gorde eta beteak, eta aginduten daben Jaungoikoari, bere mendekoak izan daitezala esanekoak. *Eta ainbeste deutsu*, ezingeiagoan eta egiaz gura dituzalako gure arimen ona, gure esetsialdiak eta burrukak, gure garaitzak, berba baten, gure zoriontasun betikoa; eta, zelan au jaritxi eta alkantzeta, dan baraubak eginbiderik sendoena eta eragillena, orregaitik *asko deutsu guk barau egitea*».

Irakatsi 18.a:

Bula Santuaren gañeko eraiskuna

Zer da Bula Santua? Da Aita Santuaren erabagia, zeñaren bitartez emoten jakezan grazia eta eskubide batzuk, Eleizearen gurte edo kultura-ko limosna egiten dabenai.

Zelako eskubideak emoten dituz Kruzadako Bula Santuak baraubaren ganean? Lenengo emoten dau, garizumako egun guztietan arrautzak eta esne-jakiak jateko eskubidea (ez sarturik eskubide onetan abadeak): 2. baru-eguneko egun guztietan okela jan al izatekoa, arima eta gorputzeko osagille biyen eretxiagaz; eta 3. eskubide au zabalago egiten daben Okela-Bulea artu al izatekoa.

Zelako eskubideak emoten dituz Okela-Buleak? Garizumako eta barueguneko egun guztietan okelea jan al izatekoa, ez izanik auts-eguneko egubastena, garizumako barikuak, Aste Santuko azkenengo lau egunak, eta Jesusen jaiotzearen, Espiritu Santuaren etorrerearen, Andra

Mariaren igoerearen eta San Pedro Apostoloaren jai-aurreko egun guztiak, zeintzuetan ezin jan leitekean okelarik, Okela-Bulea euki arren bere.

Eta Bulea daukenak, nastau leikeez okelea eta arraina jatordu baten, janari debekauak eta eragotziak jateko alizatean dagozan egunetan? Nastau leikeez urteko barikuetan; baña ezin nastau leikeez baruegunetan, ez eta garizumako domeketan bere.

Beste zeintzuk eskubide emoten dituz Kruzada Santuko Buleak? Lenengo emoten dituz, zeinbatu ezin leitekezan beste parkamen osoak eta aldekorak, Bulan bertan ikusi leitekezan lege; 2. emoten dau, pekatu loturiko eta gorderiko, bi ez enparau guztiak, parkatuteko eskubidea; 3. eskintsarik edo botoak aldatuak al izateko eskubidea; 4. esan-arteko denporarako emoten dituz beste eskubide batzuk; eta 5. beste enparau Bulak, ilena, okelakoa eta konposinoekoa, artuteko eta euren graziak eukiteko eskubidea.

Zer emoten dau ilen Buleak? Parkamen oso bat, arima izentau bateri laguntasungarritzat ezarri leitekeona.

Zer emoten dau konposinoeko Buleak? Konpondu al izatea, bide txarretik eginiko ondasunen ganean, euren jaubea ezagututen ez danean.

Zeintzuk dira bear diran zerzeridadeak, Bula onegaz konpondu al izateko? Bi dira: 1. ondasunak ez daitezala izan bide txarretik eginak, Bula onegaz konponduteko uste eta gogoagaz; 2. eginik bearreko aleginak, ezin aurkitu eta jakin al izan daitela euren jaubea, ez batera ez bestera eginiko alegin guztiakas bere.

Zer euki bear dogu geure gogoan Bula Santuen ganean? Dirala eskubidezkoak, eta beraugaitik ez dago, eurak artuteko eginbearrik; baña Bulak artuten ez dituzana, geldituten da Eleizeak guztiai iminiriko legearen azpiyan, eta ezin baliyau leiteke, pekatu egin бага, Bulak emoten dituezan grazia eta mesedeakaz; eta ez deutsala ezer baliyoko, limosnea emoten dabenari, Bulea aintzat artuten ez badau.

Zetarako izaten dira, Bulea artuten dabeenak, emoten dituezan limosnak? Kruzada Santuaren Bulako limosnak dira eleiza ezeukiyai eta premiñatsuai lagunduteko, eta Okela-Bulearen limosnak izaten dira geisotegietarako, mesedezko-etxetarako eta umezurtzen tokietarako.

Zer geiago da ondo, onen ganean jakitea? Biargin alogerekoak diranak, ez daukela Okela-Bulea artuteko premiñarik, eta artu ez arren bere, baliyau leitekezala bere grazia eta mesedeakaz, errezaurik Aita-gurea bat, eurakaz baliyetan diran bakotxean.

JAZOEREA



Okelarik edo aragirik ezin jan zeitekean egun baten, egozan jaten mai baten gizakume on eta Jaungoikoaren bildur andiko bat eta mutil gazte zoro eta buru-eretri batzuk, eurak gizon andiak eta jakitunak zirala usteebenak, eta agura zarrari barre eta burla egiten eutsenak, jaten ez ebalako okelarik, eurak legez, ezpada arraiñak eta debekaurik ez egozan jana-riak. Gizon onak, amaitu ebanean bere bazkariya, urreratu eta eroan eban beragana, aragiz edo okelaz beterik egoan erretilua, eta orra nun sinistu-ten dabeen mutil gazte zoro eta donga areek, euren berbeta eta esanak entzunagaz, azpiraturik eta goiturik gelditu zala agura zarra, eta okelea jatera joiala; baña ez zan alan jazo, ezpada arturik bere eskuetan bertako okela-zati andi bat, bota eutsan, an egoan txakur bateri, zirautsala:— «Eutso, bada txakurrentzat ez dozak izan eginak Eleizearen legeak».— Eta onegaz artu eben mutil nasai areek irakatsi guztiz eder bat.

Irakatsi 19.a: **Errukizko egikerak**

Esan egizuz errukizko egikerak. Errukizko egikerak dira amalau, zazpi arimakoak eta zazpi gorputzekoak. Arimakoak dira oneek; lenen- goa, ez dakianari irakustea; bigarrena, bear dabenari konseju edo zentzun ona emotea; irugarrena, uts egiten dabena zuzendutea; laugarrena, gatx egina parkatutea; bostgarrena, triste dagoana poztutea; seigarrena, lagu- naren falta eta argaltasunak pazienziagaz iragotea; zazpigarrena, biziak eta ilak gaitik Jaungoikoari erregututea. Gorputzekoak dira oneek: lenengoa, geisoak ikustea; bigarrena, gose danari jaten emotea; irugarrena, egarri danari edaten emotea; laugarrena, katiguak askatu eragitea; bostagrrena, bilosak jaztea; seigarrena, erromesai ostatua emotea; zazpigarrena, illai lurra emotea. Zergaitik deritxe errukizkoak? Naita naiezekoak ez dirala- ko. Noz izaten dira agindupekoak? Gizon aituen eretxian astunak eta estuak direan bear-orduetan. Eta errukizko egikera onekaz, eta kristi- nauak bai egikizunez eta bai gura izate utsez egiten dituzan beste egikera onakaz, zer jaritxi eta alkantzetan dau? Jaungoikoaren grazian badago, ira- bazten dau, zeruko laguntasuna eta zoriontasuna geitutea, bere pekatuen zorra kitututea, eta Jaungoikoagandik arimako ondasunak eta, bear izan ezker, gorputzekoaka jaritxi eta alkantzetea. Zergaitik dinozu, Jaungoikoaren grazian badago? Zergaitik pekatu ilgarrian dagozanak egi- niko gauza onak, ez zorrik kitutu ez ezer merezi al dabeelako; bakar baka-

rrik dira jaritxigarriak, au da, euren bitartez Jaungoikoagandik meseden batzuk zelanbait jaritxi eta alkantzau al leitekez.

AZALDUEREA

Lagunari dagokazan aginduak bete ezker, bete izan doguz, beraga- nako daukaguzan eginbear guztiak? Ez: lagundu bear deusagu bere bere arimako eta gorputzeko premiñaldietan, errukizko egikerak betetan doguzala; eginik beragaz, besteak gugaz egitea gurako geunkena, aurkitu- ko bagintzez, berea lako bear-orduan.

Nortzuk dagoz batezbere, errukizko egikera arimakoak egiteko pre- miña eta naita naiezean? Nagusi guztiak: Apezpikoak edo Obispoak, Arimazainak, Abadeak, agintariak, gurasoak, irakasak, maisuak eta beste onelango guztiak, izanik geiyago edo gitxiago astuna eta estua euren egin- bearra, andiagoa edo txikiagoa dan legez premiñea.

Nortzui batezbere dagokoez errukizko egikera gorputzekoak? Aberatsai; bada eurak, euren bizierako bearbearrekoak ez dituezan onda- sun enparaudioakaz, lagundu bear deutse, premiñan dagozanai.

Zeintzuk dira premiña estuak eta andiak, zeintzuetan lagundu bear dan, norberaren kalteren bategaz edo nekealdiren bategaz izan arren bere? Gorputzari dagokazan aldetik, dira geisotasunak eta bizitzea galdu- teko arriskua; eta arimeari dagokazanez, dira bearreko gauzen ganeko ezjakite andia, arimea betiko galduteko arriskua edo pekatuan biziteko ekandu txarra.

Zek aurreratu bear gaituz, errukizko egikerak egitera? Jakiteak, Jesukristok eskini eta aginduta daukala, Berari egina legez artuko dabela, premiñadunagaz guk egiten doguna, eta emongo deuskula bateko eun eta gero zoriontasun betikoa.

Zeintzuk dira egikera onen onera eta ekarriyak? Lau: irabazigarria, kitugarria, jaritxigarria eta erruki-eragingarria.

Zein da irabazigarria? Egikera on guztiagaitik irabazten dan grazia- ren eta zoriontasunaren geitutea; baña onera au artuteko, naita naiez egon bear da Jaungoikoaren adiskidetasunean; da, ondo egiten dabenari, dago- kona, eta besteari ezarri ezin leitekeona.

Zein da kitugarria? Pekatu parkaturikoakgaitik zor dan pena denpo- razkoaren pagua, Jaungoikoaren zuzentasunari egiten deusana; au besteai ezarri leitekeoe, baña oneragarria eta mesedegarria izango bajake, naita naiez egon bear dabe Jaungoikoaren adiskidetasunean.



Zein da onera jaritxigarria? Egikera on guztiak daukan indarra, Jaungoikoagandik jaritxi eta alkantzetako, beragana egiaz biurtu eta bere adiskidetasunean irauteko graziak.

Zein da onera erruki-eragingarria? Egikera on guztiak, Jaungoikoaren aserrea bigundu eta samurtuteko, daukan indarra, kastigau ez gagizan, eta onera bi oneek ezarri leitekeoz guztiai, pekatuan egon arren bere.

JAZOEREA

San Martinek, soldadua zala, egiten eban bizitza guztiz on eta miragarri bat: egunean egunean emoten eskekoai eta premiñadunai, bere alogeretik enparetan jakona, bere bizierako premiñak bete ezkerro. Egun baten, ez eukirik zer emon, aurkitu eban eskeko osoro bilosik egoan bat, izan arren bere guztiz andi eta ikaragarritzkoa, orduan egiten eban otza; atera eban ezpatea bere lekatik, zati bi egiten dau bere kapea, eta emoten deutso eskekoari bere kapa-erdiya. Urrengo gaubean agertu jakon Jesukristo, eskekoari emon eutsan kapa-erdiyagaz jantzirik. Soldadutzeari itxirik, guztiz eta osoro eskini jakon Jaungoikoari, eldu zan Toursgo Apezpiko edo Obispo izatera, eta bere bizitza guztian izan zan guztiz argitsua eta entzuna bere onoidade zerukoagaitik, arimakganako bere zaletasun eta maitetasunagaitik, eta bere santutasun miragarritzkoagaitik.

LAUGARREN ZATIYA

Irakatsi lenengoa: Sakramentuak guztieran

Esan egizuz Sakramentuak. Eleiza Ama Santearen Sakramentuak dira zazpi: lenengo bostak dira naita naiezekoak, izatez edo borondatez, zeintzuk бага salbau ezin leiteke inor, isten badituz nagitasunez edo ezetan ez eukiz: beste biyak dira borondatezkoak. Lenengoa Bateoa, bigarrena Konfirmazinoa, irugarrena Konfesinoa, laugarrena Komuninoa, bostgarrena Oliazinoa, seigarrena Ordea, zazpigarrena Ezkontzea.

AZALDUEREA

Nor da Sakramentuen imintzalea? Guztiyeba da Jesukristo gure Jauna.

Zelan bada deituten jake «Eleizearen Sakramentuak»? Eleizea dala-ko euren eukitzalea, eurak egin edo emoten dituzana bere eleizgizonen bitartez.

Zergaitik dinozu «lenengo bostak dira naita naiezekoak, izatez edo borondatez»? Artu bear diralako egiaz eta benetan, edo beintzat gurariz eta borondatez; edo bardin dana, pekatu ilgarria egiten da, eurak ez arturik nagitasunez edo ezetan ez eukiz.

Zergaitik bere dinozu «azkenengo biyak dira borondatezkoak»? Zergaitik, munduko alkartasun guztiagaz berba egiten ez dala, ez diralako bearbearrekoak eta naita naiezekoak, zerura joateko; orregaitik bere bada-goz aldiyak, zeintzuetan egon leitekean, eurak artuteko eginbearra.

Ze eratakoak dira? Bizien Sakramentuak eta ilen Sakramentuak.

Zeintzuk dira ilenak? Bateoa eta Konfesinoa.

Zergaitik deritxe ilenak? Dagozalako iminirik emoteko graziak bizitzea, pekatuagaitik ilik dagozanai; eta orregaitik esaten da, emoten dabeela lenengo grazia.

Zeintzuk dira biziyeak? Konfirmazinoa, Komuninoa, Oliazinoa, Ordea eta Ezkontzea.

Zergaitik deritxe biziyeak? Eurak artuten dituezanak, graziak bizitzeagaz bizi diralakotzat eukiya izan bear diralako, eta grazia geitute-



ko iminiyak izan diralako; orregaitik esaten da, emoten dabeela bigarren grazia.

Zein da Sakramentu guztietatik eregieta eta goratuena? Komuninoan, beragan zarratuten dabelako Kristo gure Jauna, Sakramentu guztien iminitzalea.

Zeintzuk dira bearrekoenak? Bateoa guztientzat, Konfesinoan pekatu ilgarria egin izan dabenentzat, eta Ordea eta Ezkontzea munduko alkar-tasunarentzat.

Zelako onerea atera bear dogu irakatsu onetik? Jesukristok gure zoriontasun betikorako imini izan dituzan eginbide oneek askotan euki eta eurai itzal andiagaz begiratutea.

JAZOEREA

Gizonak eukiko badau gorputzeko bizitzea, bear dituz zazpi gauza: 1. jaiotea; 2. azi eta indartutea; 3. janariak artutea; 4. bere gatx eta geisotasunetatik osatutea; 5. bere indar argalduak barriztetea; 6. barriro ernetea; eta 7. iraupenerako neurriak betetea. Alan arimako bizitzan Bateoaren bitartez jaioten gara, Konfirmazinoan indartuten gara, Komuninoan janaria artuten dogu, Konfesinoan osatuten gara, Oliazinoan indar barriyak artuten doguz, Ezkontzeak irau eragiten deutse fededunai, eta Ordiak iraun eragiten deutso batintzekiari edo jerarkeari.

Irakatsi 2.a: Sakramentuaren argipetzea

Zer gauza dira Sakramentuak? Dira Jesukristok itxiriko ezaugarri agiri batzuk, euren bitartez emoteko guri grazia eta onoidadeak.

AZALDUEREA

Zergaitik dinozu «ezaugarri agiriak»? Sakramentu guztia dalako egi-nera edp ezaugarri kanpotikoa, ariman egiten daben egikera ikusiezina-garriaren antza edo irudiya emoten dabena.

Azaldu eta adituten emon zinaike ori zerbaitegaz? Bateoan, gorpu-tza garbituten daben ura isuri edo boteagaz, aditu eragin eta adierazoten da, ariman egiten daben egikera, ikusten ez dana, zein dan arimea peka-tuaren loitasunetik garbirik imintea.

Zergaitik dinozu «Jesukristok itxirikoak»? Bakarrik Jaungoikoak egin leikealako, gauza lurreko batek egin dagiala ariman egikera izatearen gañe-koa.

Zer esan gura dau esateak «euren bitartez emoteko guri grazia eta onoidadeak»? Sakramentu guztiak, egindariaren ontasun eta santutasunak zer-ikusirik ez daukela, emoten dabeela euren grazia izentaua eta seña-tua, prestaera onakaz eta bearrekoakaz eurak artuten dituezanai.

Zein da Sakramentuen gauza irabazigarria? Jesukristo gure Jauna, bada berak bere pasinoe eta eriotzeagaz irabazi euskuzan grazia guztiak, eta grazia oneek jatorkuz, odiya batzuetatik lege, Sakramentuen bitartez.

Zer da, Sakramentu guztien ganean gogoratu bear doguna? Euren geiyya, berbaerea, artutzalea, egitadeak, eta premiñea.

Zein da geiyya? Gauza sentigarria, zeñegaz egiten dan Sakramentua, berbarako, ura, oriyo santua eta beste onelangoak.

Zer da berbaerea? Dira arako berbak, zeintzukaz eregi eta goratuten dan geiyya, egitade sakramentukorra egiteko.

Nor da artutzalea? Sakramentua artuten dabena.

Zelako egitadeak egiten dituez Sakramentuak? Lenengo, emoten dabe grazia santuegintzalea, Sakramentu guztiai dagokoena; 2. grazia sakramentukorra, Sakramentu baktotxean desbardina dana; eta 3. ezauga-rrari arimakoa, Bateoko, Konfirmazinoeko eta Ordiako sakramentui baka-rrik eta berariz dagokoena.

Zer da ezaugarri arimakoa? Da ariman ezarririk geldituten dan ezaug-arri kenduezingarria, zeinen bitartez desbardinduten dan bat beste enpa-rauakgandik, emoten deusala, artuten dabenari, arimako altasun edo eskubide bat.

Ze onera atera bear dogu emendik? Sakramentuak, bear doguzan guztian, artuteko erabagia, guk euren onerak euki al izateko.

JAZOEREA

Lege zarrean egoan urezko osin bat edo pozu bat, nun garbituten ziran, oparian eskini bear ziran bizidun iltekoak, eta deituten jakon *Piscina* edo urtokia. Urte guztietako egun baten jatsiten zan zerutik Jaungoikoaren angeru bat, eta urtoki atako urai, bizidun iltekoen odola-gaz nastaurik egozanai, batera eta bestera erain egiten eutsen; eta ur are-tan lenengo sartuten zan edozein geiso, geldituten zan guztiz eta mirariz osaturik, danik andiena izan arren bere, berak iragoten eban edo eukan geisotasuna. Lege barriyan bere daukagu *Piscina* edo urtokia bat, Jesukristoren odolagaz egieta, eta bertara joaten diran, arimako geisotasu-



nak iragoten dituezan guztiak, gelditu leitekez guztiz eta osoro osaturik, egun guztietan eta ordu guztietan, urreraturik Sakramentuak artutera, zeintzuen bitartez guri ezarten jakuzan Odol Jaungoikozko orren irabazi edo merezimentuak.

Irakatsi 3.a: Grazia

Zer da grazia? Da izate jaungoikozko bat, zeinek egiten daben gizona Jaungoikoaren seme eta zeruko jaubegi. Zelan deritxo grazia oni? Santuegingillea. Grazia onen ostean badagoz besten batzuk? Badagoz, egitaldikoak deritzenak, eta argitasun arimakoak, zeintzuk бага ezin asi, ez jarraitu, ez amaitu daikagun, betiko bizitzara eroan gaikazan gauzarik. Eta zeintzuk dira oneek? Jaungoikoak emoten deuskuzan laguntasun batzuk, txarra itxi eta ona egiteko, diran legez, Eleizako irakatsiak eta ber-baldi jaungoikozkoak, eginbide onak, uste uste bagako eriotzak; Jaungoikoak gure bururako emoten deuskuzan argitasunak, eta gure borondateak gauza onetara poztu eta bizkortuteko gurari santuak. Zelango onoidadeak emoten dituez Sakramentuak graziagaz batera? Batezbere iru, Jaungoikoaganakoak eta Jaungoikozkoak. Zeintzuk dira? Sinismena, Itxaropena eta Maitetasuna.

AZALDUEREA

Zeinbat erakoak dira graziak? Irutakoak: santuegingillea. lagungarria, eta sakramentukorra.

Zer da grazia santuegingillea? Doe guztien gañeko doe bat, argitasun jaungoikozko bat legez, Jaungoikoaren gogoko eta bere seme egiten gaituzana, zorientasun betikorako eskubideagaz.

Zelango egitadeak egiten dituz ariman? Iru: Lenengo, egiten gaituz artezak eta Jaungoikoaren gogokoak; 2. emoten deusku izate edo bizitzaz izatez gañetikoa; eta 3. gure egite onak egiten dituz irabazigarri edo merezigarri bizitzaz betikorako.

Nundik galduten da grazia au? Pekatu ilgarriaz.

Nundik edo zelan barriro artuten da? Ilen Sakramentuakaz, eta baitabere amodiozko damuagaz edo maitetasunagaz, eurak artuteko gogo edo asmua eukirik.

Zelan iraun eragin edo geituten da grazia gudan? Biziyen Sakramentukaz eta egite on era guztietakoakaz.

Zer da grazia lagungarria? Jaungoikoak emoten deuskuzan laguntasun batzuk, geure adina argiturik, geure borondatea zirkindurik, txarrari itxi eta onari jarraitu dagoigun, betiko bizitzea eukiteko.

Bearrekoak dira grazia oneek, ondo egiteko gauzak? Ain bearrekoak eta naita naiezekoak dira eze, eurak бага ezin asi, ez jarraitu, ez amaitu ginaike, betiko bizitzara eroan gaikazan gauzarik.

Guztai emoten deusez Jaungoikoak grazia orreek? Bai; Jaungoikoak gura dau salbau daitezala gizakume eta emakume guzti guztiak, eta beraugaitik ez deusez inori ukatuten, egiaren ezauperara eldu eta salbetako bearrekoak eta naikoak diran graziak.

Eta zer egin bear dogu, eurak merezi edo irabazteko? Ondo erantzun bear deusez leen arturikoai, eta euren laguntasunagaz egin bear doguz erreguak eta egite onak.

Zer da grazia sakramentukorra? Laguntasun jaungoikozko bat, Sakramentuaren azkena jaritxi eta alkantzetako dana.

Emoten jaku grazia au, Sakramentuak artuten doguzan une atan beratan? Sinisgarriago da ezetz, ezipada bera denpora egokian artuteko eskubidea emoten deusku.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Grazia santuegingillea euki bear dogu ondasunik aberatsenentzat eta gauza guztiak baño geiyagotan, eta sarritan artu bear doguz Sakramentuak, grazia ori sendatuteko eta grazia lagungarri barriyak merezi eta irabazteko, alan iraun dagigun beti bide onean.

JAZOEREA

San Ignazio Loiolakoa, Jaungoikoagana biurtu baño lenago zan munduko atseginen eta anditasunen zale eta maitetzalla; erreguak egitea, nekealdiak bere gorputzari emotea, Jaungoikoaren mendean egotea, ziran beretzat atsekabegarriak, gorrotogarriak, eta bere gogoan sartuten ez ziran gauzak. Baña Jaungoikoak bere graziagaz argitu eutsanean bere adina, erakutsirik bere arimearen egoera txarra eta munduko gauzen utseria eta ezereztasuna, eta zirkindu eta bizkortu eutsanean bere borondatea, gauza guzti orreek gorrotetara eta begi txarrakaz begiratutera, artuten dau San Ignazio Loiolakoak, erregu beroak egin eta Jaungoikoaren serbitzalla egiazkoa izateko asmu sendoa; eta ondo erantzurik zeruko grazia lelengoai erreguaren eta egite onen bitartez, artuten dituz Jaungoikoagandik grazia barri eta ugariak, eta eldu zan izatera santu guz-



tiz andi bat, Jesusen Konpañia edo Lagunkida ain ospetsua eta izen andikoa, Jaungoikoari ainbeste goraldi eta Eleizeari ezingeiagoko onera eta mesedeak ekarri izan deutsezan, eta ekarten deutsezana, imini izan ebana.

Irakatsi 4.a: **Bateoko Sakramentua**

Zetarako izan zan iminia Bateoko Sakramentua? Kenduteko pekatu jatorrizkoa, eta, bateatuten danagan, aurkituten dan beste edozein pekatu.

Zer da pekatu jatorrizkoa? Da jaiotzan dakarguna, zein jatorrun geure lenengo gurasoakgandik. Eta estura-orduetan nok bateatu leike? Adieradun edozein gizonezkoak nai andrazkok.

Eta zelan egin bear da? Berezko ura umearen burura isuri edo bota, eta bateatuteko uste osoa daukala, berba oneek esanagaz: «Nik bateatuten zaitut Aitearen, eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean».

AZALDUERA

Zer diraustazu Sakramentu onen ganean? Dala guztietatik lenengoa eta bearrekoena.

Zergaitik dinozu dala lenengoa? Dalako beste enparauen atea lege, eta Bateoa бага ezin egiaz eta benetan artu leitekean beste Sakramentu bat bere.

Zergaitik diñozu dala bearrekoena? Bera бага ezin salbau leitekeala-ko iñorbere. Bakarrik ezin artu leitekean aldian, gurarizkoa eta odolezkoa deritxen bateoak izan leitekez bere ordekoak.

Zer da gurarizko bateoa? Da maitasuneko egite edo amodiozko damua, Jaungoikoak, gu salbetako, imini dituzan gauza guztiak egiteko gura eta asmuagaz.

Zer da odolezko bateoa? Da Jesukristogaitik edo siniste santuagaitik iragoriko martiriyoa.

Beraz badagoz bateo bat baño geiago? Ez dago bat baño geiago, eta au da urezkoa; beste biyai deritxe bateoak alan ez-egokiro, artu ezin danean urezko bateoa, onen ordekoak diralako.

Noz imini eban Jesukristok? Jordango erreka-ko uretan, Bera San Juan Bautisteagaitik bateatua izan zanean.

Nor da bateoaren egindaria? Egindari berezkoa eta eskubide osokoa da Arimazaina edo beronen baiemona daukan beste edozein Abade; eta

ordu estuetan izan leiteke, adinera eldurik dagoan beste edozein adieradun.

Zein da bateoaren geiyoa? Berezko ura, bai euritik arturikoa, bai errekatxuetakoa, abi iturrietakoa, bai pozuetakoa eta beste onelango ur garbiak.

Zer da berbaerea? Da au: «Nik bateatuten zaitut Aitearen, eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean».

Zer euki bear da gogoan emen? Ura isuri bear dala bateatuten danaren buru gañera, al bada, edo gorputzeko beste alde baten gañera, berbaerea esaten dan une atan beratan.

Zelako egitadeak egiten dituz? Lenengo kenduten dau pekatu jatorrizkoa, eta, bateatuten danagan, aurkituten diran pekatu guztiak, euren zor betikoa eta denporazkoagaz batera; 2. emoten dau grazia santuegin-gillea, barriro jaio eragiten deuto bateatuten danari bizitza izatearen gañekora, eta isuriten dituz bere ariman Espiritu Santuaren onidade eta doiak; 3. emoten deuto arimako ezaugarria, zeinen bitartez desbardin-duten dan beste enparauakgandik, eta egiten dau, beste Sakramentuak artuteko duin eta eskubidedun; eta 4. emoten dau grazia sakramentukorra, kristinauaren eginbearrak ondo betetako.

Zer diraustazu aita-pontekoen gañean? Dirala bigarren guraso batzuk edo fiatzalle batzuk lege, bateatuagaitik erantzun bear dabeenak, geldituten dirala, bera siniste santuko eta oitura onetako gauzetan argituteko, eginbearrean, eta artuten dabeela senitasun arimakoa bateatuagaz eta bere gurasoakaz.

Zelako irakatsi mesedegarria atera bear dogu emendik? Izanik Sakramentu au ain bearrekoa eta naita naiezekoa, zer-erantzun andia daukela, euren semealabatxuak bateatutea luzatu edo bateo бага ilten itxiten deuten gurasoak; eta izanik ainbeste, bateoaren bitartez emoten jakuzan onera eta mesedeak, izan bear gareala esker onekoak, barritzaurik sarritan, bateoan egin genduzan eskintsariak.

JAZOERA

San Francisco Saleskoak, izanik oraindik guztiz umea, aurreratuten zituzan, beragaz jolasean eta olgetan ibiltzen ziran umeak, beragaz batera Eleizara joatera. An urreratuten ziran pontara, eta Santuak esaten eutsen:— «Ementxe izan ginean Jaungoikoaren seme eginak. Eskerrak emon dagioguz Jaungoikoari, dinogula: Goraldia Aitari, Semeari eta Espiritu Santuari». Gero belaunbikoturik guztiak mun egiten eutsen bateoko ponteari.



Irakatsi 5.a: **Konfirmazinoeko Sakramentua**

Zetarako da Konfirmazinoeko Sakramentua? Bateoan artu genduan sinistea sendatuteko. Eta Sakramentu au pekatu ilgarriagaz artuten daben ezauperara elduriko adieradunak, egiten dau pekatu? Ilgarria. Zer egin bear dau bada, bera artuagaz, pekaturik ez egiteko? Prestau bear da, konfesinoe on bat lenaz eginik.

AZALDUEREA

Zelan deritxo Sakramentu oni? Osotasuneko Sakramentua, bai emona izaten dalako Apezpiko edo Obispoakgaitik, zeintzuekgan aurkituten dan eskubidearen osotasuna; eta bai dalako bateoaren osotasuna legez, etorririk indartu eta sendatutera, guk bateoan artu genduan siniste edo bizitza arimakoa.

Zein da Sakramentu onen geiya? Krisma Santua, oriyo eta balsamua nastauta egiten dana, eguben santu egunean Apezpikoak edo Obispoak donekidatu edo konsegretan dabena.

Zein da berbaerea? Nik sillatuten zaitut Kurutzearen ezaugarriagaz, nik sendatuten zaitut osasuneko Krismeagaz Aitearen, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Zelan emoten da Sakramentu au? Iminirik eskuak, Konfirmazinoan artu bear daben gañean, Espiritu Santuari deituten deitsan bitartean; igortzi edo gantzututen deitsala bere bekokiya Krisma Santuagaz, berbak esaten dituzan denpora berean; eta gero emoten deitsala zaplakoa bat bere matrallan.

Zergaitik egiten deutso bekokiyan Kurutzearen ezaugarria? Bekokiya dalako alderik argiena eta ikusgarriena; eta adierazoten emoteko, kristinauak autortu bear dabela Jesukristo eta gauza andi eta onragarritzat euki bear dabela Kurutzearen ezaugarriagaz izentaurik egotea.

Zergaitik emoten jako zaplakoa matrallan? Ezagututen emoteko, ordutisek egon bear dabela gertu eta prest iragoteko Jesukristogaitik lotsariak, barre eta burlak, esetsiak, nekegarriak, areriotasunak eta eriotzea bere bai, alan bear izan ezker.

Zelako egitadeak egiten dituz Sakramentu onek? Lenengo, emoten dau bigarren grazia, au da, geituten dau, Konfirmazinoan artu bear dabe-

nak, aurrez euki bear daben lenengo grazia; 2. artuten dau Espiritu Santua, eta Beragaz batera arimako sendotasuna, siniste santua autortuteko; 3. emoten deutso arimako ezaugarria, zeinen bitartez izentetan dan Jesukristoren soldautzan.

Zelako prestaerak bear dira, Sakramentu au ondo artuteko? Artu bear dabena bada ume ezaupera bagakoa, egon bear dau bateaturik; ezauperara elduriko adieraduna bada, euki bear dituz gañera artuteko gogo eta ezauperea, eta egon bear dau Jaungoikoaren adiskidetasunean.

Zer jakin bear da aitabitxien eta amabitxien ganean? Aitabitxi bat egon oi dala gizezkoentzat, eta amabitxi bat andrazkoentzat; onek, aita eta ama pontekoetatik desbardinak izan bear dabeenak, artuten dituezala eginbearrak eurak eta senitasuna.

Ze onera atera bear dogu esan danetik? Denpora oneetan ain bearrekoa dan Sakramentu andi au artuteko eta, geure mendean dagozanai, artu eragiteko aleginak egitea.

JAZOEREA

San Francisco Saleskoa, bearreko irakatsiak artu ezker, prestau zan guztiz ondo, Konfirmazinoeko Sakramentua artuteko; eta artutera joan zanean, agertu eban onerazpena, ainbestekoa izan zan eze, guztiak geratu ziran mirariturik, eta Apezpikoak edo Obispoak esan eban, ume a izango zala bere gizaldiko miragarria. Ordutisek ikusi zan, Espiritu Santuaren osotasuna sartu zala bere biotzean, eta egin ebala (arimearen aldetik) gizon eldu bat; bada au adierazoten emon eben bere geroke biziera santuak, bere onerazpenak, bere sendotasunak, arimakganako bere maitetasunak eta bere bizitza guztiak.

Irakatsi 6.a: **Konfesinoeko Sakramentua**

Zetarako da Konfesinoeko Sakramentua? Bateatu ezker eginiko pekatuak parkatuteko. Ze pekatu dira orreek? Ilgarriak eta ez-ilgarriak edo arinak.

AZALDUEREA

Noz imini edo egin eban Jesukristok Sakramentu au? Bera ilen artezik biztua izan eta gero, esan eutsenean Apostoloai: «Eutsiye Espiritu Santua; noren pekatuak parkatu daikezuezan, parkatuak izango jakoz; eta



norenak geratu daitezuezan edo parkatu bagarik itxi daitezuezan, geratu-ko jakoz, edo parkatu bagarik itxiko jakoz».

Bakarrik Apostoloai emon eutsen Jesukristok eskubide au? Ez, ezpada emon eutsen bere, abadetasunean eurai jarraituko eutsen guztiai; orregaitik abade guztiak eta bakarrik eurak dira Sakramentu onen emontzallak.

Ze pekatu dira, parkatuak izan leitezuezanak? Guztiak, dan danak: zeinbat bidar edo aldiz izango diran parkatuak, begiratu baga, zeinbat pekatu diran, jaramon egin baga, eta zelako anditasuna dauken, gogoratu baga, eukiten baldin badira bearbearreko eta naita naiezeko prestaera guztiak.

Zein da Sakramentu onen geiya? Bateatu ezkerro eginiko pekatu guztiak; eta gei au izan leiteke naita naiezekoa eta borondatezkoa, baña asko eta naikoa dana.

Zein da gei naita naiezekoa? Pekatu ilgarri autortu bagako edo txar-to autorturiko guztiak.

Zein da gei borondatezkoa baña asko eta naikoa dana? Pekatu ari-nak eta pekatu ilgarri parkaturikoak.

Pekaturik batbere ez daukanak, artu al izango leuke Sakramentu au? Ez; ez dagoalako beragan geirik, zeinen ganean jausi leitezuezan peniten-tearen egiteak eta konfesoarearen parkazinoa. Alan Andra Mariak ez eban artu eta ezin artu leikean bere Sakramentu au.

Zer egin bear dau bada, azkenengo konfesinoetik geroko pekatu-rik ez daukanak? Imini bear dau pekatu arinen bat, edo obeto izango da bizi-tza iragoriko pekatu ilgarrien bat barriro autortutea, euren damu egiazkoa daukala.

Zelan imini zan Sakramentu au? Erabagia legez, zeñetan penitentea dan erruduna eta salatzailea; auxa da, auzi-epalleak daukan eginbide baka-rra, ondo jakiteko zer egin bear daben, parkatu bear daben edo ez; eta emetik dator bearrekoa eta naita naiezekoa izatea pekatuak autortea edo konfesinoa.

Zeintzuk dira Konfesinoeko Sakramentu onen egitadeak? Lenengo parkatuten dituz pekatu guztiak, errua eta kastigu betikoa daukezan alde-tik; 2. osteria biurtuten dauz graziazko bizitzea, zoriontasun betikorako eskubideagaz, eta egite onen irabazi guztiak; 3. artuten baldin bada gra-ziazko egoeran, geituten dituz lengo grazia eta indarrak, pekatuan ez jaus-teko.

Parkatu leitezuek pekatu ilgarri batzuk, beste batzuk parkatuak izan baga? Ez; zergaitik ezin izan leitekean gauzea da, pekatua eta grazia alka-

rregaz une baten bere egon eta bizitzea: alan bada, edo parkatuten dira pekatu ilgarri guztiak edo ez da parkatuten batbere.

Ze onera atera bear dogu emendik? Jaungoiko gure Jaunari esker andiak emotea, Sakramentu onen bitartez emon deuskulako eginbide ain erraz bat, grazia galdurikoa barriro geuganduteko eta bere adiskidetasu-nera biurtuteko.

JAZOEREA

«San Juan Klimakok dino: bizitza guztiz txar bat eroan eban pekata-ri andi bat, biurtu zanean Jaungoikoagana, artu zituzala konbentu baten sartuteko asmu santuak, eta bertako nagusiak eskatu eutsala, autortu eta esan egizala guztien aurrean bere pekatu guztiak, etxe santu atan artua izango bazan. Damutasunez beterik egoan gizon onek, agertuten dituz, bere begi biyak negarrezko iturri bi eginik daukazala, bere txarkeria eta dongakeria guztiak Jaungoikoaren eta Fraile guzti areen aurrean. Eta one-tatik batek ikusi eban gizon arpegi bildurgarritzko bat, bere eskuetan libu-ru bat eukana, eta liburu atatik pekatuak kenduten zituzana, gizon arek bere pekatuak autorten zituzan legez». Auxa berau jazoten da, Konfesinoeko Sakramentua bearreko eta egiazko prestaerakaz artuten dan guztian.

Irakatsi 7.a: Pekatuak

Zer da pekatu ilgarria? Da esatea, egitea, gogoratutea edo gura iza-tea zerbait Jaungoikoaren legearen kontra gauza andi edo astunean. Zergaitik deritxo ilgarria? Ilten dabelako, egiten dabenaren arimea.

AZALDUEREA

Zelakoa izan leiteke pekatua? Era bitakoa, jatorrizkoa eta norberarena. Zein da pekatu jatorrizkoa? Geure lenengo gurasoakgandik guztioi datorkuna.

Zein da pekatu norberarena? Guk geure borondateagaz egiten doguna.

Zeinbat eratakia izan leiteke pekatu norberarena? Gogozkoa, ber-bazkoa eta egitezkoa; gogozkoa izango da, arimearen almen barrukoakaz



egiten danean, gorrotoa legez, berbazkoa, aoagaz egiten danean, birauba legez, eta egitezkoa, egikerakaz egiten danean, lapurretea legez.

Zeinbat era geiagotakoa izan leiteke? Egin bear dana, egin ezagaitik, egiten dan pekatua, eta egin bear ez dana, egiteagaitik, egiten dan pekatua.

Zein da, egin bear dana, egin ezagaitik, egiten dan pekatua? Agindurik dagoana, egin бага itxitea, berbarako, Mezea ez entzutea, bear dan denporan ez konfesetea.

Zein da, egin bear ez dana, egiteagaitik, egiten dan pekatua? Eragotzirik eta galerazorik dagoan zerbait egitea, lapurretea legez.

Zeinbat erakoa da batezbere pekatua? Bikoa, ilgarria eta arina; izan-go da ilgarria, agindua austen danean gauza astunean, eta arina, gauza ari-nean danean.

Zeintzuk gauza bear dira, pekatua izateko ilgarria? Iru: 1. egitera doiana, txarra dala guztiz eta osoro ezagututea; 2. egiteko borondate osoa eukitea; eta 3. egin bear ez dana, edo egin bear dana, gauza andia eta astu-na legez eragotzirik edo agindurik egotea.

Gauza txarra da pekatu ilgarria? Da gatx bakar osoa, eta bere ondo-an ez dira ezer munduko gatx guztiak bere.

Ez litzateke gatx andiagoa izango, norberaren entzute on eta izen garbiya бага geratutea, ondasun eta aberastasunak guztiz galdutea? Ez; orrek kenduten deuskuz munduko on denporazkoak, eta zorigatx orreek, eruapen onagaz eroan ezkerro, lagundu leikegue zerua irabazten; baña pekatu ilgarriak kenduten deuskuz ondasun eta aberastasun betikoak, eta egiten gaituz zorigatx betikoen duin eta merezitzalla.

Ez litzateke txarrago izango geisotasun andi bat? Ezta bere; geisota-sunak, geiyeen dala, bakarrik kendu leikegu gorputzeko bizitzea; baña pekatu ilgarriak kenduten deusku arimako bizitzea, eta bota al ginaikez infernuko ondarrera.

Bada baldin arimea ilten bada pekatuagaz, zelan bizi dira pekatariak? Pekatua ilgarriak kenduten ez dabelako gorputzeko bizitzea, ezpada ari-mako bizitza izatearen gañekoa, zein dagoan, arimea Jaungoikoagaz gra-ziaren bitartez alkaturik egotean.

Zelako gatxak egiten dituz ariman pekatu ilgarriak? Guztiz eta osoro loiturik eta ezaindurik eta graziaren edertasuna бага itxiten dau; kendu-ten deutsoz, zerura joateko eskubideak, eta egite onakaz lenago irabazi izan eban guztia; eta egiten dau demoninoaren menpeko eta azpiko eta infernuko sugar betikoetara joateko duin eta merezitzalla.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Pekatua gatx bakar osoa dan ezkerro, geure biotz guztitik bera gorrotetea eta beragandik iges egi-tea, suge bildurgarrizko bategandik legez.

JAZOEREA

Franziako errege San Luisaren ama Blanka erreginak, bere seme au-gaztetxua zanean, sarri esaten eutsazan, ama on baten duinekoak ziran berba oneek:— «Zuk badakizu, neure semea, zeinbat maite zaitudazan; orregaitik bere, gitxiago estutu eta larrituko nintzateke zu ilda ikusirik, pekatu ilgarri bakar bat zuk egin dozula jakinik baño».— Berba oneek ain inkaurik eta josirik geratu jakozan Luisari bere biotzean eze, ez jakozan aztu iñozbera, eta eldu zan santu andi bat eta errege guztiz on bat izate-ra, bere erreñuko ainbeste arrisku, esetsi eta galbiden artian.

Irakatsi 8.a:

Arimako azterrena

Noz artuten dogu Konfesinoeko Sakramentua? Ondo autortu eta parkazinoa artuten dogunean. Zeinbat gauza bear dira Konfesinoeko Sakramentua artuteko edo ondo autortuteko? Bost, eta dira oneek: ari-mako azterrena, biotzeko damua, onduteko asmua, aozko autormena eta egikerazko ordainpena edo kitugarria. Zer da arimako azterrena? Jaungoikoari, utsegite guztiak ezagututeko, argiya eskatu ezkerro, autortu bagako pekatuak gomuta al izateko aleginak egitea, Jaungoikoaren eta Eleizearen aginduak eta norberaren ibiltokiak eta arazoak bein banan ara-tuagaz.

AZALDUEREA

Beti bear dira bost gauzak, Konfesinoeko Sakramentua ondo artu-teko? Bai, estu-orduetan ez izanik.

Imini egidazu aldiren bat, zeinetan ez dagoan, bost gauzetatik bat edo beste egiteko eginbearrik.— Guztiz txarto dagoan geiso batek, ezin egin leike arimako azterrena; mutu batek edo aldi txarren bategaitik ber-bea joan jakon batek, ezin egin leikee aozko autormena edo ezin autortu leikeez euren pekatuak; eta orregaitik bere, artu al leikee eta artuten dabe Konfesinoeko Sakramentua.



Zein da bost gauzetatik bearrekoena, zein бага ezin iñoz artu leitekean Sakramentu au? pekatuaren damua edo gorrotoa.

Zelako zerzeridadeak euki bear dituz arimako azterrenak? Biz; izan bear dau arduratsuak eta gogorrak.

Zer esan gura dau arduratsua izateak? Ardura andiagaz egin bear dogula geure arimako azterrena, balio andiko gauz abat balitz legez.

Zer esan gura dau gogorra izateak? Gogortasunagaz emon bear dogula geure gañeko erabagia, beste edozeinegaz geuk egingo geunkegun legez.

Zelan egiten da azterrena? Lenengo eskatuten jakoz Jaungoikoari bearreko argiyak, Andra Maria, geure angeru zaintzalea eta geure one-razpeneko santuak bitarteko iminten deusaguzala, eta gero bein banan aratu eta aztertu bear dira aginduak, jakiteko zeinbat pekatu egin dogun agindu bakotxean, edo gitxi-gora-bera zeinbat izan diran, egin doguzan utsegiteak egunean edo astean, beste gauzarik ezin gomutau al bada.

Bearrekoa eta naita naiezekoa da azterrena? Bai; zergaitik bera бага ezin argiro autortu al izango geintekoz, ez eta bere euki damu egiazko eta bearrekoa.

Zergaitik ezin autortu ginaitekez argiro? Zergaitik geure barruan gu sartu бага, eta geure bizitzearen ganean denporaren baten guk gogoratu бага, ezin gomuta geintekoz pekatu guztiakaz, eurak bear dan eran autortuteko.

Zergaitik euki ezin ginaike damu egiazkoa eta bearrekoa? Zergaitik ezin izan leiteke, ezagututen ez dan gauzeagaitik negar egitea; eta bestera, pekatuak zeinbat eta zelakoak diran, ondo ezagututen danean, guztiz erraz zirkindu eta aurreratuten da bat, euren damu egiazkoa eta bearrekoa eukitera.

Zeinbat denpora bear da, azterrena ondo egiteko? Ezin izentau leiteke; bada orretarako gogoan euki bear da, zeinbat denpora dan azkenengo autormena egin zan, zelako bizitzea eroan dan, zelako jakituriakoa dan, azterrena egin bear dabena eta beste onelango gauzak; baña neurri guztirakotzat izentau leiteke ordu lauren bat, il bateko azterrena egiteko.

Nortzuk ez dauke, azterrena egiteko eginbearrik? Ezaupera gitxikoak edo ezjakinak, eta, azterrena egiten, nekatu ezin leitekezan geiso txar-to dagozanak; eta onelangoentzat asko eta naiko izango da, konfesoreak egiten deusezan itaunai soiltasunagaz eta argiro erantzutea.

Zein da biderik onena, azterrena ondo egiteko? Egun guztietan gaubean oera etzin baño lenago egiteko oitura ona eukitea, kristinau on guz-

tiak egin oi dabeen legez; eta auxa da, irakatsi onetik atera bear dogun onerea.

JAZOEREA

San Efrenek dino: «zelan merkatar arduratsu batek egunoro egiten daben alegina jakiteko zelan doian bere saldu-erosietan, eta nozik nozera euki daroan ardurea ikusteko galdu ete daben edo irabazi ete daben bere arazu eta artuemonetan; alan kristinauak egunoro aratu eta aztertu bear dau bere barrua, eta kontu artu bear deutso bere arimeari, eta nozik nozera egin bear dau azterrez arduratsuago eta geldirago bat, ondo autortuteko bere pekatuak».

Irakatsi 9.a: Damua

Zeinbaterikoa da biotzeko damua? Bitarikoa: bata osoa eta bestea ez-ain-osoa, eta oni deituten deusagu bildurrezkoa. Zein da damu osoa? Jaungoikoa, on utsa izanik, iraindu dogulako daukagun garbai edo biotzmina, pekatuak autortuteko, eta onduteko eta penitentzia betetako asmoagaz. Zein da damu bildurrezkoa? Jaungoikoa iraindu dogulako daukagun garbai edo biotzmina, pekatuen ezaintasunagaitik, infernuaren bildurragaitik, zeruko atsegina galduteagaitik, pekatuak autortuteko, eta onduteko eta penitentzia betetako asmoagaz. Eta damu bi onetatik onena zein da? Damu osoa. Eta zergaitik? Damu osoa Aitaganako maitetasunetik, ez-ain-osoa edo bildurrezkoa barriz bildurretik sortua dalako; gañera, damu osoagaz, autortu orduko, parkatuten jakaz bati bere pekatu ilgarriak eta ondo geldituten da Jaungoikoagaz; baña damu ez-ain-osogaz edo bildurrezkoagaz ez da orrelangorik egiten. Eta konfesinoe on bat egiteko, asko eta naikoa da damu ez-ain-osoa edo bildurrezkoa, ala damu osoa bear izaten da? Damu bildurrezkoa naikoa dala uste dabe geiyenak; baña obeto eta ziurragoa da, damu osoa edo maitetasunekoa eroatea; eta auxa da eukiteko alegina egin bear dau, ondo autortu gura dabenak. Eta noz euki bear da damua? Konfesoreak parkazinoa emon baño lenago.

AZALDUEREA

Ori alan dala, zetan desbardinduten dira damu osoa etadamu ez-ain-osoa edo bildurrezkoa? Eure eragintzalletan eta egitadetan.



Zelan desbardinduten dira euren eragintzalletan? Maitetasuna edo amodioa dalako damu osoaren eragintzalea, eta damu ez-ain-osoarena edo bildurrezkoarena dalako bildurra.

Azaldu eta argitu al zinaike ori irudi edo jazoera bategaz? Bai: aita batek bialduten dituz bere seme bi ardiyak zainduten; eurak ardura gitxi-gaz dagozan une baten, otsoak eroaten dituz ardi batzuk; naiya biyak emoten deutse negarrari; batakin dino: «nire errukarria, zelango kastigu gogorra emongo deuskun gure aitak!» onek eukan damu bildurrezkoa edo ez-ain-oso, kastiguaren bildurretik sortu eta jaioten zalako; besteak esan eban: «ni ez nau minduten aitaren kastiguak, ezpada guk geure aitari emongo deusagun atsekabeak»; onek eukan damu osoa edo maitetasuneko, bere aitari eutsan amodiotik sortu eta jaioten zalako.

Zelan desbardinduten dira euren egitadetan? Damu osoak parkatutik dituzalako pekatuak baño lenago, eta damu bildurrezkoak barriz ez dituz parkatuten, Konfesinoeko Sakramentuagaz alkatutik eta baturik ez bada.

Zelango zerzeridadeak euki bear dituz damuak? Lau: izan bear da barrukoa, izatez-gañoakoa, andiena eta guztirakoa.

Zer esan gura dau barruko izateak? Izan bear dala barrukoa edo arimakoa, arimeagaz iraindu dogulako Jaungoikoa, eta arimeagaz garbatu eta damutu bear garealako.

Zer esan gura dau izatez-gañoakoa izateak? Artu bear dogula damua, eragintzale izatearen gañoagaitik edo siniste santuaren bitartez ezagutuagaitik.

Zer esan gura dau andiena izateak? Pekatua gorrotatu bear dala gatz guztiak baño geiago.

Zer esan gura dau guztirakoa izateak? Damua zabaldu bear dala pekatu ilgarri guztiakgana.

Zelan artuten da damua? Lenengo, eskaturik Jaungoikoari eta Andra Mariari, egiaz eta benetan garbatu eta damututeko laguntasun zerukoa; eta gero, ondo gogoraturik zeinbat diran eginiko pekatuak eta euren anditasuna, zeintzukaz iraindu izan dogun Jaungoiko bat ain ona, egin bear da arimako berotasun sutsuagaz damu osoko edo maitetasuneko eginera.

Eta damuak izan bear dau sentikorrak edo ikusgarriak, da esatea, agertu bear da zizpuruakaz eta negarrakaz? Ez, ezpada izan bear dau adinekoak eta arimakoak; izan bear dau, pekatuen ezaintasunagaitik eta ondorengo txarretik jaioten dan gorroto edo ikusiezina.

Nozbait aurkitu leiteke bat, damurik ez eukiteko aldiyan? Inozbere ez; ain bearrekoa eta naita naiezekoa da damua eze, berau бага, danik

estuena izan arren bere premiñea, ezin artu leiteke Konfesinoeko Sakramentua, eta ezin bere parkatu leitekez pekatuak.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Ondo damutu бага, Konfesinoeko Sakramentura inoz ez urreratutea, eta damu osoa edo amodiozkoa eroateko aleginak beti egitea.

JAZOEREA

San Karlos Borromeo, Apezpikoak, damu egiazko bat artuteko, bere gogoagaz egiten zituzan iru geraldik: 1. jatsiten zan infernura, eta ikusirik zelango kastiguak irabazi zituzan bere pekatuagaitik, zirkindu eta aurreratuten zan, pekatuari gorroto andi bat eukitera; 2. igoten eban zerura, eta bere gogoan ondo arturik, Jaungoikoak arima artez eta onentzat prestatu-rik daukazan sari betikoen anditasuna, eta bere pekatuagaitik galdu zitu-zala, geiago eta geiago damutu eta garbatuten zan; 3. joaten zan bere gogoagaz Kalbarioko mendira, eta ikusirik an Jaungoiko-Gizona zauriz eta odolez beterik pekatuagaitik, geiago eta geiago ezagututen eban pekatuaren ezaintasuna, eta gorrotetan eban bere biotz guztiagaz.

Irakatsi 10.a: Aozko autormena

Zer da aozko autormena? Engañurik бага eta guzurrik esan бага, pekatu ilgarri guztiak konfessoreari argiro eta garbiro agertutea, penitentzia betetako gogoagaz. Eta lotsaz pekatu ilgarrien bat ezkutu, nai egin baga-ko pekatu ilgarrien bat agertu, nai damurik eta erabagirik ez daukala, nai penitentzia betetako uste bagarik autortuten dana, ondo autortuten da? Ez, Jauna; egiten dau donauste edo sakrilejio and bat, eta autorturiko eta autortu bagako pekatuak eta donaustea bera autortuteko bear izanean gel-dituten da.

AZALDUEREA

Zergaitik autortu bear dira pekatuak? Gure Jaungoiko Jaunak alan agindu izan dabelako; eta Bateo ostean pekatu ilgarria egin izan dabena-rentzat ez dago beste osagarriarik, al dala, *pekatuak autortutea edo betiko gal-dutea*.

Zeinbat denporakoak izan bear dau autormenak? Azkenengo autormen ondo eginikotik asi eta barriro autortu bear dan arterañoak.



Eta urte asko badira dongaro eta txarto autortu izan dala bat? Autortu bear dira, dongaro eta txarto autortuten asi zanetik geroko pekatu ilgarri guztiak.

Bearreko eta naita naiezekoa da nozbait bizitza guztiko pekatuen autormena, edo konfesinoe jenerala esaten jakona? Dongaro eta txarto autortu izan dala, batek dakian aldi guztietan, da bearrekoa eta noraezekoa.

Erazkoa da pekatu guztien autormena edo konfesinoe jenerala? Aldi askotan bai, eta andiak dira, berak ekarten dituzan onera eta mesedeak; baña onetan beti itundu eta aitua bear gara konfesore zur eta jakitun bateagaz, berari agertuten deusagula argiro eta garbiro gure arimako barrua, berak ondo ezagutu dagian gure bizierea.

Zeinbat gauza euki bear dituz aozko autormenak? Bost; izan bear dau osoak, egiazkoak, norberarenak, umilak eta damutsuak.

Zelan izango da osoa? Pekatu ilgarri guztiak, batbere itxi бага, autorturik eta agerturik.

Eta baldin aldi txarren bategaitik edo beste gauzen bategaitik ezin autortu al baleikez batek bere pekatuak, zer egin bear dau? Aldi onetan asko eta naikoa izango da damuaren ezaugarriak emotea eta autortuteko daukan guraria agertutea, parkatua al izateko; eta osatu daitenean, autortu bear dituz, len autortu ezin zituzan pekatu guztiak.

Baldin norbaitek lotsaz edo dongakeriaz itxiten badau pekatu bat autortu бага, parkatuko jakoz, autortu izan dituzan pekatuak? Ez jako parkatuten batbere, eta egiten dau donauzte edo sakrilejio guztiz andi bat.

Eta aztuta itxi izan badau? Orduan da ona autormena, eta parkatuten jakoz pekatuak; baña geldituten da, lenengo egiten daben autormenetan, aztuta itxi eban pekatua, autortuteko eginbearrean.

Noz izango da egiazkoa? Konfesoreak itanduten deuskun guztira, esaten badogu egiya, ziurra dana ziurra legez, badaezbadakoa badaezbadakoa legez; agertuten deusaguzala pekatuaren zerzeridade andigarriak, lengo pekatuetan barriro jausteak, arrisku edo galbide urrekoka, eta konfesoreak itanduten daben guztia.

Noz izango da norberarena? Geure pekatuak, eta ez bestenak, autortuten doguzanean.

Noz izango da umila? Tolesbaga eta lotsaz autortuten gareanean, atxakiarik batbere iminten ez dogula, geure buruak garbituteko, ezpada geu errudun eta pekatari egiten gareala.

Noz izango da damutsua? Agertuten danean azaleko ezaugarriakaz, gure biotzak daukan damu egiazkoa.

Agertu edo esan al leike konfesoreak, autormenan edo konfesinoan entzun izan dabena? Iñozbere ez, bere bizitza galduteko arriskuan iminten bada bere, konfesinoan entzun izan dabena agertu edo esan gura ezagatik.

Ze onera atera bear dogu esan danetik? Beti argiro, garbiro, tolesbaga eta laburkiro autorteko asmu sendoa; geure gogoan ondo eukiten dogula, iñozbere aztu бага, gu autortuten edo konfesetan gareala, guk engañau ezin giñaikean Jaungoikoagaz berberagaz.

JAZOEREA

San Juan Nepomuzeno Wenceslao agintariaren emaztearen konfesorea zanak, gitxitan euki zituzan, agintariak egiten eutsazan eskintsariak, emon gura eutsazan doe, aberastasun eta ondasun andiak, agertu edo esaten baldin beutsazan, bere emazteak autormenan edo konfesinoan agerturiko gauzak; eta azkenez, zematu eban, zirautsala, ilgo ebala, agertuten ez beutsazan, eta Santuak erantzun eutsan:— «Berorren Anditasunak egin leike ni iltea; baña ez deust esan eragingo konfesinoan entzun izan ditudazan berbetatik batxu bere».— Bere oñin eta eskuak lotu egioezala, agindu eban agintariak, eta alantxe bota eben erre kara, eta il zan konfesi-noeko isiltasunaren martiri eginik.

Irakatsi 11.a: Erabagia

Zer da erabagia? Jaungoikoa gauza andian iñozbere ez irainduteko asmu sendoa. Eta nortzuk uste izan leike ez dabeela euki damurik ez erabagirik euren konfesinoetan? Galbide eta arrisku urrekotatik iges egiten ez dabeenak, eta konfesinoe batetik bestera oekatu batzuetan euren jausten diranak.

AZALDUEREA

Zelako zerzeridadeak euki bear dituz erabagiak? Iru: izan bear da errimea, eragillea eta guztirakoa.

Zer esan gura dau errimea izateak? Ez dala asko eta naikoa, onduteko gurariya eukitea, ezpada euki bear dala, pekatu ilgarriak ez egiteko borondate edo asmu sendo eta errime bat.



Zer esan gura dau eragillea izateak? Euki bear dogula, pekatuan barriro ez jausteko iminirik dagozan eginbideak artuteko, gogo egiazko eta benetako bat.

Zer esan gura dau guztirakoa izateak? Erabagia zabaldu bear dala, damua legez, pekatu ilgarri guztiakgana.

Zelan ezagutuko dogu, gure erabagia izan dala egiazkoa eta benetako? Iges egiten badogu pekatuak arriskuak; artuten badoguz, pekatuan barriro ez jausteko, zurtasunak edo konfesoreak irakasten deuskuezan eginbideak; zuzendu eta osotuten badoguz, pekatuagaz egin izan doguzan gatx eta kalteak.

Zer da pekatuak arrisku urrekoea? Pekatura arrastaka legez eroaten gaituzan arako itua, gauzea edo personea, eta zeñetan iminten gareanean, pekatuan jausten garean beti edo ozta beti.

Zergaitik artu bear dira, pekatuan ez jausteko eginbideak? Zergaitik, zelan egiaz eta benetan osatu gura daben geiso batek, artuten dituzan, bere osagilleak aginduten deusazan osagarriak; alan pekatariak artu bear dituz, zurtasunak edo konfesoreak aginduten deusazan osagarriak, egiaz eta benetan osatu gura badau.

Zelako gatx, pekatuagaz eginak, zuzendu eta osotu bear doguz? Lagunari edo besteari bere ondasunetan, bere entzute onean, bere izen argitsuan, bere bizitzan eta arimako gauzetan eginiko kalteak.

Eta eginiko kalteak zuzendu eta osotuteko, osturikoa biurtuteko, pekatuak arrisku urrekotik iges egiteko, ezinean aurkituten danak, zer egin bear dau? Konfessore zur eta jakitun bategaz itundu etaaitu bear dau; eta egiazkoa bada ezintasuna, berak esan eta aginduko deutso zer egin bear daben aldi atan.

Zelan zuzendu eta osotuko da, pekatuak bidea emonagaz eta biziera eta jarraigarri txar eta dongakaz egin izan dan gatxa? Al dan eran, konfessoreagaz lenago itundu eta aiturik; eta batez bere onbideak eta jarraigarri onak emonagaz aurrerantzeko bizitza guztian.

Zer esan leiteke, pekatuak arrisku urrekotetik iges egin gura ez dabeenakgaitik, pekatuan barriro ez jausteko diran bideak artu gura ez dituezanakgaitik, eginiko gatx eta kalteak zuzendu eta osotu gura ez dituezanakgaitik, eta parkatu gura ez dabeenakgaitik? Ez daukela damu egiazkorik ez erabagi benetakorik; eta beraugaitik euren autormenak edo konfesinoak dira donga eta txarrak.

Pekatu batzuetan eurentan barriro jaustea da beti konfesinoe txararren ezaugarria? Baldin badauko onduteko borondate benetako, artuten baldin badituz, pekatuan ez jausteko diran eginbideak, eta egiten baldin

badituz indar eta aleginak pekatuak ez egiteko, ez da konfesinoe txararren ezaugarria, ezpada argaltasunaren eta erkintasunaren igargarria.

Ze onera atera bear dogu esan danetik? Geure pekatuakaz eginiko gatx eta kalteak zuzendutea eta osotutea, bizitza on bat aurrerantzean eroanagaz.

JAZOEREA

San Ambrosiok dino: mutil gazte bat izan zala guztiz donga eta txarra, bizitza nasai eta nabarmena egiten ebana, eta bere uritik leku batera joan zan aldi baten, ukutu eutsala bere biotzean Jaungoikoaren graziak, ondu zala eta guztiz aldatu ebala bere bizitzea. Bere urira eta etxera bihurtu zanean, aurkitu eban aurrez aur bere pekatuko lagun antxinakoa, eta iragorik bere aurretik, berari jaramonik egin бага, arrituten da bere pekatuko laguna, eta uste izanik ez ebala ezagutu, urreratuten da beragana, eta dirautso:— «Ni naz a».— Mutil gazteak erantzun eutsan:— «Bada ni ez naiz a». Zergaitik etorren egiaz eta benetan garbaturik eta damuturik eta aldaturik; zan beste bat. Auxe berau egin bear dau gudan erabagi egiazko eta benetakoak.

Irakatsi 12.a:

Egikerazko ordaindutea edo kitugarria

Zer da egikerazko ordaindutea? Pekatuakgaitik zor diran kastigu denporazkoak Jaungoikoari ordaindutea edo kitatutea, konfesoreak emoten daben penitentzia beterik. Eta zelango pekatua egiten dau, penitentzia betetan ez dabenak edo luzaro atzeratuten dabenak? Ilgarria, penitentzia astuna edo andia izan ezkerro. Eta ordaindu edo kitutu al ginaikeoz Jaungoikoari kastigu denporazkoak, konfesoreak emoten deuskun penitentziagaz gañera? Bai, Jauna, Jaungoikoagaz ondo gagozala, egiten doguzan egikera on mueta guztikoakaz, eta parkamenak irabaziagaz.

AZALDUEREA

Zer da ordaindutea edo kitututea? Egin izan dana, desegitea edo eginiko gatxa zuzendutea edo osotutea.

Ordaindu edo kitutu gineikeo guk Jaungoikoari, pekatuagaz eginiko gatx guztia? Ori ezin egin al ginaike guk geurez; zergaitik pekatua da gatx azkenbakea, eta gizonaren kitugarriak beti dira neurtuak eta azkendunak.



Bada zein osagarri geldituten jaku? Bateoko eta Konfesinoeko Sakramentuen bitartez batezbere ezarten jakuzan Jesukristoren kitugarri azkenbagakgana zuzendutea.

Zelan ezarten jakuz Bateoan eta zelan Konfesinoan? Bateoan euren osotasun guztiagaz, osoro kenduten jakula pekatu guztia eta kastigu guztia; Konfesinoan barriz parkatuten da pekatua, eta bere kastigua, betiko zanetik, geldituten da kastigu denporazkoan edo amaikorrean.

Zergaitik da desbardintasun ori? Zergaitik Jaungoikoaren arteztasunagaz ondo datorren gauzea da, gisa batera kastigauak izan daitezala, ezjakinez eta Bateoa artu baga pekatu eginizan ebenak; eta beste gisa batera, pekatuaren mendetik ateriak izan eta Espiritu Santuaren doiak artu ezke-ro, ezaupera eta gaiztakeria geiagogaz pekatuan jausten diranak.

Eta geldituten dan kastigu denporazko au zelan ordaindu edo kitutu ginaike? Jaungoikoagazko bake eta adiskidetasunean gagozala, egiten doguzan egite on mueta guztikoakaz, parkamenak irabaziagaz, eta konfesoreak iminten deuskun penitentzia bete eta eginagaz.

Zeinbat erakoa izan leiteke, konfesoreak iminten daben penitentzia? Bitakoa: osagarritzkoa eta kitugarritzkoa.

Zein da osagarritzkoa? Pekatutik guri alde eragitera eta gure bizitzeara ondutera, batezbere eta berariz zuzenduten dana.

Zein da kitugarritzkoa? Pekatu autorturikoakgaitik zor dan kastigu denporazkoa eta amaikorra ordaindu eta kitututera, batezbere eta berariz zuzenduten dana.

Penitentzia betetan ez dabena, ondo autortu edo konfesetan da? Baldin, autortu edo konfesau zan unean, euki beban, penitentzia ez betetako, gogoa, ez, bearreko prestaerarik eroan ez ebalako; baña eukibeban, penitentzia betetako, gogo ona, eta gero ez beban alan egin, izan zan ona eta egiazkoa bere autormena edo konfesinoa; baña penitentzia bazan astuna, egin eban pekatu ilgarria edo astuna, eta bazan arina, egin eban pekatu arina.

Noz bete bear da penitentzia? Izentau beban denporeea, orduan; izentau ez beban, ainbat lasterren, eta, al dala, Jaungoikoaren bakean eta grazian.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Konfesoreak iminiriko penitentzia betetea konfesau eta bereala, geure pekatuakgaitik zor dogun kastigu denporazkoa ordaindu eta kitututeko; eta baitabere onetarako ezartea, arima garbiagaz eginiko egite on guztiak.

JAZOEREA

Dabid erregeak autortu ebanean umiloro bere pekatua Natan igar-learen aurrean, onek esan eutsan Jaungoikoaren izenean:— «Jaunak parkatu dau zure pekatua, ez zara ilgo eriotza betikoagaz: baña iraindu eragin dozulako Jaungoikoaren izena, zure semea ilgo da», gañera aurrez adierazoten eutsazala beste kastigu denporazko batzuk. Emen ikusten dogu pekatua parkaturik eta denpora berean kastigaurik kastigu denporazko batzukaz; alan parkaturik Konfesinoeko Sakramentuan pekatua eta bere kastigu betikoa, ozta beti geratuten da kastigu denporazkoren bat, bizitza onetan edo bestean ordaindu edo kitutu bear dana.

Irakatsi 13.a: Parkamenak

Eta ze gauza dira parkamenak? Mundu onetan edo bestean pekatuakgaitik pagau bear dan kastigu denporazkoa, parkatuten dabeen grazia batzuk. Eta zelan irabazi bear dira? Jaungoikoagazko bakean eta grazian eginik, atarako aginduten dana. Eta mundu onetan bearreko ordaindutea edo kitugarria egin bagarik, Garbitegira doazanai, guk lagundu ginaikeogu? Bai, Jauna, guk geure pekatu-zorrek ordaindu edo kitutu al ginaikezan egite onakaz eurakaz.

AZALDUEREA

Zelako egiak euki bera doguz geure gogoan parkamenen irakatsiaren ganean? Oneek: 1. Konfesinoeko Sakramentuagaz parkatuten dala pekatua, eta kastigu betikoa geratuten dala kastigu denporazkoan; 2. konfesoreak iminten daben penitenziak, geienean bakarrik parkatuten dabela kastigu denporazko orren alde bat; 3. Eleizan dagoala ondasuntegi amaibagako bat, Jesukristoren irabazi etakitugarri azkenbagakoakaz, eta baita bere Andra Mariarenakaz eta santuenakaz egina eta beterik dagoana; 4. Eleizeak lagundu al leikegula, emonik ondasuntegi orretik, berak izentauriko egite on batzuk egiten dituezanai.

Zelangoak izan leitekez parkamenak? Osoak eta aldekorrak.

Zeintzuk dira parkamen osoak? Pekatu parkaturikoakgaitik zor dan kastigu denporazko guztia parkatuten dabeenak.

Zeintzuk dira parkamen aldekorrak? Muga izentauagaz emoten diranak, berbarako, berrogei egunekoak, eun egunekoak, zazpi urtekoak.



Zer esan gura dau, berrogei egunekoak, eun egunekoak, zazpi urtekoak, izateak? Emoten jakuzala, berrogei egunean, eun egunean, zazpi urtean geuk eginiko penitenziagaz, irabaziko geunkezan ordainpenak edo kitugarriak.

Parkatuten dira pekatuak parkamenaz? Ez da parkatuten pekatu ilgarririk, ez arinik, batbere; ezpada pekatu parkaturikoagaitik zor dan kastigu denporazkoa bakarrik parkatuten da.

Nok emon leikez parkamenak? Aita Santuak batbere muga бага, eta muga izentagaz Apezpikoak edo Obispoak eure barrutiyetan edo euren agindupean dagozan lekuetan.

Zelako zerzeridadeak bear dira, parkamenak irabazteko? Iru: 1. Jaungoikoagazko bakean edo grazian egotea; 2. eurak irabazteko aginduten dana, egitea; 3. emoten dituzanaren mendekoa izatea.

Bearrekoak eta naita naiezekoak dira konfesinoa eta komuninoa, parkamenak irabazteko? Parkamen osoak geiyenean alan eskatuten dabe; baña gogoan euki bear da, zortzi egunetik zortzi egunera konfesetako oitura ona daukenak, irabazi al leikeezala, aste-barruan dagozan parkamen guztiak.

Oneragarria eta mesedegarria da parkamenaz baliyetea? Da oneragarria eta mesedegarria ezingeiagoan; bada eurak aurreratu eta poztuten dabe bat, Jaungoikoaren bakean irautera, Sakramentu Santuak sarri artuter, egite onak egitera; eta ordaindurik eta kituturik eurakaz, pekatuagaitik zor dan kastigu denporazkoa, alan urrinduten doguz geugandik, Jaungoikoak mundu onetan bialdu leikeguzan beste nekegarri batzuk, edo gitxituten doguz beste munduan Garbitegiko neke eta minak.

Zer da Jubileo edo parka-doaña? Denpora izentauriko batzuetan emoten dan parkamen osoa, beste doe eta grazia berarizko eta aparteko batzukaz batera.

Garbitegiko arimai ezarri al ginaikeoguz parkamenak? Bai; baña orretarko izan bear dira emonak, aurai ezarri al izateko eskubideagaz.

Zelako onerea atera bear dogu emendik? Zelan diruzale baten egarria ez dan ase eta betetan, aberastasan andiak berak euki arren bere; alan guk bere euki bear dogula egarri sutsu bat, arimako ondasun egiazkoak diran parkamenak irabazteko.

JAZOEREA

Sarritako ikusiak irakasten dau, Jubileoko edo Parka-doañeko denporea izaten dala guztiz ugaria, zerutik artu oi diran grazia eta Jaungoikoagana egiaz eginiko biurrera berarizkoetan. Milla zazpireun eta

iruurogeta amaseigarren urtean ainbeste eta ain ugariak izan ziran, egin ziran pektarien Jaungoikoaganako biurrera santuak eze, D'Alambert eta Voltaire gaiztakeriaren eta nabarmenkeriaren irakasla eta zabaltzallak ziranak, ezagututen emon eben orduan, zelako atsekabea eta miña emon eutsen eurai alako jazoereak. D'Alambertek esan eban:— «Berak txarrerako eginiko lana atzeratu zala ogei urte». Voltairek barriz berba egin eban onelan:— «Etorten baldin bada best eJubileo edo Parka-doañ bat, utsean eta alperrik egin dogu txarrerako geure bear guztia».

Irakatsi 14.a:

Sarri konfesetea eta bere mesedeak

Eta bear dau batek, pekatu ilgarrian jausi ezker, bereala konfesau? Ondo izango litzateke, baña ez da preminazkoa. Zer egin bear dau bada? Artu biotzeko damu osoa, pekatu egin dabelako, euki onduteko gogo sendo bat, eta konfesau, Eleiza Ama Santeak aginduten dabenean.

AZALDUEREA

Zelan urten ginaike pekatutik? Era bitara: biotzeko damu osoagaz eta konfesinoagaz: eta zelan au dan errazena eta ziurrena, pekatuan jausi ezker, ainbat lasterren konfesau bear gara.

Noz baliyau bear gara biotzeko damu osoagaz? Estu-orduetan, pekatutik urteteko premiñan aurkituten gareanean, eta gatxtasun eta eragozpen andi бага konfesau ezin gareanean.

Eta autortu edo konfesau gura ez dabena, artu leike bere pekatuen parkazinoa biotzeko damu osoagaz nakarrik? Ez, zergaitik biotzeko damu osoa ez da egiazkoa, ez badaroa konfesetako gogo sendoa, edo Jaungoikoak pekatuak parkatuteko agindurik daukana egiteko asmo benetakoa.

Bada batek egiten dau biotzeko damu osoa, konfesetako gogo sendoagaz, baña gero bere ardurabakotasunez edo nagitasunez konfesetan ez bada, zer jazoten da? Biotzeko damu osoak egiaz eta benetan parkatu eutsazan bere pekatuak; baña barriro jausten da pekatu ilgarrian, gitxitan euki izan dabelako, Jaungoikoak pekatuen parkazinoerako iminirik daukan Konfesinoeko Sakramentua.



Eta biotzeko damu osoagaz parkatuak izan diran pekatuak, autortu eta konfesau bear dira? Bai, zergaitik Jaungoikoak agindu izan dau, pekatu guztiak izan daitezala Konfesinoeko Sakramentuan autortuak.

Noz konfesau bear gara? Edolabere urtean bein; eriotzako orduan edo bizitzea galduteko arrisku andiyan; bizien Sakramentuak eta batezbe-re Komuninoa artu bear doguzan aldi guztietan, pekatu ilgarrian egon ezker.

Zeinbaterik zeinbatera ondo izango da konfesetea? Pekat u ilgarrian jausi eta ainbat lasterren, arimea betiko galduteko dagoan arrisku andia-gaitik, eriotzeak batbatean artuten bagaituz; eta arimako aita jakitunak irakasten dabe, egin daitela Konfesinoa aste guztietan, beintzat edo gitxie-nez il guztietan.

Zelako onera eta mesedeak ekarten dituz sarri konfeseteak? Asko, batezberekoenak dira: 1. nekezago eta gatxago jausten da pekatuan, Konfesinoeko Sakramentuak emoten dituzalako indarrak ez jausteko; 2. jausten bada bat, errazago jagiten da pekatutik, sarri alan egiteko oitura onagaitik; 3. norbera obeto ezagututen da, geiago eta geiago beeratu eta umilau gaz Konfesinoeko Sakramentuan, santutasunean aurrerapen geia-go egiten dau, eta on eta artezak arimako gauzetan euki daroen ardura eta zintzotasun estua, artuten dituz batek; 4. egiten dira gauza on asko, egiten dira egikera irabazigarri eta merezigarriak, kitututen dira pekatu-zorrak, goraldiak emoten jakoz Jaungoikoari eta onretan da Jesukristo gure Jauna.

Ze onera atera bear dogu esan danetik? Sarri konfesetea dala eginbi-derik eragillena eta ziurrena, zorientasun betikoa irabazteko; beraugaitik oneratza atera bear dogu alan egiteko gogo sendoa.

JAZOEREA

Ebanjelio Santuak dirausku: Lazaro il zanean, Jesukristok biztu gura izan ebala; joan izanik bada Jesus, bera lurpeturik egoan lekura, agindu ebala, jaso eta eregi egila, obiya edo zuloa estalduten eban arillozea, eta usaina botaten ebala gorputz ilak, bada ordurako baziran lau egun, Lazaro il zala; baña Jesukristok eregirik bere begiak zeruruntz, esan eutsan:— «Lazaro, jagi zaitez»,— eta Lazaro biztu zan; baña bere oiñak eta eskuak loturik, (bada antxinako denpora atan oituten zan, gorputz ilak estalgia-gaz loturik lurpetutea) eta Jesusek bertan egozanai esan eutsen:— «Askatu egizue eta itxi egiozue joaten».— Askatu izan ez balebe, zirkinik egin ezin algaitik, ilgo zan barriro. Alan jazoten da biotzeko damu osoa-gaz eta Konfesinoeko Sakramentuagaz. Biotzeko damu osoagaz barriro artuten dau arimeak Jaungoikoaren grazia, biztuten da; baña oraindik

dago pekatuaren lokarriakaz loturik, eta joan bear dau konfesoaregana, onek askatu dagian, bada bestelan barriro ilgo da pekatuagaz.

Irakatsi 15.a: Pekatu ariña

Ze gauza da pekat u ariña? Pekat u ilgarriako prestaera bat. Zergaitik deritxo ariña? Zergaitik gizona ariñ, au da, erraz jausten dan pekat u ariñean, eta erraz parkatuten jakon. Zeinbat gauzakaz parkatuten jako? Bederatzigaz. Zeintzuk dira? Lenengoa, Meza entzunagaz; bigarrena, komulgeteagaz; irugarrena, Ni pekatariya esanagaz; laugarrena, Obispoaren benedezinoagaz; bostgarrena, ur bedeinkatua artuagaz; seiga-rrena, ogi bedeinkatua janagaz; zazpigarrena, Aita gurea esanagaz; zortzi-garrena, sermoia entzunagaz; bederatzigarrena, Jaungoikoari parka eske daokala, bularra juaagaz. Zergaitik dinozu, Jaungoikoari parka eske dao-kala? Gauza onekaz pekat u ariñen parkamena artuteko, zelanbaiteko euren damu izatezgañetikoa euki bear dala, adierazoten emoteko. Eta pekat u ariñak autortu bear doguz? Ez, Jauna; baña ondo eta mesedetsua da. Eta azkenengo konfesinoa ezker, pekat u ariñak baño ez daukazanak, zer egitea ondo izango jako, pekatuen damua eta erabagia ziurrago euki-teko? Pekat u ariñen gañera, bizitza iragoriko pekat u ilgarrien bat autortu eta agertutea.

AZALDUEREA

Zeinbat aldetik izan leiteke ariña pekat u bat? Lautatik: 1. bere izatez, berez gei ariña edo txikia dalako, berbarako, guzurra, kalterik egin бага, biargin batek esatea; 2. geiaren txikitasunagaitik, berbarako, baruegunetan gaubeko aparitxuan apur bat geiago jatea; 3. ezjakintasun kenduezinga-rriagaitik, uste izanik, agindu andi bat bakarrik bete bear dala pekat u ariñaren beian; eta 4. bearreko ezauperara edo aukeratasuna euki ezagai-tik, berbarako, bat bere burutik ondo ez dabilenean.

Bizi geintekaz, pekat u ariñak egin бага? Siniste santuko egiya da, pekat u бага ezin bizi geintekazala, grazia berizkoren bat guk zerutik euki ezik; baña gauza ziurra da bere, ez dagoala pekat urik, Jaungoikoaren gra-ziagaz goitu eta egin бага itxi ezin leitekeanik.

Zelako pekat u ariñak ezagututen dira? Batzuk dira argaltasunez egi-ten diranak, gogoa beste gauza batzuetan eukita edo gauzak ariñ eginda,



edo beste onelango eran, egiten diranak; beste batzuk dira, dongakeriagaz eginikoak, bearreko ezaupera eta jakituriagaz egiten diranak; oneekgaitik dino Aita Astetek, dirala «pekatu ilgarriako prestaera bat».

Zelango kalteak egiten dituz ariman pekatu ariñak? Pekatu guztiai dagokoen kastigu denporazkoaren gañera, gitxituten dau maitetasunaren berotasuna, otzituten dau Jaungoikoagazko gure adiskidetasuna, galdu eragiten deuskuz, pekatuan ez jausteko bearrekoak diran zeruko grazia asko, eta esangura onetan esaten da, eurak prestetan dabeela bat, pekatu ilgarria egiteko.

Zelan parkatuten da pekatu ariña? Sakramentu guztiakaz, eta Sakramentukorrak deritxoenakaz, eta dira, Aita Astetek dakarzan bedertzi gauzak.

Parkatu al leitekez pekatu ariñ batzuk, besteak parkatu бага? Bai; zergaitik izanik pekatu ariña, Jaungoikoaren graziagaz batera aurkitu al leitekeana, pekatu ariñ batzuen damua euki ginaike eta oneen parkamena artu ginaike, beste enparau pekatu ariñak guri parkatuak izan бага.

Baldin norbaitek autortuten badituz bakarrik pekatu ariñak eta euren damurik ez badaroa, parkatuten jakoz? Ez; zergaitik damurik бага ez dira parkatuten pekatuak; gañera da utsa eta alperrikoa bere konfesi-noa, eta ezaupereagaz alan egin izan badau, egiten dau donauste edo sakrilejio bat.

Gatx andia da pekatu ariña? Ain andia eze, mundu onetako ezegaitik bere ezin egin leiteke, bada da, Jaungoiko azkenbageari egiten jakon irain bat; eta deritxo ariña, pekatu ilgarriagaz daukan desbardintasunagaitik bakarrik.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Pekatu ariñak, batezberedongakeriazkoak diranak, iñoz ez egiteko asmo edo gogo sendoa.

JAZOEREA

Aita Claret beneragarriak, bere «San Ignazioren arimako Egitaldietan» pekatu ariñaren ganean berba egiten dabela, diño: «Pekatu ariñean dagoan arimea dala, bere gorputzeko alde guztiak mindurik daukazan geiso bat legez, gogo бага jaten dabena legez, oera etzin eta bat-bere lorik egiten ez dabena legez, atsegin бага barre egiten dabena legez, gauza guztietan nekatuten dana legez eta guztiak gogait eragiten deusana legez, geiago dabilela arrastaka eta tatarraz bere oiñakaz baño. Pekatu ariñakaz geldika geldika doa arimea argalduagaz, zeruko grazia eta laguntasunak iges eginagaz doaz, eta azkenez dator pekatu ilgarrian jaustera».

Irakatsi 16.a: Komuninoeko Sakramentua: Sakramentu onen izatea, eginaizantasuna eta egitadeak

Zetarako da Komuninoeko Sakramentua? Ondo pretauta arturik, izan daiten gure arimen janaria eta geitu dagigun grazia.

AZALDUEREA

Zer esan gura dau emen Komuninoak? Sakramentu adoragarri onetan emoten jakuzan Jesukristoren gorputz eta odola artutea.

Noz egin eta imini eban Jesukristok Sakramentu au? Bere Pasinoe Santuaren aurreko gaubean, au da, Eguben Santuko gaubean, bere Apostoloai euren oiñak garbitu ezkerro, artu ebanean ogia bere eskuetan, bedeinkatu eta emon eutsenean, zirautsela: «Eutziye, eta jan egizue, auxe da nire gorputza»; eta bardin edan-ontzia edo kalizea, zirautsela: «Auxe da nire odolaren kalizea, zuegaitik eta askogaitik isuria izango dana pekatuen parkazinoerako».

Eta zelan egin eta imini eban? Konbit baten antzera, zeñetan emoten deuskun janaritzat bere beraren gorputza, eta edaritzat bere beraren odola.

Zetarako egin eta imini eban? Iru gauzatarako; 1. izan zeiten gure arimen janaria; 2. lege barriko oparia iminteko; eta 3. bere Pasinoe Santuaren gomutagarria eta bere amodio edo maitetasun azkenbagakoaren ezaugarri betikoa izan zeiten.

Zein da Sakramentu onen geiya? Garizko ogia eta matseko ardaoa.

Zergaitik emon gura izan jakun ogiaren eta ardaoarentz eta irudiyen beian? Iru errazogaitik; 1. gu bere maitik atzeratu eta urrindu ez gengizan, zergaitik bere gorputza jan eta bere odola edateko iguiña eta atzerapena eukiko genduan, emon izan baleuskuz, gorputzak eta odolak eurenz dauken antz eta irudiyen; 2. ondo agertu gengian geure siniste, eta siniste onegaitik guk euki gengizan betiko bizitzarako irabazi andiak; 3. eta batezberekoena da, guri adierazoteko, Sakramentu au dala arimearen janaria, ogiak gorputzari egiten deusana berbera, arimeari egiten deusana.

Zer egiten dau Sakramentu onek, ondo pretauta edo duinoro bera artuten dabenaren ariman? Lenengo, irain eragin eta indarrak emoten



deutsoz graziazko bizitzeari, ogiak gorputzeko bizitzeari legez; 2. alkartu eta batuten gaituz Jesukristogaz, ogia geugaz alkartu eta batuten dan legez; 3. barriztetan dituz indar galduak, parkaturik pekatu ariñak, argal-durik grinak eta txarrerako etxuntasunak eta makurtasunak; eta 4 da betiko bizitzako azi eta ezaugarri ziurra.

Nortzuk dira Sakramentu onen egindariak? Abade guztiak eta eurak bakarrik, zeintzuei emon eutsen eskubide ori Apostoloen personan, esan eutsenean: «Egizue au nire gomutan».

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Gose-egarri sutsuagaz Sakramentu onetara urreratutea, aurrez ondo pretauta, izan daiten guretzat mesedegarria eta betiko bizitzako ezaugarria.

JAZOEREA

San Francisco Saleskoak diño:— «Bere gorputza eta odola egiaz eta benetan dagozan Sakramentu au, egin eta imini ebalu gure Jaunak, bera artu eta jan dagiana, betiko bizi daiten; eta orregaitik, sarri eta ondo pretauta bera artuten dabenak, alako eran ziurtau eta indartuten dau bere ari-mako osasuna eta bizitzea eze, ozta ezingarria da, izan daitela makurtasun eta zaletasun bakar batez bere ezaindua eta loitua eta pozoitua. Bada baldin ustelkorrak diran frutarik samurrenak, erraz irauten badabe denpora luzean, azukareagaz edo eztiyagaz go zoturik dagozanean, ez da mirari izateko, gure biotz ain argal eta erkinak euki ez dagiela pekatuaren usteltasunik, Jaungoikoaren Semearen aragi eta odolagaz gozoturik dagozanean».

Irakatsi 17.a:

Komuninoa: bera artu-bearra eta prestaerak

Zergaitik diñozu, ondo pretauta? Adierazoteko, Sakramentu au ez dala izango gure arimen janaria, artuten badogu, arimearen eta gorputzaren aldetik bear diran prestaerak, eukiten ez badoguz. Bada zelako prestaerea bear da arimearen aldetik? Jaungoikoaren grazian egotea. Eta pekatu ilgarrian jausi izan dana, zelan prestaeko da komulgetako? Ondo konfesauagaz. Eta esaniko prestaerak euki бага, komulgetara doianak, artuten dau bere Jesukristo? Bai, Jauna; baña onera eta mesede бага, sakrilejio edo donauste guztiz andi bat egiten dabelako. Eta komulgeteak mesede egiten deutenak, zer egin bear dabe, len esanikoen ganera, mesede

geiago artuteko? Komulgau baño lenago, eurakgana datorrena nor dan gogoratu, sinismen, itxaropen eta maitetasuneko eginaldietan jardun, eta umiltasun eta lotsa andiagaz artu, eta gero ondasun ain andiagaitik eskerak emon.

AZALDUEREA

Komulgetan diran guztiak, artuten dabe Jesukristo, beraz guztiak artuten dabe grazia bat bera? Ez; ezpada artuten dabe grazia geiago edo gitxiago, euren prestaera andiagoa edo txikiagoa dan legez.

Azaldu eta adierazo egizu ori irudi batez:— Iturrira doiazan guztiak, eroaten dabe ura; baña eroango dabe ur geiago edo gitxiago, euren ontzia edo pitxarra andiagoa edo txikiagoa dan legez.

Bada zelako prestaerak bear dira arimearen aldetik? Bat da bearrekoa eta naita naiezekoa, ondo pretauta edo diunoro artuteko, eta besteak dira onera eta mesede geiagagaz artuteko.

Zein da bearrekoa, duinoro artuteko? Jaungoikoaren grazian eta bakeab egotea.

Zer da Jaungoikoaren grazian eta bakean egotea? Pekaturik бага egotea; orregaitik, bat aurkituko balitz pekatu ilgarrian, ondo konfesau bear dau, komulgetara joan baño lenago.

Eta Jaungoikoaren grazian ez dagoala, komulgetara doianak, artuten dau Jesukristo? Bai, baña egiten dau donauste edo sakrilejio guztiz andi bat, eta Apostoloak diñoan legez, «egiten da Jesukristoren gorputzaren eta odolaren errudun».

Eta zelako prestaerak dira bearrekoak, mesede geiagagaz artuteko? Umiltasunagaz, itxaropenagaz eta gurariagaz artutea.

Zer egingo dogu, umiltasunagaz, itxaropenagaz eta gurariagaz artutera urreratuteko? Zerbait denporan ondo gogoratu nor dan datorrena, norgana datorren eta zetara datorren.

Nor dator? Jaungoikoaren Seme Betikoa, Andra Mariagandik jaio zana bera, gure amodoagaitik Kurutzean il zana, bere Aitaren eskumatik jarririk dagoana, eta gure Auzi-epallea izango dana; eta emetik aterako doguz, beeratu eta umiletako bideak.

Norgana dator? Gu pekatari errukigarri, gisaxo, premiñaz eta pekatuz beterik gagozanokgana; eta emetik artuko dogu, itxaropena eukiteko geia.

Zetara dator? Osagilla bat legez, gure arimetako geisotasunak osatutera; iraklasa bat legez, guri bide ona irakastera; aita bat legez, berak deuskun amodioa, guri agertu eta erakutera; senar bat legez, bera dan guztia,



eta berak daukan guztia, guri emotera; eta emetik aterako doguz, bera artuteko gurari sutsuak.

Zelan urreratu bear da komulgetara? Onerzpen, itzal eta modu onagaz, pekatuen damu bizi bat artuten dala, esanik «Ni pekataria» eta gero iru bidar: «Neure Jesukristo Jauna, ni ez naz duin, Zu nire bizilekuan sartuteko; baña esan egizu berba bakar bat, eta nire arimea geratuko da osaturik eta salbaurik».

Zer egin bear da, Ostiya Sagradua artuten danean? Itzal eta Lotsa andiagaz irago bear da ainbat lasterren eztatritik barrura, denpora atan beratan esaten dala: «Nire Jaun Jesukristoren gorputzak zaindu dagiala nire arimea eta eroan dagiala betiko bizitzara. Alan izan dedilla».

Eta komulgau ezkerro, zer egin bear da? Ordu laurenean edo ordu erdiyan egon bear da itzal eta norberaganako batuereagaz, emoten jakozala Jaungoikoari esker andiak, eta egiten dirala lau egikera oneek: adora-zinokoa, eskerrak emotekoa, eskintsarikoa, eta eskabidekoa.

JAZOEREA

San Francisco Saleskoak dino:— «Komuninoe batetik bestera illa batetik besterakoak izan bear dabela, Jaungoikoa ondo serbidu eta maite-tu gura dabenen artian... Mundutarrak itanduten baldin badeutsue zergaitik komulgetan zareen ain sarri, erantzun egioezue, Jaungoikoa maitetuten ikasteko, zeuen ezaintasun eta loitasuntuak guztiz garbituteko, zeuen argaltasunak sendatuteko eta zeuen estutasunetan eta larritasunetan poz-tuteko... Era bitakoak dira, sarri komulgau bear dabeenak: ontasun osoan bizi diranak, ondo prestaerik dagozalako... eta ontasun osoan ez dagozanak, ontasun osora eldu daitezan; indartsuak, argaldurik geratu ez daitezana eta argalak, indartu daitezan; geisoak, osatu daitezan eta osasuntsuak, geisotu ez daitezan; arazu eta zeregin gitxi daukenak... denporea enparetan jakelako, eta lan eta buruauste andiak daukezanak, alan egin bear dabeelako... bada biar eta lan asko egiten dabenak, eta atsekabez eta estutasunez beterik dagoanak, sarri artu bear dituz janaririk indartsuenak eta onenak. Komulgau zaitze bada sarri, al dozuen sarriyen, jarraiturik beti zeuen arimako aitarene eretxi eta esanai».

Irakatsi 18.a:

Gorputzaren aldetik bear diran prestaerak, eta Sakramentu au artuteko dagoan eginbearra

Eta gorputzaren aldetik, ze prestaera bear da? Baraurik eldu bear da komulgetara, gauerdiko amabietatik ordu arteraño ezer jan ez edan bagarik egonagaz, gure Jauna, eriotza-aurreko geisoaldian, artu bear danean izan ezik.

AZALDUEREA

Zelako prestaerak eroan bear dira gorputzaren aldetik? Barau osoa da bearbearrekoa dana; eta ondo eta egoki dan gauzea da, norbera, bere gorputzean, soñean, oñetan, garbirik eta antz onean, eta arpegiera umil, beeratu eta moduonekotasunagaz, gure Jauna artutera eldutea.

Eta zer da barau osoa? Gauzarik batbere ez artutea, nai dala janaria, nai dala edaria eta nai dala osagarria, aurreko gauerdiko amabietatik gero.

Eta batek, jakin baga, uste baga eta erru baga, gauza txikiren bat artu izan dabenak, artu leike gure Jauna? Ez; ausi izan dabelako barau osoa; eta alan komulgau bear dau urrengo egunean, barriro konfesau baga, pekatu ilgarriren bat egin izan ez badau bitartean; bada egin izan badau, ostera konfesau bear da, komulgau baño lenago.

Eta izango balitz oietako odol apurren bat, edo aginen artian aurreko gaubeko ondarren bat geratu izan dana, artu leike gure Jauna? Bai; zergaitik bakarrik austen dau barau osoa, nai janaritzat, nai edaritzat, nai osagarritzat, kanpotik artu eta sabel barrura iragoten danak.

Nozbait artu leiteke gure Jauna, baraurik ez dagoala? Bai, eriotza-aurreko geiso-aldian.

Eta eriotza-aurreko geiso-aldian gure Jauna artuteko, itxaron bear da, eriotzako ordu urreko eta azkenengoa eldu arteraño? Ez, asko eta naikoa da ilteko arrisku ustekorra egotea; eta arrisku au dagoanean, ondo da ainbat lasterren artutea.

Zergaitik alan? Errazoe bigaitik: 1. zergaitik obeto eta ezaupera geiagogaz prestatu leitekealako, gure Jauna artuteko; 2. uste eta sinistu ez daiten, gure Jauna geisoaldian artutea dala eriotzearen ezaugarri ziurra eta utsik emon ezin leikeana, eta geisoai esan al daitekeoen, prestatu daitezala gure Jauna artuteko, eurak ikaratu eta surtuko diran batbere bildur baga.



Eta denpora luzean geisorik dagozanak, ilteko arrisku urrekorik euki бага, artu leikkee gure Jauna? Bai; baña artu bear dabe, baraurik dagozala, gauerditik ordu batzuk geroago gure Jauna eurai eroan bear bajake bere.

Eta osasun onean dagozanak, nozik nozera artu bear dabe gure Jauna? Daukagun agindu andiagaitik, edolabere edo gitxienez urtean bein; eta jakitunak dirauskuenez, ainbat sarrien, il guztietan, aste guztietan, eta egun guztietan bere, santuak egiten eben legez, eta Eleiza Ama Santeak gura daben legez.

JAZOEREA

Sarda eta Salvany, Jaun jakituria eta entzute andikoak, bere liburutxu baten dinoana, guztiz egoki eta ondo dator emen. «Ikaratuko da geisoa, aitatuten bajako Eleizakoen izena!— Ondo, guztiz ederto: betiko galdu daitela zure geisoa, ikaratu бага, ondo badereitxazu.— Jesus! Jaungoikoak zaindu gagizala onelango gauza bategandik!— Ondo bada, deitu bear deutso Arimazainari eta zuzendu bear dituz bere arimako gauzak beragaz, arrisku orretan bere burua imini gura ez badau.— Baña, eta ikaratuten bada!— Baña eta betiko galduten bada!— Esan egidazu, ez da gauza ikaragarrikoa, iltera doiala, geisoari argiro ezagutu eragingo deutsan, bildurgarriko berba orreek esan-bearra?— Esan egidazu zeuk bere, ez da gauza ikaragarrikoa ikustea zelan geisoa, bere begiak estaldurik daukazala, doian sakontasun bildurgarriruntz, zeñetan gurata guraz ondatu eta galdu bear daben betiraun baterako?— Ezagututen dot; baña nok, nik bera maite dodan legez, maite dabenak, biotza eukiko dau, alako barri edo albista bildurgarrikoa berari emoteko?— Egia da; baña nok, zuk bera maite dozun legez, maite dabenak, biotza eukiko dau, batbere prestaera бага betiko sakontasun bildurgarriko batera auspaz jausten doiala, odol otzagaz onean eroan eta ikusteko?— Badakizu zuk, bearbada, Jaungoikoagazko bake eta grazian ete dagoan?— Ez, ezelanbere, baña, badakizu zuk, bearbada, Jaungoikoagazko bake eta grazian ete dagoan?— Eta, nok esan deutsu zuri, Eleizakoen izena bere belarrian aiatu dagio-danean, ez dala geituko bere geisotasuna, eriotzea bereala ekarri daikena? Mundu onetako ezigaitik ez neunke euki gura alako kezkarik.— Eta, nok esan deutsu zuri, zure isiltasun ori eta zure bildur uts eta alperriko ori ez dituzala ondo pagauko denpora gitxi barruan geisoak, bere arimea betiko galduagaz? Gitxi eta utsa dala uste dozu, zeure arimearen gañera jausiko dan kezka eta mina, zu isilik egonagaz?... Baña esan egidazu: Egia da, geisoak ainbestean bildurtuten dirala, Eleizakoen izena aitatuten jakenean? Niri deritxat, ori geiago dala osasundunen uste eta bildur txarto aitu

bat; aurkitu izan naz orrelango aldi askotan, eta ozta beti ikusi izan dot, etxeokak eta senideak geiago ikaratu eta bildurtuten dirala geisoa bera baño. Ikusi izan dot, euren osasun betean ain onak eta Jaungoikoaren bildurrekoak izan ez ziranak, Eleizakoak artu bear dituezala esan jakenean ez dirala ikaratu ez bildurtu, ezpada pozik eta atseginez beterik geratu izan dirala. Desengañau gaitezan, eta ez dagizun aztu, geisotasun arrisku andikoan bat aurkituten danean, ez dala izaten eta ez dituzala gauzak ikusten, osasun on eta betean dagoanean legez».

Irakatsi 19.a:

Zelan Jesukristo dagoan egiaz eta benetan Komuninoeko Sakramentuan

Zer artuten dozu Komuninoeko Sakramentuan? Jesukristo Jaungoiko eta Gizon egiazkoa, Altarako Sakramentu guztiz santuan egiaz eta benetan dagoana. Onetara ezkerro, nor dago ostiyan, donekida edo konsagrazio ostein? Jesukristoren gorputza, bere odol, arima eta jaungoikotasunagaz batera. Eta edan-ontzi edo kalizan? Jesukristoren odola, bere gorputz, arima eta jaungoikotasunagaz batera. Onetara ezkerro, Jesukristo guzti guztia dago ostiya guztian, eta guzti guztia bere alde edo zati baktxean, eta bardin kalizan. Eta donekida edo konsagrazino ostein badago ogirik ostiyan edo ardaorik kalizan? Ez, Jauna, ezpada ogiaren eta ardaoarener ganerantzekoak eta irudiak, diran legez usaina, kolorea eta mar-go, dasta edo saborea eta enparauak. Eta ostiyea zatitu nai banatuten bada, edo kalizan dagoana, zatitu edo banatuten da Jesukristo? Ez, Jauna; guzti guztia geratuten da zati guztietan eta euretatik baktxean.

AZALDUEREA

Beraz ogia biurtuten da Jesukristoren gorputz eta ardaoa bere odol izatera? Bai; ogiaren izate guztia biurtuten da Jesukristoren gozputz izatera, eta ardaoarener izate guztia bere odol izatera; eta auxa da, guk *Transustanziazionia edo Izate-bat-beste-izate-batera-biurtutea*.

Zelan izan leiteke ori? Jaungoikoak bere guzti-altasunagaz egiten dabelako, Kanago ezteguetan ura ardao biurtu eban legez, Niloko urak odol biurtu ziran legez, eta gauza guztiak ezerezetik egin zituzan guztian.

Zelan izan leiteke, gauza ain txikia dan ostiya baten egotea Jesukristo? Baitabere, ain txikia dan begiko ikuslekutxuan, egiten da oso



osorik gauza guztiz andiaren antz edo irudia; eta azi txikitxu batek bera-
gan dauko sarturik azioro zugatz edo arbola guztia.

Izanik Jesukristo bat bakarra, zelan egon leiteke ostiya askotan, eta
emon leiteke guzti guztia ostiya guztietan? Baitabere, gure arimea izanik
bat bakarra, denpora bat baten dago guzti guztia gorputzeko alde edo zati
guztietan; eta gure berbea, bat bakarra izan arren, entzun eta artuten dabe
guzti guztia, geure aurrean dagozan guztiak.

Eta zelan egon leiteke Jesukristo, leku bata besteagandik ain urriñe-
tako Sakramentuetan, bere izatea geitua eta askotua izan bago? Baitabere
eguzkia dago guzti guztia leku askotan, guztiak argituten dituzala, bere
berotasunagaz landara, zugatz, bedar eta beste enparau guztiai indarra
emoten deitsela, bere izatea geitua eta askotua izan bago, eta bat bakarra
izateari itxi bago.

Baldin Jesukristo badago ostiya konsagraduan, zelan izan leiteke,
ostiyea zaituten danean, Jesukristo zatitua ez izatea? Zatituten dira beror-
dekoak, antzak eta irudiak, zatikorrek diralako; baña Jesukristo ez, zatiko-
rra ez dalako bere egoera zoriontsuan: zelan ispillu bateko irudiya ez dan
zatituten, apurtua eta zatitua izan arren ispillua, ezpada geratuten da oso
osorik atal edo zati guztietan.

Baña Sakramentuan ez dira ikusten berordekoak, antzak eta irudiyak
ezpada? Eta alan izan bear dau, zergaitik berordekoak antz eta irudiyak
geratuten dira, eta bakarrik izatea aldatu eta beste izate batera biurtuten
da: geratuten dala orregaitik antz-irudiya, eta beronen barruan Jesukristo.

Azaldu eta adierazo egidazu ori irudi bategaz.— Loten emaztea,
gatz-arri biurtua: gatz-arri a ikusten ebanak, ikusten eban Loten emaztea-
ren irudiya, eta orregaitik bere, ez zan Loten emaztea, ezpada gatza Loten
emaztearen irudiyaren barruan; bada zelan biurtuera atan aldatu eta biur-
tu zan barruko izatea beste izate batera eta geratu zan kanpotiko eta aza-
letiko irudiya, alan Sakramentu onetan aldatu eta biurtuten da ogiaren
barruko izatea Jesukristoren gorputzean, baña geratuten da, len eukazan
berordekoen eta antzen irudiya.

Baña orrek guzti orrek ez dau azalduten ez agertuten ezkutapena.
Ez dogu bere gura izan bear. Amodioa berez da ezkutapenkorra;
Jaungoikoaren amodio azkenbageak izan bear dau azkenbaga ezkutapen-
korra; eta beraugaitik, Jaungoikoaren amodoaren Sakramentua dan
Sakramentu au da *Gure Sinistearen Ezkutapena*.

Ze onera atera bear dogu esan danetik? Siniste bizi eta andi bategaz
Sakramentu oni lotsa eta itzal ezingeiagoko bat eukitea, amodio jaungoi-
kozkoaren ezkutapen au zelan izan leitekean jakiteko batbere aleginik egin

bago, eta geure arazu, zeregin eta lanak itxi eta laketuten deuskuezan,
egun guztietan, ikusaldiak berari egiten deitsaguzala bere Altara santuan.

JAZOEREA

Bein baten dei eginik San Luis, Franziaiko Erregeari, esan eutsen,
bereala joan zeitela Eleizara ikustera Jesus, bere beraren izate ostiya kon-
sagraduan mirariz agertu eta ikusten zana; eta Errege andi arek erantzun
eban:— «Joan bear dabe, Jesus Altarako Sakramentuan egiaz eta benetan
dagoan edo ez dagoanaren gañeko ezdabaidea daukenak; nik sinistuten
dot dagoala, neure begiakaz ikusiko baneu baño errimeago eta sendoa-
go».— Eta ez eban joan gura izan, bere siniste andiaren irabazi eta mere-
zimentua ez galdutearren.

Irakatsi 20.a: Oleazinoko Sakramentua

Zetarako da Oleazinoko Sakramentua? Iru gauzatarako. Zeintzuk
dira? Lenengoa, iragoriko biziera txarraren sustarrak eta ondakinak ken-
duteko; bigarrena, sendotuteko arimea diabruaren asmo eta esetsien kon-
tra; irugarrena, gorputzari, ondo etorri ezkerro, osasuna emoteko. Adinera
edo ezauberara eldu izan diranak eta geisorik oso dagozanak, artu bear
izaten dabe pekatu ilgarria, artu al izanik, artuten ez dabeenak, edo peka-
tu ilgarrian dagozala, artuten dabeenak, Sakramentu au ondo artuteko?
Lenaz konfesau bear da, eta au egin ezin al baleike, egin bear dau damu
osoko eginerea.

AZALDUEREA

Zergaitik deritxo Sakramentu oni Azkenunzinoa? Ez, bizitzearen
azkeneario itxaron bear dalako, bera artuko bada; ezpada kristinauak
bere bizitzan artuten dituzan orio-igortzi edo unzinoetatik dalako azke-
nengoa.

Zelan emoten da? Abadeak, Obispoak konsagrauriko orioagaz,
igortziten dituzala, kurutzeara eginagaz, bost zentzunak, eta Jaungoikoari
eskatuten deitsala, zentzun bakotxagaz eginiko pekatuen parkazinoa.

Nok artu leike? Adinera edo ezauberara eldu izan dan kristinau guz-
tiak, eta oso geisorik dagoanak. Ez, osasun onean dagozanak, ilteko arris-
kuan aurkitu arren bere.



Zeinbat bidar artu leiteke? Geisoa eriotzako arriskuan aurkituten dan beste bidar, geisotasun bat baten izan arren bere, baldin erdi osaturik eta barrero jausten bada arrisku bardiñean.

Zelako prestaerak euki bear dituz, artu bear dabenak? Jaungoikoaren bakean eta grazian egotea, dalako bizien Sakramentua; alan bada konfesau bear dau, pekatu ilgarrian aurkituten bada; bestelan egingo leuke donauste edo sakrilejio bat.

Eta konfesau ezin bada? Prestau bear da damu osoko edo gitxienez damu bildurrezko eginereagaz, eta orduan egiten dituz Konfesinoeko Sakramentuaren egitadeak, parkaturik pekatu ilgarriak.

Eta Sakramentu onek egin dagizan bere onera eta mesede guztiak, zer egin bear dogu? Ainbat lasterren artu bear da ezaupera osoagaz, umiltasun guztiagaz, egiten dirala sinisteko, itxaropeneko, maitetasuneko eta pekatuen damuzko eginerak.

Eta zelango egitadeak egiten dituz, esaniko prestaerakaz artuten danean? Graziaren geitupena, edo lenengo grazia emoten dau, pekatu ilgarrian aurkitu izan bada, zein dan Sakramentu guztiai dagokoena; eta gañera Aita Astatetik izentauriko iru egitadeak.

Zein da Sakramentu oni berariz dagokan lenengo egitadea? «Iragoriko bizitza txarraren susterrak eta ondakinak kendutea», diran legez pekatu ariñak, kastigu denporazko zor diranak, eta pekatuaren ostean ariman geratuten dan argaltasuna.

Zein da bigarrena? «Diabruaren asmo eta esetsien kontra arimea sendotutea», zeñek ordu atan, ikusirik denpora gitxi geratuten jakola, egingo dituzan indarrik andienak, pekatuan jausi eragiteko; eta baitabere onean eta eroapen santuagaz eta irabazi andiagaz irago dagiguzan geisotasuneko nekeak, miñak, eta estutasunak.

Zein da irugarrena? «Gorputzari, ondo etorri ezkerro, osasuna emotea», eta egitade au egiten dau, mirariz ez, ezipada indar izatearen-gañoeko baten bitartez, geisoaren indar berezkoai lagunduz.

Ze ateraten da emetik? Burubagako eta zentzun bagako gauzea egiten dabela, Sakramentu au artuteko, azkenengo ordura arteraño, au da, biziko diran uste guztia galdu arteraño, luzatu eta itxaroten dabeenak, noz osatu al izango ezin litzatekezan mirarien baten bitartez ezipada.

Zergaitik dinozu «gorputzari, ondo etorri ezkerro»? Zergaitik Sakramentuak batezberere eginak eta iminiak izan diran arimearen osasunerako, eta ezin emon leikeen gorputzeko osasuna, arimearen kaltean izaten bada.

Andia da Sakramentu onen balioa? Da guztiz andia; sarri askotan bera ondo artutetik dator arimen zorientasun betikoa; bada Jaungoiko beti errukiorra danak, ikusirik arako premiña estu eta larria, arimak azkenengo orduan euki daroena, prestaera gitxiago eskatuten dituz, eta laguntasun eta grazia geiago emoten dituz.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Geure agindupekoak eta geuk bere Sakramentu au ainbat lasterren artuteko alegin guztiak egitea, eta, al bada, gure Jauna artu eta bereala.

JAZOEREA

Aita Wolfgang Frayle santuak eukan oitura guztiz on eta eder bat, eta zan, gau guztietan oera etzin baño lenago, ilteko aurrean eta Oleazinoeko Sakramentu artuten egoala, begitandu eta iruditutea. Artuten eban Santo Cristo bat, eta beragaz ukututen eutsen begiai, belarriai, surrari, aoari, eskuai eta oiñai, esaten ebala:— «Kurutze Santu onek eta bere errukitasun guztiz samurrak parkatu dagidezala, ikusteagaz, entzunagaz, usain eginagaz, berba eginagaz, eskuakaz eta oiñakaz, nik egin ditudazan pekatuak».

Irakatsi 21.a: Ordiako Sakramentua

Zetarako da Ordiako Sakramentua? Eleizgizonak donekidatu edo konsegretako, diran legez Apaizak edo Abadeak, Diakonoak edo Otseindarrak eta Subdiakonoak edo Otseindarpekoak. Eleizgizonak, batezberere Abadeak, lotsaz eta berarizko gizaonez begiratuak izan bear dabe? Bai, Aita.

AZALDUEREA

Noz egin eta imini eban Jesukristok Sakramentu au? Bere gorputza eta odola donekidatu edo konsegretako eskubide lenena dan aldetik, bere azkenengo apariko gaubean, Berak konsagrau eta bere apostoloak komulgau eta bereala, esan eutsenean: «Egizue au nire gomutan».

Noz emon eutsen, Jaungoikoaren berbea adierazo eta Sakramentuak egin eta emoteko eskubidea? Bera ilen artetik biztua izan eta esan eutsean: «Eskubide guztia emon izan jat zeruan eta lurrean... zoaze, irakatsi



egioezue jente guztiai, bateatu egizuez Aitearen, eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean».

Zetarako egin eta imini eban Sakramentu au? Abadetasunari edo Eleizgizontasunari iraun eragiteko eta iragoa izan zeiten gizaldi guztietara, eta bere bitartez gizaldi guztietako gizonetakoak eta andrazkoak artu egiezan, Jesukristok, gu erosiagaz, ekarri euskuzan onera eta mesede guztiz aberatsak eta ugariak.

Zeintzuk dira Abadearen zeregin eta eginkizunak? Izatea bitartekoa, oparitzallea, emontzallea, irakasla, berba baten esateko, Jesukristoren ordekoa, jarraitu eragingo deitsana, Jesusek bere Aitagandik artu izan eban lanari, apostoloai esan autsen legez: «Ni neure Aitak bialdu ninduan legez, alan Nik biladuten zaituedaz zuek».

Zer esan gura dau bitartekoa izateak? Eleizgizona izan dala iminia, zeruaren eta lurraren artean bitarteko izateko, eta sinistedun guztiakgaitik eta premiña guztiakgaitik eskatuteko.

Ez dauke indar bardiña, edozein gizonen nai emakumek egiten dituezan erreguak eta eskariak? Ezelanbere ez; Abade edo Eleigizon ez danak, eskatu eta erregututen dau bere izenean, agirian alan egiteko zereginik ez eskubiderik euki baga; Abadeak barriz erregututen dau eginkizunez, Jesukristok iminiriko Eleizearen otseina legez, Aita Betikoak beti entzuten deitsan Jesukristoren beraren ordekoa legez.

Zelan da oparitzallea? Bera bakarrik izan dalako deitua, Mezako Opari Santuan eskinitako, Opari garbia, santua eta orbanbagakoa dan Jesukristo.

Zelan da emontzallea? Artu izan dabelako, Sakramentuak egin eta emoteko eskubidea, eta euren bitartez lagunduteko Jesukristori, arimak betiko zorioneko egiteko lan eta zeregin santuan.

Zelan da irakaslea? Dalako, zeruko bidetik gizon guztiak giyau eta zuzendu bear dituzan argi-zuziya; irakasten deitsela, egin bear dabeen ona eta egin bear ez dan txarra, zoriontasun betikoa irabazi eta jaritxiteko.

Zelan da Jesukristoren ordekoa? Jesukristoren orde ez eta bere ize-nean egiten dabelako guztia. Bateatuten badau, ez da bera, ezpada Jesukristo, bateatuten dabena; parkatuten badituz pekatuak, egiten dau Jesukristoren izenean; egiak adierazo eta irakasten badituz, ez dira bereak, ezpada Jesukristogandik artu izan dituzanak, esan al leikeala: «Nik irakasten dodana, ez da neurea, ni bialdu izan naben Jesukristorena ezpada».

Da orregaitik andia Abadearen duintasuna? Da, gizonari lurrean emon izan jakonik arrigarriena eta miragarritzkena.

Begiratu bear deutsegu lotsaz eta gizaonez Abadeai? Bai, lotsa eta itzal andi bat euki bear deutsegu, aurak diralako Jesusen ordekoak, eta euren bitartez Jaungoikoak emoten deuskuzan mesede eta onera guztiz andiakgaitik.

Zelango pekatua egiten dabe, Abadeai zor jakezan lotsa, itzal eta gizaonari, utsegiten eutsenak? Ilgarria; ez bakarrik gitxitan eukiten dabee-lako, Eleizearen otseina eta Jesukristoren ordekoa dana, baitabere arime-tako aita gurea dana.

Eta Abadea edo Eleizgizona bada donga eta txarra, zer egin bear dogu? Errukitu bear gara, gizona danez, eta lotsa eta itzal andi bat izan bear deutsegu bere duintasun eta Abadetasunari; alderatu bear doguz bere begiak bere argaltasunetik eta onrau bear dogu bere eginkizun eregi eta goratua; ause da, irakatsi onetik atera bear dogun onerea.

JAZOEREA

Konstantino Agintari andiak, Apezpikoai edo Obispoai eta Abade eta Eleizgizonai eukiten eutsezan lotsa, itzal eta gizaona, ainbesterañoko-ak ziran eze, bein baten Batzar Santu batera joan zanean, ez eban jarri gura izan, bertan egozan Apezpiko eta Eleizako guraso santuen aurrean, arik eta jarri zeitela agindu eutsen artian; eta bere bizitzan bein baño sarriago esan oi eban:— «Gaiztakerien bat egiten eban Abadea, estaldu eta gorde gura leukeala bere soñeko agintariarenaren beian, munduaren begiraunetik zainduteko».

Irakatsi 22.a:

Ezkontzako Sakramentua. Bere izatea

Zetarako da Ezkontzako Sakramentua? Ezkontuteko eta ezkonduai grazia emoteko, alkarren artian bakean bizi daitezcan eta seiñak zerurako azi dagiezan.

AZALDUEREA

Nok egin eta imini eban Ezkontzea? Jaungoikoak munduaren asieran baituera bat legez, eta Jesukristok eregi eta goratu eban baituera au Sakramentu izatera, emoten eutsala Eleizeari, Ezkontzea egiteko eskubidea.

Zer dator esan danetik? Balio andiko etorri bi: 1. da, bakarrik Eleizeari, Sakramentu onen eta beste enparauen emontzallea danari,



dagokola, Ezkontzearen gañeko gauzak ezagututea, eta beraugaitik ezkongaien zerzeridadeak eta prestaerak izentetea; 2. kristinauen artian ezin alderatu leitekeala baituerea Sakramentugandik; alan bada, badago baituera egiazkoa, badago bere Sakramentua; eta ez badago Sakramenturik, ez dago ezer, naste edo alkartasun loi bat ezpada.

Erreñuko eskubideak agindu leike zerbait Ezkontzearen gañean? Ezin ezer egin leike, Sakramentua dan aldetik, Ezkontzeari dagokazan gauza sagraduen gañean; bakarrik egin leike munduko gauzen joanetorrien gañean, diran legez, eskongaiak ezkontzara eroaten dabeen ondasuna, ondasun onen jaubegei nor izango dan, eta beste onelango gauza sagraduak ez diranak.

Eta zer egin bear dabe kristinauak, txarto deituriko matrimonio zibila iminita dagoan lekuetan? Ezkondu bear dira, Jaungoikoak aginduten daben legez, arturik Sakramentua; eta gero bete leikee, erreñuko legeak aginduten dabena, etorri leitekezan burukomiñak eta kalteak ez eukiteko.

Eta batu izan diranak, erreñuko legearen erara, edo ezkondu izan diranak eragozpen ezkontza-desegilleagaz (au isilekoa izan arren bere) egon leitekez bakean eta rimako kezka bagarik? Ezelanbere ez: Jaungoikoaren aurrean ez dagoz ezkonduarik, eta bai aurkituten dira pekatu ilgarrian.

Zer egin bear da Ezkontzearen aurretik? Iru gauza; 1. egin biziarearen autuerea eta artu gurasoen eretxi-ona; 2. ikasbide kristinaukorraren azterrena; eta 3. deionak irakurtea.

Balio andikoa da biziera aututea? Ain andikoa da eze, biziare ondo eta denporaz aututetik ozta beti dator bizitza onetako zoriontasuna eta gure arimen salbazinoe betikoa.

Zer egin bear dogu, biziare ondo aututeko? Erregu eta eskari beroakaz zuzendu bear gara geure Jaungoikoagana, eta gurasoi eta konfesorai eskatu bear jake eure eretxi-ona, norberaren grina txarrai eta mundu onetako onera eta irabaziai batbere jaramonik egiten ez jakela, eta bai obeto begiraturen jakela ezkongaien ontasunari, onoidadeai, erreljinoa-ganako eta siniste santuaganako makurtasun eta zaletasunari.

Zetarako da, deionak edo eleiz-deiak irakurtea? Jakiteko ete dagoan senitasunen bat edo eragozpenen bat, Ezkontzea galarazo leikeana.

Eta badagoz, eragozpenak agertu eta esateko eginbearrean, eurak jakin ezker? Bai, pekatu ilgarriaren beian; eta ala ez egitea da, ezkonduai eurai kalte andi bat egitea.

Zergaitik egin bear da ikasbide kristinaukorraren azterrena, ezkondu baño lenago? Zelan ezkonduak artuten dabeen euren gañean, euren

semealabak ondo azi eta erreljinoeko gauzetan argituteko eginbear edo zeregin estua, jakin bear dabe, atarako jakin bear dana.

Zelango onerea atera bear dogu irakatsi onetik? Bizierearen autuereari begiratutea balio guztiz andiko gauza bateri legez, geure gogoa eukiten dogula erdaldunen esaera au «Ezkondu baño lenago, begiratu zer egiten dozun».

JAZOEREA

Guraso on eta Jaungoikoaren bildurrekoak ziranen alaba bateri emonik eutsan ezkontuteko berbea osagille gazte batek. Ezteguetako eguna eldu baño amar egun lenago, osagille gazteak bere ezkongaiaren amari erregutu eutsan, itxi egiola bakarrean berba egiten bere alabeagaz. Amak ukatu eutsan, eskatu eutsana, zirautsala: bere alabeak ez ebal bakarrean berba egingo iñoz gizon bategaz bere.— «Orregaitik bere, barriro esan eutsan osagille gazteak: ni laster izango naz bere senarra, eta daukat isileko gauza bat, berari esan bear deitsadana».— «Bere senarra zareanean, izango da zeurea, erantzun eutsan amak: bitartean nik zaindu bear dot neure alabea».— Orduan osagille gaztea ikusi zan, bere barruko gauza isilekoa agertuteko premiñan, eta esan eutsan amari: berak ez ebal gura besterik ezpada aitatu eta esan bere alabeari, zelan zan bere borondatea, biyak egin egien konfesinoe pekatu guztiena, ondo prestau zeitezan, Ezkontzako Sakramentua artuteko. Amak, au entzunik, pozez beterik lantzanduten dau bere suina izango zana, edo suingeia, eta itxiten deutso bere alabeagaz bakarrean berba egiten, eta biyak ain ondo prestau zeitezen. Amak agindu eban, zortzi egunean esan zeitela Meza Santua, Jaungoikoak bedeinkatu egian Ezkontzea; eta ezteguetako egunean biyak batera joan ziran gure Jauna artutera, pekatuen konfesinoe guztirakoa egin izan eta gero.— Zeinbat dontsuagoak eta zoriontsuagoak izango litzatekezan Ezkontzak eta munduko alkartasunak, ezkongei guztiak alan prestauko balira, Ezkontzako Sakramentu au artuteko.

Irakatsi 23.a:

Ezkontzaren azkenak eta eginbearrak

Andia da Sakramentu au? Alan irakasten dau San Pablok, diñoanean: «Sakramentu au da andia Kristogan eta Eleizeagan».



AZALDUEREA

Zer esan gura dau orrek? Ezkontzea dala batuera santu bat, Jesukristoren eta Eleizearen artekoa legez, eta beraugaitik, ezkonduak alkar maitetu bear dirala, Kristok Eleizea maite daben legez; eta zelan Jesukristok bakarrik Eleizea ezagututen daben bere emaztetzat, eta Eleizea beti dan Jesukristorena, alan ezkonduak osoro eta beti izan bear dira bata bestearenak; eta zelan Jesukristok ez daben inoz deslai itxiten Eleizea, eta Eleizea bere ez dan aldenduten Jesukristogandik, alan senarra eta emaztea beti alkarregaz bizi bear dira eriotzara arteraño, bata bestea-gandik inozbere aldendu бага.

Zeintzuk dira Ezkontzearen azkenak? Lenenak eta berarizkoenak dira bi: 1. bata besteari lagundutea, ez bakarrik lurreko gauzetan, baitabe-re eta batez bere arimakoetan, Jaungoikoa maitetu eta arimak betiko zorio-neko egiteko aleginak, alkarren artian egiten dituezala; 2. semealabak zerurako ondo azitea, eta eginbear au ez dabe ondo beteko, bakarrik begi-ratuten badeutse lurreko premiñai, eta ez badauke, Jaungoikoaren bildu-rrean eta zerurako bidean aziteko ardurarik.

Zelango zerzeridadeak euki bear dira, Sakramentu au egiaz eta bene-tan artuteko? Ezkongeiak ezagutu bear dabe zer egiten daoan, euki bear dituez izentauriko urteak, borondate egiazkoa, eta ezkondu bear dira Arimazainaren eta ikuslen aurrean.

Eta Sakramentu au, duinoro, au da, pekatu-ekin egi-arte, artuteko, zer geiago bear da? esan danaz gañetik: 1. Jaungoikoaren bakean eta gra-zian egotea, dalako bizien Sakramentua, eta orregaitik konfesau eta komulgau bear da, artu baño lenago; eta 2. euki bear da asmo artez eta zuzen bat, ondo gogoraturik, Tobiasen bere emazte Sarari esaten eutsana: «Gu gara santuen semeak: ezin ezkondu geintekiz, Jaungoikoa ezagutu-ten ez daben jentilaak legez».

Zelango egitadeak egiten dituz Sakramentu onek? Lenengo, geituten dau grazia santuegintzallea; 2. egiten dau alkartasun urratuezingarri bat ezkonduen artian, Jaungoikoak berak ezpada bestek askatu eta urratu ezin leikeana; eta 3. emoten dituz, ezkonduen zereginak eta eginbearrak ondo betetako laguntasun eta graziak.

Zer esan gura dau, ezkontzan egiten dan elestunen benedezinoak? Ezkonduak alkarri euki bear deuten leiyaltasuna.

Zetarako dira, ezkontzea egin eta bereala esaten dan Meza Santuak eta egiten diran benedezinoe ezkontzakoak? Jaungoikoari eskatuteko uga-ritasun santu bat eta beste grazia batzuk ezkontuentzat.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Ezkontzeari begiratutea biziera santu bateri legez, zeñetan ezkonduak santutu bear dabeen, ondo eta ziatz beterik euren eginbear eta zereginak, eta euren biziera santu eta onagaz euren semealabai onbidea emonik.

JAZOEREA

Etxe bateko ezkondu batzuk bizi ziran, euren artian guztiz ikaraga-rrizkoak ziran aserre eta burruka geratubagakoetan. Etxe atan bizi zan gizon batek, jakinik ondo zer jazoten zan eurakaz, egun baten urten eban bere gelatik etxe ondoko leku batera, senar eta emazte areek inoz baño aserretuago ebilzanean, eta bere indar guztiagaz asi zan dearka esaten:— «Suba, suba». Ezkondu areek, bereala itxirik alde batera, erabillen atrala-kada, aserre eta burrukeari, urtetan dabe euren bizilekutik, nun zan suba jakiteko gogo eta asmuagaz. Euren auzoko gizon arek erantzun eutsen, zirautsela:— «Infernuan dago isioturik suba, betiko aserre, burruka eta gorrotoan bizi diran ezkontuentzat».



BOSTGARREN ZATIYA: TXAR-OIDADEAK ETA ON-OIDADEAK

Irakatsi lenengoa: Txar-oidadea guztieran. Txar-oidade sustraizkoak

Esan egizuz sustraizko pekatuak.— Dira zazpi: 1. andikeria; 2. zikozkeria; 3. loikeria; 4. aserrakeria; 5. guleria edo jatunkeria; 6. ondamua edo bekaizkeria; eta 7. nagikeria. Pekatu oneek, geienezan ilgarriak izanik, zelan deituten jake sustraizkorrak? Sustraizkorrak deituten jake, eurotatik erneriko beste pekatu batzuen buruak, iturriak eta sustraiak legez diralako; ez jatorke barriz ain ondo pekatu ilgarrien izena, bada askotan ariñak baño ez dira. Noz dira ilgarriak? Jaungoikoari eta lagunari euki bear jaken maitetasunaren ausialdietan. Noz austen dabe maitetasuna? Eurokgaitik Jaungoikoaren aginduak eta Eleizakoak gauza andian austen diranean. Zer da andikeria? Inor baño geiago izateko gurari bidebagakoa. Zer da zikozkeria? Da ondasunen gurari geiyegi bat. Zer da loikeria? Da aragizko zantarkerien eta atsegin loiyen gurari erabagako bat. Zer da aserrakeria? Bengetako gurari oker bat. Zer da guleria edo jatunkeria? Jateko eta edateko gurari geiyegi bat. Zer da ondamua edo bekaizkeria? Besten ona ikusiezina. Zer da nagikeria? Gauza onak egiteko jausitasuna edo atzera-pena.

AZALDUEREA

Zer da txar-oidadea? Da txarrerako oiturea, ekandua, makurtasuna edo zaletasuna, edo Jaungoikoaren legearen kontrako egikerak egitea.

Zeinbat eratakoea izan leiteke? Berezkoa eta norberak arturikoa.

Zer da txar-oidade berezkoa? Gure izate argal eta zaurituak txarrerako euki daroan makurtasuna, eta onegaitik minduten zan Apostoloa, esaten ebanean: «Jaungoikoaren legeak atsegin duten nau, baña ikusten dot beste lege bat neure gorputzeko aldetan, nire borondatearen kontra-koea dana, eta pekatua naraia».

Txar-oidade berezkoa pekatu da? Ez; pekatu ez dan legez, pekatu egin al izatea; eta bai lenago irabazten dira zerurako garaitza eta merezi-mentuak, txar-oidadeak jarki eta gogor egin ezkeri alegin guztiagaz.

Zer da norberak arturiko txar-oidadeak? Pekatu mota batzuetan sarri jausiagaz, egiten dana, berbarako, ordituteko ekandua edo zaletasuna, sortu eta egiten da edan larregian eta geiegian sarri jausiagaz.

Txar-oidadea beti da pekatu ilgarria? Jaungoikoaren legea gauza andian austera eroaten bagaituz, eta aleginak egiten ez badoguz, bera azpiratu eta goituteko, geituten dau pekatuaren anditasuna; berari jarki eta gogor egin arren bere, nozbait bagara goituak eta jausten bagara pekatuan, gitxitu eta arinduten dau pekatuaren astuntasuna; pekatu egiten bada bearreko ezaupera бага, azpiratu eta goitu gura dogun ekandu txar edo txar-oidadearen indarrez, izan leiteke, pekatu ez izatea; Jaungoikoaren legea bakarrik gauza txikian edo ariñean austera eroaten bagaituz, izango da pekatu ariña.

Bardin da norberak arturiko txar-oidadea zein da pekatua? Ez; pekatua da, legea austen daben egikera guztia, eta onetarako asko eta naikoa da egikera bakar bat; ekandu txarra edo txar-oidadea da pekatuak erraztasuna edo makurtasuna, mueta bateko pekatuak sarri eginagaz sortu eta egiten dana.

Badago beste desbardintasunik ekandu txarreraren edo txar-oidadearen eta pekatu ilgarriaren artian? Bai; pekatu ilgarria da, Jaungoikoagazko bakean eta grazian batera egon ezin leitekeana, eta beraugaitik, pekatu ilgarrian dagoana, ezin sartu leiteke zeruan; ekandu txarra edo txar-oidadea barriz egon leiteke Jaungoikoagazko bakean eta grazian batera, eta beraugaitik, ekandu txarragaz dagoana, joan leiteke zerura, pekatu ilgarri-rik euki ezik.

Azaldu eta adierazo egizu ori irusiategaz.— Gizon batek gorrotau eta autortuten dau, bear dan legez, berak daukan ekandu txar edo txar-oidadea, barriro pekatu-rik ez egiteko gogo eta asmo sendoagaz; prestae-ra on onetan dagoan artian, eta beste pekatu-rik ez daukan artian, egongo da Jaungoikoagazko bakean eta grazian, pekatu-rik makurtasuna, ekandu txarra egiten dabena, galdu ez arren bere.

Zelango ekandu txar edo txar-oidadetatik iges egin bear dogu ardurarik berarizkoenagaz eta andienagaz? Aita Astetek aitatu eta azalduten dituzan, eta beste ekandu txar askoren sustraiak eta buruak legez diran zazpi sustraizkoakgandik.

Zer egin bear dogu, ekandu txar orrekandik iges egiteko? Egin bear dogu alegin guztia, euren kontrakoak diran on-oidadeak artu eta geugan-



duteko, grazia zerukoa lagun dogula, eta ontasuneko egikera asko egiten doguzala; eta auxa da, irakatsi onetaik atera bear dogun onerea.

JAZOEREA

Gizon batek, bere soloan edo kanpoan ebillela, aurkitu eta artu eban, ziraunez beterik egoan abiya bat; eroaten dituz bere etxera ziraun ain arriskugarritzkoak, eta jaten emoten deutse ardurarik andienagaz. Andik iru astera joan zan etxe atara bere adiskide bat, bera ikustera:— Zer egiten dozu? esan eutsan adiskideak guztia arriturik eta ikaraturik; ziraunak, txikiak eta gaztetxuak dirala, itoten ez badituzuz, eta eurai jaten emoten jarraituten badozu, laster eta bereala aziko dira, aginka egingo deusue, eta galduko zara, zurtasun gitxi daukazulako. Itxi egioezu orrelango lelokeriai, erantzun eutsan bere adiskideari, oraindik txikiak dira, eta bestetik artuten ditudaz eurakaz bearreko ardurak; andiak eta arriskugarritzkoak diranean, egingo dot alegina, eurak ito eta neure begien aurretik kenduteko.— Uste larregia eta gauza txarra da ori, artuko zaituez, uste бага zagozala...— Ezin ezagutu eragin al izanik adiskideak gizon ari alako arriskua-ren anditasuna, alde egin eban etxe atatik, baña bere barruan kezka andi bat eroiala. Andik amabost egunera joan zan adiskidea gizon a barriro ikustera, eta orra nun aurkituten daben guztizko min andiakaz; ziraunak azi ziran eta aginka egin eutsen gizonari; adiskidea bereala asiten da osagarriaren billa, baña belu zan; pozoiak edo benenoak indar andiak artu zituzan ordurako, sartu zan biotzeraño, eta gizon ardura gitxikoa il zan bere adiskidearen besoetan.— Auxa da askogaz jazoten dana: guztiok darabilguz geure barruan griña eta pekatu guztien sustriak; ez badaukagu eurak itoteko ardurea, txikiak diranean, eta eurai atsegin emon eta janarituten badoguz, aziko dira, eta azkenean ilgo dabe arimea, pekatu ilgarran jausi eraginagaz.

Irakatsi 2.a: On-oidadeak guztieran

Esan egidazuz zazpi txar-oidaden kontrakoen zazpi on-oidadeak. Bai, aita, eta dira: andikeriaren kontra, umiltasuna; zikozkeriaren kontra, prestutasuna edo emongurea; loikeriaren kontra, garbitasuna; aserrakeriaren kontra, onez iragotea edo eroapena; guleriaren edo jatunkeriaren kontra, jan-edanean begiratua izatea; ondamuaren edo bekaizkeriaren kon-

tra, amodioa edo maitetasuna; eta nagikeriaren kontra, prestutasuna. Zeinbat dira Jaungoikoaganako on-oidadeak? Iru, eta dira oneek: Sinismena, Itxaropena eta maitetasuna.

AZALDUEREA

Zer da on-oidadea edo birtutea? Gizona ontasun osora eroaten dabena, eta gauzak ondo egiten lagunduten deusana.

Zeinbat eratakoak izan leitekez on-oidadeak? Berezkoak eta izatez gañetikoak.

Zer da on-oidade berezkoa? Ontasunaren asiera berezkoetik urtenik, azken berezko batera zuzenduten dana; barbarako, gizonen arteko premiñak ikustetik sortu eta jaioten dan errukitasun berezkoa.

Zer da on-oidade izatez gañetiko? Zergaititasun izatez gañetiko batetik urtenik, azken izatez gañetiko batera zuzenduten dana; barbarako, Jaungoikoaganako maitetasunagaitik eukiten dan prestutasuna, premiñan dagoanari lagunduteko, geure pekatuen zorren onderako, eta beste onelango gauza izatez gañetikoak.

Beste zeintzuk eratakoak izan leitekez on-oidadeak? Jaungoikoak guri emonak eta geuk geure aleginez artuak.

Zeintzuk dira, Jaungoikoak guri emonak? Jaungoikoak gure arime-tan isuri, inkau eta ezarten dituzanak, guk geure aldetik ezer egin бага; eta au batez bere egiten da Sakramentuen bitartez.

Zeintzuk dira, geuk geure aleginez artuak? Jaungoikoaren grazia lagun dogula, eta mueta bat bateko egikera on-oidadetsuak sarri eginagaz, irabazi, jaritxi eta geuganduten doguzanak.

Beste zein desbardintasun aurkituten da, on-oidade Jaungoikoak emonikoen eta geure aleginez arturikoen artian? Guk geure aleginez arturiko on-oidadeak, sortuten dabe eta dakarde erraztasuna edo makurtasuna, eta Jaungoikoak emonikoak, ez; bada oneek obeto dira prestaera oitukorrek, on-oidadeko egikerak egiteko.

Beste zeinbat eratakoak izan leitekez on-oidadeak? Adinari dagokozanak, eta adinaren ontasunari begiratuten deusanak; oiturakorrek, eta oneek dira, oituren ontasunerako diranak; eta Jaungoikoagazkoak, eta oneek dira, Jaungoikoagnako alkartasuna edo batutasuna egiten dabenak.

Zelango desbardintasuna aurkituten da, Jaungoikoagazko on-oidaden eta beste enparauen artian? Jaungoikoagazkoak guk geure aleginez ezin irabazi eta geugandu ginaikez, dagoz gizonaren alizatearen gañetik, eta beraugaitik, eurenz beti dira, Jaungoikoak emonak; beste enparauak



izan leitekez aleginez irabazi eta artuak, eta baitabere Jaungoikoak gure arimetan isuriak eta ezarriak.

Zeintzuk dira on-oidaderik ederrenak, eregienak eta goratuenak? Jaungoikoagazkoak, eta oneen artian da maitetasuna.

Zeintzuk dira on-oidaderik ederrenak, eregienak eta goratuenak oiturakorren artian? Asigarriak edo lenenak deritxoenak, eta oneen artian da zuzentasuna.

On-oidade oiturakorrak aurkitu leitekez gizonagan, batzuk euki eta besteak euki bagarik? Oso osoan onak badira, ez, eta alan bat galdu ezke-ro, galduten dira beste guztiak; ez badira guztiz osoak, edo badira makurtasun berezkoak, bai; bat izan leiteke errukiorra, eta denpora berean izan leiteke nagia eta alperra.

Zelan galduten dira on-oidadeak? Zuzen galduten dira, on-oidadearen kontrako gauzak eginagaz; ez ain zuzen, on-oidadeak irakasten dabena ez eginagaz.

Grazia galdu ezke-ro, galduten dira on-oidade oiturakorrak? Oso osokoak edo izatez gañetikoak badira, bai; guztiz osoak ez badira, edo makurtasun berezkoak badira, ez.

Jaungoikoagazko on-oidaden eta bakotxaren biziareari dagokazanen ostean, zein da oiturakorren artian, guk geiagotan euki bear doguna? Daukagun griña edo ekandu txararen kontrakoa dan on-oidadea; eta auxa da, irakatsi onetik atera bear dogun onerea.

JAZOEREA

San Francisco Saleskoak diño: «Erlen erregiñak ez dabela iñoz urte-ten kanpora, bere erle-legunak eta otseinak beragaz eroaten ez dituzala; eta karidadea edo maitetasuna ez dala iñoz sartuten biotzean, beste enparau on-oidade guztiak beragaz ez daroazala. Gure eginbear berarizkoari ez dagokozan onoidaden artian, geiagotan euki bear doguz, eregienak diranak, eta ez argitsuenak diranak; sendoenak diranak, eta ez ederrenak diranak. Ondo da, bakotxak on-oidade berarizko bat eukiteko aleginak egitea, ez beste enparau on-oidadeak deslai legez itxiteko, ezpada arimea menderatuago eukiteko. Ekandu txarren bat azpiratu eta goitu gura dogu-nean, bere kontrako on-oidadea eukiteko aleginak egin bear doguz, onetara zuzenduten doguzala beste enparau on-oidadeak; bada onelan ez bakarrik goituko doguz geure arerioak, baitabere egingo doguz aurrerapen andiak on-oidadeko bidean. Burruka egin bear badogu andikeriaren eta aserrakeriaren kontra, makurtu egizue zeuen biotza umiltasunagana eta gozotasunagana, zuzendu egizue onetara zeuen eskari eta erreguak,

Sakramentuak, eta beste enparau on-oidadeak, diran legez zurtasuna, iraupena, jan-edanean begiratu izatea eta beste enparauak».

Irakatsi 3.a:

On-oidade asigarriak edo lenenak

Esan egizuz on-oidade asigarriak edo lenenak.— On-oidade asigarriak edo lenenak dira lau: 1. zurtasuna; 2. zuzentasuna; 3. sendotasuna; eta 4. begiratu izatea.

AZALDUEREA

Zergaitik deritxoe asigarriak edo lenenak lau on-oidade onei? Diralako on-oidade oiturakor guztien asiera eta jatorriak legez.

Zer da zurtasuna? Da on-oidade bat, irakasten deuskuna, zer dan ona eta Jaungoikoaren gogokoa, zeintzuk diran, gauzak ondo egiteko bideak, noz, nun eta zelako zerzeridadeakaz egin bear diran, gure egikerak izan daitezcan osoro eta guztiz onak.

Zeintzuk on-oidade dira, zurtasunaren alabak legez eukiak izan bear diranak? Lenik-ikustea, mesedeak edo kalteak igarten dituzana; senerea, gauzak eldutasunagaz neurtuten dituzana; artustea, eginbiderik adjutuenak eta egokienak aututen dituzana; norberagan uste gitxi eukitea, eta jakitunen eretxi eta esanai erraz eta laster jarraitutea.

Zeintzuk dira zurtasunaren kontrako ekandu edo txar-oidadeak? Urduritasuna, gogoarterik eza, deslaia, eta zurtasunik-eza; eta baitabere zurtasun aragikorra, astuzia edo gaizgandea, engañuz, malmuzkeria eta lurreko gauzakganako ardura larregia.

Zer da zuzentasuna? Da on-oidade bat, bakotxari berea emotera aurreratu eta zirkinduten gaituzana.

Zeintzuk on-oidade dira zuzentasunaren alabak? Errelijinoa, Jaungoikoari zor jakona emotera, aurreratu eta zirkinduten gaituzana; biotz-eukierea, senideai zor deutseguna egitera, aurreratu eta zirkinduten gaituzana; esanekotasuna, nagusiagoai eta zarragoai zor deutseguna egitera, aurreratu eta zirkinduten gaituzana; esker-ontasuna, ongillai eta masedegillai zor deutseguna egitera, aurreratu eta zirkinduten gaituzana, eta adiskidetasuna, adiskideai zor deutseguna egitera, aurreratu eta zirkinduten gaituzana.



Zeintzuk ekandu edo txar-oidade dira zuzentasunaren kontrakoak? Jaungoikoganako eta besteakganako daukaguzan eginbearrak egitera, atzeratuten gaituezanak, diran legez biotzberabakotasuna, errelijinoebakotasuna, gurasoakganako gogortasuna, eskerbakotasuna, esantzarrekotasuna, eta, guztia batera esateko, okertasun guztia.

Zer da sendotasuna? Da on-oidade bat, ondo egin eta geure eginbearrak bete bear doguzanean, agertuten jakuzan eragozpenak, gatxtasunak eta arriskuak azpiratu eta goituten, lagunduten deuskuna.

Zeintzuk on-oidade jaioten dira sendotasunetik? Uste betea, arriskuak arpegi emoten deusena; arimandigoa, egikera andiak eta goratuak egiteko aurrerabidea emoten dabena; ekinandigoa, gura dan gauzea jaritxi eta alkantzetako, bearrekoak diran eginbideak laster iminteko, aurreratu eta indartuten dabena; iraupena, azkeneario lana egiten, lagunduten dabena; eta eroapena, bizitzako eragozpenak, atsekabeak eta naibageak onean eta bakean iragoteko, indartu eta aurreratuten dabena.

Zeintzuk ekandu edo txar-oidade dira sendotasunaren kontrakoak? Geiyegiak diran aldetik, bildurbakotasun larregia, azartasuna, arrotasuna eta antustea; eta gitxiegiak diran aldetik, bildurra, biotzeko-jausitasuna, epeltasuna eta munduko esamezganako bildurra.

Zer da begiratu-izatea? Gorputzeko zentzunak eta atseginak ondo neurtu eta zuzenduten dituzana.

Zeintzuk on-oidade jaioten dira begiratu-izatetik? Jan-urritasuna, janari bearrekoak bakarrik artuten, irakaste dabena; edan-urritasuna, edarrietan neurtua izaten, irakasten dabena; garbitasuna, aragiaren atseginak eta gozotasunak euren neurrian euki eragiten dituzana; moduztasuna, gizonari ganora onean ibili eta gauzak egiten, irakasten deusana; umiltasuna, agerturik guri geure ezereztasuna eta argaltasunak, ezagutu eragiten deuskuna, gu gagozala Jaungoikoaren mendean eta premiñan; eta gozotasuna, arimako urduritasunak ezi eta menderatuten dituzana.

Zeintzuk ekandu edo txar-oidade dira on-oidade onen kontrakoak? Begiratu-izatea, ordikeria, loikeria, andikeria, eta eurokgandik datozen beste enparau guztiak.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Zelan gizon zur eta jakitun batek egiten daben alegin guztia, bere etxea zimentu onetan egin eta jasoteko; alan guk egin bear dogu alegin guztia, on-oidade oneen zimentu gogor eta sendoa aurkituteko eta bere ganean gure arimako etxe ona egiteko.

JAZOEREA

Gaumek dino: «zelan dagozan amar agindu, zeintzuetara zuzenduten diran beste enparau guztiak, alan dagoz amar onoidade, zeintzuetara zuzenduten diran beste enparau guztiak; (on-oidade oneek dira iru Jaungoikoagazkoak, iru adinkorrek eta lau asigarriak edo lenenak) eta zelan dagozan iru agindu, Jaungoikoaganako daukaguzan eginbearrak irakatsi eta zuzenduten dituezanak, eta beste zazpi agindu, guk geuganako eta bestekganako daukaguzan eginbearrak irakatsi etaz zuzenduten dituezanank; alan dagoz iru on-oidade, Jaungoikoagana zuzenduten diranak, eta zazpi geugana eta besteakgana zuzenduten diranak. Eta azkenez, zelan agindu guztiak dagozan zarraturik karidadeko edo maitasuneko aginduan, alan on-oidade guztiak zuzenduten dira eta dagoz zarraturik, on-oidade guztien asiera eta azkena da maitasuneko on-oidadean».

Irakatsi 4.a:

Arimearen arerioak: esetsiyak

Zeinbat dira arimearen arerioak? Iru: mundua, demoninoa eta aragia. Zer aditu bear da mundua esanagaz? Gizakume gaizto, donga eta nasaiyak. Nor da demoninoa? Jaungoikoak zerurako eginiko aingeru bat, gero Jaungoikoari berari jarki eta matxinatu jakolako, bere lagunakaz betiko infernuan ondaturia izan zana. Zer da aragia? Gure gorputz au berau bere griña eta makurtasun txarrakaz. Zelan goitu eta iges egiten da munduagandik? bere andikeriai eta arrokeriai jaramon egin ezagaz. Zelan goitu eta iges egiten da demoninogandik? Erreguagaz eta umiltasunagaz. Zelan goitu eta iges egiten da latztasunagaz, ezigarriagaz eta barauakaz; auxa da areriorik andiena eta bildurgarriena, geugandik ezin bota ginaikealako, mundua eta demoninoa legez.

AZALDUEREA

Zer da esetsiya edo tentazinoa? Da pekatutako zirkingarria edo biztugarria, munduagaitik, demoninoagandik edo aragiagandik jaio eta etorri leitekeena.

Ez dino bada Eskritura Santuak, Jaungoikoak esesten dituzala bere serbitzallak? Esaten da, Jaungoikoak esesten dabela, bai Berak gure ari-men onerako itxi eta laketuten dituzalako gure arerioen esetsiyak edo tentazinoak, edo bai Berak ondo ikusi gura dabelako gure beraganako leiyal-



tasuna edo amodioa, guri gauza gatzak eta neke andikoak eskaturik; eta esangura onetan esaten da, Jaungoikoak esetsi ebala, au da, ikusi ebala Abrahamen leiyaltasuna.

Esetsiya pekatu da? Esetsi batbere ez da pekatu, danik luzena eta eragokiena izan arren bere, aragiari zirkinen bat eragitera eta arimeari atsegin ustebagakoren bat artu eragin arren bere.

Noz izango da bada pekatu? Bakarrik borondateak bere naiya edo baiya emoten dabenean, edo ezauperazko atsegina artuten dabenean pekatuan, pekatua egitez egin ez arren bere.

Esetsiak eukitea da arima txarto dagoanaren ezaugarria? Guztia da bestera; esetsiak eukitea da, on-oidadeko bidean eta ontasunean aurrerapenak egin gura dituezan arimai dagokoena; alan diño San Pablok: «Jesukristogan biotzberaro bizi gura dabeen guztiak, iragoko dituezala esetsiak».

Zergaitik alan? Gauza berezkoa dalako, demoninoak bakean itxi dagioela, bere bereak diran arima txarrai, eta zuzendu dagizala bere esetsiak eta indarrak Jaungoikoaren serbitzalla egiazkoagana; zelan dan gauza berezkoa, aragia mukertu eta jagi daitela, bera azpiratu, ezi eta menderatu gura danean, eta egon daitela bakean, atsegin guztiak artuten, berari itxiten jakonean; eta zelan dan gauza berezkoa, munduak maitetu dagizala, bere bereak diranak, eta gorrotau dagizala, Jesukristorenak diranak.

Zergaitik itxi edo laketuten dau Jaungoikoak, gure arerioak gu esetsi gagezala? Batez bere bost gauzatarako: 1. gure beraganako leiyaltasuna ikusteko; 2. arimako lanetan guri biarra eragiteko; 3. gure umiltasunerako; 4. gure eginsarirako; eta 5. gure zoriontasunerako.

Zelan dira esetsiak, gure Jaungoikoaganako leiyaltasuna ikusteko? Eurak agirian iminten dituezalako Jaungoikoaren serbitzallen leiyaltasuna, eroapena, maitetasuna eta sendotasuna. Alan esetsien bitartez argi egin eben Joben eroapenak, Abrahamen leiyaltasunak, martiren sendotasunak eta santu guztien egikera miragarriak.

Zelan dira, arimako lanetan guri biarra eragiteko? Zergaitik zelan soldadua, gerra-denporan, beti egoten dan zur, gertu eta prest; alan arima leiyala biziten da ardura eta berotasun geiagogaz, arerioz inguruturik eta esetsiz beterik ikusten danean.

Zelan dira gure umiltasunerako? Esetsiak agertuten deuskuezalako geure ezereztasuna eta argaltasuna, eta eroaten gaituezalako, indarra eta laguntasuna Jaungoikoagan billatutera.

Zelan dira gure eginsarirako? Azpiratua eta goitua dan esetsi bakotzagaz, indartu eta sendatuten da, bere kontrakoa dan on-oidadea, eta

emoten deuskulako graziaren geitupena eta irabazi barri bat zeruko zoriontasunerako.

Zelan dira gure zoriontasunerako? Ezin egon leitekealako arorik edo koroarik, garaitza bagarik; eta garaitza egoteko, egon bear dabe burrukak, gudak eta esetsiak; alan diño Apostoloak «ez dala izango arotua edo koronaua, ondo burrukan eginik, azkeneraño irauten dabena ezpada».

Au onelan dala geuk billatu bear geunkez esetsiak, edo eurak eukiteko aleginak egin bear geunkez? Ezelan bere ez; ori izango litzateke antustea eta arrokeria andi bat eukitea, Jaungoikoak ondo kastigauko leukeana, pekatuan jausten guri itxiagaz.

Bada zelan artu bear dira esetsiak? Umiltasunagaz eta bildur osagarriagaz, ezagututen dogula geure uste guztia, geure onerako laketuten dituzan eta deslari itxiko ez gaituzan Jaungoikoagan, eta geure aldetik alegina egiten dogula, geure indarrakaz, zeruko laguntasunakaz eta itxaropen osoagaz azpiratu eta goituteko esetsiak eta tentazinoak.

Zelango egiak euki bear doguz geure gogoan, esetsiak edo tentazinoak etorten jakuzanean, deslaurituri eta kikildurik eta guztiz larriturik ez geratuteko? Urrengo oneek: 1. gure arerioak ezin esetsi eta estutu ginaikezala gu, Jaungoikoak eurari laketu edo itxiten deuten baño geiago; 2. Jaungoikoak ez dabela inoz laketu edo itxiko, gu izan gaitzezala esetsiak eta estutuak, gure indarrak al dabeen baño geiago; 3. eginik guk geure aldetik alegin guztiak, Jaungoikoak ez deuskuzala ukatuko, esetsiak azpiratu eta goituteko bear doguzan laguntasun eta graziak; eta 4. demoninoak ezingo dala sartu inoz gure ariman, guk geure guraz eta borondatez edegi eta zabalduten ez badeutsaguz geure barruko ateak.

Zelako eginbideak artu bear doguz, esetsietan edo tentazinoetan ez jausteko? Ez dogu imini bear uste larregirik geure indarretan, eta bai euki bear dogu uste andi bat Jaungoikoagan; errege beroak egin eta eskatu bear dira zeruko laguntasunak; egin bear da alegina, esetsiak lenengo unetik geugandik botateko, eta denpora egokian geure konfesoerari eurak agertuteko; eta onezaz gañera, imini bear dira, Aita Astetek dakarzan osagarriak, gogoan eukirik zein dan azpiratu bear dan arimearen arerioa.

Zein da, irakatsi onetik atera bear dan onerea? Beti zur eta erreguakaz indarturik eta sendaturik aurkitutea, Jesukristok berak dirauskun legez, esetsi edo tentazinoan ez jausteko.

JAZOEREA

Esetsi edo tentazinoe estu, luze eta bildurgarriko bat irago izanik Santa Katalina Senakoak, agertu jakon Jauna berari, eta Santeak esan



eutsan: «Nun zengozan, neure Jaun gozoa, nire biotza ainbeste iluntasunez eta loitasunez beterik ikusten zanean?— Zure biotzaren barruan nengoan ni, neure alabea, erantzun eutsan Jaungoikoak.— Zelan bizi al zein tekezan, barriro esan eutsan Santeak, nire biotz ainbeste ezaintasun eta zikinkeria eukazanagan? Bizi al zara zu leku ain itsusietan eta loiyetan?— Eta gure Jaunak esan eutsan: Esan egidazu: gogorazinoe loi orreek poztuten zinduezan ala estutasuna emoten eutsuen?— Estutasun eta larritasun guztiz andi bat, erantzun eutsan Santeak.— Bada nok artu eragiten eutsuzan estutasun eta larritasun ori, zeure arima barruan ezkutaurik nengoan neuronek ezpada? Sinistu egidazu; ni aurkitu ez banintz an, zure biotzaren inguruan, sartu ezinik eabilzan gogorazinoe txar orreek, sartuko ziran, zeure borondatearen naiyagaz eta baiyagaz, eta ilgo eben arimea.

Irakatsi 5.a: **Almenak eta zentzunak. Latztasunak**

Esan egizuz gorputzeko zentzunak.— Dira bost: lenengoa, begiakaz ikustea; bigarrena, belarriakaz entzutea; irugarrena, aoagaz dastatu edo gusto-artutea; laugarrena, surrakaz usain egitea; bostgarrena, eskuakaz ukututea. Zentzunak eta osterantzeko beste zati gorputzekoak, zetarako emon euskuzan Jaungoikoak? Guztiakaz eta gauza guztietan bera serbietako. Esan egizuz arimearen almenak:— Dira iru: lenengoa, gomutea; bigarrena, adina; irugarrena, borondatea. Zetarako emon euskun Jaungoikoak gomutea? Gomuta geintzen beragaz eta bere mesede guztiakaz. Zetarako emon euskun adina? Ezagututeko geure Jauna eta bera gogoan erabilteko. Zetarko emon euskun borondatea? Bera maite izateko, onik andiena legez, gauza guztien gañean, eta beragaitik geure laguna, geure buruak legez.

AZALDUEREA

Baldin Jaungoikoak emon beuskuzan arimearen almenak eta gorputzeko zentzunak, bera serbiu eta maite izateko, zelan da bada, guztiak txarrerako makurturik egotea, eta Jaungoikoaren gogokoak diran gauzak egiteko, ainbeste atzerakuntza eukitea? Asieran ez zan izan alan; bada gizonek ondo eta zuzen eginik urten eban Jaungoikoaren eskuetatik; pekatua izan zan, okertasun eta naste txar ori ekarri zituzana.

Bada zelan egin eban Jaungoikoak gizona? Graziako eta zuzentasun oso bateko egoera izatez gañetiko baten, zeñetan guztia egoan guztiz artez eta zuzen, aragia arimearen mendean, griñak errazoiaren azpian, eta errazoiak Jaungoikoari menderaturik.

Zelango gatz eta kalteak egin zituzan pekatuak gizonaren izatean? Zeruko grazia eta doe izatez gañetikoak galdu eraginagaz gañera, geratu zan zauriturik bere izatekorretan; adina iluntasunez inguruturik, borondatea txarrera makurturik, griñak eta gurariak errazoiaren kontra jagirik eta aragia arimeari jarkirik.

Bada ez dira parkatuten bateogaz pekatu jatorrizkoa eta bere ondorengo guztiak? Parkatuten dira pekatu jatorrizkoa eta norberak eginik daukazan pekatu guztiak, eurokgaitik zor dan kastigu guzti guztia parkatuagaz batera; baña geratuten da naieragillearen jarkierea, umiltasunerako, burrukarako eta indartsuen irabazi eta garaitza geiagorako.

Zein da, pekatuaren gatz eta kalteak osatuteko, berarizkoa dan onoidadea? Latztasuna, Jesukristok aginduten dabena, diñoanean: «Norbaitek etorri gura baldin badau nire atzetik, bera berari ukatu beitekeo, artu begi kurutzea, eta jarraitu begit».

Zer da latztasuna? Naieragillearen griñen eta gurarien errazoiagazko alkartasun eta jokabide zuzen bat, Jaungoikoaren borondatearen erara.

Zeinbat eratakoa izan leiteke latztasuna? Norberak artua eta norberak gura izan бага, etorriya.

Zetan dago, norberak gura izan бага, etorririko latztasuna? Pozik, edo beintzat onean eta eroapenagaz, iragotean, geure borondatea бага jazoten jakuzan okerrak eta nekeak; diran legez gosea, otza, beroa, geisotasunak, samintasunak, esetsiak, eta beste onelangoak; eta baitabere norberaren bizierako eginbeurrak ondo eta ziatz betebeurrak beragaz dakarzan nekeak eta gatxtasunak.

Zetan dago, latztasun norberak artua? Neketsua eta mingarria dana, billatutean edo norberaren guraz artutean, edo gogokoa eta gozogarria dan zerbait, ez artutean on-oidadeaganako maitetasunik.

Zeinbat eratakoa izan leiteke, latztasun norberak artua? Naita naiezkoa eta onerazpenekoa, eta baitabere barrukoa eta kanpokoa.

Zein da naita naiezkoa? Pekatura eroaten gaituzana, edo Jaungoikoaren aginduak eta norberaren bizierako eginbeurrak ondo betetako eragozpena dan guztia, azpiratu edo kenduteko dana: barbarako, okelarik ezin jan leitekean egunetan, okelarik ez jatea, kalte egin leikean edaririk, ez artutea.



Zein da onerazpenekoa? Ontasuneko bidean aurreratuteagaitik, egin leitekean zerbait, txarra ez dana, ez egitea; berbarako, olgantz a-onantze-ko batera ez joatea, barau egin bear ez dan egunetan, barau egitea.

Zein da barrukoa? Arimearen almenakaz egiten dana, norberaren borondatearen itxiera; eta auxe da osoena eta beteena.

Zein da kanpokoa? Gorputza eta bere zentzunak kastigau, ezi eta nekatuten dituzana; eta auxe da santu guztiak egin izan dabeena, eta guztiz gomendaturik dagoana.

Bearrekoa eta noraezekoa da latztasuna? Latztasun naita naiezekoa da bearrekoa arimearen zoriontasunerako, bada Jesukristok esanik dauko: «Penitentzia egiten ez badozue, guztiok bardinoro galduko zare»: onerazpenekoa da guztiz osasungarria eta ona, eta ontasunean aurreratu gura dabenentzat, da osoro bearrekoa.

Zer zarratu bear dau beragan latztasunak? Gizon guztia, bada guztia beragan dago okerturik eta nasturik; arimearen almenak, zentzunak, griñak eta aragiaren gurariak; Txarra dan guztitik, eurai alde eragiten jakela, pekaturik egin бага egin leitekezan gauzak, nozbait ukatuten jaketzala, eta beti zuzenduten doguzala eurak, siniste santuagaz argituriko errazoiak eskatu eta aginduten daben erara.

Baña latztasuna da gauza gogor eta mingarria.— Osagarria bere, izan arren garratza eta samina, artuten da, gorputzaren osasunerako bearrekoa danean; alan egin bear da latztasuna, gogorra eta neketsua izan arren, dalako arimearentzat ona eta osasungarria.

Dirudi, norbera kastigau eta ezite ori dirala, geuk geuganako euki bear dogun maitetasunaren kontra.— Aragia kastigetea eta bere griñak ezitea da gauza bearrekoa arimearen zoriontasun betikorako, eta beraugaitik da guztiz ondo datorrena, geuk geure buruari zor deusagun maitetasun edo amodio ondo aiturikoagaz; zelan dan guk geuganako euki bear dogun maitetasunaren kontrakoa, pekatura eta betiko ondamendira eroaten gaituezan griña zitalai nasaitasun askatu bat emotea.

Edolabere edo bientzat ezin ukatu leiteke, latztasuna dala gizonaren duintasunaren eta aukeratasunaren kontrakoa. Gizonaren duintasunaren eta aukeratasunaren kontrako gauzea da, aragiaren griña aberekorrak azpiratu eta menderatu dagiela arimea, eta eroan dagiela, aragi ustelkorrak nai daben lekura; baño goratasun eta duintasun andiko gauzea da, arimea izan daitela griña guztien erregiña eta agintaria, eurak ezi eta azpiratu dagizala, eta zuzendu dagizala zeruko bide onetik.

Azkenean bere ez dago ontasun osoa latztasunean.— Egia da; bada ontasun osoa dago maitetasunean edo Jaungoikoagazko batueran; baño,

zelan goiyan dagoan arri bat, berari eutsiten deuten eragozpenak kendi eta bertatik, jausiten dan bere beeko lekura; alan arimea, zeinbat eta lurreko eragozpen, zaletasun eta makurtasun gitxiagogaz aurkituten dan, ainbat eta indar geiagogaz zuzenduten da Jaungoikoagana eta batuten Jaungoikoagaz.

Baña asko dagoz, euren bizierako eginbearrak eta zereginak egin eta bete ezin dituezanak, latztasun eta pennitentzia larregi egin izan dabeelako.— Zurtasuna da, on-oidade guztiak euren neurrian erabili bear dituzana, begiraturik baktotxaren urteai, osasunari, indarra, eginbearrai eta biziereari, eta jarraiturik arimako aita eta zuzentzalle jakitunaren eretxi eta esanai; eta auxe da, irakatsi onetik atera bear dogun onerea.

JAZOEREA

Aita Beneragarri Claretek «Bide zuzena» deritxon bere liburuan dino: «Latztasuna, San Francisco Saleskoaren esaera eta bardinkuntza ederrean, ain bearrekoa jakula zeinda gatza aragiaren edo okelearen iraupenerako dan bearreko eta naita naiezekoa: alan bada, zelan aragi ilak, gatz бага, galduten diran, ustelduten diran eta arreen janari izatera elduten diran, eta gatzagaz barriz iraun eragiten jaken urte guztian; alan guk latztasunaren gatzagaz irauten dogu on-oidadean eta bide onean, eta bera бага izango gara ekandu txarren eta griña zitalen janariak, eta azkenean guztiz eta osoro galduko gara betiko: eta ona emen zergaitik esaten eban San Pablok ainbeste ziurtasunagaz: "*Anaiyak, biziten bazare aragiaren erara, berari atseginak emonik eta latztasunagaz bera ezi bagarik, ilgo zare, kondenauko zare*"; baño latztasunagaz eziten badozue aragia, biziko zare, *salbauko zare*".».

Irakatsi 6.a:

Espiritu Santuaren doiak

Esan egizuz Espiritu Santuaren doiak.— Dira zazpi: 1. jakituriaren doia; 2. adinaren doia; 3. zentzatuaren doia; 4. ulertasunaren doia; 5. sendotasunaren doia; 6. errukitasunaren doia; eta 7. Jaungoikoaganako bilduurraren doia.



AZALDUERA

Zer dira Espiritu Santuaren doiak? Dira oitura izatez gañetiko batzuk, Espiritu Jaungoikozkoak gure arimagan ezarri eta isuriak, ontasuneko bidean aurreratu eragiten deuskuenak, grazia argitasunak leiyal artuteko, gu otzanak eta bigunak egiten gaituezanak.

Zer jakin bear dogu doe oneen gañean? Beti doazala karidadeagaz edo maitetasunagaz alkaturik eta baturik, zoriontasun betikorako bearrekoak jakuzala, gizona aurreratu eta zirkinduten dabeela, on-oidadezko egikerak baño goragoak egitera, Santo Tomasek dirauskun legez.

Zetarako emoten jakuz doe oneek? Zazpi txar-oidade sustraizko, San Antoninok irakasten daben legez, zazpi espiritu txarrak diranai, gogor eta burrukan egin, eta eurak azpiratu daiguzan.

Nundik galduten dira doe oneek? Pekatu ilgarriagaz, bada Sakramentu ezin bizi leiteke, pekatuan dagoan arimeagan, eta barriro artuten dira graziaiaz batera penitenziaren bitartez.

Baldin doe oneek badira, pekatuagaz batera egon ezin leitekezanak, zelan azaldu eta adierazoten deustazu, pekatari askok eta txar eta dongak euki dagiezala uleratsuna, jakituria, indarra eta beste doeak, oneek agertuten ez dituezan arima artez eta zuzenak legez? Ulertasuna, jakituria eta besteak izan leitekez, 1. doe berezkoak legez; 2. Jaungoikoak emoten dituzan grazia berarizkoak legez; eta 3. Espiritu Santuaren doiak legez; lenengo esangura biyetan egon leitekez pekatuagaz batera, eta arima artezak-gan eta pekatariakgan aurkitu leitekez; irugarren esanguran barriz pekatariak aurkitu leitekez; irugarren esanguran barriz bakarrik aurkitu leitekez, maitetasunaren bitartez Espiritu Santuaren bizilekuak diran arimagan.

Bada zelango desbardintasuna dago euren artian, doe berezkoak legez, grazia berarizkoak legez, eta Espiritu Santuaren doiak legez? Doe berezkoak legez dira bakotxaren argitasunaren eta nekearen etorriak eta ondorengoak; grazia berarizkoak legez Jaungoikoak emoten deutsoz, berak gura dabenari, gizonaren batbere neke bagarik, Apostoloai emon izan jakezan legez; Espiritu Santuaren doiak legez, dira arimako ontasunera batzuk legez, arimea prestau eta aurreratuten dabenak, gauza jaungoikozkoetan, gizakumekoetan eta on-oidadeko egikerarik goratuenetan Espiritu Santuaren beraren dei zerukoari jarraitutera.

Azaldu eta adierazo egidazu irakatsi ori irudiategaz jakituriako doian.— Munduak deituten deutse jakitunak, eta alan dira, jakituriako lenengo asierak ezagututen dituezanai; baño pekatuan badagoz, ero eta barbullo batzuk dira jaungoikozko eta arimako gauzetan, euren jakituria andia izan arren bere; bada San Pablok diño: «gizon aragikorak ez ditu-

zala ezagututen, Jaungoikoaren Espirituarenak diran gauzak»: bestera, arima on eta artezak erraz eta laster aurreratu eta zirkinduten dituz jakituriako doiak, jaungoikozko gauzak ezagututera, eta gauza guztiak erabagitutera, ezaupera jaungoikozkoak irakusten deuten erara.

Zeintzuk dira eregiagoak eta goratuagoak, doiak ala on-oidadeak? On-oidade asigarriak edo lenenak dira doiak baño eregiagoak eta goratuagoak; baño doiak dira beste enparau onoidade oituarakorak eta adinkorak guzti guztiak baño eregiagoak eta goratuagoak.

Ze onera atera bear dogu esan danetik? Izanik ain eregiak eta ain bearrekoak doe oneek, askotan eta ezingeiatotan euki bear doguzala guk eurak, esker onagaz artu bear doguzala eta eurak galduteko bildur andi bat euki bear dogula.

JAZOEREA

Gaumek «Iraupeneko Jakinbidea» deritxon bere liburuan, dino: «Jesukristok agertu deusku, demoninoa ariman sartuten danean, beragaz eroaten dituzala zazpi espiritu txar, zazpi txar-oidade edo ekandu txar sustraizkoak diranak; baitabere dakigu agertuera jaungoikozkoaren bitartez, Espiritu Santua graziagaitik gizonagaz sartuten danean, emoten deusazala zazpi espiritu, doiak deritxoenak, zazpi espiritu txarrai burrukan egin eta eurak goituteko. Gizon pekatuan jausia da, zazpi zauri ilgarri zauriturik dagoan geiso bat legez, edo soldadu argal bat legez, azapi arerio bildurgarrikoak eseten deusena. Espiritu Santua bere zazpi doiak da geisoaren osagillea, bere zauriak osatuteko, zazpi osagarri emoten deutsezana; da soldadu argalaren laguntasun indartsua, zazpi indar edo almenak emoten deusazana, bere zazpi arerioak goituteko».

Irakatsi 7.a:

Espiritu Santuaren frutuak edo ekarriak, eta Zoriontasunak

Esan egizuz Espiritu Santuaren frutuak.— Dira amabi: lenengoa, maitetasuna edo karidadea; bigarrena, bakea; irugarrena, biotzeko anditasuna; laugarrena, errukitasuna edo biguntasuna; bostgarrena, sinistea; seigarrena, kontinenzia edo eukidagoa; zazpigarrena, atsegina edo poza; zortzigarrena, eroapena; bederatzigarrena, ontasuna; amargarrena, otzantatasuna; amaikagarrena, moduontasuna; amabigarrena, garbitasuna. Esan



egizuz zorientasunak.— Dira zortzi: 1. Zorionekoak biotzetik ezeukiak edo premiñadunak, eurena dalako zeruetako erreñua; 2. Zorionekoak otzanak edo bigunak, euren mendean eukiko dabeelako lurra; 3. Zorionekoak negar egiten dabeenak, poztuak izango diralako; 4. Zorionekoak zuzentasunaren gose-egarri diranak, asebateak izango diralako; 5. Zorionekoak errukiorrak, aurkituko dabeelako errukiya; 6. Zorionekoak biotz garbikoak, ikusiko dabeelako Jaungoikoa; 7. Zorionekoak baketsuak, Jaungoikoaren semeen izena emongo jakelako; 8. Zorionekoak zuzentasunagaitik gorrotoak eta esetsiak daroezanak, eurena dalako zeruetako erreñua. Nortzuk dira biotzetik ezeukiak edo premiñadunak? Onrarik ez aberastasun bidezkorik bere, gogoz beinik bein, gura ez dabeenak. Nortzuk dira otzanak edo bigunak? Aserrerik, ez eta ozta bere zirkinik bere, ez daukenak. Zelan eukiko dabe lurra euren mendean? Euren buruen jaube dirala. Nortzuk dira negar egiten dabeenak? Atsegin, dongak ez diranak bere, isten dituezanak. Nortzuk dira zuzentasunaren gose-egarri diranak? Alegiñaz ezetan bere utsik egitea nai ez leukeenak. Nortzuk dira errukiorrak? Urkoak ez diran erbestekoakaz bere, guztiz biotz-beerak. Nortzuk dira biotz garbikoak? Euren barruko gurari dongak goituten dituezanak. Nortzuk dira baketsuak? Euren buruai eta bestenai bakea emon daroekenak. Nortzuk dira zuzentasunagaitik gorrotoak eta esetsiak daroezanak? Sendo eta gogor dagozanak gauza on guztietan, mundukoen gatx-eretzian egon arren. Zergaitik deritxe onei zorientasuna? Bizitza onetako zoriona eta besterako itxaropena eurotan dagozalako.

AZALDUEREA

Zer dira Espiritu Santuaren frutuak? Espiritu Santuaren graziagaz egiten diran egikera eregi batzuk, atsegingarriak diranak, arerio arimakoai gogor egitean, euki izan dan sendotasunaren saritzat emoten diranak.

Zergaitik deritxe frutuak? Sartuten dabeelako gozotasuna gizonaren biotzean, zugatz edo arbola on baten frutuak aoari gozotasuna emoten deusnan legez.

Zer dira zorientasunak? Santutasuneko eta ontasuneko egikera batzuk, arimea egoera iraunkor eta on baten imini eta zeruko zorientasun betikoa asierea euki eragiten deusnak.

Zorientasunari eskiniriko sariak dira, bizitza oneri ala bestekoari dagokozanak? Sariak diran aldetik, bizitza oneri dagokozanak dira, zorientasunaren asierea iminten dabeela arimeagan; eta irabaziak edo merezimenduak diran aldetik, geroke beste bizitzeari dagokozanak dira,

izaten dirala prestaera batzuk legez, zeruko zorientasun betikora zuzenduten dabeenak arima ona.

Zetan dira bardiñak Espiritu Santuaren frutuak eta zorientasunak? Bitzuak eginsariaren izatea daukelako, atsegingarriak diralako, maitetasunagaz edo karidadeagaz beti alkaturik eta baturik doazalako, eta pekatuagaz galduten diralako.

Nun aurkituten dira, edo nun agertuten dira Espiritu Santuaren frutuak eta zorientasunak? Gizonaren alde eregian, au da, ariman; nozbait gañez-egin eta agertuten badira bere gorputzeko zentzunetan; baña au ez da izatekorra, eta geienean jazoten dana.

Jazo al leiteke, batek bere gorputzean miñak eta nekeak euki eta iragotea, eta denpora berean bere arimeak Espiritu Santuaren frutuak eta zorientasunak eukitea? Bai, badaezbada baga: eta geienetan jazoten dana da, gorputzeko miñen eta neken erdiyan, eta estutasunik eta larritasunik andienetan bere, arimea errime, sendo, bake gozoan eta pozik aurkitutea. Alan Apostoloak esaten eban: «Estutasun guztien erdiyan nago gozotasunez beterik».

Zelango desbardintasuna aurkituten da Espiritu Santuaren frutuen eta zorientasunen artian? Espiritu Santuaren frutuak dira azken errekoak eta iragogarriak, eta zorientasunak barriz dauke azken eregiago eta osoago bat, eta dira iraunkorrak.

Azaldu eta adierazo al zinaikedazu ori irudi bategaz? Batek jaten dituzanean janari eta gauza gogoko eta gozoak, onek bereala gozotuten deutse bere ao-sabiya; gañera janari onek emoten deutse gorputzari osasuna, indarra, sendotasuna, egoera ona, eta atsegina; alan Espiritu Santuaren frutuak dira egite onen egikera erreko eta iragogarriak legez, eta zorientasunak dira egite on euroren gozotasun, bake eta zorientasunaren egikera iraunkor bat legez.

Ze onera atera bear dogu irakatsi onetik? Espiritu Santuari onerazpen eta amodio andi bat eukitea, jarraituten deutsegula bere argitasunai, gauza onak eta eregiak egitera, zirkinduten gaituezanean, alan irabazi eta geuganduteko bere frutu guztiz gozoak eta zorientasunak.

JAZOEREA

San Francisco Saleskoak dino: «Onerazpeneko on-oidadeakdirala bakarrik, arimea asetan dabeenak. Begira ze gogokoak eta ederrak diran. Imini egizuz alde baten on-oidadeak, eta bestean euren kontrakoak diran txar-oidade edo ekandu dongak. Zelango gozotasuna aurkituten dan eropanean, aserreagaz eta estutasunagaz bardinduten dana; umiltasunean,



arrokeria eta diruzaletasuna bere onduan iminten bdaira; prestutasunean, zikozkeriagaz bardinduten dana; maitetasunean, gorrotoa eta ikusiezina bere alboan iminten badira; jan-edanean begiratuaz izatean, bere arerioak diran nasaikeriakaz bardinduten bada. On-oidadeak dira miragarritzkoak, gozotasun eta atsegin ezingeiagokoakaz betetan dabeelako arimea, ari-meak on-oidadeak beragan daukazanean, eta txar oidadeak edo ekandu dongak barriz erkindurik, nekaturik eta samindurik itxiten dabe arima errukigarria. Eta au ezaguturik zergaitik egingo ez da alegina, ondasun ain aberatsak irabazteko? Txar-oidade edo ekandu dongen gañean ikusten dana da, ekandutxar-txikiduna dana ez dagoala atseginez, eta ekandutxar-askodunak ez daukala iñoz bakerik ez pozik. Bitartean, on oidadeko bidean ibiltzen asiten dana, dago atseginez eta pozik, atsegin eta poz au geitu eta ugarituten jakozala, bere on-oidadeak geituten diran neurrian».

Irakatsi 8.a: **Ontasuneko osotasuna eta** **bere jaritxiteko eginbideak**

Zeinbat dira azkenkiak? Lau: Eriotzea, Erabagia, Infernua eta Zoriontasuna. Zer da Zoriontasuna? Ondasun guztiak, ezertariko mingarri bagarik, aurkituten diran egoera oso oso ona; infernua barriz gatx guztiak, ezertariko pozgarri bagarik, aurkituten dira. Eta infernutik gorde eta zeruko zoriontasunean sartuteko, zer egin bear da? Gorde eta bete bear dira aginduak. Eta errazago gorde, eta utsik ez egiteko, erazko biderik badago? Bai, Jauna. Zeintzuk dira? Sakramentu Santuak sarri artu; goizean goizean Jaungoikoari egunoroko egikerak eskini; egunean egunean Meza santua entzun; Andra Mariaren atseginerako Errosario Santua erre-zau; arimako gauzetako liburuak irakurri; gaubean gaubean arimako azterrena egin; eta batera asko esateko, Konfessore jakintun on eta zuur bat artu eta beronen mendean beti egotea. Ondo diñozu; zergaitik Konfessore on bat autu eta artutea da, San Francisco Saleskoak diñoan legez, ardura guztien ardurea. Alan egizue bada zuek, bada Konfessore ona izango jatzue aingeru bet legez, ondo zuzezndu eta giyauko zaituezana, irakatsirik zer egin bear dozuen, aginduetako bidetik ondo ibilteko, eta Jaungoikoa zoriontasun betikoan ikusteko, zein dan, gu ezerezetik egitean, izentau jakun azken dontsua. Jaungoikoak ara eroan gagizala guztiok. Alan izan dedilla.

AZALDUEREA

Ontasun osoa geugandu bearrean gagoz guztiok? Ez gagoz *ontasun asoko bizierea* autu eta artu bearrean; baña gagoz *geure bizierako ontasun osoa* geuganduteko aleginak egin bearrean.

Azaldu eta adierazo egidazu argiroago.— Deituten jako ontasun osoko bizierea erreligiosoenari, bere iru eskintsari edo boto preminazkoa, garbitasuneko eta esanekotasuna eskatuten dituzanari, eta biziera onetan sartu bearrean ez gagoz iñorbere, atara deituak izan ez bagara zerutik; baña guztiok gagoz geure bizieran oso onak izan bearrean: aital izan bear dau oso onak, ezkonduak izan bear dau oso onak, semeak izan bear dau oso onak, eta alan beste enparau guztiak, Jaungoikoak aginduten daben legez.

Zetan dago ontasun osoaren izatea? Jaungoikoagazko alkartasun edo batutasunean maitetasunaren bitartez; alan irakasten dau argiro Santo Tomasek, eta bardin Apostoloak, diñoanean: «Gauza guztien gañetik euki egizue maitetasuna edo karidadea, zein dan ontasun osoaren lokarria», eta San Agustinek emoten dau errazoa, diñoala, «zergaitik bakarrik maitetasunak alkartu eta batuten gaituzan, geure azkena dan Jaungoikoagaz».

Nok dauko maitetasun ori? Jaungoikoagazko bakean eta grazian dagoanak, bere aginduak ondo gorde eta betetan dituzanak, bere bizierako eginbearrak ziatz betetan dituzanak, etagauza guztietab, bai kaltegarrietan eta bai mesedegarrietan bere borondatea Jaungoikoarenagaz bat egiten dabenak.

Deitu leitekeoe ontasunean osoak edo onak, egikera eregiak eta goratuak egiten dituezanai, baña Jaungoikoaren aginduak eta euren bizierako eginbearrak ondo gorde eta betetan ez dituezanai? Ezelanbere ez; bada ontasun osoa dago, ez gauza eregiak eta goratuak egitean, ezpada Jaungoikoak aginduten dituzan gauzak, ondo egitean: alan guraso batek, eskekoai eta premiñadunai bere ondasun guztiak emon arren, ez badauko, bere semealabai eta etxeakoai aziera ona emoteko, ardurarik, ez da izango guraso ona: abadetzarako edo beste bizibide baterako ikasten dabilenak, egun guztia erreguak egiten emon arren, ez leuke egingo, Jaungoikoak aginduten deusana, eta ez litzateke izango ikasla ona, gauzak ikasteko alegina egingo ez baleu, egin bear daben legez.

Ori orrelan dala, badagoz ontasun osoko mueta desbardiñak? Ez dago ontasun oso izatezko bakar bat baño, eta au da maitetasuna edo karidadea, eginik bakotxak, Jaungoikoak gura dabena eta aginduten dabena; baña desbardiñak dira, izatezkoak ez diranak: alan bat izan bear dau



erreljiosoaren ontasun osoak, eta beste bat soldaduarenak, bat emakume ezkondu batenak, eta beste bat alargunarenak...

Badagoz mailla desbardiñak ontasun osoan? Bai, ezdabaida бага; bada argi dino Sakramentuk: «Arteza dana, oraindik geiago arteztu daitela, eta santua dana, geiago santutu daitela».

Zelango mailla desbardiñak geienean ezagututen dira ontasun osoan? Iru; 1. asibarrien edo kristinau onena; 2. aurrera doazanena edo onerazpentsuena; eta 3. oso beteena.

Zeintzuk dira lenengo maillakoak? Oituzaz Jaungoikoagazko bakean eta grazian bizirik, Jaungoikoaren aginduak eta euren bizierako eginbearrak gorde eta betetako aleginak egiten dituezanak, edolabere edo beintzat pekatu ilgarrian ez jausteko ardureagaz, griña dongai eta gurari zitalai, oraindik ezirik eta azpiraturik ez daukezanai, burrukan eta gogor egiten deustela.

Zeintzuk dira bigarren maillakoak? Goituagaz eta azpiratuagaz eronik euren griña dongak, borondate laster eta bizi bat daukenak, Jaungoikoaren gogoko diran gauza guztiak egiteko, eta euren bizierako on-oidadeak eskatuten dabeena, pozik eta sendotasunagaz egiten dabeenak.

Zeintzk dira irugarren maillakoak? Euren griña zitalak guztiz azpiratua eukirik, pekatu bat bere, pekatu arin borondatezkoa bada bere, egiten ez dabeenak, ardura guztiagaz on-oidadeko bidean dabilzanak, Jaungoikoagaz alkaturik eta baturik bizi diranak, eta eurakgandik alde eragin eta urrinduten dituezan gauza guztiak, pekatu ez diranak bere, baña alkartasun orretarako eragozpenak izan leitekezanak, barbarako, zaletasunak, aberastasunerako makurtasuna, eta beste onelangoak.

Jaungoikoak eskatuten deutse guztiai ontasun osoko mailla bardiña? Guztiai eskatuten deutse lenengo maillako ontasun osoa kastigu betikoa- ren beian, zergaitik ezin inor salbau leiteke, maitetasuna edo karidadea euki бага; gero baktaxari eskatuko deutso Jaungoikoak geiago eta meseden neurrian, Jesukristok berak diñoan legez: «Asko artu izan dabenari, asko eskatuko jako».

Izatezkoa eta bearrekoa da ontasun osorako eta onerazpenerako, gauzak atseginez eta pozik egitea? Onerazpenaren izatea dago, Jaungoikoaren gogokoa dana, eta berak aginduten dabena, arin, laster, eta sendotasunagaz egitean, aragiaren aldetik atzerakuntzen bat eta nekeren bat aurkitu arren bere.

Imini al zinaikedazu jazoeren bat, irakatsi ori geiago azaldu eta argitu daikeana? Jesukristo gure Jaunak bere aragiaren aldetik euki zituzan

Gesemaniko ortuan estutasun eta larritasun andiak, il aginean legez imini ebenak; baña bere borondate egoan errime, sendo eta gertu, bere Aita Betikoak prestau eutsan kalizea edateko, esaten ebala: «ez beite egin nire borondatea, ezpada zeurea».

Zer diraustazu onerazpeneko egitetako atseginen, pozen, negarren eta beste onelangoen gañean? Guzti ori ez dala onerazpenerako izatezkoa eta bearrekoa; baña ona da, gure argaltasunari laguntasuna emon eta sendatuten dabelako, edo egite onen saria dalako.

Eta on-oidade oiturakorrak, biotzbeeratasuneko eginerak legez, zer dira ontasun osorako? Ontasun osora elduteko eginbide bearrekoak eta noraezkoak; zergaitik ezin inor alkartu eta batu leiteke Jaungoikoagaz, eragozpenak diran griña txarrak eta pekatuak, on-oidade oiturakorren bitartez kendu eta azpiratu бага; eta ezin inok jaritxi eta alknatzau leikez bearreko graziak, eskabideak, errekuak eta biotzbeeratasuneko eginerak egin бага.

Zeintzuk dira, biziera guztientzat eta ontasun osoko maillentzat geien eta sarrien gomendaurik eta agindurik dagozan biotzbeeratasuneko eginerak? Aita Astetek aitatu eta dakarzanak, eta onei egotzi leitekeoz Jesus Sakramentuaduanako eta Jesusen Biotz gozoaganako zaletasun eta onerazpenak, Andra Mariaren eta bere senar San Joseren alkartasunak eta anaetasunak, eta batezbere sarturik egotea, Eleizeak ain ontzat eta ainbeste bidar gomendaurik daukazan irugarren Ordenetan, zeintzuetan, eginik euren neurriak irakatsi eta aginduten dabeena, dagozan sarturik esandako eginera guztiak; eta besten onbideagaz irauten dabene batek bere eginbearren betetasunean, eta aurreratu eta poztuten dan, bere lagun alkartasunekoen bizitza onari jarraitutera.



Amaituko dogu, jazoeratzat iminiagaz, urrengo

BIZITZA KRISTINAUKORRAREN ZUZENBIDEA

(Aita Gautreletgandik S. J. artua)

«*Erdue, semeak, entzun egidazue,
eta irakatsiko deitsuet Jaunaren bildurra*».

(Psalm. XXXIII, 12)

Egun bakotxerako

1. Euki egizu, ala dala, ordu izentau bat oetik jagiteko, Jagi zaitez laster, atzerapen eta nagitasun guztiak azpiratu eta goituten dozuzala, Jaungoikoari izan bear deitsazun maitetasunagaitik, eta sinistu egizu, nekegarri au guztiz bere gogokoa izango jakola; ez eikezu galdu gura izan une bateko nagitasunagaitik egun guztiko irabaziaren alde andi bat, bada egun guzti guztia izan oi da, asierak eskini izan jakozanarentzat.

2. Irazartuten zareanean, zure lenengo gogorazinoak izan bear dau Jaungoikoarentzat, zeure biotza berari eskiniten deitsazula; zure lenengo berbak izan bear dabe *Jesusen, Mariaren eta Joseren izenak*; zure lenengo eginereak Kurutze Santuaren egitea.

3. Moduztasun guztiagaz bein jantzi ezkerro, belaunbikoturik Santo Kristo baten edo santuen beste irudiren baten oñetan, eskini egiozuz Jaungoikoari lotsa eta itzal guztiagaz zeure egikerak, eta ez zaitez iñoz aztu, Andra Mariaren eta zeure Aingeru zaintzallearen eskuetan eta ardurara zeure izate guztia iminteagaz. Ez egizuz itxi errezau бага egunean iru bidar Abe Marietakoak, kanpaiak jotzen dabenean.

4. Zeure egikerak eskini eta gero, zerbait denporan euki egizu gogoartea zeure zoriontasunaren ganean, edo beste egia betikoren baten ganean. Gogoarte au egitea da gauza balio andikoa, eta bera бага ezin iraun leiteke luzaro on-oidadeko eta santutasuneko egoeran. Egunaren asieran egin ezin al bazinaike gogoartea, egin egizu, al dozun lenengo unean, eta, biarrian edo lanean zabilzala, egin zinaike, ez badaukazu beste denporarik.

5. Mezea entzutera joan al bazinaitekez, zeure eginbearrai eta zereginai utsik egin бага, ez zaitez iñoz geratu on ain andia egin бага. Ezin dozunean, edolabere eskini egiozuz Jaungoikoari zeure gurariak, eta zeure gogoagaz iragoten zareala Eleizara, alkatu eta batu zaitez biotzetik, Meza Santuan eskiniten dan Jesukristogaz, eta an dagozan fededun onakaz.

6. Iges egizu, ekandu txar guztien ama dan nagitasunetik. Izan zaitez otzana, mena eta esanekoa, bere Ama guztiz Santearen eta San Joseren aginduen beian bizi izan zan Jesukristoren antzera. Lanean asten zareanean, eskini egiozu Jaungoikoari zeure lana, eskatuten deitsazula bere benedezinoa, eta Kurutze Santuaren egiten dozula. Lan bitartean, gomutau zaitez zagozala Jaungoikoaren aurrean, Beragana zuzendu eta goratuten dozula zeure biotza sarri esateko erregu laburtxuen bitartez, eta erloioak ordua jotzen dabenean, agur egiozu Maria Dontzella guztiz Santeari, Abe Maria esanagaz.

7. Ez egizu jan orduetatik kanpora; jan egizu zeure etxeokaz batera, aurrez bedeinkatuten dozula maiya, eta jan ostan eskerrak emoten deitsazuzala Jaungoikoari, mundukoen esamesai eta bildurrai batbere jaramonik egin бага.

8. Arratsaldean euki egizu arimako irakurtealdiren bat, Kenpis deritxon *Kristoren Imitazioneko* liburuan, edo beste liburu onen bat.

9. Zeure nagusien aginduai eta zeure bizierako eginbearrai utsik egin бага, egin egizu alegina ikusaldi bat egiteko Jesus Sakramentaduari, bera lotsa eta itzal andiagaz adorau eta bearreko graziak eta laguntasunak eskatuten deitsazuzala.

10. Euki egiozu zeure bizitzako egun guztietan onerazpen andi bat zeure Ama Maria Dontzella guztiz garbiari, egunoro errezetan dozula gitxienez bere Errosario Santuaren zati bat, eta egiten dozuzala, batezberre bere jaiegunetan, bere gogokoak diran eta zeure beraganako amodioak, irakasten deitsuzan gauza onak.

11. Egunaren azkenak izan bear dau, bere asiereari erantzungo deitsanak. Onerazpen eta ardura guztiagaz egin egizuz gaubeko egite onak, eta alegin guztiagaz arakatu eta aztertu egizuz zeure arimako bazter eta inguruak, Jaungoikoaren aurrean egin ete dozun utsegiteren bat egun atan ikusteko, eta jauzi bazara, parka eskatu egiozu Jaungoikoari, aurrerantzzean bera ez irainduteko gogo eta asmo sendoagaz.

12. Euki egizu ordu izentau bat oera joateko, eta au egiten dozun egunean, gogoratu zaitez zagozala Jaungoikoaren aurrean. Artu egizu ur bedeinkatua, siñatu zaitez, eta beragaz isuri egizu oia. Loak artu zagizan baño lenago, zuzendu zaitez Jaungoikoagana eta bere Ama Andra



Mariagana, euren eskuetan iminten dozula zeure arimea, gau atan ilteko bazengoz legez, eta Auzi-epalla nagusiaren aurrean agertuteko egoera onean zagozan gogoratuten zareala.

Aste bakotxerako

1. Ondo gorde egizuz domeka eta jaiegunak, eleizkizunetara joateari inoiz itxi бага, Eleizan irakatsien bat entzuten dozula, eta egun aretan arimako irakurte geiago egiten dozula.

2. Mundutarren oiturai eta biziereari batbere jaramonik egin бага, egin egizuz zeure gauza on guztiak; iges egizu lagun txarrakgandik eta olgantza pekaturako arriskua daukenetatik, diran legez dantzak, teatroak eta arako ibiltoki agiriak, zeintzuetan batuten diran jente asko, ez ain onak. *Alako lekuetan*, dino Eleizako guraso batek, *demoninoak esetsi eta burruka geiago egiten dituz eta garaitza geiago irabazten dauz*.

II bakotxerako

1. Konfesau zaitez ilean bein, edo sarriago, zeure konfessorearen eretxia alan bada. Konfesau bear dozun aldi bakotxean, prestau zaitez, orduan ilteko bazengoz legez.

2. Ondo izango da, il bakotxean bakartadeko egun bat eukitea. Egun atan, bizita kristinaukorraren zuzenbide au irakurri ezker, egin egizu eriotzarako prestaera ona, azkenean artuten dozuzala urrengo ilerako erabagi eta asmu barriak.

Urte bakotxerako

1. Urte guztietan egin egizu zeure bateoko eta zeure lenengo komunioeko egunen gomutea, urreratuten zareala egun atan, edo urrengo domekan, Sakramentu Santuak artutera, eta orduan egiten dozuzala beste egikera on batzuk egunerokoakaz gañera.

2. Urte bakotxaren azkenean, edo zeure konfessoreari ondoen eretxiten jakonean, bere zuzenbidearen beian egin egizuz egun batzuetako eginera arimakoak, arakatu eta aztertuten dozula zeure bizitzako egoerea, eta

artuten dozuzala urrengo urterako erabagi eta asmo barriak; eta auxa izango da era ona urte guztiko konfesinoe bat egiteko. Bakea eta errukitasuna, zuzenbide oneri jarraituten deutsu guztientzat.

«Bakea eta errukitasuna, zuzenbide oneri jarraituten deutsu guztientzat».

(Gal. VI, 16)



GEITUPENA

Badago irakatsi geiago, kristinau egiazkoak jakin bear dituezanaK? Bai, aita; eta dira, gaurko denporetako errakuntza eta arriskuen kontra Vaticanoko Batzarrak eta Aita Santuak darakuskuezanak.

Zeintzuk dira herejia eta errakuntza orreek? Jaungoikoak edo bere Eleiza egiazkoak irakasten dituezan egien bat, ukatu edo badaezbadan iminten dituezanak; eta euren asmatzallak dira, guztia geia dala diñoen geitarrak edo materialistak; Jaungoikorik ez dagoala diñoen panteistak eta Kraustistak; Jaungoikoaren agertuerea eta irakatsiak ukatuten dituezan errazionalistak edo librepensadoreak; protestanteak edo ebanjelikoak, liberalak; eta batean asko esateko, Jaungoikoak bere Eleiza egiazkoaren bitartez irakasten dabena, ukatu eta egitzat artuten ez dabeen guztiak.

Zelango sareak imini eta zabalduten deutsez oneek katolikoai? Batezbere iru, eta dira: Eleizeari bere nagusitasuna kendu gura izatea, dirua eskinita, eta oitura onak txartu eta nasaitutea.

Zelan kendu gura deutse Eleizeari bere nagusitasuna? Ezer bagarik itxi eta premiñan iminiagaz, eta bere kontrako gauza guzurrezkoak esan eta munduan zabalduagaz.

Bada ezeukitasunak edo premiñeak ez dau emoten nagusitasuna kristinauen artian? Emoten dau eta kenduten dau.

Zelan izan leiteke ori? Bere ondasunak premiñadunen artian zabalduten dituzan aberatsai, emoten deutso nagusitasuna; baña kenduten deutso, eskean ibili bearrean, eta premiñadunai lagun al ezinean, aurkituten dan Abade edo Eleizgizonari; eta baitabere kenduten deutso Eleizako eleizkizunen anditasunari; bada, ezeukitasunagaz edo premiñeagaz, ez bakarrik ez dira egiten gauzak, Jaungoikoaren Anditasunari dagokozan legez, baitabere geienen aldetik izaten dira begi txarrakaz ikusiak.

Bada Apostoloak ez ziran izan ezeukiak eta premiñadunak? Ori zelan dala.

Zer esan gura dozu orregaz? Ziran ezeukiak eta premiñadunak, Kristok, bere jarrai joan zeitezala, eurai esan eutsenean; eta beti izan ziran biotzetik ezeukiak edo premiñadunak, aberastasunak billatuten ez zituezalako, eta ezeukiak legez bizi izan ziralako.

Zein esanguran ez ziran izan ezeukiak edo premiñadunak? Ez ziran ezeukiak, zergaitik, Jesukristok zerura igon eban ostean, euken asko,

Jesusen fede santura biurturiko aberatsak euren borondatez emoten eutsena, eta gero eurak premiñadunen artian zabalduten ebena.

Zeri jarraituten deutse sektarioak, Eleizearen kontra gauza guzurrezkoak esan eta munduan zabalduteko? Euren buru eta nagusi lenen-gokoetatik batenaren esanari: Guzurrageaz txarto esan egizu, guzurrageaz txarto esan egizu, bada zerbait geratuten da.

Zer egin bear dau kristinau on batek, Abade edo Eleizgizon bateri bere entzuteona kenduten jakonean? Seme on batek egin bear dabena, bere aitari entzuteona kenduten deutesenean.

Eta Abadearen edo Eleizgizonaren utsegitea agiria, jakina eta ezaguna bada? Artu bere errukia eta ez jarraitu berari bere biziera txarrean.

Eta orduan ondo izango da, bera gitxitan eukitea? Semeak ez dau gitxitan eukiten bere aita, danik txarrean eta dongena izan arren bere aita.

Eta Abadetasuna gitxitan eukitea? Askozaz gitxiago; izango litzateke, osatuteko-jakituria gitxitan eukitea legez, dagozalako osagille gitxi edo geiago jakituria bagakoak eta arimagaldukoak.

Asko zor deutso Eleizeari munduko alkartasunak? Eleizeak bere Errelijinoe Santuagaz emon eutsen argitasun egiazkoa erreñuai; eta Eleizeari zor deutse, batetik eta bestetik daukena.

Zein libertaden arerio da Eleizea? guzurrezkoarena, nasaikeriaren izena guztiz ondo jatorkonarena.

Zuzenbagea eta gogorra da Eleizea, herejaik galerazo eta euren ereintzallak eta zabaltzallak kastigetan dituzanean? Ez: dan legez erregea, lapurrak, eriotzagillak eta okerrak kastigetan dituzanean, arteztasunak alan eskatuten badau.

Bada Eleizea, munduko gauzen gañeko jakiturian aurrerapenak egiten galerazoten dabena? Ez: ezpada bera da laguntasuna emoten deutse-na jakituria egiazkoaren eta onaren aurrerapen guztiai.

Ori alan dala Eleizeak ez dituz galerazoten errakuntzak eta ekandu txarrak ezpada? Alan da, eta ori da bere betiko lana.

Ez dabe esaten sektarioak eta guzur-asmatzallak, eurak zabalduten dituezala argitasuna eta ontasuna munduan? Bai; baña sektarioak deituten deutse argitasuna iluntasunari, egia guzurrari eta errakuntzeari, libertadea nasaikeriari, aurrerapena dongakeriari, jenten-arteko ezaupera andia agintarien kontra jagiteari eta matxinadeari: berba baten esateko, ona txarrari eta txarra onari.

Ez dabe esaten setalariak, ori berori egiten dabela Eleizeak? Orregaitik ezin iñor izan leiteke katolikoa eta setalaria batera.



Zelan dakigu guk, eurak dabilzala bide okerretik? Eleizea dala Irakasla jaungoikozkoa, irakatsi eta adierazoten deuskuen errazoe guztiakgaitik; eta au alan dala, guk sinistuten dogu edo sinistu bagarik itxiten dogu, Eleizeak sinistuten dabena edo sinistuten ez dabena.

Ze errazoe dira orreek? Ikasbide kristinaukor onetan aitatuak, eta gañera zugatza edo arbolea ezagututen da bere frutuetatik.

Zer esan gura dau orrek? Asko eta naikoa dala, irakatsi jaungoikozkoaren erara bizi diranen frutuak ikustea, eta seta txarren erara bizi diranen frutuak ikustea, laster edo ondo ezagututeko, irakatsi bata dala Jaungoikoarena eta bestea deabruarena.

Bada ez dagoz katoliko txarrak? Bai; baña dira, irakatsi jaungoikozkoak eta egiazkoak aginduten daben legez, bizi ez diranak.

Zein arbolako frutua da, *Civilización moderna* edo *Liberalismoa* erderaz deritxon, eta euskaraz Argitsutasun barria edo Leiberetsutasuna deitu leitekeona? Setalarien arbolakoa.

Frutu orren alde edo zatiren bat al dira, jakituria izatezko eta ziazkoetan, zeru goietako izarrekotan eta menaskintzakoetan, lurruneokan, tximistakoan, oraingo denporetan egin izan diran aurrerapen andi eta miragarritzkoak? Ez, ezelanbere; frutu orreek bardin salduten dira, edo obeto, kristinau egiazkoen merkatuan setalarienean baño.

Zetan dago, bada, Argitsutasun edo Leiberetsutasun ori? Milla zazpireun eta larogeta bederatzigarren urteko Asieren izenagaz ezagutuak diran, eta urte atako Irabi edo Naste Andiak irakatsi zituzan errakuntza ezingeiegokoetan.

Zeintzuk dira orreek, berba labur eta gitxitan eurak sartuten badira? Jaungoikoa eta bere Eleizea gitxitan euki, ezertarako ez artu eta jaramonik eurai ez egitea erreñuko gauza guztien edo batzuen zuzenbiderako.

Ontzat emon leike Eleizeak erreñuko gauzen zuzenbide ori? Iñozbere ez, zergaitik Jesukristok esan eban: infernuko indarrak ez ebela iñoz azpiratu eta goituko bere Eleizea.

Eta zergaitik geiago? Dalako errazoiaren kontrakoa eta deabruzkoa, bada dauko bere oiña, Jaungoikoa eta bere Eleizea gitxitan euki eta aintzaketzat bere ez artutean.

Badago Leiberetsutasunen bat, katolikoa deituten jakona? Alan deituten deutse bere jarraitzallak eta adiskideak; baña Eleizeak irakasten dau, Leiberetsutasun katolikoa deituten deutse, ez dala katolikoa.

Beraz ez dago Leiberetsutasunik, ona danik? Batbere ez; zergaitik Leiberetsutasuna da pekatu ilgarria eta berez Kristoren irakatsien kontra-

koa; bakarrik dagoana da, batzuk deituten deutse Leiberetsutasuna, ez dan gauzeari.

Badago loturik Leiberetsutasuna erreñuko gauzen zuzenbideren bategaz? Ez: Monarkia bat edo Erregeak-bakarrik-agindutea izan leiteke liberala edo leiberekorra, eta Errepublikak bat edo askok-bat-buru-dala-agindutea izan leiteke ona eta katolikoa, bataren eta bestearen irakatsien eran.

Zeintzuk dira irakatsi liberalak edo leiberekorrak? Milla zazpireun eta larogeta bederatzigarren urtekoak, erreñuko gauzen zuzenbidean, Jaungoikoak eta bere Eleizeak aginduten dabeenari, jaramonik ez egitetik, urteten dabeenak.

Esan egidazuz batzuk.— Errian-dagoala-agintaritasuna esatea, edozein kultu edo erreliginoe ontzat emon eta itxitea, moldetegiari eta irakatsiai batbere mugarik ez imintea, oiturakortasun guztirakoa eta beste onelangoak.

Zelango ondorengoak urteten dabe ortik? Eskola eleizkor bagak, periodiko eta papel txar eta loiak, matrimonio zibila edo naskeria, tenplu herejenak kristinau-errietan egitea, Eleizgizonen eskubideak ukatutea, neurribagako lukreria, domeka eta jaiegunak ez gordetea eta beste onelango asko.

Zer diño Eleizeak gauza guzti orreen gañean? Dirala guztiz donga eta txarrak, eta Kristoren irakatsien kontrakoak.

Zer geiago? Iñoz ezin izan leitekezala ontzat emonak, eta bai bakarrik laketu edo itxi leitekezala, beste gatx andiagoren baten bildurrez, eurak osoro eta guztiz galerazoten badira.

Nori dagoko erabagitea, kristinau-errietako zerzeridadeak eskatuten dabeen ala ez, laketuak izan daitezala alako gatx andiak? Aita Santuari eta Obispoai, arimen aita eta Erreliginoren eta Oiturakortasunaren erabagitzallak diranai: guztiak dira euren eskubidekoak.

Zegaz bardinduten dira, Eleizearen eta erreñuko agintarien artian egon bear dabeen artuemonak eta joanetorriak? Arimearen eta gorputzaren artian egon bear dabeenakaz: gorputzeko gauzak, al dala, ez deutse kalterik egin bear arimakoai, ezpada oneen azpian egon bear dabe.

Zer egin bear dogu, Eleizearen arerioa dan erreñuko agintaritasunaren beian bizi gareanean? Bake osoan badago bere agintaritasunean, eropena euki beragaz, erreguak eta eskabide andiak egin Jaungoikoari, eta alkarturik eta baturik guztiok Obispo Jaunen aginduen beian, egin bear dogu alegin guztia, egiak, arteztasunak eta Eleizeak azpiratu eta goitu dagiezan euren arerioak.



Erreñuko agintaritasun liberalak diran guztiak, dira Eleizearen arerioak? Bai, badaezbada бага; bada Kristogaz ez dagoana, Kristoren kontra dago.

Zelango pekatua egiten dabe, Eleizeagazko bakean eta bere arerio dana, agintari edo diputatu aterateko, aleginak egin eta euren laguntasuna emoten deutenak? Geienean pekatu ilgarria; eta dira, egiten diran lege txarren eta Eleizearen kontrakoen errudun, eurak lagundu izan deutesnak, etarako baiya emon badabe.

Beraz Eleizea sartu leiteke erreñuetako gauzen zuzenbidean? Eleizea sartu leiteke eta sartu bear dau erreñuetako gauzen zuzenbidean; onek zerikusia daukanean siniste santuagaz, oitura onakaz, arteztasunagaz eta arimen zorientasun betikoagaz; baña guztiz lurrekoak eta denporakorrak diran gauzetan bakotxari itxiten deutso, ondoen deritxonari jarraitutea.

Zein da, erreñuen gañean Eleizeak daukan eginbearra edo egikizuna? Ama on batena.— Azaldu egizu ori apur bat geiago.— Jesukristok agindu eutsen Eleizako Agintari nagusiai, irakatsi egiezala Errelijinoe Santua eta Oiturakortasun ona, guztiak, lege-egintzallak eta euren mendekoak, artu bear dituezanak; eta kastigau egiezala kristinau mukerrak eta buru-urtenak.

Asko eta naikoa da, norberaren bizitza isilekoan Errelijinoa eta Oiturakortasun ona eukitea? Ez; zergaitik Errelijinoak irakasten dabena eginbearrean dago munduko alkartasuna bere, zeñaren jaun eta Jaube nagusia dan Jaungoikoa; eta Oiturakortasun ona zabalduten da gizonaren egikera guztietaraño; eta erreñuko gauzak zuzenduten dituezan agintariak, egin bear dabe guztia, Jaungoikoaren aginduak esaten deuten legez.

Orduan, pekatu egiten dau, erreñuko gauzen zuzenbidean liberala danak? Bai, badaezbada бага: zergaitik erreñuko gauzen zuzenbide liberala danagan dago, Eleizeak txartzat emonik daukan Liberalismoa edo Leiberetsutasuna.

Eta liberlatzat badauko, Aita Santuak txartzat emonik ez daukan gauzea? Pekatua egiten dau, liberala deituagaz, jakinik, Aita Santuak txartzat emonik daukala Liberlismoa edo Leiberetsutasuna.

Azaldu egidazu ori irudi batez.— Izango litzateke, ni deituko banintz legez mahomatarra, neure gogokoa dalako euren jantzia edo turbantea; edo ebanjelikoa, sinistuten dodalako Ebanjelio Santuan.

Ori orrelan dala katolikoak izan bear dau liberalen kontrakoak? Bai, ziurtasun guztiagaz; izan bear daben legez protestanten kontrakoak, masoen kontrakoak; berba baten esateko, egon bear dabe, Kristoren eta bere Eleizearen arerioak diran guztien kontra.

Zein aginduen kontra da Liberalismoa? Zuzen eta osoro doa agindu lenengoaren eta laugarrenaren kontra; edo obeto esateko, agindu guztien kontra, guztiak gitxitan euki eta ausi eta ez gordetako aurrerabidea emoten dabelako.

Katolikoak izan bear dabe liberalak, berba oni antxina emoten jakan esanguran; au da, izan bear dabe prestuak eta eskuzabalekoak, Eleizeari eta premiadunai dagokoena, emoteko.

Esan egizu: Liberalismoak edo Nasaikeria errelukoak aginduten daben lekuan, gauza ona da eukitea, irakurtea, geitutea edo zabaldutea liburuak, periodikoak, eskolak, ikusgarriak, modak, dantzak, oneek dongak eta txarrak izan arren bere, erreñuko agintaritasunak edo oitureak laketu edo itxiten dituzalako? Ez, ezelanbere; zergaitik Jesukristok diño, donga eta txarrak kondenuko dirala; eta guk ez dagioegula jarraitu mundutarrai; eta munduaren adiskidea dala Jaungoikoaren arerioa.

Orregaz balieta dira setalariak, katolikoak nasaitu eta txartuteko? Bai, orregaz berorregaz.

Zergaitik egiten dituez setalariak ainbeste alegin, katolikoak bide txarretara eroan eta nasaituteko? Ondo dakielako, katoliko txarrak erraz egiten dirala eurak legezko setalari.

Eta zergaitik gura dau Eleizeak ainbestean, guk irakurri ez dagiguzala liburu eta papel txarrak, euki ez dagiguzala eskola txarrak, eta joan ez gaitezala dantzetara edo ikusgarri txarretara? Gure ama on eta santea dan legez, gura ez dabelako, gu bere semeok txartu eta nasaitu gaitez.

Eta diruaganako zaletasunaren gañean zelango erabagia emoten dau Kristok? Auxe: «Zer balio deutso gizonari, mundu guztia irabazteak, izango bada bere arimearen kaltean?». Eta beste au: «Billatu egizue, guztiaz gañetik, Jaungoikoaren erreñua eta bere zuzentasuna, eta Jaunak emongo deutsuez geitupentzat, ondo jatortzuetzan ondasun lurrekoak».

Zelan deituten jako, bere espiritu txarra izanik Liberlismoa, Eleizeari leku guztietan burrukan egin eta esesten deutsan seta dongeari? Frankmasoneria.

Beraz Frankmasoneria ez da alkartasun ongilla eta mesedegilla bat, eta ain gitxi erreñuko gauzen zuzenbide ona gura dabena? Ez dau egiten orrelango gauzarik; bere asmua da, Jaungoikoari zor jakon adorazinoa eta agintaritasun egiazko guztia mundu onetatik guztiz kendu, eta euren lekuan Satanas edo Luzifer Jaungoikotzat guztiai euki eragin, eta deabruaren agindura guztioi bizi eragitea.



Zeintzuk dira seta infernuko orren agintari nagusiak? Izan oi dira judeguak, erreñuetako naste, gorabera eta matxinaden bitartez egin izan diran munduko aberatsenak.

Zelango kastigua dauko, seta infernuko orretan edo beste bere antzekoren betan dagoan katolikoak? Exkomuninoa, kendu ezin leiteke-ona, seta orretatik urteten ez daben artian.

Eta ilten bada, seta orretatik urten gura ez dabela, edo konfesau бага, kondenauko da? Bai, betiko.

Zer dinozu Komunismoaren, Sozialismoaren, Demokrazia barriaren, Anarkismoaren eta eurak legezko beste seten ganean? Dirala, siniste santuaren zuzentasunaren eta on-oidade guztien kontrakoak, eta orregaitik Eleizeak txartzat emonik daukazala.

Ez dabe esaten eurak, aberatsen dongakeriak eta gaiztakeriak mundutik kendu eta erbestetu, eta munduko alkartasuna guztiz barriztau eta ondu gura dabeela? Ori diño; baña euren irakatsiak eta egiteak adierazoten dabe guztia bestetara.

Noren antza dauke? Eleizea barriztetan joiazala atxakiatzat imini eta dongakeria eta nasaikeriak irakatsi eta egin dituezan Luteroren eta beste enparau herejia-asmatzallen antza.

Zelan kendu eta erbestetuten dira munduko gaiztakeriak eta txarke-riak? Eleiza Santeak irakasten daben Ikasbide Kristinaukorra sinistu, eta berak aginduten dabena eginagaz guztiak, andiak eta txikiak, aberatsak eta premiñadunak, agintariak eta euren azpikoak.

Eta gatx orreetan jausi ez gaitezan gu fededunok, osagarri indartsu edo eragillen bat izentau deutso Jaunak Eleizeari? Bai, aita; Jesusen Biotz Santuaganako onerazpen edo debozinoa.

Zer dino Eleizeak beragaitik? Aita Santu Leon amairugarrenak deituten deutso denpora onetako Eleizearen onerazpen edo debozinoe bera-rizkoa eta apartekoa, eta gu santututeko eginbiderik eragillena, indartsue-na eta sendoena.

Da bakarrik ontasunean guztiz osoak diranentzat? Ez, bada Jesu-Kristok emon izan dau, biurtu daitezan bide onera pekatariarik andienak.

Zein da onerazpen edo debozino orren onera eta frutua? Gu ondo alkarturik eta baturik imintea Jesu-Kristogaz, zeñegandik alderatu eta urrindu gura gaituezan gu setalariak.

Irakasleak irakatsi begi, zelan egiten dan onerazpen edo debozino ori, eta emon begiz aurrerabideak, bera zabaldutekoak diran Alkartasunen baten sartuteko, Mariaren Biotz guztiz Garbiaganako onerazpenagaz batera.

Azkenez itanduten deutsut: elduko ete da egunen bat, noz ikusiko diran guztiz eta osoro kendurik eta erbesteturik munduko dongakeriak eta gatx guztiak? Ori da eroen eta senbakoen amesa; baña egia da, mundu au izan dala, dala eta izango dala, geure pekatuakgaitik, negarrezko eta zoriogatzexzko erbeste bat.

Ondo diñozu; eta Jaunak bere Liburu Santuetan alan darakusku, esaten deus-kula, munduaren azkeneruntz, ugarituak eta geituak izanik pekatuak eta gaizta-keriak, Jaungoikoak bialduko dituzala kastigu bildurgarriagoak; onegaz dongak egingo dirala txarrago, eta Antikristoak bere jarrailla eta setalariakaz burrukari eta esetsirik arrigarritzkoena egingo deutsala Eleizeari, zeñegandik askok aldegingo dabeen; baña azkeneraño siniste santuan eta Jaungoikoagazko bakean irauntan dabeenak, orreek joango dirala zerura. Jaunak ara eroan gatzala guztiok. Alan izan dedilla.